

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elgeta



Aurkibidea

Udalerria: Elgeta

Sarrera



Debagoieneko udalerria, Gipuzkoako garaiena, Intxorta mendiaren magalean kokatua. Herri euskalduna, biztanleen %93 euskaraz mintzatzen da. Gipuzkoako udalerria izan arren, bizkaieraz egiten da berba Elgetan eta bertako hizkera Eibarkoaren eta Bergarakoaren artean dago. Izan ere, elgetarrek bi herri horiekin izan dute hartu-eman handiena urteetan zehar. Hala ere, gurutzebide izanik, ez da ahaztu behar Elorrio eta Arrasate ere mugakide dituela. Auzoei dagokienez, Bergarako Uberan eta Angiozarren ere Elgetako berbeta egiten da, XX. mendera arte Elgetako auzo izan baitziren, eta Elgetako erdigunetik gertu baitaude. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 1.105
- **Euskaldunak:** %93,4

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **55**
- Zintak: **75**
- Pasarteak: **844**
- Transkribatutakoak: **233**
- Audioak: **83**
- Bideoak: **508**

Proiektuak

- Artzantza Bergaran
- Bergarako toponimia
- Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- Eibarko ondare industrialak
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Elgetako memoria
- Ermua eta Eitzako euskara

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskaldunak hizketan
- Fondo partikularrak
- Gipuzkoako zuhaitzi motzak
- Karobiak, txondorrek eta elurzuloak
- Zura: arotzak eta etxegileak

Hizlariak

Ana Mari Alberdi Iribekanos (1933)



Angiozar auzoko Zabaleta baserrian jaioa. Gaur egun Bergarako Angiozar auzokoa izan arren, Elgetarekin izan dute lotura beti, 1928ra arte Angiozar Elgetakoa izan zen eta. Hamaika neba-arreba izan ziren, bera azken aurrekoa. Nazionalak Elgetara sartu eta bigarren egunean baserria erre zieten. Elorrioko Gazeta auzoko Barruti baserrian egon ziren eurak zortzi hilabetean. [Eugeni](#) ahizparekin batera egin zitzaion elkarriketa gerra sasoiko kontuak jasotzeko.

Eugeni Alberdi Iribekanos (1934)



Angiozar auzoko Zabaleta baserrian jaioa. Gaur egun Bergarako Angiozar auzokoa izan arren, Elgetarekin izan dute lotura beti, 1928ra arte Angiozar Elgetakoa izan zen eta. Hamaika neba-arreba izan ziren, bera gazteena. Nazionalak Elgetara sartu eta bigarren egunean baserria erre zieten. Elorrioko Gazeta auzoko Barruti baserrian egon ziren eurak zortzi hilabetean. [Ana Mari](#) ahizparekin batera egin zitzaion elkarriketa gerra sasoiko kontuak jasotzeko.

Luis Altzuaran

Bergarako toponimia jasotzeko proiektuaren barruan egin zitzaion grabazioa. Elgetako toponimiari buruzko azalpenak ematen ditu.

Sebastian Arana (1916-1999)



Goimendi auzoko Arraotz baserrian (Elgeta) jaio zen 1916an. Urte askoan eraikuntzan ibilitakoa. Esperientzia zabala zuen arotzerian, zurezko etxeak egin eta konpontzen. 1999ko Otsailaren 27an hil zen.

Antoni Arantzabal (1929)



Arantzeta auzoko Iturri baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Lau anai-arreba izan ziren: bi jaioberritan hil ziren eta anaia hospiziokoa zen. Umetatik jardun izan du baserriko lanetan, eta horien gaineko hainbat azalpen ematen ditu. Elgetako eskolaz eta bizimoduaz ere hainbat azalpen ematen ditu, hiltun bizia eta jario handikoa baita.

Rosario Arantzabal (1926)



Goimendi auzuneko Larrañaga baserrian jaio zen. Gaur egun baserria Bergarako Angiozar auzokoa izan arren, bera elgetarra da jaiotzez, 1928ra arte auzo hori Elgetakoa izan zen eta. Auzo bereko Zabaleta baserriko Julian Arantzabalekin ezkondu zen eta bertan bizi izan da beti. Elkarrizketa grabatu zenean, senarra eta [Sebastian Arantzabal koinatua](#) ere bertan ziren.



Iban Arantzabal Arrieta (1975)

Euskal filologian lizentziatua. Goiena komunikazio taldeko zuzendaria eta, besteak beste, Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko sustatzaileetakoa.

Sebastian Arantzabal Askasibar (1933-2018)



Angiozar auzoko Goimendi auzuneko Zabaleta baserrian jaioa. Gaur egun Bergarako Angiozar auzokoa izan arren, Elgetarekin izan dute lotura beti, 1928ra arte Angiozar Elgetakoa izan zen eta. Berarekin batera Julian anaia eta [Rosario koinata](#) egon ziren elkarrizketa egin zitzaionean.

Isabel Arantzabal Untzetabarrenetxea (1920-2015)



Akeliñonean jaio zen 1920an. 19 urterekin hasi zen lanean Berraondokoan, altzari lantegian. Gizonei materiala prestatzen lan egiten zuen, materiala ganbarara igo eta jaisten. Lanetik itendakoan baserriko lanak egin behar izaten zituen. 26 urterekin ezkondu eta lantegiko lana utzi zuen. Elgetako lehengo bizimoduaren gaineko azalpen ugari ematen ditu.



Arantzazu Arantzeta (1921)

1921ean jaio zen Elgetan. Batzokia zegoen euren etxea zegoen lekuan eta horregatik jarri zioten izen euskalduna. Beste lagun batzuekin batera eliza garbitzen zuen.

Angeles Arantzeta Alberdi Ermentarikua (1917-2010)



Elgetan jaio zen 1917ko Urteberri egunean. Aita bertakoa zen eta ama Angiozarkoa. 5 anai-arreba ziren. Aita errementaria zen eta hortik datorkie "Errementarikua" gaitzizena. Elkarriazketa bere ahizparekin batera egin zitzaion 2007. urtean (Maria Luisa Arantzeta, 1919). Maria Luisa eta Angeles jostunak izan dira bizi guztian.

Maria Luisa Arantzeta Alberdi Ermentarikua (1919-2010)



Elgetan jaio zen 1919an. Aita bertakoa zen eta ama Angiozarkoa. 5 anai-arreba ziren. Aita errementaria zen eta hortik datorkie "Errementarikua" gaitzizena. Elkarriazketa bere ahizparekin batera egin zitzaion 2007. urtean (Angeles Arantzeta, 1917). Maria Luisa eta Angeles jostunak izan dira bizi guztian.

Jose Luis Arantzeta Arregi (1925)



Eibarko Isasi kalean jaio zen 1925ean. 1931n, krisiaren eraginez, aita Beasaingo CAF lantegian hasi zen lanean eta Beasainera joan ziren bizitzera. Han zeudela, gurasoak gaixotu zitzaizkion. Ama berehala hil zen eta aitak ere 1935 ingurura arte erietxean egon behar izan zuen. Bitarte horretan, bera Elgetan bizi izan zen, aitaren jaiotetxean, Urrejolaegi baserrian, eta anaia nagusiagoa Aretxabaletan egon zen amaren familiarekin. Gerra garaian Bizkaia aldera ihes egin zuten. Albiste batean irakurri zuten Filipinetako emakume batek 30 umezurtz hartu nahi zituela, eta halaxe Frantziara eraman zuten emakume horren etxera. Gerra amaitu zenean, etxera itzuli zen eta 13 urte ingururekin morroi joan zen baserri batera. 15 urterekin Elgetako Modelo ebanisterian hasi zen lanean eta 1957ra arte egin zuen lan bertan. Lantegia itxi baino lehentxoago Asurtza baserriko Miren Elkororekin ezkondu zen eta, krisiaren eraginez, basoan ere lan egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko.

Miren Arantzeta Arregi (1921-2011)



Urrejolaegizarra baserrian jaio zen 1921ean. Aita, Juan Cruz Arantzeta, bertakoa zuen; ama, Andresa Arregi, Aretxabaletakoa. Ama 13 urterekin neskame bidali zuten Zaldibarrera. Mirenek ume-umetatik lanean hasi behar izan zuen: amari etxeko lanetan laguntzen, Bergarara tratura joaten eta abar. Gaztetan neskame egon zen bera ere Bergaran. Pedro Gorrotxategirekin ezkondu zen.

Begoña Arantzeta Errasti

Begarako toponimia jasotzeko proiektuaren barruan egin zitzaion grabazioa. Elgetako toponimiari buruzko azalpenak ematen ditu. Bere ama Juanarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Dionisia Aranzeta Zabala (1938)



Larrabiltxo baserrian jaio zen 1938an. Aita Larrabiltxokoa bertakoa zen eta ama Lapurdi azpikoa baserrikoa. Hamar anai-arreba ziren. Sei urterekin "Hijas de la Unión Apostólica" Elgetako moja eskolan hasi ziren. Hamabost urterekin "ZABALA HNOS." lantegian hasi zen, eskopetak "pikatzen", eta geroago anaiaren EGAN tailerrean jardun zen. Geroago, 1969. urtera arte, ahizpa bikiarekin etxean jarraitu zuen lan berean, hainbat lantegirentzako lanean. Eibarren jarraitu zuten lan berean, Bartzelonan fisioterapia ikastaroak eginaz tarteka. Fisioterapia masajista ere jardun zen. Dolores ahizpa bikiarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Dolores Aranzeta Zabala (1938)



Larrabiltxo baserrian jaio zen 1938an. Aita Larrabiltxokoa bertakoa zen eta ama Lapurdi azpikoa baserrikoa. Hamar anai-arreba ziren. Sei urterekin "Hijas de la Unnión Apostólica" Elgetako moja eskolan hasi zen. Hamazazpi urtera arte etxean egon zen, harik eta Elgetako dendan lanean hasi zen arte. Gero, 1969. urtera arte, ahizpa Dionisiak irakatsita etxean lan egin zuen, ahizparekin batera, eskopetak "pikatzen". Herriko eta kanpoko hainbat lantegirentzako jardun zuten lanean. Eibarren jarraitu zuten lan berean, Bartzelonan fisioterapia ikastaroak eginaz tarteka. Fisioterapia masajista ere jardun zen. Dionisia ahizpa bikiarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Bernarda Arizmendiarieta Ojanguren (1925-2016)



Elgetako Ojanguren baserrian jaio zen 1925. urtean. Gurasoak elgetarrak zituen, Eguarbitza baserrikoa aita eta Ojanguren baserrikoa ama. 7 anai-arreba ziren. Eskolan Elgetan ibili zen mojetan eta geroago Elgetan bertan egon zen neskame. Betidanik baserritik bizi izan da eta gerra garaian une larriak bizi izandakoa da. 28 urterekin ezkondu eta Etxebarriko Maguregi baserrira joan zen bizitzera.

Josepa Askasibar Lazkano (1918-2017)



Olaegitxiki baserrian jaio zen 1918an. Aita Olaegikoa bertakoa zuen eta ama Uriburukoa. Lau ahizpa ziren. Sei urterekin Elgetako eskolan hasi zen, herriko maistra doña Manuelarekin. Ez zuenez asko ikasten, eskola utzi eta klase partikularretan ibili zen hiru urtean. Gerra hasi zenean, hilabete pare bat etxean egon eta gero Elgetatik bidali zituzten. Zaldibarrera joan ziren bost hilabeterako. Josepa Zaldibartik Frantziara joan zen egonaldi motz baterako. Etxera itzuli zirenean etxeko gauzak eta ganadua lapurtuta, txahaltxo batekin ekin zioten gerra osteari. Olaegira ezkondu zen, Urrejolaegi baserriko Alejandro Bolinagarekin eta bederatzi seme-alaba izan zituzten.

Endrike Astola Gallastegi Beizu (1932-2023)



Aixolaerrekako Ibutx baserrian jaiotakoa. Gazterik Beizu baserrira joan zen familia guztia bizi izatera. Ezkongabea, bizi guztian artzain ibilitakoa. Hasieran Beizun bertan ibili zen, eta Azula hustu zenean, bertara joan zen; anaia Beizun geratu zen. Oso kontalari ona. Bergarako eta Elgetako ahozko ondarea jasotzeko proiektuetan hartu du parte.

Sebastiana Atorrasagasti Arana (1921-2016)



Aixolaerreka auzoko Mendrakorta baserrian jaio zen. Zazpi anai-arreba izan zituen, 6 ahizpa eta anaia, eta bera izan da denetan gazteena. Ama gaztea zela hil zitzaion eta baserrian lan ugari egitea tokatu zitzaion. 22 urterekin Larragibel auzoko Baztarrika baserrira ezkondu zen. Elkarrizketan aipatzen dituen gai nagusiak hauek dira: gartzetako lanak, eskola, jolasak eta erromeriak.

Julian Azkarraga Fuldain (1928)



Angiozar auzoko Galarraga baserrian jaio zen. Bera jaio baino hilabete batzuk lehenago Angiozar auzoa Elgetatik Bergarara pasa zen eta, beraz, bera jaio zenerako Bergaran zegoen baserria. Baina beti Elgetarako joera izan zuten, hurbiltasunagatik. Ama zuen Galarragakoa bertakoa eta aita, berriz, Elorrioko Pulla baserrikoa zuen. Gerra sasoian Elorriora alde egin zuten eta aitaren lehengusu baten etxean egon ziren zazpi hilabetez. Azkeneko hilabetea Mendraka auzoko baserri batean pasa zuten, Elorrio bonbardatzen ari zirelako. Etxera itzuli zirenean baserria apurtuta aurkitu zuten. 16-17 urterekin Eibarrera joan zen ofizioa ikastera. Txomoneko lantegian egin zituen hasierako 8-9 urte. Handik Txontako Otxandiano-Etxebarria lantegira joan zen. Han beste 4-5 urte pasa ostean ALFAra joan zen lanera. Mikrofusioan lan egin zuen erretiroa hartu arte.

Felisa Basauri Larrañaga (1928-2018)



Aixola Erreka auzoko Aixola baserrian jaio zen, aitaren bigarren ezkontzako bost seme-alabatatik gazteena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Bergarako Angiozar auzoko Errotatik etorritakoa. Sei urterekin hasi zen eskolan "Unión Apostólica"ko mojekin. Gerraostean eskola publikora joan behar izan zuen, baina mojen eskolan bukatu zituen ikasketak. Etxean egon zen ezkondu zen arte; esnea eramaten zuen egunero Eibarrera astoarekin, eta bezeroei banatu. Baserriko lan guztietan hartzen zuen parte, eta baita etxeko lanetan ere. Felisak lehengo ohitura zahar askori buruz ematen ditu azalpenak. Aixolako urtegiaren urpean geratu ziren baserriak gogoratzen ditu. Kalera ezkondu zen Zabaleta baserriko Antonio Alberdirekin. Alaba bat izan zuten.

Juanita Beretxinaga Garitaonandia (1924-2019)



Barrenengua baserrian jaio zen 1924an eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. Bederatzi anai-arreba ziren eta gaztetatik baserrian lan egin beharra tokatu zitzaion. Lehenbizi mojekin eta gero eskola nazionalean ikasi zuen. 19 urterekin Eibarren hasi zen lanean. Bi lekutan neskame egon ostean, bizikleta lantegian ibili zen lanean hiru urtean. Ezkondu zenean utzi egin zuen lantegiko lana.

Benedikta Bergaretxe Elorza (1936)



Aranzeta Zearra auzoko Zezeaga Nagusixa baserrian (gaur galduta) jaio zen, amaren lehenengo ezkontzako laugarren umea. Aita gaztetan Aramaiotik Zezeaga baserrira etorritakoa zen, eta ama Goimendi auzoko Azula baserrikoa. Benediktak bederatzi hilabete zituela galdu zuen aita. Gerra denboran artasoroan lanean ziharduela tiroz hil zuten. Eskolara zortzi urtetik hamabira joan zen, baina etxean lanik ez zegoenetan bakarrik. Baserriaren zimenduak mugitu egin ziren, eta Benediktak gogoan du hormetako harriek eteten zirenean egiten zuten zarata. Etxea konpondu zuten arte ganbaran egin zuten lo. Garia erein, landu eta jotzerainoko lan guztiak azaltzen ditu urratsez urrats. Auzolanean zenbat lan egiten ziren, eta zein giro onean, azaltzen du. Auzo bereko Bekoetxe baserriko Joxe Arozenarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten.

Miren Lorea Billar Altzuaran (1931)



Egoetxeaga baserrian jaioa. Gurasoak, biak, bertakoak ziren. Angiozarko Maximo Arantzabalekin ezkondu zen, eta bertan baserrian bizi izan ziren. 1970 inguruan kalera joan ziren, kale-baserri batera. Bertan bizi dira oraindik ere (orain etxe bihurtuta).

Lazaro Egizabal Askasibar (1927)



Uriarte auzoko Sagastitxu baserrian jaio zen, bederatzi anai-arrebatatik seigarrena. Aita bertakoa zen, eta ama auzo bereko Jalotza baserrikoa. Bost urterekin hasi zen mojen eskolan; gerrak eten egin zuen eskolatzea, eta gerraostean marianistekin jarraitu zuen. Eibarko Armeria Eskolan ere ikasi zuen. Gerra denboran lau anai-arreba gazteenak, Lazaro tartean, Txulokoa baserrian babestu ziren, baina Lazaro gauez etxera etortzen zen itaurrean egin behar zenean. Bai itaurrean egin, bai garia erein eta baita area pasatu ere, dena gauez egin behar izan zuten Elgeta fronte biren erdian zegoenean. Hainbat gerrako kontu azaltzen ditu. Beste bost lagunekin batera "Industrias Danok" lantegia sortu zuen Bergaran, eskopeta kanoi eta baskulak mekanizatzeke. Hirurogei urterekin hartu zuen erretiroa. Izuziaga Zearra auzoko Miraballes baserriko Irene Gorrotxategirekin ezkondu zen. Seme-alaba bi izan zituzten.

Migel Elgoro Ansola Asurtza (1924-2017)



Goimendi auzoko Asurtza baserrian jaio zen eta gurasoak ere auzo berekoak ziren biak. Sei anai-arrebatan bigarrenea zenez, ume-umetatik baserriko lanak egitea tokatu zitzaion. Eskolan auzoan bertan ibili zen, lehenbizi osabarekin eta geroago Valentzian neskame egondako lehengusinarekin. Baserria Elgeta partean egon arren, Eibarrerako joera zuten, baserritik hurbilago geratzen zitzaielako. Ezkongabea da eta elkarrizketan berarekin bizi diren Miren arrebak eta Jose Luis koinatuak ere hitz egiten dute tarteka.

Antoni Elkorobarrutia Gallastegi (1924)



Beizu baserrian jaio zen (Goimendi auzoan); Ojanguren baserrira ezkondu zen, Arantzeta auzora. Aita Aretxabaletakoa zuen eta ama elgetarra. Ama oso gazterik hil zen, Antoni jaio eta berehala. Bizi guztian baserrian eta baserritik bizi izan da. Umetatik gustatu izan zaio kalea, baina eskolara oso gutxi joan zen; bidea ere juxtu-juxtuan ezagutzen omen zuten.

Candido Elortza Elgoro Azula (1917-2011)



1917ko irailaren 4an jaio zen Elgetako Azula baserrian. Ezkondutakoan ere bertan bizi izan zen; eta 1971tik aurrera Elgetan, kalean, bizi izan da. Elgeta inguruko basoetan egiten zuen ikatza bere aitarekin batera. Lasarte eta Beizu baserrietako karobietan askotan jardun zuen karea egiten. Candidoren aitajauna ere ikazkintzan ibili zen.

Juan Erostarbe Olañeta (1921-2010)



Berraondokoa baserrian jaioa, zazpi anai-arrebatatik gazteena da. Gerra denboran, 1937an, familia osoa Bilbora joan zen arrebaren etxera. Han 4-5 urte egin zituen eta kontabilitatea, tailua eta marrazketa ikasi zituen akademia batean. 22 urte ingururekin Elgetara itzultzean, anaiarekin hasi zen lanean, lehenbizi "Erostarben" eta gerora "El Modelo" izena hartu zuen altzari lantegian.

Juana Errasti Arriola (1918-2008)

Lapurdi baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko proiektuaren barruan egin zitzaion grabazioa. Elgetako toponimiaren gaineko azalpenak eman zituen. Bere alaba Begoña Arantzetaekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Jose Luis Fernandez Zubimendi (1922)

Elgetako kalean bizi izandakoa, "Panaderokua" etxean, 1936ra arte. Mallabiko Gereaa auzoko Josefa Ostolaza Sarasuarekin ezkondu zen. 1937an Eibarko BH-n hasi zen lanean eta gero Alfán ibili zen. 1939tik aurrera Eibarren kokatu ziren.

Felisa Garai Aranzeta (1924)

Felisa Elgetako Ansuategi Bazterrekoa baserrian jaio zen. Aita Aretxabaletakoa zen eta ama, berriz, elgetarra.



Nazionalak Elgetara sartu baino lehenago astoa hartu eta ama eta bi anaiarekin Aixola Errekan babestu zen Felisa. 13 urte zituen orduan. Baserrian aita, 11 urteko anaia eta izeba zahar bat gelditu ziren. Elgeta jausi eta berriz ere baserrira bueltatu zirenean, aita, zazpi milizianorekin batera, fusilatuta aurkitu zuten. Anaia eta izeba txerritokian ezkutatu ziren.

Juan Irazabal Aranzabal (1922-2014)

Olaegiaundi baserrian jaio zen 1922an. Aita bertakoa zuen eta ama Ubera auzoko Agarrengoiko baserrikoa. 11 anai-arreba ziren. Elgetako eskolan ikasi zuen bost urterekin hasi eta hamahirura arte. Azula baserriko Mercedes Elorzarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. 48 urtera arte baserritik atera zuen bizimodua. Gero "ZABALA HERMANOS" eskopetagintza lantegian hasi zen eta bertan jarraitu zuen erretiratu zen arte.



Juan Ramon Irazabal Elorza

Elgetako Uriarte auzoko Olaegi baserrian jaiotakoa, Bergarako toponimia jasotzeko proiektuaren barruan egin zitzaion grabazioa. Elgetako toponimiaren gaineko azalpenak ematen ditu.

Juan Iribekanos Garaizabal (1930)



Angiozar auzoko Altamira Etxeberri baserrian jaio zen 1930ean. Aita Angiozarko "Loitti" (gaur galduta) baserrikoa zuen eta ama Elorrioko Berrio auzoko Uriarte baserrikoa. Aitak hamabi seme-alaba izan zituen bi aldiz ezkonduta. Bederatzi urte inguru zituela, gerra ostean, Angiozarko eskola nazionalen hasi zen eta pare bat urtez joan zen eskolara. 13 urterekin Elorrion joan zen armagin ikastera "Arrieta Orbe hermanos"en tailarrera. Soldaduskatik itzuli eta gero Elorrioko "Beleri" fundizioan sartu zen eta 11 urte egin zituen bertan. Handik Eibarko "Armas Bost"-era joan zen. Azken bi lan urteak Oñatiko "Lana"-n egin ondoren jubilatuta egin zen. Elorrioko Aldape auzoko Ozteta baserriko Modestarekin ezkondu eta Elgetara etorri ziren bizitzera. Hiru seme-alaba izan dituzte.

Antonio Iturricastillo Askasibar (1930-2008)



Elgetako San Juan baserrian jaioa 1930ean. Lehenengo ikasketak Elgetan egin zituen; geroago Eskoriatzako Marin auzoan, eta Donostian ere egonaldiak egin zituen. 30 urterekin eskopetagintzan hasi zen lanean. Lan-esparru desberdinak ezagutu baditu ere, baserrian aritu da etengabe eta oso azalpen interesgarriak ematen ditu. Irakurtzea asko gustatzen zaio, batez ere, historia liburuak. Aita eta aitonarengandik jaso edo entzundako kontuak ere ondo gogoratzen ditu.

Mahai-ingurua Elgetan 1



Lau elgetar, Arantxa (1921) eta Rufina (1927) Aranzeta, Monika Garai (1922-2011), Felisa Basauri (1928), eta Elgetara ezkonduetako bergarar bat, Enkarna Zeziaga (1935), elkartu ziren tertulia alai bat izateko asmoarekin. Berriketaldi honetan eskolako kontuak, gerra eta gerraostekoak, lixiba eta labaderoak, herriko pertsonaia ezagunak, Elgoibarko petrikiloa eta erremedio zaharrak ere izan zituzten mintzagai. Eibarrerako errepidea noiz egin zen gogoratzen dute, eta pena handiz, Elgetan desagertzen edo erortzeko zorian dauden baserri zaharrak aipatzen dituzte. Kaleko eta baserriko bizimoduaren ezberdintasunak nabaritzen dira tertulian, Felisa eta Monika baserritarrak baitira, eta gainontzekoak kalean jaioak. Ezkerretik eskumara: Enkarna, Rufina, Felisa, Arantxa eta Monika.

Leandro Maiztegi

Bergarako toponimia jasotzeko proiektuaren barruan egin zitzaion grabazioa. Elgetako toponimiari buruzko azalpenak ematen ditu.



Felix Ojanguren Badiola (1918)

1918ko uztailaren 28an jaio zen Elgetako Ojanguren baserrian eta bertan bizi izan da. Karea egiten askotan ikusi du eta 1943 inguruan karobi bat egin zuen etxetik hurbil.

Migel Ojanguren Irazabal (1928-2018)



Uriarte auzoko Agarre baserrian jaio zen 1928an. Aita Zezeaga baserrikoa zuen eta ama Olaegikoa. Bi seme-alaba izan zituzten. Bost urterekin Elgetako mojen eskolan hasi zen. Gerra denboran eskola barik egon ziren eta gerra ostean eskola nazionalean ibili zen hamalau urtera arte. Geroago, 19 urtera arte, gau-eskolara joan zen, herriko Jose Eljea irakasle zela. 38 urte arte baserrian egon zen; gero "Muebles Dormicoop" lantegian hasi eta jubilatatu arte jardun zuen bertan. Pilota eta idi-proba zalea izan da beti.

Imanol Olabe Zabala (1930-2018)



Ermuan jaio zen 1930ean. Aita hil zenean, Zaldibiako Jañagain auzoko Gonzelai Etxebarri baserrira joan ziren, ama eta hiru seme-alabak, aitajaun-amandreengana. Ama inude ("aña") lanetara joan zen handik Bilbora. Sei urtetatik zortzira Zaldibarrren egon ziren, ama Elgetako Abeletxe baserrira, Anastasio Aranzetarekin ezkondu zen arte. Bederatzi urte inguru zituela hasi zen Elgetako eskolan, Mala etxean zegoenean. 13 urterekin eskolatik irten eta basoan hasi zen lanean. Baserritik bizimodua atera zuen harik eta 36 urte ingururekin Elgetako "Dormicoop" kooperatiban bazkidetu zen arte. 45 urte inguru zituela baserria utzi eta kalera etorri zen familia osoa bizitzera.



Esteban Olaortua (1917)

Juanita Ormaetxea Atorrasagasti (1923-2017)

Aixola Erreka auzoko Olaikorta baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen, eta ama auzo bereko Mendrakorta baserrikoa. 10 anai-arreba izan ziren. Jaiotetxea berez Elgetako lurretan egon arren, hurbilago daude Eitzaga auzoa eta Ermua, eta harako joera zuten. Elgetako Egoarbitza baserrira ezkondu zen. Nekazaria eta esneduna zen lanbidez.

Pilar Ormaetxea Atorrasagasti (1925-2018)

Aixolaerreka auzoko Olaikorta baserrian jaio zen, hamar anai-arrebatatik hirugarrena. Aita bertakoa zen, eta ama auzo bereko Mendrakorta baserrikoa. Etxea kaletik urrun zegoenez, eskola denborarako Pilar senide batzuen etxera eramane zuten, Larrabil (Larragibel) baserrira. Etxekoek ez zuten umerik, eta Pilar bertan geratu zen ezkondu zen arte. Bost urterekin hasi zen eskolan, baina baserriko lanengatik ezin izan zuen askotan joan. Elizak euren gaztaroan zuen eraginari buruz berba egiten du. Baita emakume baserritarrek egin behar izan zituzten lan gogorren inguruan ere. Bere aitita maitagarriaren istorio batzuk ere azaltzen ditu. Uriarte auzoko Albitxu baserrira ezkondu zen, bertako Lazaro Arrazolarekin. Lau seme-alaba izan zituzten. Edurne alabak eta Joxe Ramon semeak elkarriketan parte hartu zuten.



Mikaela Sagastagutxia Etxebarria (1902)

Juana Sarasketa Gallastegi (1935)



Kantoikoa kale-baserrian jaio zen, hiru anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Goimendi auzoko Beizu baserrikoa. Gerra aurretxoan berriztapen lanak bukatu berri zegoen Kantoikoa baserria, gerran erre egin zuten, eta familia etxerik etxe ibili zen harik eta orduan hutsik zegoen Zeleta baserrian bizitzen jarri ziren arte. Han zeudela, senide eta baserritar askoren laguntasunarekin, Kantoikoa berreraiki zuten 1942 urte inguruan. Gerraostean, zortzi urteko anaiak galdutako bonba bat aurkitu zuen eta eskuetan lehertu ondoren larri zauritu zen. Aitak armagintza ikasi zuen Eibarren, eta Alfa armagintzako lantegian bazkide izan zen. Gerran Alfako Eibartik kanpoko ugazabak bidali egin zituzten eta etxean jarraitu zuen pistolagintzan. Juanak Elgetako “Unión Apostólica”ko mojekin ikasi zuen. Han bordatutako izarak oraindik gordeta omen ditu. Baserriko lanak egiteaz gain, Elgetako “Erostarbe Hnos.” altzari lantegian jardun zuen hamazazpi urterekin hasita ezkondu zen arte. Kantoikoara ezkondu zen, Bergarako San Migel baserriko Joxe Mari Mujikarekin. Seme-alaba bi izan zituzten.



Lucio Sarasketa Ojanguren (1932-2015)

Elgetan jaio zen Aranzeta auzoan. Eibarren ikasi eta lan egindakoa. Bolari amorratu eta ezaguna.

Javier Telleria Retolaza (1940)



1940an jaio zen Uriarte auzoko Sestogain baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Altube baserrikoa. Hiru seme-alaba izan zituzten. Zazpi urterekin hasi eta hamalau urtera arte ibili zen Elgetako eskolan, mojekin pare bat urte eta gero eskola nazionallean. Elgetan bukatu ostean, Zumarragan osaba baten etxean bizi zela, klase partikularrak hartu zituen hiru urtez. Zumarragan zegoela, osaba hojalateroaren laguntzaile gisa ibili zen lanean. Bestela, bere bizi guztia baserrian eman du; esne-behiekin lehenengo, eta okela-behiak eta basolanetan geroago. Elgetako azkenengo baserritarra dela esan daiteke. Idi-proba zale amorratua ere bada.

Juan Untzetabarrenetxea Askasibar Zezia (1929-2012)



Arantzeta auzoko Zezeaga baserrian jaiotakoa, Uberako mugan. Kalera ezkondu zen, eta lantegi batean egin zuen lan urte askoan. 55 urte ingururekin lan barik geratu, eta berriro baserrira itzuli zen ganadua haztera. Orain, jubilatuta, kalean bizi da berriro.



Ramon Zabala Arruabarrena Sanders (1929-2011)

Elgetako Lapurdi baserrian jaiotakoa; gerora kalean bizi izana. Eibarren ikasi eta lan egin zuen 35 urte inguru zituen arte. Horren ondoren, pentsuak saltzen jardun zen.

Pablo Zubiarrementeria Irazabal (1920-2011)

Aixola Bekoa baserrikoa.

Jose Mari Zubiarrementeria Olañeta (1947)



Aixolaerrekako Bekoerrotako baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Zabaletagainekoa zen. Hiru anai-arrebak Ermua ondoan dagoen Eitzaga auzoko (berez Zaldibar) eskolara joaten ziren, Elgeta baino hurbilago zutelako. 11 urte zituela Eibarrera joan zen ikastera, fraideetara, La Salle ikastetxera.

Juanita Zubimendi Ibarzabal (1896-1985)

Soraluzen jaioa 1896 inguruan, gaztetan joan zen Elgetara. Bertan ezkondu zen Jose Agustin Fernandezekin eta "Panaderokua" etxean bizi izan ziren. 1936ko gerrarekin Elgetatik irten eta hara eta hona ibili ondoren, 1939. urte aldera Eibarren kokatu ziren.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Txondorrek noiz eta non egiten ziren. Zuhaitzaren zati desberdinen izenak

- **Hizlaria(k)**: Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ELG-050/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Natura » Meteorologia
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Txondorrek noiz eta non egiten ziren. Zuhaitzaren zatiak.

Transkripzioa

- Hemen inguruan zenbat ikatz-toki edo egon zien zuek ikatza eitten zenduenian?
- Bueno, asko. Baso baten egurra baeuan, ba, egurra eruan biharrian bertan eitten ziran. Paraje gogorra baeuan, ba, txikixauak ein bihar. Ta paraje ona egon ezkerro, haundixaua. Gero haundixauak, bestiak hamabost egun bihar bazittuen, bestiak hillebete bihar egosten. [...] Segun zelako...
- Eta lekua bihar zan, holan, ez dakit... leku espezialen bat edo?
- Ez. Zenbat bigunaua eta samurraua eitten bai. Segun basua zelakua dan begiratu bihar.
- Beti be paraje laua topau bihar, ezta?
- Paraje laua edo... Bai, lautadia egon ezkerro... bestela lautadia ein ein bihar atxurrakin edo pikatxoiakin edo, ein ein bihar lautadia. Lautadia bihar izeten dau gero eitteko.
- Hori zeuek topatzen ziñuen? Zeuek...
- Bai. Baiña lehen eindakuak egoten zien asko ta harek aprobetxau, jeneralian, eitten zian. Ta lehen ez baeuan, barrixa ein bihar. Lautada barrixa ein bihar.
- Ta lehen eindakuak igarri eitten zien?
- Bai, ba. Lautadak han egoten dia ta gero, ha tapauta eukittako lurrak eta [...] ta harek kendu albora ta ha lurra hobia izeten zan, hola, bringa edo pago-adar bringauta... Oin, enborra danian, enborrak bihar dau zohixa.
- Enborra zer da?
- Ba, pago-burua. Pago-burua edo zerian, ba, burua edo... [haritza] edo dana dala. Ha buruko zera, ba, enborra esaten jako. Zerari be bai, gerrixari be enborra esaten jako. Ta bestia, berriz, adarra. Ta adarra bringauta eitten da. Bringauta... bringau barik be bai, baiña bringauta iketza hobia urtetzen dau.

1.2. Egurraren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ELG-050/003
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:04:35. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Egurra brintzatu.

Transkripzioa

- Bringatzia zer da? Erdittik...?
- Erdittik brintzau. Ebai barik... Hau, konparaziñuan, ebai hau da, ebatia. Baiña bestia, hontara, erdittik. Zerakin, kuñiakin [brintzatzia] moduan.
- A! Luzetara?
- Luzetara. Ta honek beronek esaten dau nehikua. Zela da... Ba, honek ochenta inguru eukiko dabe gutxi gorabehera, ba zerian... Ta zenbat...

1.3. Txondorraren inguruko azalpena I

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/004
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Txondorrak sua nola hartzen duen; punta zerez tapatzen den. Lexikoa.

Transkripzioa

- Ta horrek, hor sartzen dana, ta hemen sartzen dana, igual da, hor sua sartzen da. Ta hori lehenengo sartzen danian, sua lehenengo bota ta gero egurra xehetuta bota bihar izeten jako, ba, berak indarra hartu deitzen. Ta indarra hartzeko, puntia zabalik laga pixkaten. Gero indarra hartzen dabenian, ba, puntia tapau. Ta gero bera juaten da, ba, albotara su hartzen.

- Puntia zerekin tapatzen dozue?

- Zohi bat bota ta gero lurrakin tapau. Ta pago-adarrakin edo bringiakin danian, zerian... gero adakixa, [holan], mehia xehetu ta bittarte danak hartzen jakoz azalari. Ta gero bota orbela. Orbel zaharra, bustixa, hobia izeten da ondio. Orbela ta gero gaiñian, ba, zera, iruixa esaten jakon. Lehenao [txondorrandakua] bada, iruixa esaten jako, lehenengo lur erria. Harekin tapau. Ta enborrakin danian, ba, zohixa.

1.4. Txondorraren inguruko azalpena II

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:06:04. **Bukatu:** 00:07:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Lexikoa. Txondorraren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Zer da zohixa?

- Zohixa da, ba, basuan be, ba, bedarra edo zelaixa daon lekuan, ein leike zohixa sendua be bai ta pareta moduan ein. Ta bestela, berriz, zerian, zohixa mehia ipini ta mehe-mehe azala ebaitta ta gero harekin, ba, bata bestian geiñian hontara ipintzen da, ezta? Dana saillian. Ta gero lurra bota geiñian, ta lurrakin hartu bittarte danak. Bi formatara eitten da.

- Baiña bera, zohixa, zer da zohixa bera?

- Zohixa, ba, lurra ta bedarra. Bai. Zelai bat, ezta? Hau zelai bat da. Ba, atxurra hartzen da ta, ba, hamen, mahaixa sendoera inguru edo mehiao edo... zerian... zera etaratzen da. Bedarra zerraua bada, ba, zohixak be

haundixauak etara leikez. Oin, zera, samur samarra bada, ba, apurtu eitten da zabala etara ezkerre ta, ba, txikitxuauak. Ta harekin, bata bestian segidan-segidan, ba, tapau. Ta gero, gero lurrakin gaiña tapau. Ta hola enborrekin edo buruekin eindako [txondor] haundixa zanian, [ba eitten...] hola, tamaiño hontako zohi haundixakin pareta ein. Ta gero ha egosixaz, mermau eitten dau; mermau, ba, bajau eitten da. Ta mazuekin, mazo haundixak, mazuekin [... huekua bete], [erretira...], bajatzen-bajatzan. Bestela, berriz, barruan zenbat hueko gehixao ta, ba, orduan suak gehixao erre eitten dau. Zenbat hueko gutxiao ta hobe.

1.5. Txondorraren jabetza

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/007
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:08:32. **Bukatu:** 00:09:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondor-zuloen jabeak. Txondorrek zergatik egiten ziren.

Transkripzioa

- Txondor-zulua zeinena izaten zan, basarritar batena, udaletxiana... zeinena izaten zan?
- Txondor-zulua, ba, bakoitza bere... zein basotan eitten dan, basuana beria.
- Ta aiuntamentuak-eta ez zaban emoten, orduan, hemen...
- Ez, baiña hemen terreno partikularrak zela dian...
- Beti zian partikularrak?
- Bai, partikularrak, ba... Oin, aiuntamentuan saillak badia, ba, bertan, basuan bertan. Eske egurra [puntotara] eruatia gehixao kostatzen zan ha zulua eittia, lautadia eittia baiño ta. Ta gero lurra edo zohixa, ba, bertan basuan etara [be].
- Orduan, beti basarritar bakoitzak eitten eban, eta ez zan egoten holan beste txondor...

1.6. Txondorrek nola egiten ziren

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/013
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:12:49. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondorra egiteko sasoia. Zaintza lana.

Transkripzioa

- Eta sasoia, zein izaten zan sasoi aproposena txondorra eitteko?

- Txendorra eitteko sasoi onena udia ei zan, baiña ha urte guztian ibiltzen zan. Udia, ba, denpora onak eitten dittualako, baiña ostian, txendorra eitteko ez dao denporiakin... Udia, ba...

- Bardin zan ordun eurixe zein edurre ein; bardin zan?

- Bai, bai. Hari segidu ein bihar jako. Ta harek ez dau eukitzen... gaba izen arren be hari... Zulatu bada, ba, [zera bihar izaten dau harek], hasten da sua darixola behetik gora ta hari lagatzen bajako erre eitten da, ez egosi. Ta ha zulatzen danian, hari ein bihar jako kendu, ingurua garbittu puskat ta gero bete egurrakin ta tapau atzera [ein bihar da]. Bere martxan, haintxe zaindu bihar.

1.7. Txondorra egiteko egur egokiena

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/014
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:13:39. **Bukatu:** 00:14:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Txondorra egiteko egur egokiena.

Transkripzioa

- Egurra bustixa dauanian ikatz hobia emoten dau?

- Egur sikua iketza hobia eitteko. Oin, egur berdiakin iketza hobia. Berdiakin.

- Baiña kantidadade gutxiao, igual, ezta?

- Ez, egur sanuaua izeten da ta.

1.8. Egurraren prestaketa

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/016
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:14:41. **Bukatu:** 00:15:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Egurraren prestaketa.

Transkripzioa

- Eta bertan inguruan preparatzen zenduen egurra ya txondorra ein baiño lehen?

- Bai. Ba, egurra dauan tokixan txondorra bertan ein.

- Zuek zenbaten artian eitten ziñuen txondorra?

- Iketza?
 - Bai.
 - Ba, gu, aittitta ta aitta ta neu be igual ibiltzen giñan. Bai, geu, ostian...
 - Etxerako, ezta?
 - Etxerako.
 - Etxerako izaten zan...
 - Guk gero eitten giñuanian eitten giñuan, ba, neguan-ta preparau egurra ta gero, arbixa sartutakuan, udatzenian, ba, orduaintxe hillabete inguruan orduaintxe ein iketza. Neguan preparauta jarri ta gero udatzenian ein. Hori da, ba, etxeko lan bittartia aprobetxau.

1.9. Gizon-emakumeen arteko lan-banaketa

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/017
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 00:15:24. **Bukatu:** 00:15:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Gizon-emakumeen arteko lan-banaketa.

Transkripzioa

- Baiña aurretik aitta ta aittitta ibiltzen zian beti urterik gehixena-- dana ez baiña gehixen dana bai-- mendixan, edo arbolak botatzen edo ikazgiñan. Ta [labraixe] andrak ibiltzen eben. Soloko lanak-eta andrak. Ta harek basuan.

1.10. Zuhaitzak botatzeko garai egokia

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/018
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:15:43. **Bukatu:** 00:16:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Zuhaitzak noiz bota behar diren; gai horren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Egurra botatzen zanian zer eitten zan, egur danak botatzen zien edo entresakia eitten zan ala zelan eitten zan hori? Zelan zan hori biharrori?
 - Bueno, jeneralian, hola, ipurditik botatzen bazan, [matarraza] izeten zan. Ta guk igual hartzen giñuan...
 - Zer da [matarraza]?

- Matarraza, ba, danak saillian botatzia. Ta ostian, igual pagadi bat bazan, ba, iñausi esaten jakon, adarrak kontau, zenbat adar edo zer daren, ba, tanto. Haixe. Egurra erosi ta gero noberak preparau ta noberak ein.

- Ta iñausi, orduan, adarrak hartzia bakarrik edo, bueno, adarrak moztia...?

- Bai, adarrak moztia. Adarrak moztu ta haretxekin ein. Guk neguan preparau eitten giñuan, negu-udabarrizan, ta gero udatzenian ein.

1.11. Zuhaitzak moztearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/021
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:18:07. **Bukatu:** 00:19:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Enborra zelan mozten zen. Lexikoa.

Transkripzioa

- Tronkuak, txendor barrura botatzeko... kanpuan ipintzeko tronkuak, markau edo eitten zien zenbat zatittan ebai bihar zien?

- Ez, ez. Hori noberak ikusi bihar eban ze tamaiñutan ipini. Oin, zenbat pusketa gehixao, hobeto eitten zan; ba, gero hueko gutxiao, hobeto kargau eitten zan. Baiña zatitzen lan asko.

- Sekula ez ziñuen zatitzen, orduan?

- Zatittu? Bai. Baiña besangak eta danak, ba, buruak, paguan buruak eta, harek, ba, harek besanga senduak eukitzen zittuen harek...

- Zer dira besangak?

- Besangak, ba, lehen adarra jotako... adar moduko harek zaharrak. Adarra gora dauana barik adarra jo ta, ba, gehittuaz-gehittuaz juaten da. Pago zaharrak eta eukitzen dittue ba honek adar... bueno, adar ondo... honek senduok? Horretxek dia besangak.

1.12. Zuhaitzak moztearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/022
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:19:02. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Enborra zatitu, txikitu; brintzatu. Lexikoa.

Transkripzioa

- Eta zatitzen ziñuenian zela esaten ziñuen, zatittu?
- Bai, zatittu.
- Ala txikittu edo...
- Edo txikittu. Txikittu.
- Holan luzetara mozten zanian edo... bueno, moztu ez, ebaten zanian, horri zela esaten jakon?
- Hori bringau.
- Ta zabaletara, zatittu?
- Ta bestetara zatittu. Bringau, brintzau. Bringau, ba, brintza, brintzadia... Handik dator.

1.13. Txondorak; egurraren prestaketa lanak

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/023
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Txondor-zulua. Lexikoa. Enborra mozteari zelan esaten zitzaion.

Transkripzioa

- Txondorra eitteko lekuari zela esaten jako? Lehen esan dozu...
- Txondor-zulua edo ikazti-zulua. Ikazti-zulua.
- Bixetara esaten da?
- Bai, bixetara.
- Zuk gehixao zein erabiltzen dozu?
- Ba, bixetara ibiltzen [...]
- Bixetara?
- Bai.
- Tronguak moztuari kortiau edo...?
- Kortiau. Kortiau. Txikittu, kortiau. Bai, ebai. [Esan gura dot], kortiau, ebai.
- Zuk hori esaten dozu, ezta?
- Bai.

1.14. Lan-tresnak

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/024
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Lan-tresnak. Erabilpena. Lexikoa.

Transkripzioa

- Eta gero bazeuan halako kuñan bat? Egurrezko kuñarik edo erabiltzen zenduen?
- Bai, egurrezkuakin ibiltzen giñan.
- Egurrezkua?
- Egurrezkua bai.
- Eta zetako?
- Ba, [...]aizkoriakin [gebizenian]-ta egurrezko kuña ein ta gero ha estutzen bazan be, hola, [zerian] ebaten bazan, estutzen bazan be, ha sartu ta lekua eraitteko. Ta aizkoriakin brintzatzen bazan be, ba, [zerian], aizkoriakin eindakua geiztua badao, kuña sartu ta harekin fuerza gehixao. Burdiñezkuak, ba, gogorragua da izan, baiña burdiñezkua orduan, burdiñezkua baiño egurrezkua gehixao usatzen zan ta...
- Errezaua zan eukitzeko, ezta? Bueno, norberak eitteko edo...
- Bai. Ba, noberak basuan ein be eitten eban ta...
- Kuña horrek bazeuken izenen bat edo?
- Zirixa. Ta burdiñazkua dana burdin-zirixa.
- Eta mazuak? Lehen esan dozu egurrezko mazuak...
- Egurrezko mazuak.
- Horrek bazeuken bestelako izenik? Ez?
- Gu mazua [zertzen] giñan ta...
- Burdiñezkorik erabiltzen zenduen, burdiñezko mazorik, zeozetarako?
- Bueno, ba, burdiñezko zera bazan, zirixak baziran, burdiñezko mazua be bai. Mazua, maillua. Bat.
- Maillua. Zuk maillua esaten [dozu]...
- Maillua. Erderazko zera da, ezta? Maillua ba...
- Baiña zuk esaten dozu maillua, ezta?
- Maillua, mazua... Bixetara zertzen da.
- Bardin da mazua egurrezkua edo burdiñezkua ala maillua bakarrik burdiñezkua?
- Burdiñezkuari bakarrik esaten jakon maillua.
- Eta egurrezkuari?
- Egurrezkuari mazua.
- Hori da.

1.15. Ikazkinaren lan-baldintzak

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/026
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:22:29. **Bukatu:** 00:24:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriri lotutako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
Euskara » Lexikoa

- **Laburpena:** Ikazkinak txondorraren alboan egiten zituen aterpeak. Lexikoa. Etxegintza; etxearen egitura. Txabolak egiteko erabiltzen zituzten materialeak.

Transkripzioa

- Eta han txondorran inguruan edo, bueno, edo txondorra eitteko lekuan inguruan edo, txabolarik edo eitten zenduen? Zeozelako txabolarik...
- Bai, eitten giñuan, ta zohizko txabolak, edo bestela garuakin be igual. Bueno, garo sasoian bazan, ba, garuakin be ya ondo tolostuta ipini ezker, ba, eurixa ondo gordetzen eban harek. Ta ya ondo, hortara... Hontara ipini egurrak, ba, goi-hagia ta hola egurrak ipini ta gero...
- Zer da hori goi... Ze esan dozu?
- Goi-hagia, ba, etxiak be gaillorra esaten jako, han, ba, habe haundixak eukitzen dittue. Txabolan be, ba, halako egur bat nehikua izetan zan, ba, goi-hagia. Ta gero alde bittatik haren geiñian deskantsau. Lurrian ipiñi ta hontara. Ta hiru aldiak tapau ta alde bat zabalik nobera sartu ta urten eitteko.
- Ta goi-hagia nun apoiatzen zan ba?
- Ba, [bi urkillan] geiñian sartu.
- Ta urkillak?
- Edo... bi edo... Hemen bi urkilla hontara ipintzen badia, ta beste aldian zerian, ba, lau urkilla ipini ta haren gaiñian. Bikin be eitten zan, baiña lau [... izan] ezker hobe.
- Eta gero teillatua?
- Ze, urkillak ipini ezker josi biharrik ez zan egoten. Harek, ba, hola katiatzen dira ta bestia haren geiñera.
- Eta teillatua zerekin eitten zan?
- Ba, zohixakin edo bestela garua edo...
- Eta zohixan azpitan ze jartzen zan?
- Adar batzuk. Adarrak edo zera ipini ta...

1.16. Ikazkinak lanerako erabiltzen zituen arropak

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkor, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:27:57. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Lanerako erabiltzen zuten arropa: abarkak, tunika, artilezko galtzerdiak...

Transkripzioa

- Eta basora juten ziñienien ze jantzi edo ze eruaten zenduen?
- Jantzi normala, zerian. Ostian, abarkak... Ta ni mutikua nitzanian ta, [zerian], automobillan erruberekin eindako gomazko abarkak ibiltzen giñuzen. Puntan halako partxe zer bat eukitzen eban ta... Hemen Elgetan batek eitten zittuan. Ta hemen Basalgon be bai. Horrek ya abarka asko eitten eban.
- Eta galtzak zelakuek?

- Galtzak ardilanazkuak.
 - Etxian eindakuak, ez?
 - Etxian eindakuak. Ondio eitten dittuu, nik lania ta horrek galtzak.
 - Eta gero, jakia edo...
 - Orduan tunikia [erabiltzen zan]. Tunikia, ba, gizonak... Oin tunikarik ezautu be ez da eitten. Baiña tunikia... [ta] aurrian korapilo bat eta [hori ibiltzen zan].
 - Ta ze tela zan?
 - Tela, hau... mekaniko... hortaiko zera [eitten zan], baso-lanian ibiltzen zana.
 - Baltza? Edo azula?
 - Ez, ez, azula.
 - Eta eurixa eitten zebanian?
 - Zakua burutik! Orduan ez zan besterik egoten ta. Guardasol zaharren bat egoten bazan behin edo behin hara-hona juateko edo, baiña ostian zakua burutik. Ta lana eitteko, zakua burutik egon arren lana ondo eitten da. Ta guardasolakin ezin leike ein.
 - Zakua burutik. Eta txapela be bai?
 - Txapela be bai.
 - Oseake, txapelan gaiñetik zakua?
 - Zakua. Ni eskolara hasi nitzanian be zakua burutik [naola] etorten nitzan.
 - Ta nun lagatzen zendun gero zakua?
 - Hemen [Uruburun] hor bazkaltzen giñuan, ba, ta hortxe.
 - Basora juaten ziñenian, behar ziñuezen gauzak, jatekua ta erropan bat edo hori, dana paketen bat einda edo eruaten ziñuen?
 - Bai. Sartu zakuan, pakete...
 - A! Zaku baten sartuta...
 - Zaku baten sartu ta haintxe. Hartu bizkarrian ta... Baiña erropa askon biharrik ez giñuan eukitzen guk, egunero etxera juaten giñan ta. Oin, zerien ibiltzen zienian, ba, aste guztia [hortara] juanda ibiltzen zianian, ba, orduan be zakuan hartuta eruan bihar.

1.17. Egurraren prestaketaren inguruan zenbait azalpen

- **Hizlaria(k)**: Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ELG-050/033
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:37:15. **Bukatu**: 00:38:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
 Euskara » Lexikoa
 Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Egurra txikitzeo erabiltzen zen enberrari zelan deitzen zitzaion; egur zati desberdinen inguruko lexikoa.

Transkripzioa

- Ta gero, egurrak txikitzeo erabiltzen zan, holan, tronkun bat edo, lurrian ipinita haren gaiñian txikitzeo edo?
 - Bai, hau, egur mehia ta zehetzeo bai.
 - Ta zer zan hori? Tronko horrek edo ze izen zeukan?
 - Ba, zerian... Puntia zorroztu ta sartzen zan zer bat, egur bat. Egur... hau

tamaiñoko sendua. Sartu ta gero [haren] gaiñian aizkoriakin zatitzeko.

- Ta zelan esaten jakon horri?
- Trangela edo... Trangela.
- Beti izaten zan lurrian sartutakua?
- Bai, edo bestela, ba, [zerian], pagozko enbor zati bat edo, lurrian ipinita, haren gaiñian bestela.
- Eta egur txikixak ze izen dauke, txikitzen zien egur txikixak?
- Arakixa.
- Ta ezpalak zeintzuk die?
- Ezpala, ba, aizkoriakin kentzen dan... han egurra txikitzerakuan, han urtetzen daben zerak harek ezpalak dia.
- Tronkuak bueltan daukan dana?
- Ez. Aizkoriakin trongua hola ebaten, kentzerakuan ha egurra, ha da ezpala. Aizkolarixak be han egurra ebaterakuan han urtetzen daben egurrak, han xehetzen dana, ha ezpala da. Enborra be aizkoriakin ezpaldu ein leike, zatittu. Ezpaldu.

1.18. Txondorraren egitura

- **Hizlaria(k)**: Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ELG-050/034
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:38:45. **Bukatu**: 00:40:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Txondorraren egitura eta harekin zerikusia duen lexikoa.

Transkripzioa

- Gero txondorra eitten zanian lehelengo ipintzen zien egurrek, gero haren gaiñian ipintzen zien beste batzuk... Izenen bat badauke behian ipintzen zienak edo? Hori, bi tronko ipintzen zien aspa moduen edo, ezta?

- Bai, lehenengo. Ta gero haren kontran. Ta egurrak be igual lehenengo ta gero bueltan-bueltan kargatzen zan ha.

- Zilla edo esaten jakon zezeri?

- Zilla, esan gura dau erdixa. Erdiko zera, ba, zilla.

- Hola esaten otsazuen zuek? Bai?

- Bai, erdiko zilla. Hori erdiko zuluori, hau, erdiko zilla.

- Eta gero barrutik lagatzen dan hueko hori gaiñekalderarte? Hori? Zelan esaten jako horri?

- Hau... Bete-lana eitteko edo... Bete-lana eitteko zulu.

- Ta hori zer da su-tokixa edo...?

- Bai, su-tokixa. Su-tokixa. Hor sua bota goittik behera ta, ba, hemen sua [izateko] hortik hasten da indarra hartzen. Ta gero lagundu eitten jako hortik ta egur xehia bota ta indarra [sartzen da]. Ta gero harik eta egurra, albotara su [hartzen dabenian], hori erre eitten da bizkorrao, ta gero berriro hori husten danian, ba, atzera bete. Beorrek eskatzen dau. Erretzen danian, ba, zulatu eitten da, ta orduan, ba, bete atzera egurrakin. Egurra xehetuta egoten da egurra ta bete.

- Su-tokixa orduan...

1.19. Ikazkintzaren nondik-norakoak I

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/035
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:40:18. **Bukatu:** 00:43:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Langintzaren inguruko lexikoa: bigurrak; bringak zer diren azaltzen du. Ikazkintzaren nondik-norakoak.

Transkripzioa

- Eta zuk ezagutzen dozuz, txantilloiak edo holako izenen bat?
- Txantilloi... ez dot horren zerik [eitten]...
- Ez? Ta bihurriek edo...?
- Bihurrixa da, ba, izeten da edo urritxa edo haritza edo... Urritxa, ba, bihurtu, ta hari eitten jako [sokian han puntan] kiribiztia moduan. [Ta ha da], ba, gero buelta hartu ta han zulotik sartu. Lehen esan dot, adarra lotzia moduan. Hau bueltan hartu ta gero hankiakin estutu ta han bihurtu ta katiata lagatzen da. Bihurrixa, bihurrixa. Haretzek dira bihurrak.
- Eta berdingak? Berdingak edo bi-berdingak edo...
- Berdingak, ba, bringak. Bringak.
- A! Bringak. Ta horrek, bringak, nun jartzen zien?
- Ba, bringekin txendorra zertzen, ya [berakin eitten]...
- Buelta guztian, honek die bringak?
- Bai, bringak dia honek. Gero honeri azala hartzen jakue, ba, gero zehetutako mehiakin. Azala, ba, zertzeko, ba, zikiñik barrura pasau ez dein, huekua betetzeko.
- Ta horren gaiñian ipintzen zan hori...
- Ba, bringekin eindakua bazan, ba, orbela edo...
- Orbela zeri esaten dotsazu?
- Orbela, ba, arbola-orrixa. Arbola-orrixa. Ta ha be igarra barik bustixa bada, hobe.
- Zegaittik da hobia bustixa?
- Ba, igarra suak erre eitten dabelako. Ta gero, ba, bustixa sartutakuan lurrakin tapau, ba, harek ya hobeto konserbatzen dau.
- Eta gero horri zohixa jartzen jako gaiñian, orbelari, ala ez?
- Bueno, edo... iruixa esaten jakona, lehen eindakua bada, irudixa be bai, edo bestela zohixa. Segun ze tamaiñotako egurra dan. Oin, enberrari ta, ba, zohixa ipini bihar izeten jako lehenengo. Ta bestieri, ba, orbela ipini ezkerro, bota leike iruixa edo lurra ta harekin tapau. Oin, barren aldian, ba, refuerzo gehixao eukitziarren, daneri zohixa ipintzen jakue pixkat.
- Eusteko edo, ezta?
- Eusteko.
- Eta sua zelan botatzen zan barrure? Ze botatzen zendun sue...?
- Paliakin edo zerian... Lehelengo brasia ein kanpuan...
- Zelan eitten zenduen brasia?
- Brasia, ba, egurrakin. Ein brasia zerian ta gero ha brasia, ba, brasia edo sua darixola botatzen zan zulotik behera. Ta gero, ba, berak handik, -- tximinixian objetua eitten eban ba-- ta berak handik indarra hartzen eban.

Su asko bota biharrik be ez zeban eukitzen.

- Arin hartzen eban?

- Bai, aguro hartzen eban.

- Txendorrak badauka labarik?

- Labia, ba, hauxe barru hau.

- Baiña esaten jako labia?

- Labia ez. Hori ya... hortik emoten jakon sua ta gero bera eitten-eitten juaten zan. Ha, labia, dana izengo da barrua! Ha da, sua gorri-gorri, suak pasauta egoten da egurra dana ta. Ta suak pasauta ez dauana iketza ez da izaten, ha egur geratzen da.

1.20. Ikazkintzaren nondik-norakoak II

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/036
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:43:58. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikazkintzaren nondik-norakoak.

Transkripzioa

- Gero eitten jakozen zuluak, ba, arnasia hartzeko edo?

- Arnasia hartzeko horri, halako makilla edo punta-zorrotz batekin, harekin eitten ziran. Nora komeni zan eittia... Ba, lehelengo goiko puntatik hasten zan ta gero, goittik be iketza eñaz juaten zan ba? [Ta juaten da]. Ta hantxe. Gero, ba, nun komeni jakon, ta atzenian barren-barrenian. Hori da, ba, suak arnasia hartu ta hara korridu deixen. Bestela denpora asko bihar izeten dau ta.

- Ta zulo horri zela esaten detsazue?

- Ziri-zulua. Baiña ez da, hola, zulo haundixa ez da bihar, bakarrik arnasia hartzeko beste. Lartxo badauka, ba, "tak", tapau pixkat ta handik keia pixkat urtetzen dabela...

- Nun eitten jakozen, goiko partien ala beheko partien gehixao...?

- Lehelengo goixan hasitta; gero eta beherao, gero ta beherao...

- Eta goiko zuluak eta beheko zuluak izen berdiña zeuken?

- Izen berdiña.

1.21. Ikazkintzaren nondik-norakoak III

- **Hizlaria(k):** Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/037
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:46:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikatza eginda dagoen zelan igarri.

Transkripzioa

- Eta ikatza einda dauanian zelan igartzen da txendorrian?
- [...] bera han mermatzen-mermatzen juaten da, ta gero atzenian, ba, keia be gastau eitten da. Egurra erretakuan keia be gastau eitten da.
- Ta keia gastatzen danian ya beti dao einda?
- Beti einda... Norberantzako igual puntan bat edo zerian, baiña han noberak keia nun daukan edo, mermau barik nun dauan, hara lagundu bihar. Ziri-zuluekin hara lagundu bihar.
- Orduan zuluak tapau eitten dia ala... ?
- Harek zulo [formalak] be ez dia, bakarrik arnasia hartzeko zerak bakarrik, arnasia hartzeko. Pixka-pixkat zertu ta, ba, aber han... gero lur pixkat atzera zertu ta keiak urten deixela bakarrik, arnasia hartu.
- Zuek esaten zenduen holako, egurra ya iketza egitten zanian, [eskarpi] edo holako izenen bat? Hori... egurra ya ez zan egurra, ikatza zan.
- Bai, gero ikatza.
- Txondorra txikitzen zanian, zelan esaten jako?
- Ba, ha iketza eñaz ha mermatzen egoten da, beti bajatzen-bajatzen...
- Ta horrek izenen bat bazeukan?
- Mermau. Mermau. Ta goittik behera, goittik behera zertzen ta gero atzenian barrena geratzen jako. Goittik behera ta erdittik eñaz-eñaz, honek, baztarreko eskiñak atzeneko eitten dia.

1.22. Ikazkintzaren nondik-norakoak IV

- **Hizlaria(k)**: Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ELG-050/038
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:46:08. **Bukatu**: 00:48:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Ikatza eginda dagoenean zelan atera behar den. Prozesua.

Transkripzioa

- Zeiñek ataratzen zeban ikatza?
- Ikatza, ba, bertan ikatza eitten dabillenak.
- Bai, edozeiñek, ezta?
- [Horixe, edozeiñek]...
- Eta atartzeko zer eitten zan, dana apurtu edo zer eitten zan?
- Ba, gero hasi, goittik behera hasi ta harek, lehen esan dotena, kakuekin... Harekin zertu ta gero hortz-bikua be igual, honek hortz-biko... burdiñazko hortz-bikua [...] Ta halakuekin be igual ta, goittik behera zati bat zerian etara ta lantzian zati bat. Batera etara ezkerro sua igual gehixao egoten zan ta lehenengo egunian, ba, hola, pusketa bat etara. Ta gero, ba, hurrengo egunerako ha hoztuta egoten zan [handik beherakua gehixao]. Ta gero, ba, dana batera barik, zatika.
- Ta zenbat denpora bihar zan hori danori etartzeko?
- Bo, etartzeko, segun zenbateraiñokua dan. Ba, egun baten etaratzen badotsazu hogeta hamar zaku, ba, hurrengo egunian beste berrogei edo. [Dana] zatika. Ta zenbat bizkorrao [dabillen], sua igual gehixao eukitzen dau ta, hola, pixkat etara ezkerro, ba, gero sua dana gastauta egoten da ba. Ta geiñian lehenengo hozteko eitten jako, ba, lurra, geiñian daukan lurra,

dana kendu ta konponduta ipini, ta gero ha lur sikua dana bota geiñian danian. Ta gero abar batekin igurtzi, eskoba bat igurtzia moduan. Igurtzi. Ta gero zulo dana beteta geratzen da. Ta zela arnasarik ez daben hartzen, sua dana emetau eitten da. Ta gero etaratzera txingar batzuk urtetzen dabe, ezta? Ta gero harek nobera ez badabil begira edo zerian, iketzian barrura zabaltzen da ha txingarra. Segiduan hartzen dau indarra! Ta nobera ibili bihar argi. Batzuk ura bota ta bota [...] zerian, baiña ura barik ostian eitten da hobe.

- Eskuaria edo erabiltzen zan zeozetarako?

- Bai, eskubaria baiña hortz haundixekin e! Hori iketza etaratzeko. Bueno, etara-etara [besterik edo], ha zabaltzeko eta, eskubariakin.

- Egurrezkua?

- Egurrezkua. Baiña, hola, hortz haundixekin.

1.23. Salmentarako ikatza

- **Hizlaria(k):** Elortza Eloro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ELG-050/041
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:49:58. **Bukatu:** 00:53:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Saltzeko erabiltzen zen ikatza eta saldu ezin zitekeena. Saltzera zelan eramaten zen. Saltzeko neurriak: pisua; zakuak.

Transkripzioa

- Ta gero zera be, ikatz hori xehe-xehiori be geratzen zan han, baiña aprobeztatzeko baiño xehiaua izeten zan. Ha atzenian, hola, etxerako ta bai apartatzen zan. Uretan edo pasau ta iketza [ariña] geratzen da. Baiña saltzeko ta ez zeban eukitzen [inportarik] be, hain xehia... Oin, etxerako aprobeztatzeko, ba, eitten giñuan hori.

- Zegaittik? Txikixa zalako?

- Txikixa. Ta lur nahastia eukitzen eban ta uretan pasau bihar. Lurra, ba, uretan behera juaten da ta iketza goixan geratu.

- Ze izen zeukan horrek, txiki horrek? Izenen bat bazeukan?

- Bai, iketz-xehia edo. Baiña hori saltzeko ta ez giñuan ibiltzen. Bueno, dana be igual izengo zan banastakada bat edo bi edo... Hori atzeneko hondarreko zera izeten zan ta...

- Banastak erabiltzen zenduezan...

- Bai, banastak be bai.

- Eta zakurik?

- Zakuak bai. Ba, zakutan eruaten zan ta.

- Zakutan. Zelakuak zien zakuak?

- Geuk iketzak ein ta zerak, gero atzenengo urtetan bai neuk be eruaten neban, baiña hor, hementxe Lezetakua izaten giñuan... Harek bajaran hamasei zaku eruaten zittuen. Baiña zakuak izaten ziran, ba, harek hogeta hamabost bat kilo inguru edo hola [ipintzen] zittuen.

- Eta zakuak nun eruten zittuen, burdixetan edo?

- Burdixetan.

- Zakuak betetzen ibiltzen zanak bazeukan izenen bat?

- Ikazgiña izeten zan. [...] geu izeten giñan.
 - Eta laguntzen be ibiliko zan baten bat, ezta?
 - Laguntzen be bai. Bai, ba, laguna derrigor bihar izeten zan zakua betetzeko ta.
 - Zakuak, honek, oinguen modukuak zian zakuak?
 - Zakuak...
 - Zelakuak zien?
 - Bo, oin zaku gutxi dao [...], baiña zaku... bastante zaku haundixak e. Ya horrek eren neurrixa eukitzen eben; lehenao pentsua ta etortzen zan horrekin zerian, ta horixe, hogeta hamabost bat kilo inguru eukitzen eben. Bueno, ura bota ezkerro berrogei be bai, baiña sikuan ibili ezkerro, hogeta hamabost kilo, horixe [inguruan].
 - Osea, hori zan orduan ikatza neurtzeko modua, ezta?
 - Bai. Eibarren-ta egoten ziran kajoia, ba, igual iketzakin juaten zan baten ta, juaten zan bat hortako kargua eukana. Ta berak apartatzen eban zaku bat eta bota aber, falta badau, ba, ya protestia edo zerian. Ta gure aittittari tokau jakon baten. Ta falta dabela ta... "Falta? Nik sobre be etarako neuke horrekin", esan ei otsan ta "Zela, ba?", ta hustu ta halako igitai batekin edo "da!" brintzauta ipini ei eban ta gero sobra. Ta hor be taktikia. Zati haundixan, ba, zerian, leku txikixauan sartuta, brintzauta ipini ebanian, gero sobra. Ta horrek, ba, jeneralian, orduan denporan [izan] zan neurriko zakua. Baiña gero, ba, gero, pisura. Baiña hartu bihar dabenandako pisura txarra zan. Hemen, orduan Leon esaten jakon, oin be da Olaberria, horrek be ibili eben [gasoginuakin] autobusa ta iketzik onena guria esaten oskun, baiña harek be pisura ta hasi zan lehenengo, baiña pisurakuan ura botatzen badotse, harek, ura txarra da [gasogenuandako]. Ta guk, berriz, zela eitten giñuan zakuko, ba, guk ez gontsan urik eta bape botatzen, ta ya urik bota baekua, asko iketz hobia.

1.24. 1921ean jaiotakoa Elgetako Urrejolaegizarra baserrian

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/001
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Biografia. 1921ean jaiotakoa Urrejolaegizarra baserrian. Ubera auzotik oso gertu bizi ziren eta elizara edo eskolara bertara joaten ziren. Aita arotza zen.

Transkripzioa

- ... kontaidazu pixkat nun jaixotakua zaran, ze urtetan jaixo ziñan...
 - Bai. Mil novecientos veintiunuan jaio nitzan eta Elgetako, hemendik Bergara aldera, barrenengo baserrixa da, hemendik Bergarara beherengua. Elgetai pertenezitzen jakon baserrixa [beherengua] da nere etxia. Handik aurrera Bergarara tokatzen da.
 - Eta ze izen daka?
 - Nire etxiak dauka Urrajalegi Zaharra, baserrixak.

- Ondiokan zutiñik dao?
- Bai. Ondiokan zutiñik dau, nere anaiena da ya. Gurasuak anaia zertu zotsan, heredau zotsan. Gu ezkondu giñan ta alde giñan handik eta anaia, nere anaia da haren jabia. Bai.
- Orduan, Bergaratik gertu-gertu...
- Ez. Uberako barrixotik dau gertu-gertu.
- Hori da. Jokeria bertara juateko.
- Bai. Eta elixara be juaten giñan Uberara gu. Nere aitta zan arotza eta hartu zeban parte, umiak hurrao euki deixen eskolia, hartu zeban parte Uberan. Biharra ein ta pagau ta ein zittuan han gauzak eta hartu zeban parte umiak hobeto eukitzeko Uberara juatia. Ha daukau hurrian, Elgeta urriñao. Ta horretxeaittik ni zazpi urtekin sartu nitzan Uberan eskolan. Bai.
- Zazpi urtekin?
- Bai. Zazpi urtekin. Eskolan sartu ta komuniua eitten zan zazpi urtekin.
- Oseake, eskolara juan ta kumunixua ein...
- Eskolara juan ta kumunixua ein, urte bardiñian. Bai.

1.25. Elgetatik Eibarrera doan bidea eskuz egindakoa

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/003
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Lana aurkitzea oso zaila. Elgetatik Eibarrera doan bidea eskuz egin zen eta jendea behar zenez, bi anaia bertan hasi ziren.

Transkripzioa

- Orduan ume asko etxian, ez?
- ... ume asko, ume asko, eta iñun be ezin kolokau jentia. Orduan ez zeuan taillarrik oingo moduan eta hemendik Eibarrerako kamiñua eitten be ibili zran bi anai. Ezin...
- Zure anaiak?
- Nere anaiak. Bi. Hemendik Eibarrera. Batak eukazen, ez dakit, hamasei urte ta bestiak ez dakit zenbat eukiko zittuan. Hogeta bi edo hogeta hiru edo nausixenak eukiko zittuan. Ta ibili zian hemendik eta Eibarrera dauen karreteria eitten bi anai ibili zian.
- Eskuz.
- Eskuz. Dana eskuz. Ta bazkaixa hartzen zeбен basarrixan eta hemen, badakixu, ixa Eibar onduan-ta ebizenian lanian, etxera juateko urrin, ta harik eta illuntzira arte ez zian juaten etxera.
- Eta hori ze eitten zan, herriko jentia...?
- Herriko jentia ibili zan hori eitten.
- Zelan orginizarau zan hori guztiori?
- Herriko jentia ibili zan kamiñua eitten. Beste batzuek be bai. Mordua, eren kontratistiakian. Ta pagatzen zotsen ta pozik nunbaiten pixkat irabazten zanian. Porke akordatzen naiz, aittak oillaskuak-eta erregalatzen zotsazen hemen abade bati erregalatzen otsan, oillaskuak-eta. Bai? Ta Altos Hornos-

en sartzia nahi Bergaran, ba, pixkat dirua irabazteko, ta ez zeban konsegidu. Abadiak be ez zeban konsegidu. Don Leocadio Guerra zan orduan abadia Elgetan. Hiru abade egoten zian, e, Elgetan. Hiru abade.

1.26. Ameriketara lanera

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/012
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:29:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Osaba bat Ameriketara joan zen lanera. Garai batean baserrietatik jende asko kanpora irten behar bizimodua topatzera.

Transkripzioa

- Badakizu zuk zelan juañ zan tio Ameriketara? Zegaittik? Hemen lanik ez zeualako edo...

- Hemen lanik ez dauelako fan zan.

- Eta ze...? Ganau zain edo...?

- Bai. Lehelengo hasi zan pastore eta gero erosi zeban hoixe fnkioi. Beren terrenuak ifini zittuan. Ez dakit, harako igual txikixe izengo da, baiña Ubera [danau] daukazen terrenuak badia, dezente dia. Ta berak zeukan ganauekin ta negoziua zekan. Ta ondo zeuan. Ta ez zan ezkondu, soltero geldittu zan. Berak kartan eskribitzen zoskun. Karta bat eskribitzen zeban, bi bider leittu bihar ta bi lagunek leittu bihar, porke eskribitzen txarto! Eskola gutxi ikesitta, ez dakixu? Eta faltak. Eta bata leitzen zeban ta: "Honek hauxe esan gura dau". Ta gero bestiak: "Ez juat hau entenditzen! Hau zela ete dok?", "Ba, horixe esan gura dau". Eta holaxe leitzen zan haren kartia. Fíjate... Pobre!

- Orduan jente asko, edo bueno...

- Orduan hemendik juañ zian Ameriketara kasik etxe danetatik fan zian. Porke jaiotzen zian hamar bat ume jaiotzen zan etxe bakotxian orduan. Badakixu, orduan ez zan oingo moduan. Orduan dana zan pekatua, gauzak ein bihar dia ondo, ta gauzak ondo ein ezkeriok enbarazada zare! Eta etxe bakotxian jaiotzen zian... Abadiak aintzen eban, ta abadiak esaten zeban religiñua. Infarnu haundi bat dao, ta gauzak ez badittuzu ondo eitten infarnura zuzenian. E? Ointxe be hartuko litzakek hamen infarnu bat aber pixkat sustatzen dan jentia. E? Ta orduan? Pentseizu hain denpora gutxixan ze alde. Ta jentia zeuan sobra, mantendu ezindako beste jente etxian.

- Oseake, batzuk Ameriketara, beste batzuk...

- Hemendik ameriketara orduan faten zan. Hemendik ez zeuan Galiziara ta faterik, e! Galizian gu baiño txartuao erezen ta. Gero etorri zian Galiziatik hona pilla bat.

1.27. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/014
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Bergarara tratura. Baserriko bizimodua; jatekoa.

Transkripzioa

- Ama, orduan... Basarrixan nahikua lan eukiko zeban, ez?
- Nahikua lanekin ama.
- Zu, esan dozu, plazara-ta juaten ziñala. Ta momentu baten esan dozu andrak, gaiñera, nahiko...
- Bai, nahiko okerrak zian. Bai. Andrak erruki... "Hay de todo", klaro, danerakuak dao, ezta? Baiña piratatxuak be bai, e! Etorri eta onenak, eta dozena bat sagar hartutakuan: "Oin bi propina". Ta "tak!" eta beste bi hartu ta holakuak. Bai. Bueno! Bueno! Ahal dan tranpa danak eitten zittuen. Baiña danak diru barik zeozen, danak dirua falta zezen. E? Hori da markia, e! Danak pobre. Bai.
- Orduan, okerrak bazeren, baiña...
- Okerrak be bazeren.
- Baiña, bueno, ondo konpontzen ziñan, ez?
- Bai, bai, bai, konpontzen nitzan.
- Gazte-gaztia izateko...
- Bai, bai. Beti sobratzen zan, etxera ekartzeko diru pixkat beti gelditzen zan. Ta ama eskerrak emoten egoten jatan beti: "Eneee, eskerrak, ume! Eskerrak, ume! Eskerrak!".
- Zuek basarrixan garixa-ta ereitten zenduen?
- Bai. Garixa, artua, patatak... Eta keixak egoten zian, sagarrak be bai, melokotoiak... Horrek danok. Fruta guztiak. Ta gero ortuko gauzak: azak eta porruak eta horrek be bai. Horrek danak eukitzen... Konejuak be bai, koneju mordo bat be bai! Aittak einda konejotegixak egoten zian, aittak einda, konejuak, berendako txabolatxo-txabolatxuek eindda. Oilluek be bai: arrautzak, txitak etara. Ta oillo-lokiakian txita pillatzen. Ta gero, oillua, domeketan oillo bat hil ta oillo-saldia garbanzuakin. Ta hori be bai. Arrozo-zopia ein, frituak be eitten giñuzen.

1.28. Laietan nola egiten zen

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/015
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta sorozak
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

- **Laburpena:** Laietan egiten ikusi zuen. Etxean golda erabiltzen zuten, baina inguruko baserrien batean laietan egiten zuen.

Transkripzioa

- Laixetan-eta ein zenduan zuk edo ikusi zenduan eitten laixetan?
- Bai, ikusi dot. Ikusi dot, bai. Ikusi dot. Holan, sartu goittik behera burdiñak eta holan ein lurrai ta "rra!" doblau. Bai, hori be bai. Ikusi dot. Etxian gutxi ikusi dot hori. Etxian ikusi dot goldiakin buelta emoten lurrai ganauekin. Hori da adelantu haundixaua. Bai. Baiña laixetan be badakit nola dan. Hori be bai ikusi dot. Illaria, igual, jarritta. Persona illaria jarritta, sartu burdiñak lurrian...
- Ta danak batera...
- Bai. Ta gero danak batera buelta emon lurrai. Hori be bai.
- Inguruan, baiña? Basarri inguruan edo...? Nahi dot esatia, ikusi zenduala hemen bertan, Elgetan?
- Neure etxian hori gutxi ikusi dot, baiña beste batzuei ikusi dotset eitten. Ikusi dotset.

1.29. Elgetako baserrien bilakera

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/016
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:34:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Elgetako baserrien bilakera.

Transkripzioa

- Basarrixa ze zan? Zeuena, orduan, ez?
- Bai, bai, geure baserrixa. Gere baserrixa zan, bai. Gere baserrixa.
- Hemen Elgeta inguruan-ta basarri asko zeren...
- Enee! Elgetan erezen hirurogei baserri. Ondiokan gaur goizian nere gizonak esan dotsa emakume bati. Hirurogei baserri erezen ganauekin, soluekin, garixekin, patatiakin eta etxian hartzen dian gauza guztiekin bizi zianak. Hirurogei baserri. Ta hirurogei baserritik gaur iñor be ez da bizi baserritik. Iñobez. Danak bizi dia kaletik. Ta batzuk arreglau dabe baserrixa ta beste batzuk ez dabe arreglau. Ta beste batzuk ein dabe eren terrenuan semiandako txaleta be bai. Hori be bai. Baiña ondiokan aitta Pedrok esan dau, gaur goizian esan dosta --bestia ez dakit zeñi esan dotsan--, hirurogei baserri Elgetan eliminau dia ezebezera.

1.30. Gariaren inguruko lanak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/018
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:38:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Elgetako baserrien bilakaera. Gari-jotzea. Gariaren inguruko lanak. Errota.

Transkripzioa

- Esaten dozu, oin hemen inguruko basarrixak galduta darelako edo, behintzat, jorrala kanpotik etortzen dala basarrixetan.

- Bai, bai, bai. Iñor be ez da bizi hemen baserrittik hirurogei baserrittik. Iñobez. Baserrittik iñor be ez da bizi. Baserrixan biziko dia batzuek, ezta? Baiña kalia lana ein, eta baserrixan ortua edo ezebez. Piñua sartu, piñuak bota, ta piñuen dirua hartu. Baiña labrau baserrixa? Hemen begiratu ta garixa iñok be ez dau ereitten. Ta lehen etxe danetan garixa, etxerako ogixa eitteko garixa, danak hartzen zeben. Danak, hirurogei baserrik. Ta artua be bai. Ta patatia be bai. Eta berdurak be bai. Ta horrek danok.

- Zuk garixa ta... Garixa jotzen eta...

- Nik ein dot, garixa ebagitzen ein dot. Garixa joten ein dot holan be bai. Ifini igartuta euzkittan, ta harrixa jo holan, ta aliak etaratzen be ein dot. Eta makinia ekarri ta makinan be bai; sartu ta makiñiakin eitten be bai. Ein dot, e, garixa joten! Eta gero harek lastuak ifini holan sendorrian --"sendorra" esaten jako--, lotu sokiakin ta ganbarara eruan lastuak gero ganauei emoteko ha lastua jaten. Baserriko ganauei.

- Sendorra esaten detsazu...?

- Sendorra eitten da.

- Lastuen...

- Lastua pillua ifini, sokia behian ifini, ta haren geiñian ifini lastuak. Ta ein korapillua estututa, hartu bizkarrian, eta ganbarara eruan. Ganbaria da habitaziñotaik aparte egoten dana baserrixan. Ta han tolostauta ifini harek danak. Ta gero harek balio dau ganauei jaten emoteko. Ha, gero, ha lastua ganauak jaten dabe ha garixa kendu jakon lastua. Ta ha garixa eitten da, gero makina batekin garbittu eitten da. Kentzen jakoz harek daukezen desperdiziuak eta lagatzen da alia. Ta ha alia errotara eraman, porke errotia be bagenkan.

- Nun zekazuen? Inguruan?

- Bai, baserriko onduan. Baserrittik, ba, egongo zan lauhun metrora edo holan errotia. Ta ha errotia izengo zan, porejenplo, ba, hamasei bat edo hamazortzi bat laguneren errotia. Ta han txandaka, txandaka, txandaka, bakotxak bihar dabena eitten zeban errotan uruna ein. Uruna ein errotan.

- Eta, esaten dozu, errotia ze zan, elkarte moduko bat edo?

- Errotia zan soziuena, sozio mordo batena.

- Eta baten bat egoten zan han zaintzen?

- Ez, iñobez. Errotia dau itxitta, ta dau giltza bat. Ta harek giltziak eitten dau sozio guztien txandia eitten dau. Ha txandan faten da. E? Gaur neri tokatzen jata, bixar nere bezinuai, harek pasatzen dotsa bestiai, harek pasatzen dotsa bestiai, harek pasatzen dotsa bestiai. Txandan, txandan, txandan, ha giltzia ibiltzen da. Eta bere txandia danian ein bihar dau uruna. Eta gero hurrengoko txandara arte itxein ein bihar dau. Ta holaxen funzionatzen zeban.

1.31. Errotara, plazara

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/019
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Plazara eta errotara joateko astoa erabiltzen zuten. Errotaren inguruko azalpenak. Irina eralgi. Umetan egin beharreko lana.

Transkripzioa

- Ahaztu aurretik, plazara zuk gauzak-eta zelan eruatzen zenduzen?
- Astuan. Astuan.
- Eta errotara...
- Errotara be astuan. Garixa zorruan sartuta errotara astuan. Eta gero uruna ein, ta astuan ekarri errotatik.
- Baiña [... pentsatzen] dot garixa igo eta aittak eingo zebela, ez?
- Bai, bai, bai, bai. Etxian badakixe zelan ein. Neuk be badakit zelan ein garixa. Emoten jako martxia errotarrixai, martxia emoten jakon, ta ifintzen zan holako ontzi baten, ifintzen da garixa zuk eruandakua. Ta harek pixkaka-pixkaka, pixkaka-pixkaka, aldiko dozenatxo bat ale, dozenatxo bat ale, botatzen dittu goittik behera harrixai. Ta harrixak eitten dau bueltaka-bueltaka, bueltaka-bueltaka, eitten dau uruna. Ta ha uruna urtetzen dau askatxo batera. Ta zuk han askan paliakin hartu ta sartzen dozu zakuan. E? Sartzen dozu zakuan, ta ekartzen dozu zakuan etxera. Ta ekarri etxera, ta gero etxian dare holakotxe "bahia" dauka izena, "bahia" dauka izena. Bahian ifintzen dozu ha uruna eta eitten dozu, daukazu... daukazu armaixo bat ogixa eittekoa, ta han eitten dozu "eralgi" dauka izena. Eralgi. Ifini bahian ha uruna ekarri dozuna, ta han txiki-txaka, txaka-txaka, txaka-txaka. Porzieto, oso aburridua zan neretako, ta askotan tokau jatan eittia. Ta amak esaten zoztan: "Badakizu zer? Ez aburritzeko zuk kantau, kantau zuk, ta erain bahiai. Kantau ta kantau ta erain bahiai garboso". Badakizu, neskatiillia aspertu bahiai, holan, han iñor ez dauen lekuan, norbera bakarrik hari ereitten ta... "Zuk kantau, kantau zuk". Zelako ama ona nekan, e? Neukan ama bat onaua! Aitta be bai, e! Nik neukazen gurasuak...

1.32. Sorgin kontuak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/022
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:43:32. **Bukatu:** 00:44:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

- **Laburpena:** Sorgin kontuak. Mirenek ere artilearekin haria egiten ikasi zuen; aitak erakutsi zion.

Transkripzioa

- Akordatzan nai, bat kontatzen zeban. "Hau amamak kontautakua da". Bai. Orduan, oin, oin, oin... ene! Nora fango naizen! Goruetan eitten zebeu orduan. Akordatzan jatzu goruetan eitten zebela? Holan harixa eitten zebela, e? Neuk be ein dot harixa, e? Galtzak eittekuu. Nik ein dot galtzak eittekuu, baiña harek eitten zebeu oheko izarak-eta eittekuu eitten zebeu. Nik galtzak eittekuu ein dot, e! Neuk be ein dot. Asko gustatzen jatan, gaiñera. Aittai ikasi notsan. Bai.
- Gero kontauko dostazu...
- Gero, oin sorgiñena esango dot.

1.33. Ama nolakoa zen

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/031
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:53:00. **Bukatu:** 00:53:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Ama Andresa Arregi. Amaren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Zein zan aman izena?
- Andresa. Andresa Arregi, bai. Baiña esan otsat e nik honi zelako ona zan gure ama, ona e. Honek asko ezautu zeban. Nere alabiak eta asko ezautu zebeu nere ama, bai. Txikittan e berak zaintzen zittuen honek eta, bai ta gobernadoria zan, oso ume gobernatzaillia zan, umiei ondo esan ta... Jartze jakozen ume pilla bat altzuan bai ta bera tebeua leitzen. Ta leitzen etxakon ahaztu, bai ba, beti leittu itte eban ta! Etxakon ahaztu! Ta tebeuak leittu ta ipuiñak kontau ta... Bueno! Pegauta eukitzen zittuan ume guztiak bueltan harek! Bueno... oso ondo.

1.34. Mugak eta mugarteak

- **Hizlaria(k):** Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-005/004
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Mugak ere zaindu egin behar izaten ziren. Baserri askota, lurra lautzeko, derrigorrezkoa zen mugak ipintzea. Zenbat eta muga gutxiago, saila handiagoa, eta labratzeko hobeto. Sail txikietan laiak behar; sail handietan goldarekin. Plaentzian muga gehiago; gari-azau pare bat besterik ez zirela lortzen sail horretan.

Transkripzioa

- Mugak-eta be bai zaindu ein bihar izaten ziran edo...?
- Bai, horrek mugok [eozen]... Zera, mugak esan gurako dozu maillak, ezta? Horrek, bai.
- Bai, zelan deitzen detsazue? [...] edo...?
- Bai, mugia, mugia esaten dotsau guk. Baiña beste batzuk mujoiai esaten dotse mugia. Bai. Ta mujoiak, ba, zainddu ein bihar, baiña mugia be zainddu ein bihar izeten zan. Mugak [erezen] apropos eindda lautzeko terrenua. Goiko saila solo bat. Plaentxian dao hori asko. Plaentxian dana aldapia da, ta han mugarik ez baleo, han ezin leike lurrik be egon. Ta [harek] mugekin, ba, goiko guenekua be hara etortzen da, ta han altxatzeko hurrian, ta lautu eitten da solua.
- Eta zaindu eitten ziran mugak?
- Bai, bai.
- Urtero-urtero...
- Bai, bai. Horrek mugok, apropos ifinitakuak izango zian horrek mugok, zertzeko, lautzeko terrenuak.
- Hamen be...
- Hemen muga gutxi, e! Sail haundixak hemen muga barik.
- Bai?
- Bai. Beizun be, jo-ta etxian hasi ta beheko barrenera kriston fanaldixa ta mugarik bape barik. Ta hemen Azulan be, ba, mugak, bat hementxe [...] dao, baiña ostian gutxi hemen be mugak. Mugarik barik izaten da labratzeko alde haundixa. Beti mugak [daukazun] lekuan pusketaka ein bihar dozu; ta bestia "bra-bra", fan ta fan ta fan ta... gero, atzenian, lurra altxatzeko lan luziaua, baiña sail hobia sail haundixan lana eitteko.
- Bai, txikixan batzutan golderik sartu be ez, ta laixekin edo...
- Bai, bai, bai. Laixekin esaten eben lehenao, nik ez dot laixekin ezautu. Ni umia nitzan denporan eitten zan laixetan, baiña nik neuk ez dot holan laixetan iñor ikusi be ein. Baiña laixetan, bai, lehenao laixetan eitten zan. Horrek muga-bittarte solo txiki-txikixok be dana laixekin. Plaentxian esaten dabe solo bat euela, ba, hiru edo lau laixakada eittekoa bakarrik. Ta garixa, batzuk esaten dabe, ba, azaua esaten dotse eskutakada bat edo holako zera, ta beste batzuk hiru azau eitten ziala, bat eitten zala... Ez dakit zenbat izengo dan. Plaentxian, esaten dabe hori. Solua txikixa izen biherko zan!
- Hiru azao eitteko...
- Joe, solo txikixa izen biherko zan. Ba, holako gauzak, antziñako historixak badia.

1.35. Ume-umetatik ikasi zuen artzain lana; lana baino, zaletasuna

- **Hizlaria(k):** Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-005/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Baserriko lanen artean gehien gustatzen zaiona, ardiak. Txikitatik izan du zaletasun hori, ume-umetatik. Ardiak lan asko dauka; ez dirudi, baina horretan ibili ez denak ez daki zenbat lan duen. Etxean ikasi zuen, mutikotan. Lehenengo ardiak batzen, eta 14-15 urte zituela, gaztak egiten.

Transkripzioa

- Eta esan dozu gitxien garixa gustatzen jatzula, gari-jotia eta, eta gehixen ardixak...

- Bai, neri ardixak gehixen.

- Txikittatik?

- Bai, nik eskolatik urten neban ezkerro ardixetara fateko beti gustora, beti gustora. Ta armerixan ibili nintzanian, ba, taillarrian pixkaten, eitten neban egunez, ba, ez giñuan guk ordurik eukitzen, e! Bittartia daonian. Lau ordu badaoz, lau ordu, ta bi badaoz, bi. Baiña nik urtendakuan handik be jo-ta ño! ardixetara gustora.

- Gustora...

- Gustora. Beti horixe biziua euki dot.

- Biharra baiño gehixao afiziñua...

- Bai, afiziñua, afiziñua. Afiziñua. Ta afiziñua euki dot, baiña ardixak bihar asko dauka, e! Askok! Ardixa... Iñok ez daki ardixan barri aprobau ez dabenak. Aldemenetik ikusten dabe pastoria igual ardixak zaintzen, "Jo, hori ederki jaok". Bai. Gero etxera fandakuan auskalo zenbat bihar.

- Ta ikasi, zelan ikasi zenduaz bihar guztiak-eta ardixen ingurukuak? Aittakin? Edo...?

- Buo... Bai, etxian, aitta ta ama ta... gaztaiak eittiak eta danak. Ta ardixak batzen lehenengo mutikotan, txikittatik ardixei esnia batzen. [Ba, aittak eta]... Hori erreza da ikesteko; afiziñua badaukazu, aguro ikesten da, aguro. Ta gero, gaztaiak eitten be, ba, mutikotatik. Nik hamalau-hamabost urte nekazanian, ba, etxian gaztaiak egunero eitten zian, ta, ba, segiduan ikesitta noberak be. Ta [harrezkeroittiok] bakarrik, makiña bat urtian bakarrik.

1.36. Sei hilabetez lan gutxi, baina beste sei hilabetez asko

- **Hizlaria(k):** Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-005/006
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:30:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Ardiak sei hilabetez lan asko ematen du, eta beste sei hilabetez gutxi. Ekainetik urtarilera, jaten eman besterik ez. Urtariletik aurrera, bildotsak jaiotzen hasten dira, eta hortik aurrera lan asko. Bildotsak jaiotzen hasten direnean, gauez ere lan egin behar, lau-bost aldiz jaiki behar; lagundu ere egin behar izaten zaie ardiei.

Transkripzioa

- Eta biharra zein da, holan, egunero ardixak daken biharra? Holan, goixian hasi eta gaberarte zein da...?

- Bueno, oin momentuan, ardixak eukitzen dau sei hillebetian bihar asko ta sei edo... bost hillebetian hor, bost edo sei hillebetian asko biharra. Ta, gero, beste bost edo sei hillebetian edo zazpitan ez dau... gutxiao eukitzen dau. Oin, fan daneko juliuan lehelenetik hona zainddu bakarrik bihar dabe. Zainddu edo, ba, larria... nun dauen pastua haraxe eruan. Ta jan erein ta oin gutxi bihar dabe. Baiña oin bildotsak jaiotzen hasi bihar [da] datorren astian edo; hemendik zortzi-hamar egunero jaiotzen hasiko dia. Ta bildotsak jaiotzen hasittakuan, gabian be jaiki in bihar da. Bestela, parto txarra badake, in eziñik edo, akabau be igual eitten dia ta bildotsak itto edo... Ta noberak lagundu parto txarra badake, ta jaiki ein bihar da gabian be. Ta batzuetan, bildots asko jaiotzeko duenian, gabian be igual jaiki bihar hiru edo lau bidar be igual. Jaiki ta ya nobedadia sentiduta ikusten dozuz igual, ta "bildotsa eitteko jaozak". Ta "Ño! Jaikitzen ez banok, akabauko dok", ta berriro be jaiki, ta berriro be jaiki. Ta edurra bada be bai. Ta beste batzutan, ba, baten. Ta normala baten jaikitzia da gabian, baiña bildotsak jaiotzen dian denporan, ba, lo gutxi indda ibili bihar. Ta gero, bildotsa jaiotakuan berriro, ba, hazi arte laguntasun haundixa bihar dabe. Bikixa eitten dabe oin asko, lehenao bat eitten zaben.

1.37. Bildotsak jaio orduko, zaindu egin behar

- **Hizlaria(k):** Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-005/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Lehen ardiek bildots bakarra izaten zuten; orain hobeto gobernatzen dira, eta sarri bi izaten dituzte. Horrelakoetan lagundu egin behar izaten zaie. Jaiotzen direnean, amari miazteko eman behar. Amak ez baditu miazkatzen, ez ditu gero onartuko, eta bakarrari emango dio esnea.

Transkripzioa

- Ta, gero, bildotsak jaiotakuan berriro, ba, hazi arte laguntasun haundixa bihar dabe. Bikixa eitten dabe oin asko; lehenao bat eitten zaben. Ni mutikua nitzanian, bat eta batek-eta eitten zittuen bikixak, ardi batek urtian, igual, ta horixe. Ta oin, berriz, erdixak baiño gehixaok eitten dittue bi. Ta hori da hobetuao gobernatzen dialako, bi ittia. Lehenao gutxi gobernatzen zan, pentsua-ta gutxi, ta orduan bildots bikin gutxi jaiotzen zan.

- Orduan, zenbat eta hobeto gobernau ardixa...

- Bai. Hobeto gobernau ta bi gehixaok eukitzen dittue, ta hiru be bai batzuk. Ta, ba, gero bikixa eitten dabenai-ta be, ba, euki bihar dozu atenziño haundixa. Ba, jaiotzen dan denporan euki bihar da erreparo haundixa. Bat eitten dau ardixak eta beste bat eitten hasten da, eta bestia eitten daon denporan lehelengo jaiotakua jaiki ta... Horrek umien moduan ez dia egoten, horrek aguro fan eitten dia! Ta bata jaiotzen ta bestia jaiki ta

han zihar. Ta gero amiak ez dau ikusten, ta ezautu ez dau eitten gero. Ta nobera egon ezkerro jaiotzen danian, "da!", aurrekaldera eruan berari ta miaztu --mieztu eitten dabe, txupau eitten dabe horrek beren lohixa--, ta ha miezten-ta eukitzen badozu, bixak miezten badittu, bixak maittatzen dittu. Ta bata miezten badau, bata bakarrik. Bai. Han berak haintxe zumua hartzen dotse miazten daben zerien.

- Usaiña edo...

- Bai, usaiña ta sustantzia handik [...] dabe. Bai. Ta horrek erreparo haundixa euki bihar [dau] bi eitteko, bestela bata maitte ta bestia ez, ta gero, ba, batai emuten dotse esnia ta bestiai ez ta gero, ba, norberak besten baten esnia-edo manejaui bihar, bestela akabau eitten da gosiak. Eta lan haundixa eukitzen dabe bikixak. Ta lehenao biki gutxi zan, baiña oin, ene! bikixa aumentautu dao ta...

1.38. Ardiak beti du lan handia: lehenengo bildotsak zaindu behar, eta gero gazta egin behar

- **Hizlaria(k)**: Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-005/008
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:32:05. **Bukatu**: 00:34:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Ardiak ondo gobernatuz gero, bildotsak berehala hazten dira, eta hiru astera saldu egiten dira. Bildotsak salduz gero, gero gazta egin behar, eta horrek ere lan handia dakar: gazta egin, eta ondu, eta saldu... Behin udaberritik aurrera, eguna luzatu egiten da, eta ardiak ilundu arte ezin dira batu.

Transkripzioa

Gero bildotsa saldutakuan berriro... Bildotsa aguro hazten da. Ardixa ondo gobernatzen badozu, hiru-lau astekin saldu ein bihar dozu bildotsa. Ta bildotsa saldutakuan esnia batu bihar, ta esnia batu ezkerro, gaztaia ein bihar. Hemen ez dao slatzerik eta; hona ez dator iñor esnetara ta, ba, gaztaia ein bihar. Ta gaztaia ein ezkerro... gaztaiak be lan asko dauka! Gaztaia itxia bakarrik ez da! Gero hari... ha... bestela formia kanbixau eitten jako, ta buelta emun biguna daon artian. Ta gero, garbittu ur-epelakin ta sikatu ta atzera buelta emunda ifini ta horrek asko ein bihar jakoz gaztaiak. Ta gaztaiak lan asko dauka! Askok! Gero, ba, [azkenian] preziaua ona eukitzen dau gaztaiak, baiña bihar asko! Bai. Ta oin letxeruak... [puntueta]-ta bizi dian pastoriak-eta, ba, letxeruei saltzen dotse esnia ta merke saltzen dabe, baiña harek libre dao. Ardixak batu ta segiduan libre; zerik, gaztaia eitten biharrik be ez, ta garbitzen be ez ta... bentaja haundixa eukitzen dabe hortan. Oin, dirua gutxiao hartzen dabe, baiña eroso. Guk, berriro, kristonak ein bihar! Gabian ardixak batu orduko illuntzian... udan, badakizu, illundu berandu eitten dau, hamarretan illuntzen dau, ta San Juanak artian-edo [ardixak] batu eitten [...] esnia, ta eguna luzia. Ta illuntzian euzkixakin ardixak jaten egoten dia freskuran illuntzian; euzkixakin ez dabe jaten egunez. Ta illuntzian berandu erretirau bihar etxera be, jan deiken kanpuen. Ta gero, berandu erretiratzen badozuz, berandu batzen dozuz, ta gero gabian gaztaiak berandu ein bihar.

Ta goixian eguna goixao argitzen dau ta goixao jaiki bihar berriro. Jo! Nik in dittut hemen oin hoge bat urte-ta: gabian hamabixetan ohera, hortxe, hamabixak hortxe. Dio! "Hamabixetarako fango ahal nok! Hamabixetarako fango ahal nok ohera!" haixe. Ta destajuan haintxe gaztaiak in ta biharrak itten. Ta hamabixetarako ohera ta goizian seiretan tinbria. Ta jo-ta jaiki ta aide! Bestela, goizian ordu-erdi gehixao eitten badozu, egun guztian harrapau ezindda orduik! Ezin harrapau. Egun guztian, goizian ordu-erdi galtzen bada, akabo, egun guztian atzeratuta, egun guztian atzeratuta. Kontrolian dabillen personiak, badakizu, makiñiai segitzen ez badotsa, han hanka eitten... aurrera faten da orduak. Ta iguala. Ardixak be lana asko dauka. Enee!

1.39. Ardiei ilea mozten

- **Hizlaria(k)**: Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-005/009
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:34:40. **Bukatu**: 00:37:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Behin ekaina orduko, ardiak moztu egin behar izaten dira. Makinak ere badaude, baina artaziekin hobeto egiten da, ilea luzetxeago geratzen zaielako. Endrikek 224 ardi ere izan ditu inoiz, eta eskuz mozten zituen denak. 6 egunean denak moztu zituen. Barruan mozten dira, errazagoa delako.

Transkripzioa

- Ta ekiñaldi haundixa eukitzen dabe artaziekin mozten. Makiñiakin mozten dittue oin, elektrikuak badare, ta neu be pruebia eindda nao hemen, baiña ez dot gura. Hondoraotik mozten dau; hondoreittik mozten dau, ta gero mendira botatzen bada, hoztu eitten da. Norbera narru-gorrixan jartzia moduan. Ta pixkat artaziekin, guraixiekin, artaziekin, guk altuaotik mozten dou, ta altuaotik mozten dana, ba, ha... ulia geratu itten jako hari, ta ha ez da hozten bestien moduan. Eurixa eitten badau be bota eitten dau uliak eta alde haundixa eukitzen dau. Ta...

- Moztu zelan eitten da?

- E?

- Moztu zelan eitten da?

- Moztu zerian... Lehelengo hankekin gora ifini ardixa, ta tripa-azpixa [...] lehelengo; ta tripa-azpixa moztutakuan, hankak lotu. Hankak lotu sokiakin ta, gero, alde bata lehelengo, gero bestekaldia, buelta emun ta...

- Atzetik aurrera edo...?

- Bai, atzetik aurrera, atzetik aurrera. Batzuk aurretik be mozten dabe, e! Baiña atzetik aurrera dake eria. Bai, ni ardi asko moztuta nao. Guk euki giñuzen, gehixen euki giñuzenian, bueno, hor Beizun eukitzen giñuzen berrehun ta hogeta lau, gehixen euki [giñuzenian]. Ta bakar-bakarrik astebetian moztu nittuan danak. Neuk. Goizian ekin... Goizian, lehenengo, Azkonabittara juaten zian gabian, ta goixian handik bajatu ta esnia batu. Ta gero, ba, orduan aitta ta ama-ta bizi zian ta harek gaztaiok ein, ta nik egun guztia ardixak mozten. Sei egunian berrehun ta hogeta lau moztu nittuan. Ta artazikada asko eukitzen dau, e! Artazixak be haundixak daukouz, baiña

asko eukitzen dau ardixak!

- Eta nun mozten zian? [Hor] kanpuan edo...?

- Bai, e...

- ... edo [barruan] edo...?

- Ez, kanpuen. Barruan. Barruan.

- Barruan?

- Barruan. Barruan, ta, holan, lokal txiki samarrian eukitzen giñuzen, bestela ardixa urrin faten da, ta ekartzeko ta. Lantzian kuadrilla bat sartu ta, lokal txiki samarrian, ta... Gero, ba, orduan denporan eitten giñuan holako... ba! Honen alturako bat-edo, bankua ipinita. Ta ha hartu ta hara altzau. Ta tripa-bia moztutakuan hankak lotu, ta norbera makurtu gutxiao indda mozteko. Baiña txarraua zan. Nik orduan denporan neke asko gehixao hartzen naben ardi-mozten. Hara altzatzen be ardixak pisu asko; gero, beti forma baten norbera egon bihar, beti gerrixa forma baten. Ta oin diferente eitten dot. Oin lurrian. Bota behian plastiko bat-edo, ta "ta!" bueltau ta altzau biharrik be ez gora ta gero norbera nahi bada belauniko, nahi bada makurtuta, nahi bada alde batera, nahi bada bestera, ta ginasia gehixao gorputzak eta gutxiao kantsatzen da.

- Bai, e?

- Bai.

- Gu lehenao beti bankuen. Gure aittak be bai, ta guk be bai, ta txarrao, neke gehixao hartzen giñuan asko be. Oin, geiñera, ardixak altzau be ez giñukez eingo bankura! Lehenao baiño ardi astunauak oin, ta geuk inddar gutxiao! Egixa da hori, e! Bai, oingo ardixak, joe, larogei killo igual eukitzen dittue, ta hirurogeta hamar be bai, ta harek [ebaten...] altzatzeko...

- Eta lehen ez zeuan holako ardirik?

- Lehenao ardixak txikixauak, berrogei killo edo berrogeta bost, ta errezaio altzau ardixa.

1.40. Ardi klaseak, lehengoak eta oraingoak

- **Hizlaria(k):** Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-005/010
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:40:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Ardiak asko aldatu dira. Orain handiagoak dira, eta hobeto gobernatzen dira. Lehengoek burua garbi-garbi izaten zuten, eta oraingoek iletsua. Kanpoan muturgorriak daude; gure inguruan muturbeltzak beti. Karrantzan eta Nafarroan ere ezberdinak dira.

Transkripzioa

- Ta ardixak asko kanbixau dira?

- Bai, bai, lehendik asko kanbixau da. Ardixa lehen beste klase bat zauen [lehen] hemen, ta buru garbi-garbixa eukitzen zaben, uleik be ez buruan. Ta oin buruan ulia dakenak dao. Ta ardi haundixauak dare lehen baiño, ta gero hobeto gobernatzen dialako haundixao hazi be bai ta dana. Bai, lehenaotik ardi diferentia dao.

- Eta honek hobiak?

- Bai, bai, honek hobiak dia.

- Baiña honek ze dira, ointsuan ekarritako...?

- Ez, ez. Honek lehengo ardixeandik, ba, mestizauta ipinitakuak edo. Lehen, ba, bertako adarixa, bertako razia beti ta klase bat. Ta, gero, ba, hor Gorbeako adarixak-eta hona erosi ta mestizau ta gero, ba, zertu; ganaua klase batetik, ba, oin beste klasera jarri gehixau. Bai, bai. Lehen, bertako ardixak buruak garbi-garbixak eukitzen zittuen danak, ulerik be ez buruan. Ta oingo ardixak buruan ulia dake; zaparradia eitten dabenian be guardasola dake haintxe buruan.

- Bai, ta beste toki batzuetan, hor, Naparruan ta...

- Bai, hor beste klase batzuk.

- ... adarrekin eta, ez?

- Bai, adarrekin [erabili] ta gorrixak, mutur-gorrixak; eta hemen mutur-baltza. Hor, hor parajiak kausatzen dau. Horrek hor, zerian, Aralarren-ta, Mendiandia ta hor dao mutur-gorriska edo zuriska edo holako zerak, ta hanka-motzak eta ardi txikixauak. Baiña harako harek hoba dia; honako ez dittut nahi nik harek. Baiña han mendixak zelan altua ta hotza dian, harako... Jaten be gutxiao bihar dabe harek, ta dana dake han. Bedarra be motzaua egoten da beti, ta harako hobiak dia harek. Baiña honako mutur-baltza, latxa mutur-baltza.

- Latxa bada, mutur-baltza esaten detsazu?

- Bai, latxa razia da hau, e. Ta harek be latxa razak badaoz gorrixak be, baiña "lacha negra" hemengua. Ta, gero, beste batzuk karranzana. Horrek mutur-gorri batzuk dia, diferentiak dia karranzanak be. Karranzanak, ba, buru-gorrixak eta belarri haundixauak. Diferentiak dia. Bai. Hemen, oin Arkaute, hor Araban dao, Vitorixa onduan, Arkauten dao adarixak inseminaziñorako ta. Ta hara nere adarixak be euki dittue han Arkautera eruanda. Hemendik bildotsetan eruan ta. Ni lehenao esnien kontrolau eitten niñuen, ba, hemen, "control lechero" esaten jakona. Ba, hillian behin etortzen zan esnia kontrolatzera mutil bat eta [neurri] esnia,[zeiñena]...

Ardixak danak belarrixan numerua dake oin, ta handik, ze numerok zenbat esne emoten daben. Dana notia hartzen zaben hillian behin, ta gero ardirik onenanak, umiak, adarittarako eruaten zituen horra, Arkautera. Ta han egon zian nere adarixak bi-hiru edo. Hiru-lau... lau eruan zittuen hara, baiña hiru-edo egon zian han hazixa kentzeko. Ta... Baiña han klase danak dao, e? Gorrixak be bai ta karranzanak be bai ta danak, Arkauten.

1.41. Ardi-txakurak

- **Hizlaria(k)**: Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-005/013
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:52:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Beraienean beti izan dute ardi-txakur ona. Bere aitag ogerleko bat ordainduta ekarri zuen lehenengoa, Endrike gaztea zela. Auto batek harrapatu zuen. Gero beste bat ekarri zuten, ardi baten eta bildots baten truke. Hortik aurrera, beti ardi-txakur ona izan dute. Txakurra fina bada, erraz heziko duzu; nagia bada, alperrik.

Transkripzioa

- Bai. Guk txakurrekin... lehenao txakurrak be... bueno, gurian beti egon dia ardi-txakurrak, e! Baiña gure lehenengo zerian ardixak ipini zienian bapez txakurrik. Ta gero, gero ensegida hasi zian gurian aitta txakurrak ipintzen ta ardi-txakurrak beti onak. Onak, e! Jeneralmente, onak gurian egon dia. Ta bat, txakur bat... ba, orduan bape ez zakan gurian txakurrik ta lehelengo txakurra izango zan. Ta gure aitta Oletakua zan, ta Oletara fan ta ekarri eban handik txakur bat, ta ekarri eban duro bat pagauta bakarrik. Orduen denporan durua, ba, mordua izango zan, e! Baiña duro bat pagauta. Ta txakurroi hartu zaben —anaia ibiltzen zan, hori Beizun dauenori orduan ardixekin, ni gaztia, artietan eskolan ta— ta ardixekin hartu zaben ta fenomenua urten txakurra, ona! Ta, gero, orduan denporan karreteran ibiltten giñan gu ardixekin gora ta behera, ta orduan autobusa edo korrean bat bakarrik pasatzen zan, ez zauen kotxe txiki bape. Elgetatik Uberara egunian kotxe txiki bat be ez zan pasauko seguramente, ez zauen ta. Autobusa Bilbora, Tolosa-Bilbao, ta horretxek, autobusak, pasatzen zian Elgetatik, Uberatik Elgetara. Ta, ba, gora ta behera ardixekin kamiñuan, Uberara fan ta Elgetara ekarri, gure anaia ta beste bat, beste... gure aittan anaien koñetua. Ta bixak badoiez. Ardi-errebaño haundixa; orduan bi errebaño juntauta, hirurehun ardi edo berrehun ta berrogeta hamar edo. Ta kamiñuan, bera bakar-bakarrik —bata aurrian ta bestia atzian lagunok ta—, txakurra bakar-bakarrik, aldamenara baztartzzen zituen, ba, ardixak. Baztarreratutakuan ardixak, berak bere burua jakin ez baztarreratzen, ta fan da kotxian, autobusan azpira, ta autobusak harrapau ta jo-ta garbi. Bua! Gure anaia negarrez illuntzian txakurra akabau jakola ta bera ezin leikiala gehixao ardittara fan. Txakurra akabau jakola ta bera ezin leikiala gehixao ardittara fan; ta “Jirauko juau txakurra barrixa” aittak. Ta berriro fan Oletara, ta jirau zaben. Ta txakurra [...] ikessittakua, ondo ikessittakua. Ta ekarri eban txakurroi, ardi bat ta billots bat errebañuan daozenik onenak... kanbixua. Bera etorriko zala txakurran jabioi ardixa ta billotsa apartatzera ta daozenik onenak errebañuan. Ta halaxe apartau zittuen ta eruan, ardixa ta billotsik onena: billots haundixa ta ardi onena. Ta txakurroi ekarri eban ta joe! txakurra fenomenua, ona. Ta urte morduan egon zan gero ha. “Sol” izena ekan. Ta, bueno, gurian gustora txakurrorrekin. Ta, zera, egun baten horrek Aixola... Aixolako... oin guarda daona ezautzen dozu presan? Hor Aixolako... han, Jose Luis, guarda egoten dana? Ba, haren aitta ta aittitta harenak bizi zian, ta haren aittittak gure aittai —gure aitta haren aittittan loibia zan; horren, Jose Luisen, aittan lehengusua, ta aittitta tio gure aittak zeroi, hango Jose Luisen aittitto— ta harek, tiok, gure aittai: “Hori dok! Txakurraaittik ardixa ta billotsa emon? Orraittiok hi ez hao sano!”, “Ez dao ardi bateaittik ta billots bateaittik emoteko!”, gure aittak, ona zan ta. Ta, gero, handik aurrera, ba, artietan gu umiak giñan, ta aitta bera faten zan ardixak batzera. Ta ardixak... esnia batzeko marmittak eta bizkarrian hartu ta... Orduan han presan bizi giñanian [Monten] goixen [zauen] txabolia ta ardixak mendixan ibiltzen zian Santa Mariña zaharra esaten [dotsen] han kurutzia dauen lekuan. Han goixan ibiltzen zian ardixak. Berak etxetik urtendakuan “Ia, Sol, ardixak ekarri txabolara”. Ta txakurra bakar-bakarrik fan ta bera txabolara [Ilegau] orduko ardixak txabolan. Ta bapez... aldemenian bapez geratu be ez atzera, e! Danak erbi-txakurrak eitten daben moduan buelta guztia hartu ta ta! txabolara. Ta gero tio zaharrorrek: “Dios! Neuk emongo [dostaaz] ardixa ta billotsa” gero handik ikusi ebanian hori eitten. Ta “Hori ez dao emoteko ardi bateaittik ta billotsa bateaittik”. Ta ha txakurra fenomenua. Ta gero haren umiak euki nittuan ta txakurrak onak, e? Onak, onak. Gero, oin dakaten razia, berriro, honek dakaraz Naparruatik ekarritako razia da hau. Honek hogeta bost bat urte... raza

bat. Honek be onak, e!

- Bai?

- Boj!

- Eta hezitzia erreza da?

- Bai. Txakurra fiña bada, ondo heziko dozu; nagixa bada, ez. Nagixa bada, ezin leikixo erakutsi biharrian.

- Ta hori berihala ikusiko [zetsezun], ez?

- Bai, bai. Txakurra fiña bada, inetzniñua badaka, okerra eingo dau igual lehelengo, baiña harek intenziñua badaka, ha fiña da. Ta... Pertsona nagixeri be ezin leikixo erein, bultza ein ta "Ein eik hori" ta ez badauko gogoik ezin leikixo bihar asko erein. Ta txakurrari iguala.

1.42. Ardi-txakurak

- **Hizlaria(k)**: Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-005/014
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:52:45. **Bukatu**: 00:56:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Nafarroatik ekarritako txakur batekin izandako gorabeherak. Ahuntzak zaintzera ohituta zegoen, eta gogorregia zen ardientzat. Azkenean ere ikasi zuen, eta oso txakur ona izan zen. Harrezkero, denak ondorengoak izan dira, azken 20 urteotan, eta denak onak. Euren artean ere antz handia dute, eta izena ere iguala: "Txato".

Transkripzioa

- Ta Nafarruan, Iturgoien edo herri txiki baten intxarrixak eitten dia, ta intxarrixak erostera fan ardixeri ipintzeko. Ta txakurra han, bi txakur. Ta pastore bat —pastoria zalakotan gu, ta— bi txakurrekin. Ta ardittan ondo eitten daben preguntau notsen ta ez, ardirik ez dakela, ahuntzak, ahuntzetan eitten dabela ondo. Ta joño! Abonau oskun bata, herri guztian daonik fiñena dala amioi, ta bestia, bestia ez zan ona itxuria. Abonau ta abonau ein oskun, ba, ta joño! Ni ta beste bat giñan ta ia zenbaten salduko daben. Ta ez, lehenengo ez doiala saltzera. Gero baietz, ta zenbat bihar daben. Ta halakon baten hiru milla pezeta eskatu oskun, [ta asko eskatu ebalako]. Ta, bueno, eruan ein bihar juau, baiña gutxiau eskeiñi geuk be, bi eskeiñi lehenengo. Ta gero hiru [...]. Bueno, umia, umia... Emia zan txakurroi ta ume txikixakin ekan, ta ez, bera umia akabau eingo jakola ta umia akabau eingo jakola ta ez doiela emotera gero. Ba, ume ta guzti hiru milla pezetan. Ta atzenian ume ta guzti ekarri giñuan, ta umioi txikixa, artietan hamabost egun-edo eukiko zittuen. Baiña amioi, ba, erderaz ikesittakua zan, ta erderaz aindu bihar ta erderaz bai, baiña... harek ahuntzekin —ahuntza salbajiaua izaten da ardixa baiño, ta— ahuntzekin ikesitta zauen ta ardixendako gogorreixa.

- Hainka?

- Hainka ta [ene]... gogorreixa. Jo-ta lehenengo euki naben zortzi bat hamar bat egunian lotuta. Gero soltau naben ardixeana... aiba dios! Bizkor ibili bai. Elegante! Jo-ta harutz ta honutz ta haren emona! Ta halakon baten ardi batek urten dau bidetik kanpora, ta harek ahuntzak bidetik kanpora urtendakuak erretiratzen ikesitta zauen pillara, kuadrillara, ta ekin dotsa

ardixai segika ta ardixa ihesi Beizuko kortara, gure anaiaana. Jo-ta, anaiak, jo-ta sardiakin “toma!” diarka kendu eban txakurrori. Ta, gero, “Zelan dominauko ete juat nik hau?”, ta ekarri neban hona ta hemen euki neban ta “Zela dominauko ete juat?”. Akordau jatan: “Katai bat ipiniko dotsat”, katai zati bat, lotuta. Ta harek hankak katiatzen dotsez, ba? Ta ifini notsen kati narras ta fenomeno! Gero harek jo-ta bizkor faten hasten zanian, orduan ta freno gehixao! Ta ikesi eban, gero ondo ikesi eban. Ba, fenomeno. Txakurra fiña? Benetan! Gero haren umiak hazi nittuen. Haren umioi, ba, ekarri neban ume txikixoi be urten eban ta gero ona ha be urten! Gero, ba, umioi, ta haren umiak... Gero beste txakur bat Arraotzen [be baeken] ta Arraozkuak be hona ekarri eban ta hemen [kastiau]. Ta haren umiak hazi zittuen han be; sekula euki dittuenik txakurrik onenak harek be. Ta, gero, haren umien umia berriro neuk euki naban, ta ha be ona. Ta oin dakatena be haren herenziakua da, lau, laugarren herenzia dakat, ta danak izena be berdiña: “Txato” danak.

- “Txato”?

- “Txato”. Ta danak onak, e! Ta danak toke iguala dake. Esateko begira beti biharra eitteko. Ez hari esan ta egon geldi... esateko begira, ddiff! Jo-ta aide!

- Goguakin...

- Goguakin! Dios! Fiñegixak. Ta danak holakotxe txakurrak urten dabe. Bai. Honek buztana erdikiña motza dake, berez, jaiokeratik. Razak, razak. Han, hango napar txakurrak. Ta txakur fiñak. Ba, hemen lehenao txakurrak egoten zian diferentia: uletsuauak eta buztan-luziak eta diferentia. Ardi-txakurrak, baiña pixkat suabiauak. Honek dia nerbixo gehixaokuak.

- Hobiak?

-Hobiak, lan gehixao eittekuak. Bai, pastoriandako txakur ona... puf!

- Inportantia izango da, ez?

- Inportantia. Nik ardixak zaintzeko ez dot neuk ibili biharrik eukitzen; txakurrak . “Han” ta “hor” ta aindu besterik ez.

1.43. Lanik gogorrena Gabonetatik aurrera: esnea batu, gaztagintza...

- **Hizlaria(k)**: Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-005/016
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:59:30. **Bukatu**: 01:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Artzaina izatea gogorra da, lan asko. Sasoirik gogorrena Gabonak ostean hasten da: bildotsak atera behar, ardiak gobernatu, gero esnea batu eta gaztagintza... Lan gogorra da. Esnea batzea baino, gerokoa da txarragoa: gaztak egin, ontziak garbitu... Eta gainera berandu amaitu. Esnea batzea (jezte) ez zaio sekula gogorra iruditu; erraz egin izan du.

Transkripzioa

- Gogorrena ze da?

- Gogorrena hemenditxik aurrerako zererakua, neguko asuntua ardixana. Jaten be etxian emon bihar. Gero, etara be egualdi ona bada in in bihar

dozu ardixa kanpora. Ardixa bakarrik, barruan bakarrik be ez da ondo egoten, pixkat kanpua be... Nahiz ta bedar gutxiao jan erein, pixkat freskatu ein bihar dau. Ta artzai haundixak hor, ba, hemen Gipuzkuan darenak eta, hor Urbixan-eta badakizu zelako errebañuak egoten dian? Bostehun daukezenak eta. Harek neguan... ño! gogorra pasatzen dabe negua, gogorra! Lagun bi edo hiru bakarrik eta bostehun... zazpirehun ardi [daukezenak] be badaoz ta harek... buf!, negu gogorra.

- Ta ze da gogorraua, esnia batzia edo gaztaiak eittia edo moztia...?

- Bai, danak, danak. Batzia bakarrik ez da gogorra. Batzia be bai, obligaziñua daukazu, goizian ta illuntzian batu ein bihar dozu ta ein ein bihar da obligatorixua. Bestela, ez dao zerik, baiña... Obligaziñozkua da, baiña gero... geroko lanak. Neri beti batziak sekula ez dosta emon bilddurrik, lehelengo lana dalako. Gerokuak. Gero: gaztaiak eittia, gero ontzixak garbittu bihar gaztaiak eindakuan. Harek danak ein bihar dozuz. Ta harek atzeneko lanak berandu izaten da ta ha izaten da nekosua, azkena.

- Nekatuta ta...

- Nekatuta ta berandu ta lo itteko gogua ta danak indda. Lehelengo lana, ba, batzia. Ba! Batzia, ba... Batzuk esaten dabe batzia ta... Ez, batziaaittik ni neu sekula ez naiz kejau.

- Batu zelan eitten dozue? Barruan?

- Bai, barruan, bai. Bueno, kanpuan be bai, e! Guk ardixak kanpuan askotan batzen dittuu. Oin, fan dan urtetan, ba, gutxi dakat eta barruan. Baiña nik, ostian, edozein lekutan. Udabarrixan egualdixak ondutakuan "da!" pilau pista batera ta [...] txakurra ipini aldamenian ta geldi-geldi ardixak.

- Bai, e?

- Bai. Ta norberaana etorri, gaiñera, asko batzera, [erak gustora]. Bai. Nik kontrola itten nabenian hor Legazpikua etortzen zan Bautista Otaegi. Oin Arantzazuko hor zerian artzai-eskolan egoten da eskolak emoten. Ta ha etortzen zan lehelengo hona ta esaten eban —Legazpikua zan ta—: "Harrittuta, harrittuta egoten naiz ni holan ardixak etortzia". Ta nereana etorri [eitten...] ardixak. Neu makurtu ta nik eingo naben... Posturia igual in baneu irabazi: metro-kuadrúa ifini norbera urten barik egoteko ta berrogeta hamar ardi igual batu baietz han. Etorri eitten zian ta! Norberak haxe bakarrik ein bihar. Etorri. Ta... "Harrittuta egoten naiz ni, holan ardixak etorri bihar —esaten eban—. Beste errebaño batzutan ihes itten dabe batzuek". Ta [neri] be badakat bat ihes itten dabena oin be, baiña... Batzuek batzen hasittakuan gustau ez batzerik eta ihesi igual! Ta besteko baztarreraiño juan bihar harrapatzera. Ta gurian, bueltan-bueltan etorri, etorri ta norberari bizkarrian hazkaka ardixak buruakin ta [harutz juateko].

1.44. Aranzeta auzoko baserriak

- **Hizlaria(k)**: Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-010/003
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:04:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Aranzeta auzoan dago bere jaiotetxea. Nondik joaten den. Auzoko baserrien izenak.

Transkripzioa

-Ze auzo da hori?

-Aranzeta. "Barrio Aranceta". Hemen entradia, goittik behera bagoiazek Izarreko Buelta rapidua, plakia bajaok ba hor, hortxe hartzen dok Aranzeta. Jaozik, "uno setecientos" uste juat dakazela karreteriak. Hortik... amaitzen dok.

-Eta basarrixak zeintzuk dare han?

-Lelengua, goittik behera goiazela entradan, harutz goiazela, Aranzeta. Bi bizitza, bi bizitzako etxia. Basauri eta... Sarasketa bestia. Apeliduak, e! Aurreratxuao daok beste bat: Aranzeta Erdikua. Propietarixua dok Arraotz; haretxen propiedadia, propietarioxuok. Gero, berriro, Ojanguren... beste bat. Ha be etxe bakarria dok. San Martin, ermita txikitxo bat. San Martin, ermita txikitxo bat jaukak aurrekaldian. Eta handik aurrera segittu, ta Itturritta. Itturritta esaten jotsau, Itturritak. Ez jakixat zegaittik dan. San Blas, ermitatxo bat, San Blas. Eta jaozik: Iturri, "caserío" Iturri, "caserío" Aranzabal eta "caserío" Kastillokua. Castillo. Hiru basarri. Prazuelia eta halaxe goratxuao ermittia. Hantxe bukatzen dok. Eta guria daok beheratxuao. Laurehun bat metro inguru goittik behera, basarrira.

-Eta biderik badago?

-Goittik behera ez, oiñezkua bakarrik, bidetxiorra. Horra kamiñua daok, zementozko kamiñua daok horra, Diputaziñua [...]. Eta gurera jaok Uberatik gora.

1.45. Baserri bakoitza zein errotatara

- **Hizlaria(k):** Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-010/011
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:16:36. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Errota
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Inguruetako baserrietakoak euren etxe ondoko errotara joaten ziren, baina beste alderdikoak inguruko beste errota batera. Entzunda du Aixola-errekan ere bazela errota, baina ez daki horko berririk. Lehenago beste alderdikoak Uberako errotara joaten ziren. Uberako "Bolu" errotan ur asko izaten zen. "Danobat" zuen izena euren errotak. Egunean batek izaten zuen ardura eta apuntatu egiten zen.

Transkripzioa

-Zeuen inguruko basarri guztiak hara (errotara) eruaten zeбен?

-Bai. Egotxiagakuak be bai. Joane Egotxiaga, Juan eta Villar, horrek bixok be hantxe hartu juen parte.

-Beste errotari bat zeuan Elgetan?

-Bai, hementxe Isuziarrian, Aranburun ostian, hortxe behian. Uberatik zihar fan eta hortxe. Beste barrankadia, goittik beherako hau. Hori zuan hor Aranzeta aldeko zera zuan, Barrio Aranzetako errotia zuan hori, eta bestia, kamiñotik honuzkuau, bestiau hona bestekaldera.

-Aixola Erreka inguruan besten bat bazeuan?
 -Lehenau bai. Baiña gero galdu ein zittuan horrek. Geure denporan galdu zittuan. Horko barri gutxi jakixat. Mutikotako ipoiña dok, baiña... Hor hasi nintzuan neskiakin, neskia, nobixiakin biajeka, baiña ia koskortuta gero, soldauxkia ein ta gero. Eta horko barri gutxi jakixat. Lehenao egon zittuan hemen; gero horrek be azkenian... Azkenian ez. Aspalditxuan urtietan, gu eskolan gabizela, behintzet, horra faten zittuan, Uberara, horrek be.
 -Zuenera ez.
 -Ez, ez. Gurian ez jauan hainbeste... ur gutxi jeuan; baiña Uberan bai. Okandi, Bolu... Hor jauazen hiru etxe hortaraxe dedikatzen zianak; depositto haundixekin, presa haundixekin, eta ur asko [...].
 -[...]
 -[...] Hor eitten juen astuakin atzera, astuakin eruan eta atzera etxera.
 -Eta zuenak izenik bazekan? Errekalde esan dozu basarrixa, baiña errotia be Errekalde zan?
 -"Danok bat".
 -Danok bat zan?
 -Bai. Oinddio han daka paretian, ez dakit zerekin, ikatza edo holakotxe zeoze zikiñakin daka, Danok bat. Kuadernuan, liburuan be halaxe ipintzen juan.
 -Danok bat?
 -Bai, egunian batek eitten juan errotako lana, ez dakik? Uruna eitten juan, eta eskribitzen zuan eta, ze egunetan, firmauta lagatzen juan. Akta bat. Liburu... akta bat, eta urtian eitten zanian, juntia eitten zanian ba...

1.46. Gidatzeko baimena Arraten atera zuten

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-014/004
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Rosario Bergarara joaten zen tratuaekin hasieran, baina autoa erosi zutenetik Arrasatera. 40 urterekin atera zuten karneta Rosariok eta senarrak, biek egun berean. Arraten ateratzen zen gidatzeko karneta orduan. Azterketa teorikoa Arrateko Kantabria jatetxean egin zuten. Baserrietako emakumeek beharra izaten zuten eta horregatik atertazen zuten gidatzeko baimena. Lehen autorik ere ez zegoen eta ezta biderik ere.

Transkripzioa

-Hemendik jokerarik bazeuan Mondrauera joateko?
 S: Bai.
 -Gertuao eukiko dozue?
 R: Gu faten giñan, e, plazara faten nintzan, e. Kotxia ekarri giñuanian... la berrogei urtekin [...] kotxiok-eta.
 S: Aurretik Bergarara. Eta honek kanbixau eben gero, astuakin faten zien Bergarara, eta gero kotxia ekarri ebenian, danak Mondragora gero, tratuaikin. Joen, gero edarto. Hamendik Mondragora segittuan dao ba.

Bueno, honendako etorri zan, e, bentajia demasa!

R: Berandu hartuta, baiña kotxia kotxia derriorra zan, hemen kotxe barik ezin zeikien ibili, eta berrogei urtekin-edo hartu giñuan guk karneta. Derrior, obligauta; obligauta.

J: Puxkat egun baten ikesi eta egun baten aprobau.

-A bai, e?

R: Motorran-eta ibiltzen zan aurretik-eta. Baiña nik ez nekixenez zetarako zan enbragia, zetarako zan azeladora...

-Baiña normala, ezta?

R: Ba hoixe. Eta ikisi ba zer ba...

-Karneta nun ataratzen zan?

R: Arraten. Egiñalian kalera. Han txabolatxo bat dao, eta [han geratu].

Arratera faten naizenian beti esaten dot: Hementxe geratu nitzan ni karneta etarata, laga nindduen eta honek aurrera oinddio segi [...]. Teorikia aurretik bertan ein saloi baten, sala baten eta...

S: Kantabrianian, tabernia, zeuan quarto bat, eta hantxe.

-Teorikua?

S-R: [...]

R: Elorrixoko batek hartu eban behintzet kalabazak-eta. Gu pozik emon oskuenian, etxera. Hori izeten da, hiru-lau lagun alkarrekin ibiltzen ga-eta: "guk ein giñuan ba, e! Harek karneta etara ebenian bezkaldu barik etxera etorri giñuazen ba!" Santi [Larreak] zenbat bidar esan doskun.

S: Karneta etara eta etxera. Lehen ez zan oingo moduan-eta.

-Zelebrazitoren bat... Orduan, gaiñera, sasoi horretan andra askok etarako zeben karneta, basarriko andra askok?

R: Bai, bai.

S: Bai, basarrikuak, honen edade ingurukuak ekin zien eta danak handik beherakuak...

R: Baiña aurretik ez.

S: Aurretik asko ez.

-Baiña esatia nahi dot basarriko andrak kalekuak baiño...

S: Falta gehixao eitten otsen eta.

J: Gure edadekuak (Jareikuak) mordua geratu zien orduan, ez ebela pasauko-eta. Bai ba.

R: Gure aitzak, guk be danok. Gu be aizta mordua ga eta danok, nere atzetikuak etara eben behintzet eta. Harek kalia bizi zien, baiña harek be etara ein eben.

S: Basarrikuak gehixenak.

R: Nezezidadia, derriorra zan. Hemendik urten bihar baziñuan ba... Eta gizonak bakarrik ez, andriai be falta eitten otsan...

-Plazara joateko?

J: Andriak gehixao...

R: Plazara eta ostian ibiltzeko.

S: Eta etara barik geratu zana pena, penetan. Hamen badaoz andra batzuk etara ez zabenak, eta penetan.

R: Bai, goguan daukat, Rufinai, hemen azpiko andriai entzuten dotsat, harek larogeta hamaika urte, eta: "Kirieleisonak erreza biharrian, ikisi biharrian orduan ikisi baleu sikiera teorikia", zenbat bidar esaten eban horrek be. Orduan erresaixua eta, ez dakitzu? Kirieleisonak-eta horrek, harek ikisi zittuala, baiña teorikia ikisi baleu nahixao ebala, eta holakuak esaten zittuen.

J: Baiña ha be pasau zan-eta...

S: Oin danak etaratzen dabe-eta. Neretako ondo dago hori etaratzia, eskolia...

-Badare gauza batzuk sobran ez darenak, ez?

R: Gure loibak-eta Zaldibarren bizi dia, eta trenan estaziñua, behian, erak

bizi dian behian, eta autobusak eta danak, baiña harek bixak atara dabe harek be.

-Badaezpada...

R: Bai, bai. Eskolara eta lanera fateko be derrior [...], eta gero be bihar bada eta...

S: Gure aurretik gitxi zagon.

R: Kamiñoik be ez zaon-eta.

1.47. Euren garaian ez zegoen errenterorik auzunean

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-014/006
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:13:35. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Garai batean baserrietan errenteroak izan ohi ziren. Dena dela, euren auzoan gerra osterako dagoeneko denak jabe eginak ziren. Hala ere, Elgetan baziren euren akorduan ere errenteroak. Irizar izenekoa zen inguruetako baserri askoren jabea. Euren ezagun bat errenta ordaintzera kapoi parearekin joaten zen. Entzunda dute gariarekin ordaintzen zela lehenago errenta, baina beraiek ez dute halakorik ezagutu.

Transkripzioa

-Sasoi baten basarri hau-eta zer zien, errenteruak?

J: Danak errenteruak lelenguak. Gero politto-politto...

R: Zuek be noiz erosi ziñuen ba...

S: Neu ez naiz akordatzen gure basarrixa-ta.

R: Errenteruak zianik zu ez za akordauko, e.

J: Ni ez akordau, baiña papelak ipintzen dabenez...

S: Hamen barrixuan errenteroik gerra ezker bape ez da egongo. Errentan iñobez hamen auzuan.

J: [...]

S: [...] Hamen Sagasta egongo da bakarrik, hortxe barrixuan bat dago bakarrik gure denporan erositakua. [...]

-Etxe-jabe haundiren bat zeuan, propietarixo haundiren bat baserri asko zekazena?

S: Lehen bai zagozen, baiña Donostian-eta. Irizar-edo zela zuan? Harek-eta bazekazen hamen basarrixa, baiña...

R: Arrota-ta, Kaminburua-eta harek.

S: Egongo zien hoge-edo igual baiña...

R: Bakotxak bere etxia ostian.

S: Hamen gure barrixuan iñobez, ni ez naiz akordatzen. Elgetan "en cambio" asko, baiña Elgetan mordua. Baiña hamen gure..., hamaika-edo ga gu, eta bapez. Danak erena. Bi-edo zagozen, itxuria, eta gerra-denporan erre-edo. Loitti eta Sustraitza [...] zittuan. Harek [hil zien] eta ia harek kalera fan zian gero, abandonau basarrixa eta...

R: Loitti lehenao.

S: Baiña hau akordatzen da Loitti [...]

R: Geuk erosi giñuan, Larraiñakuak erosi eben Etxebarri eta. Loitti-eta.
 -Orduan ez dozue jakingo etxian entzunda etxe-jabiei errentia zela pagatzen jakuen?
 S: Angiozarko batek, Elgetan Angiozarko bat, honen suiña, honen alabia hangukin dao ezkontuta-ta. Harek pagatzen eban kapoia, errentia hainbeste eta gero kapoiakin faten zen pagatzera Angiozarrera. Geure parientia zan gaiñera uezaba, Migelenekua. Eta ha faten zan; ez dakit zenbat zan orduan, entzunda nao baiña. Hutsa zan orduan urtekua, baiña ha eta kapoi paria eruaten eban.
 R: Ointxe gutxi dala horrek erosi dittue etxiok. Ipiñi eben nahi dabenak erostia.
 S: Errentian konformidadian edo, ez dakizu?
 R: Salbak-edo, hori zuk esan dozuna hankia moztutakua-edo, horrek ez ebala erosi esaten dabe.
 -Baiña sasoi baten errentia garixakin pagatzen zala, holakorik entzunda?
 S: Garixakin pagau errentia, entzun bai.
 J: Hainbeste gari eta hainbeste...
 S: Hainbeste anea edo.
 R: Ez dakit hori, baiña gerra ostian entregau bihar izeten zien, gari mordua Beragara eruanda...
 -Errentia pagatzen garixa-eta bai, ezta? Entzunda edo?
 S: Bai.

1.48. Artazuriketarekin batera arrosarioa erreztatu

- **Hizlaria(k):** Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-014/007
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Artoa
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Etxeko giroa. Artazuriketa egiten zenean, iluntzeetan, tertulia egiten zen etxean: Rosarioren aitak bertsotan egiten zien eta Sebastianen etxean arrosarioa erreztatzen zen. Kirieleisonak tximiniaren aurrean belauniko jarrita erreztatzen zituzten.

Transkripzioa

-Lehenao afalostian-eta ipuin-kontari eta ibiltzen ziñazien?
 S: Bai. Gari-joten...
 -Ez, neguan; afaldu eta beti lanen bat egongo zan...
 S: Arto-zuritzeruzkotan eta ipuiñak.
 R: Gure aittak bersotan eitten oskun arto-zuritzera faten giñanian.
 -A bai, e?
 R: Bueno! Bersolarixa zan ha, edo beren zera, talentua.
 S: Guk erreseixua erreza-eta, hamen erreseixua erreza-az izeten zan asko.
 R: Harek bersotan eitten oskun guri.
 -Eta nun ikasittakuak?
 R: Bere zera hoixe. Eta gure semiak be hori puxkat tokia harena daukala

esaten dotsat nik honei, e. Harek be bertsolari danetan oin be. Sozio edo zeoze bada eta.

S: Honen aldera urten dau semiak be.

-Zeuek errosarixua?

S: Guk erresaixua.

R: Belaunbiko jarritta, gaiñera. Tximinixan beheko sua, eta honek egoten zien holan, hantxe goixan tximinixan eskuak ifinitta. Ni txokauta.

Kirieleisonak errezatzen zittuen, e!

-Zelan esan dozu?

S: Kirieleisonak. Badakizu erresaixuan zela izeten dan, e

R: "Ora pro nobis", Santa Maria, eta honek.

S: Horrek belaunbiko.

R: Belaunbiko. Jarri tximinixan, suan azpitan eta. Akordatzen naiz ni. Ni hona etorri nintzarian belaunbiko jarritta errezatzen eben honek gero, e! Nik baiño fede gehixao euken, itxuria. [...] Larrañan ez giñuan ein holakoik, baiña.

S: Egunero guk erresaixua. Egunero-egunero.

-Eta zenbat urtera arte?

S: Ni lanera fan arte. Eibarrera fan nitzan hamasei urtekin-eta. Gero laster geratuko zan, gero akabo.

1.49. Eibarrera plazara saltzera

- **Hizlaria(k)**: Atorrasagasti Arana, Sebastianana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-018/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena**: 15 urterekin hasi eta urte askoan joan izan da Eibarrera baserriko jeneroa saltzera. Babak, patata, esnea eta beste hainbat jenero saltzen zituen plazan. Astean pare bat aldiz jaisten zen kalera.

Transkripzioa

-Bajatzan ziñan plazara edo saltzera, Eibarrera?
-Bai. Neu faten nintzan Eibarrera. Ni urte askuan fan nintzan Eibarrera basarriko jenerua saltzera.
-Astuakin?
-Astuakin.
-Eta ze gauza saltzen zenduzen?
-Ba segun. Azak, babia, porruak, patatia, esnia... Basarrixan hartzen zian gauzak. Basarrixa haundixa genkan. Basarrixan hartzen zan jenerua. Dana.
-Zapatuetan plazara edo egunero?
-Bueno... Astian pare bat aldiz edo.
-Zenbat urtekin joaten ziñan?
-Hor... Hamabost urtekin hasitta.
-Lehenago zure ahizpia?
-Bai. Lenengo aitzak, ahizpak. Sei ahizpa nekazen eta danak ba... Baiña harek ezkondu zienian..., gaztia nintzan, baiña neuk hartu bihar martxia. Lana buruz gain beti.
-Orduan merkatu-plazan Eibarren jente asko, ez?
-Orduan asko, orduan asko. Baiña gero nik laga notsanerako ia [...].

1.50. Txerri-hiltzea; "erregaloak" auzokoei

- **Hizlaria(k)**: Atorrasagasti Arana, Sebastianana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-018/013
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:22:15. **Bukatu**: 00:25:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserrria » Baserrriko lanak » Abere-hiltzea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Txerria hiltzen zenean "txerri-boda". Lehenbizi txerria hil eta haren gibela jaten zen inguruko artean eta gero lanak egiten hasten ziren. Txerria hildakoan "erregaloak" egiten ziren auzora: odolostea zatiren bat, solomo zatiren bat... Bera ere ibilia da txerria garbitzeko lanetan. Txerria hil ostean egiten ziren lanak azaltzen ditu. Jakiak kontserbatzeko gatzetan sartzen ziren. Hilabete inguruan gordeta eduki eta gero zintzilik jartzen ziren lehortzen.

Transkripzioa

-Eta txerrixa hiltzen zanian ospatzen zan hori, txerri-bodia edo?
-Bai. Txarrixa hiltzen zanian ba, garbitzen zanian, eta gibela etara-ta igual lelengo... orduan egunian izeten zan, txarri-bodia esaten jakon. Txarrixan gibela jatia. Hamarretan, inguruan dauan jentia; txarrixan gibela jatia. Eta gero ba handik aurrera zertu ein bihar izeten zan, bere lanak ein bihar izeten jakon: garbittu, ixegitta euki, eta.
-Inguruko jentia joaten zan txerrixa hiltzen zanian?
-Bueno, bai, auzoko unakuak bai. Gero orduan izeten zan txarrixa hil, eta erregaluak bialtzeko kostunbria euan auzora. "Por ejemplo" hemen badare lau etxe, ba horra lau etxetara odolostia, bat edo bi, eta solomua beste zatitxo bat, eta urdaixa beste zatitxo bat; ez dakizu, erregaluak. Sarrik askotan solomua bestiei pixkaka bialtzen, bestiei pixkaka bialtzen, etxerako bape barik igual geratu.

-Azkenian hori?

-Azkenian hori.

-Eta zu ibiltzen ziñan txerrixa garbitzen-eta?

-Bai. Gero ein bihar izeten zan zertu, egun baten egon bihar izeten zan, gorputza hartu deixen; bestela maxkal-maxkala egoten da, baiña egun baten geldi hotz-hotzetan euki eta, ez dakizu, okelia be gogortu edo, gorputza hartu. Orduan dana txikittu, txorixotarako okelak apartau; urdaixai txorixuak eitteko okelak apartau; eta urdaixak, ba eitten zian holako zatixak, eta ipiñi bihar izeten zian gatzetan. Gatz artian ezkutauta.

-Zetarako?

-Gero urte guztian agumentau deixen. Gatz artian. Gatzakin tapautakuan dana, eta gero ipintzen jakon harrixak, ipintzen jakozen gaiñian, gorputza hartu deixen. Eta ba gogortuta geratzen zan gatzan zerakin eta pixuakin-eta. Gero pimentoiak emon, eta han eukitta luzero, e! Ez dotsut esango seguru baiña, hilabete bat edo... Hainbeste be igual ez, hamabost bat egun edo. Handik etara, gatz danak kendu, pimentoiak emon eta ixegitta eukitzen giñuzen. Oin ez dare, baiña lehenao goixan gantxuak hor egoten zian pernillak ixegitzeko. Pernilla osuan. Oin halakuak [...] txikitxuauak dabiz baiña. Pernil osuak, osuak. Han ixegitzen zian eta han [egoten zian] sikatu arte.

1.51. Ardi-zainaren lanak

- **Hizlaria(k):** Atorrasagasti Arana, Sebastiania
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-018/014
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ganadua ere bazuten etxean eta baita ardiak ere. 80 ardi zituzten eta ardi-zain ibiltzen zen. Ardiak goizean mendian ahalik gorenera igotzen dira, baina egunean zehar sakabanatuta ibiltzen dira. Horregatik eguna argitu aurretik joaten zen ardien bila batu, etxeratu eta jezteko. Ardiak zelaian zebiltzanean zaindu egin behar izaten ziren. Aixolaerreka ahizparengana joan zeneko pasadizoa.

Transkripzioa

-Behirik bazeunken?

-Behiak esan dozu? Ezkondu baiño lehen be bai, mordua behiak. Bai, eukiko giñuzen zazpi behi, idixak, eta ba txahalak, ardixak... Ni pastoria ixendakua naiz. Bai. Geunkazen larogei ardi. Eta ba harekin.

[...]

-Bai, fan bihar izeten zan zelaira, hara edo hona. Harek bihar eben. Oin sasoe honetan, bilotxak eindda daren denporan edo bilotxa eitteko denporan... Ointxe da. Hasitta dao, baiña ia marzora arte edo ixeten da. Eta harek gobernau, basora fan, ekarri, eruan... Ni goixian faten nintzan. Goixian mendira ardixak gora faten dia, gorenera, dagonik gorenera. Eta illuntzian faten baza zabalik ibiltzen dia basuan eta ezin dozuz batu, topau, ez dakizu? Goixian izarrak daren artian urten eta fan hara puntara, eta hantxe etzindda danak. Hartu aurrian eta etxera. Hartu ein bihar izeten

zian esnia batzeko.

-Orduan goiz jaiki bihar ziñan, ez?

-Pentsa eizu, izarrak daren artian hara puntara fateko, pentsau noiz jaiki bihar nintzan. Txakurra nerekin eta linternia-eta...

-Gabaz.

-Bai, gaba, ordu hortan gaba da artian.

-Eta gero bueltau etxera...

-Gero ba etxerakuan esnia batu eta atzera bialdu basora eta, hurrengo goizera arte berriz.

-Buelta ze ordutan etxera?

-Ba segiduan. Fan, eta geldi dauana hartu aurrian eta goittik behera ba ensegida etxera. Illun dauen artian etxera, goixian illun dauen artian etxera.

-Ez ziñuan eruaten bazkarixa?

-Ez, ez. Baiña... egunez etxian egoten nintzan ni. Ardixak basuan ibiltzen zien. Oin zelaixan billotxekin eren denporan zaindu ein bihar izeten zian. Zelaixan ibilli bihar izeten zian asko eta. Orduan bai, orduan zeozer hartuta. Akordatzen naiz behin, aizta bat bizi neban hor Aixola Errekan, esan dotsut lehen han presia dagon lekuan han behian. Joan nintzan, edurra euan; edurrakin be etara ein bihar izeten zien zeozer. Edurra be gutxi dauanian zela egoten dien bedarra, moltsuak eta zerak; etara ein bihar izeten zien ura eran eta ein deixen. Fan nintzan aitzia bizi zan lekura, haren etxeko zelai batera. Hotz bat euan! Edurra. Eta aizta... aintxiñan hil zan baiña, aiztiak konbidatzen dosta bokadillua taluakin eta txorixuakin; talua bero-berua, eta txorixua erdixan dala, bokadilluoi. Sekula ez jata ahazten. Harekin hotzakin ha bokadillo berua hartu nebanian, zerua haxe zan, zerua! Ni beti bizimodua latz-latza eruandakua naiz. Baiña ze eingo dozu ba; oin ondo bizi ga eta. Daukuna oin gauza ez ezetarako gehixao. Ni bi makulukin nabil.

1.52. Aita errementaria

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Alberdi, Angeles; Arantzeta Alberdi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-026/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Aita errementaria zen eta haren lanaren inguruan hitz egiten dute. Tailer txiki bat zuen eta pistolen seguroak egiten zituen.

Transkripzioa

-Gurasuak Elgetakuak ziran?

A: -Bai, bueno, ama Angiozarkua.

ML: -Angiozarkua, Bergan jaiotakua.

A: -Baiña urte bikin etorri zan horra basarri batera Angiozarko basarri batera ta hantxe bizi zan.

ML: -Aitta bai, hemengua.

-Ermentarixa da aitta. Ermentarikuak diez honek.

A: -Ermentarixa. Perratzen eta harek ez eban eitten.

ML: -Aittajaunak.

-A.: -Aittajaunak bai? Perratzen eta?
 ML: -Ermentarixa ha izango zonan.
 A: -Gero aittak itten zittuan piezak pistolendako, Star Eibarkua. Segurak eta. Eta gero Elgoibarren be bai bazaon beste -Gabilondo-, Jesus Maria, pistolak eitten zittuenak, horrek armok eta eitten zittuenak, eta harek be bai. Ta gero Unceta y Compañía, horrek gernikarrak zian, lenengo Eibarren zaozen baiña gero Gernikara joan zian, ta harako be bai. Holaxen. Horrentzako eitten zittuan piezak.
 -Taillerra zekan aittak?
 -Tailler txiki bat.
 -Berak bakarrik eitten zeban lana?
 -Berak eta semiak be eiñ eban, gero bihargiñen bat be euki eban.
 -Elgetan bertan zekan taillarra?
 -Bai. Elgetan.
 -Etxian?
 -Ez, ez, aparte. Ia bota dabe ha be.

1.53. Baserritik bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-029/002
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:01:12. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Etxean behiak, idiak, txahalak etab. zituzten. Baserriko lanak egitea gaztetatik tokatu zitzaion. Esnea saltzera Eibarrera joaten ziren, hasieran ama eta Juanita bera gero.

Transkripzioa

- Baserrixan animalixak-eta bazekazuen?
 - Bai, bai! Zerekin bizi giñan ba? Artua ta garixa ta patatia ta... etxian hartuta. Bero hamen, ezta?
 - Bai. Ta ze animali zekazuen?
 - E?
 - Ze animali zekazuen baserrixan?
 - Behixak eta txahalak eta idixak eta danetik. Astua eta, astuakin Eibarrera esniekin ta.
 - Zuk be orduan laguntzen zenduan baserriko lanetan?
 - Hoixe!
 - Txikitatik?
 - Txikittatik, bai, gauza ixan giñanetik. Zazpi urtekin sartu nintzan eskolan, hamen, kalera. Ta...
 - Eta zelako lanak eitten zenittun?
 - Lanak, ba, basarrixan daozenak, atxurran ein bihar zianak, atxurran, ta segan in bihar zianak, segan, ta danera.
 - Txiki-txikitatik?
 - Txiki-txikittatik ez horrek biharrok, baiña behin dozena bat urtera ezkerioittio.
 - Ta gero baserriko gauzak saldu eitten zenittuzten?
 - Bai, saldu, bai.

- Eibarren?
- Eibarrera enjeneral juaten giñan, Eibar zan gure zera. Esniekin be Eibarrera. 13 urtekin juan nintzan auzora kriada, ta egunero goizian bostetan jaiki ta esniekin Eibarrera.
- 13 urtekin?
- Bai.
- Lehenau ama juaten zan?
- Bai, ama lelengo. Baiña gero kriada egon nintzan beste basarri-etxe baten. Tontuak giñan gu, kriada juan bihar ta basarrira. Kriada badakizu zer dan? "A servir".
- Bai. Elgetan be bai, beste baserri baten?
- Bai, bertan auzuan...
- Auzuan bertan?
- ... eon nintzan, bai.
- Eta, orduan, baserrixan danetatik eitten zenduan?
- Bai, bai, ofizinan ez beste danian ein dot nik lanian.
- Goizian goizetikan?
- Bai.
- Ta lan gogorra?
- Bai, lan gogorrak. Oin adelantuak dao basarrixan be, baiña orduan ez euan adelantoik. Oin traktoriak eta gauzak dao , baiña orduan ez euan traktoreik, ganauekin ein bihar zan.
- Ganaauak?
- Ganauekin, ba, idixekin o behixekin.

1.54. Baserriko lanak eta eskola

- **Hizlaria(k)**: Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-029/004
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:04:50. **Bukatu**: 00:07:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Baserrian egiten zituen lanak aipatzen ditu. "Ittulan" egitea zer den azaltzen du. Zazpi urterekin mojen eskolara hasi bazen ere, mojena ordaindu egin behar izaten zen eta Juanita eta etxeakoak eskola nazionalaletara pasa ziren. Adin ezberdinetakoak batera joaten ziren eta gaztelaniaz ikasten zuten, euren artean euskaraz egin arren. Apaiza joaten zitzaien eta dotrina ikasi behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta eskolara lehenengo aldiz zazpi urtekin?
- Bai, komuniua ein bihar zan ta. Komuniua eitteko [sasoi] allegau zanian, zazpi urtekin, etorri ein bihar.
- Monjetan?
- Bai, mojak be bai ta maistrak. Mojetan pagau ein bihar zan eta guk ez genduen dirurik eta maistra nazionalekin ibili giñan. Nazionala, ba, ez zan pagau bihar izeten.
- Bai, bi eskola zeuazen, ezta?

- Bai, orduan eozen mojak eta nazionalak. Ni nazionalekin ibili nitzan. Orduan, han liburuak be ez giñuzen pagau bihar ta.

- Eta edade diferentietako jendia zeuazen?

- Bai, edade diferentetakuak, oingo moduan partiduta ez, juaten giñan danok hantxe. Bai. Mojetan eskola txikixa eta eskola haundixa eozen. Lehenengo mojetan sartu nitzan eta gero, ba, pagau ein bihar zan ta.

- Dana erderaz ematen zenuten, ezta?

- Bai, erderaz eta euskeraz.

- A, euskeraz be bai?

- Euskeraz ez giñuan eskolaik eitten, baiña berba hitz ein. Ta maistria, nazionalera fan nitzanian, ba, euskeraz baekixen, baiña eurak erderaz. Bandera nazionala-ta ipintzen zien ta. Eskusaura ta "al servicio" ta, ikesi, buruz ikesi bihar, "permiso para el excusado", "permiso para el excusado" ta ikesitta jua nitzan ta... baiña ez neban ikesi zer kontestau bihar ostan! Ta "vete", ta nik ez nekixen "vete" k zer esan gura eban! Ta "jua zaitte ba!". Eske ez genkiun letra bat be erderaz eta.

- Zenbat urte jua ziñan monjetara?

- Mojetara zazpi urtekin.

- Baiña noiz arte?

- Ez dakit noiz arte egon nitzan.

- Gerria egon arte?

- Ger... Ez, gero nazionalian ibili giñan gerra denporara arte. Gerra denpora ostian be pixkaten ibili nitzan, baiña gero ez, gero [kalera]. Zeozer, behintzat eskribitzen eta leitzen-ta ikasi giñuan ta.

- Ta errezatzen edo?

- A! Hori bai. Hori... Abadiak etortzen zien elixara, edo zerera, eskolara, ta dotriña preguntau ta gabian ohera juandakuan ikesi bihar izaten giñuan hurrengo egunian lekziñua hartu bihar oskuenian.

- Jakin [...]?

- Jakin ein bihar.

1.55. Eibarrera jeneroa saltzera eta eroatera

- **Hizlaria(k):** Elkorro Ansola, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-031/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Bizimodua Eibarren egiten zuten, bertara joaten ziren jeneroa saltzera eta eroatera eta. Esnea saltzera egunero jaisten ziren Eibarrera.

Transkripzioa

-Guk probabilidadia eukitzen genduan esnia Eibarrera saltzeko, guk bizimodua Eibarrera eitten gendun. Elgetakuak izen arren, Elgetara ba aiuntamentura edo Pazkuakua eittera edo holako gauzetara Elgetara, baiña ostian bizimodua Eibarrera; ezer bazeuan ortu-gauzarik edo saltzeko edo; esnia diarixo, esniakin diarixo Eibarrera.

-Zein bajatzen zan esniakin, ama edo?

-Batuetan ama ta hurrengo geu ta. Errekauak ein bihar zienian ama, harek

jakintzen zaban etxian ze falta zan, ta errekaurik ez zeuanian ba mutikuak.
 -Eta ze, astuakin bajatzen ziñaten?
 -Astuakin, bai.
 -Ta bezeruak eukiko ziñuzten. Fijuak edo?
 -Bai-bai, fijuak, fijuak.
 -Beste arrebaren batekin bajatzen ziñan edo bakarrik?
 -Arrebiakin be bai. Hau be ibiltzen zan eta. Hurrengo, neguan edurra zanian eta neu jeneralian edurra zanian esniakin. Orduan egunak goorrauak izeten zian. Holan.

1.56. Larunbatean egiten zuten aste osorako ogia

- **Hizlaria(k)**: Elkorro Ansola, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-031/005
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:06:04. **Bukatu**: 00:07:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Errota
 Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Ogia egiten zuten etxean. Normalean larunbatean egiten zen aste osorako ogia. Gerra denboran errotak itxi egin zituzten eta Bergarara joaten ziren hamabostean behin Errotaerdikora.

Transkripzioa

-Ogirik eitten zenduen etxian?
 -Ogixa bai, bai. Nik hamabi urte nekazela gerria urten eban, ta errotia aurretik zeuan, hau jaio zan urtian errotia ta indarra ipiñi zian Goimendixan, Ibarrolan. Zuk badakizu nun dauan. Ta gero ba gerra denporan prezintau in zittuen horrek errotok eta. Eta gero faten giñan Bergarara Erroterdikora hamabost egunetik hamabost egunera. Lenenguan ba bezerixia hartu artian fan eta eiñ artian egoten giñan, baiña gero hamabostian-hamabostian fijo faten giñan. Fan eta eruandakua hustu ta kargau uruna ta etxera. Ta etxian ogixa.
 -Zenbatero eitten zenduen ogixa? Egunero ez...
 -Ez, astian. Astian, zapatuan, normalmente zapatuan aste guztirakua, ogixa.
 -Domekan ondo eukitzeko...
 -Bai. Domekan freskua egoteko. Bai.

1.57. Karea ongarritzat sororako

- **Hizlaria(k)**: Elkorro Ansola, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-031/013
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:27:22. **Bukatu**: 00:28:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

- **Laburpena:** Karea soroan ongarritzat erabiltzen zen. Karea harri bereziarekin egiten zen. Behean sua egin eta erre egiten zen. Irteten zen karea uretan sartutakoan hauts bihurtzen zen. Karea eta satsa lurrarentzat ongarri onenak.

Transkripzioa

-Lehen esan dozu karia eitten zala; ta karia zetarako erabiltzen zan?

-Karia ba solua mejoratzeko, abono moduan.

Anaia: -Harrixa erre bai, harri espezial bat izaten da, eta suakin. Lehen esan douna, izaten zan tubo bat moduko bat, ezta, lurrian indda, ta behian itten jakon labia, ta handik azpittik egurra sartu ta harrixa bihurtzen zan karia. Zuri-zuri indda geratzen zan ta ha karia harri baten modukua, ezta, baiña uretan sartu ta fuu!, karburak itten daben moduko efetua itten zeban, apurtu itten zan. Ta ha izaten zan sororako oso abonua ona. Ze hori jeneralian abostuan botatzen zan soruan,.

-Bai, garixak ebaittakuan.

-Zan lurrantzako oso abonua ona.

-Harek mamarruak eta...

-Satsa ta karia. Satsa izaten da "estiércol". Ha ta haria solora bota ezkerro e...

1.58. Artoa eta garia erein eta itulan idiekin

- **Hizlaria(k):** Arizmendiarrrieta Ojanguren, Bernarda

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ELG-033/007

- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:28:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Baserria » Baserriko lanak » Garia

Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- **Laburpena:** Ardiak eta behiak zituzten etxean eta anaia ibiltzen zen artzain, mendira joaten zen ardiekin. Soroan itulan egiten zuten idiekin. Artoa eta garia egiten zuten soroan eta sagar-arbolak zituzten. Ogia etxean, su labean egiten zuten.

Transkripzioa

- Behiak zenituztela esan dezu, zer ziren, esne-behiak?

- Esne-behiak ez, normalak. Orduan esne-behiak ez zezen, orduan ba basarriko behiak. Zurixa ta baltza ta gorrixa ta.

- Ardixak be bazeuzkazuela esan dozu?

- Ardixak be bai. Ardixak be bageunkazen.

- Ta ibiltzen ziñan zu artzai?

- Ez, anaia ibiltzen zan, gu ez giñan /ezkiñan/ ibiltzen, ni ez nintzan ibiltzen, anaia ibiltzen zan ardizain.

- Eta zer joaten zan, mendira?

- Mendira. Baiña orduan ez zeuan zelairik eta, mendixan zaindu bihar, ta eskoliai hau!

- Eta idiak esan dezu...

- Irixak, irixak be bai. Jolin, ittulan! Aittak erpilkaria zuzen joaten ez bazan botatzen oskun atzetik. Bergako jaixetan, ointxe pasau dia, Bergako jaixak Pazkuetan, han aitzia geunkan eta hara fanda hiru egun pasauta ta loguria, ta arto eraitten eta handik etorritakuan eta, ezin ittulan, euzkixa ta ezin eta; ta hartu erpilla ta danga! aittak atzetik, apropos harek baiña. Atzetik erpilkaria ta hantxe ibilli bihar ittulan.

- Artoa eta egiten zenduen?

- Bai. Artua ta garixa ta danak eukitzen giñuzen. Bai. Hamen be bai.

- Eta frutaik?

- Frutak, e, bai frutak eozen baztarretan sagarrak eta sartuta. Baztarretan eta, baiña bueno, frutia ez holan, askoik ez.

- Ogirik egiten al zenuten etxean?

- Bai. Hamen be bai.

- Zuk egiten zendun?

- Klaro. Han basarrixan amak, ezta, baiña hamen neuk itten neban. Bueno. lenenengo amak, hamengo amak, gizonan amak, eta gero ha zertu zanian neuk eta. Baiña amak esan oskun garirik ez eraitteko, aittak ebatekotan eta berak jotekotan garirik ez eraitteko. Ez giñuan /ezkiñuan/ gehixao eraiñ.

1.59. Baserriko lanak; inguruetan soro eta zelaia

- **Hizlaria(k):** Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref:** ELG-035/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:55
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Lantegitik irtendakoan baserrian ere lanak egin behar izaten zituen. Ganaduarendako arbitara joaten zen. Baratzean eta soroan lan egin behar izaten zuten. Inguruak nolakoak ziren lehenago.

Transkripzioa

-Eta bestela lana basarrixan be bai. Zu kalia bizi izan ziñan, baiña basarrixan...

-Bai. Handik urtendakuan arbittara Salabadorpera. Ai..., ha zuan bizimodua!

-Arbittara?

-Bai. Ganauak zeren gurian eta.

-Zenbat buru?

-Bat. Batendako lekua eta astotxo batendako.

-Familiaria edarra...

-Hoixe.

-Ze lan eitten zan orduan, ortulana?

-Amak eta bai. Ortua eta soluak be bai. Soluak Lindazurin bat, Salbadorren beste bat zuenan onduan, beste bat Kantoe ostian, eta beste bat San Roke ostian dao. Horren danon jabe Migel da.

-Oñ ikusten dogu piñuak eta, baiña orduan ez zan izengo holan?

-Ha piñua goiko kalia daona, horko kamiño onduan?

-Bai, oñ ikusten dou piñua-eta dezente, baiña lehen ez zan izengo holan?

-Keba! Orduan ikusten zittuan Olatza-ta, Miravalles-ta elegante de verdad, e!, baiña oiñ ez. Ez Asentzio-ta ez e; tapauta Asentzio be piñuekin behetik gora.

-Asentzio holan ezautu dozu, oin dagon moduan?

-Keba! Al contrario. Garbi eta ederki ikusten zan ermittia. Bai, ointxe, ura-ta gutxitxuao, ezta?, arbolak-eta loratuta edo ojatuta-eta hola egoten zian-eta.

1.60. Soziedadeko errota

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/029
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:35:12. **Bukatu:** 00:36:39
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Errota
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Hogeita seiren artean errota bat zuten. Errota hori sasoi denetan zabalik zegoen. Bertako bazkide ez zirenak ere joan zitezkeen bertara irina egitera, euretako bat egon baitzen arduradun bezala han lanean. Elgetan euren eta beste errota bat zeuden.

Transkripzioa

-Eta errota edo ez zeukatzuen soiedadian?

-Bai. Errota bat gaunkan, e, zelan zan ha? Errota bat gaunkan, hogeta seik-edo gaunkan. Hogeta seittik bat, egun baten, txandaka, etortzen zan giltzia ta han egun hartan geuk nahi giñuana edo komeni jakuna eitten da, errota ibiltzen giñan.

-Eta errota hori gerra ostian zela egon zan, martxan egon zan edo?

-Bai.

-Prezintau euki zebein edo?

-Ez, ez. Beti egon zan martxan, eta inkluso obligau oskuen sozio eztienendako be uruna eittia. Ta jarri genduen bertan sozio bat ta harek joaten jakon jentiarri uruna, iriña itten otsan, bai artua nahiz garixa.

-Kontxo! Ta hamen ez zan egon errotaik prezintaut?

-Ez zan egon prezintaut.

-Bazter guztietan egon zien ba.

-Baiña hamen ez.

-Elgetan ez? Ze euen, errota bakarra Elgeta guztian?

-Beste bat be bazeuen hor Arantzeta Ziharrian. Baiña guri sekula ez zoskuen zerrau.

-Eta gaiñera eurak obligau edozeiñi...

-Ba, bai, ez daukanai errota iriña eitteko obligaziñua, eta jarri genduan gizon bat, sozio bat, bere jornala pagau enda harei etortzen dienendako uruna eitteko, eta al mismo tiempo geuriak be berak itten oskuzen gero.

1.61. Txondorretatik ateratako ikatzaren erabilera

- **Hizlaria(k):** Elortza Eloro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe

- **Erref:** ELG-050/043
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:54:09. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondorraren neurria. Tailarretara saltzen zuten. Prezioa.

Transkripzioa

- Eta txondorran kapazidadie edo kabidie edo, esaten zenduen, ba, "txondor honek ez dakit zenbat zaku eukiko dittu" edo...?
- Ba eukiko zittuen, ba, batzuk berrogeta hamar, beste batzuk berrehun, gehixaokuak be bai, segun zetako eitten dan.
- Ya aurretik jakitzen zenduen gutxi gorabehera zenbat zaku irtengo zien?
- Bai. Zenbateko tamaiño txondorra eitten dan... Batzuk ba gero... Hortarako parajia be bihar da ta egurra ta, [ostian, ba, haraxe]. Gero harek, haundixa bada, ba, beste hamabost egun bihar dittuena, ba, harek hillebete bihar eitten.
- Zeuek ze eitten zenduen, etxerako iketz dana ala saldu be eitten zenduen?
- Ez, saldu, saldu eitten giñuan. Saldu. Eskupetan tenplerako ta...
- Zertako?
- Eskupetan kañoiak eta tenplerako eta... hartarako eitten giñuazen guk.
- Zer da tenplia?
- Tenplia, ba, kañoian bizittasuna edo... zera, tenplia oin zera emoten dotse, olixuakin-ta emoten dotse oin tenplia. Bere indarra, burdiñiak be, ba, bere indarra. Ta atxurra [edo] pikatxoia be, zerian, tenplia olixotan emoten bajako, edo uretan be, uretan be derrepente sartzen bada, ha gogorra urtetzen dau gero. Zatixa bota igual eitten dau harek. Horixe, tenplia da, ba...
- Eta ikatza saltzera eruaten ziñuen, erak etortzen ziran billa edo zeuek...?
- Guk geuk eukitzen giñuan jeneralian bezerua hartuta, ezta? Ba, taillardunak. Ta taillardunari, ba, atzen urtetan tio izeten zan enpliatzailliori. Zela Eibarren lanian ta harek lagunak be han einda eukazen, ba, haretzek zeñek zenbat bihar daben. Ta bata igual hogeizaku ta beste batzuk berrogeta hamar ta beste batzuk hamabost ta [dana...] ya eruan ta...
- Eta eruan zela eitten zan?
- Burdixan.
- Ta zeñek eruaten eban?
- Atzen urtetan neuk eruaten neban, baiña aurretik Lezetakua edo, han Goimendixan, Azurtzatik behera, hangua eukitzen giñuan. Harek, etorriko zan [...guk etarata] hamaikak ingururako preparauta eukitzen giñuan ta gero hartu ta harek Eibarrera.
- Zenbat diru eitten zeban akordatzen zara orduan zakuak edo? Goguan dozu?
- Oin ya burutik juanda [daukat]... Orduan zortzi pezeta ta be bai, ta eruatia zakuko pezetia. Egun guztia bihar izeten eban. Ba, etxetik urtetzen baeban bederatziretan, ba, basora etorri ta kargau ta ein orduko, ba, egun guztia bihar. Ta idixekin juan ta, ba, hamasei zaku eruaten zittuan, ba, hamasei pezeta. Orduan zakua, ba, sei-zazpi pezeta, zortzi... hortxe.
- Eta zetako erabiltzen zan iketza? Zetako erueten zeben iketza? Fabriketara be bai?
- Taillarretan, ba, hortxe. Tenpliak emon-ta, burdiña suberatzeko ta

kañoiak-eta pegatzeko ta...

- Trenetarako ez zan erabiltzen?

- Ez, trenak harri-iketza ibiltzen eben.

- Trenak zer?

- Harri-ikatza.

- Eta errementarixek?

- Errementarixak ibiltzen eben, baiña errementarixek ibiltzen eben gaztiña. Harek suberatzeko ta gaztaiña ibiltzen eben harek.

- Zer da subiratzia?

- Burdiña gorittu, nahiz atxurra izan bestia izan, goritzeko. Ta gero harek, ba, junguran, zera, mailluakin jo ta mehetu edo.[...] zorroztu, mehetu. Hotzian zartau eitten da ta beruan ein bihar da horrek zerok.

- Nahi dan formia emon edo...

- Ta perratokittan be bai, idixak perratzeko ta, perrak eta...

1.62. Bigarren ezkontzako bosgarren umea izan zen

- **Hizlaria(k)**: Basauri Larrañaga, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-059/002
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:01:11. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Mañarikua, Maitena
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita bost ume zituela alargundu zen. Felisaren amarekin ezkondu zen eta beste bost ume izan zituzten, gazteena Felisa. "Ogi nagusikoa" eta "ondra bazkaria" zer ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Ta nere aitta zan alarguna, ta nere ama solteria ta nere aittak eukazen bost seme-alaba.

-Aurretik?

-Aurretik. Ta ezkondu zan nere ama harekin, ta gero beste bost seme-alaba euki zittuan horrekin.

-Bost ta bost hamar.

-Hamar. Ta gure amak esaten oskun alargunakin nahi bagiñuan ezkondu, ba, alargunakin ba bai, baiña umedunakin ez ezkontzeko. Badakitzu lehen ezkontzak itten zian, ba, gurasuak-eta itten zittuen zerak eta harek be, ba, gurasueandik han zertu ta hantxe daola ta... bueno.

-Bai komenientziako zerak.

-Bai, ezkontziak. Ta hori esaten oskun amak.

-Alargunakin, umedunakin ez.

-“Alargunakin nahi bozu ezkondu, bai, baiña umedunakin ez zaittie ezkondu”. Porke lehen bost ume; gero beste bost euki zittuan, ta badakitzu. Ta, gaiñera, berak esaten ebana, berak danei igual eitten otsela beran ustez, baiña pentsatzen ebela berenei hobeto eitten ete dotsen.

-Normala, ezta?

-Normala, ba, ez dakit, berak esaten eban danei eitten otsela berak antzera, baiña... ez dakit /eztakit/ ba.

-Zu zeu zenbagarrena izan ziñan?

-Azkena ni.
 -Gaztiena?
 -Gaztena. Izan giñan zazpi aizta ta hiru anai.
 -Ta zuk benetako anaiak [...]?
 -Bi anai benetakuak. Benetakuak ba... bai, aitta batenak. Anaiak bi, ta hirugarrena, ba, maiorazkua. Orduan maiorazkua esaten zan.
 -A! Zerak esan ostan, honek, e... Mirenek, Miren Billarrek “ogi nagusikua”.
 -Ogi nausikua?
 -“Ogi nagusikua” dala maiorazgua.
 -Bai, “ogi nausikua” esaten jakon lehen, ba, bat hiltzen zanian, eta elixan ez dakit nik zelan esaten zan, ogi nausikua itten jakon, ez dakit /eztakit/ nik maiorazkua izan edo [zerbait]. Ogi nausikua. Ta gero harek eukitzen eben bazkaixa. Eta gure aitta, ba, ni ezkondu ta gero hil zan nere aitta, eta harek be euki eben, euki giñuan, ba, hoixe, ogi nausikuoi elixan ta, ba, zer bi etaratzen zian, ez dakit ba nik zelan esaten jakuen be. Bi. Eta gero bazkaixa. Hemen tabernia euen. Oin be badao, ezta? Ba hortxe. Ez dakit zenbat lagun, ta bazkaixan erdixak mozkortzen zien. [...] “...bazkaixa” esaten jakon, “ondra bazkaixa”.
 -“Ondra bazkaixa” zan hileta ostien, ezta?
 -Bai, hileta ostekua, “ondra bazkaixa” esaten jakon horri. Eta jentiak, beinke, orduan, ba, batzuk mozkortuta be bai, ez dakitzu /eztakitzu/? Batzuk mozkortuta be bai, ta ba holan izaten zan lehen.
 -Burrukarik egoten zan?
 -Ez, burrukaik ez dot uste, baiña... ba...!

1.63. Aixolako urtegiak ezkutatu zituen baserriak

- **Hizlaria(k)**: Basauri Larrañaga, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-059/010
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:16:52. **Bukatu**: 00:18:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Lau baserri hauek Aixolako urtegiaren urpean geratu ziren: Nafarkua, Aixola Behekua, Igutx eta Olakua. Euren soro eta zelai asko ere urperatu ziren orduan.

Transkripzioa

-Esan dostazu Aixolako urtegixak etxe batzuk urpeian hartu zittuala.
 Goguan daukazu izenak?
 -Ba bat zan Nafarkua, ta beste bat Aixolabekua, ta beste bat zan Igutx.
 Horrek hirurok, eta gero bestia zan Ola, Olakua. Horrek hartu zittuan urak.
 -Noiz egin zan hori, urtegi hori?
 -Hori urtegixoi izango da hamabost bat urte bai.
 -Barrixa da orduan.
 -Bai.
 -Baiña lau etxe azpira.
 -Azpira. Gero harei pagau otsen.
 -Baiña haren terrenuak eta zelai ta soro...
 -Harek be bai. Gero basuak-eta geldittu jakuezenak han geldittu jakuezen.

Ta han Aixolabekua esan dotsunak han gorao ein eban , Aixolan beratxuao txabola bat euken erak eta erak arreglau ta han in eben eren etxia.

-Etxetxua?

-Bueno, Eibarren dauke etxia baiña han bizi dia. Erak hor bizi dia, bai.

-Goguan izango dozu lehen zelakua zan umetan, hor zeren zelai ta soro ta asko edo basua zan gehixena?

-Bueno, baeukezen zelaixak eta be baeukezen zelaixak be. Eta soluak eta behintzat hartzen eben, laboria ta hartzen eben ta.

-Eta danak urpera.

-Urpera, bai. Gero ondo pagauko otsen, e.

-Bai baiña ha urpeian.

-Baiña harek urpian, bai, bai.

1.64. Garia jo, garbitu eta kutxara

- **Hizlaria(k):** Basauri Larrañaga, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-059/021
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:44:44. **Bukatu:** 00:47:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Gari-azaoak metatu, lehortzeko zabaldu eta gero jo egiten ziren. Gasolina motordun matxaka makina zuten Aixola baserrian garia jotzeko. Etxekoen artean jotzen zuten etxeko garia. Garia garbitu ondoren, kutxan gordetzen zen.

Transkripzioa

-Gero hori garixori etxera ekarten zeenian jo zela eitten zeen?

-Gero hori garixori metatu eitten zan, metak. Eta egualdi ona euanian ba han metatik zabaldu danak. Gure etxian euen makina bat elektrikua.

-Elektrikua? Matxakia edo?

-Matxakia. Han sartzen zan...

-Elektrikua entxufiakina?

-Motorra, motorra. Gasolinia uste dot zala.

-Gasoleua edo...

-Bai, bai, holako zeozer zan, bai. Ta ha martxan, ha martxan, ha martxan eta han sartu. Hauts bat! Ganbaran itten zan, eta (nik ez, ez nik ez dot han sartu sekula), baiña han sartzen ebizenak hak bestiak botatzen zittuen eta guk tolostu ein bihar izaten giñuzen.

-Lasto dana tolostau...

-Tolostauta ipini. Hemen makinia, ezta, eta harek bota itten zeban hara. Han ebillenak hara botatzen zittuan, eta guk hartu eta tolostu.

-Gari jotzen etxequak bakarrik ibiltzen ziñain edo?

-Bai, guk e, iñoiz baten bat igual baiña jeneralian etxequak bakarrik gu egoten giñan.

-Eta zure denpora danian matxakia euki zebein ala gero ha gari joteko makinia burdixakin ekarten zana be ibili zebein, lastua kamarara botatzen ebena ta?

-Ha, garixa garbitzekua?

-Haize-errotia ez. Matxakian hurrengo basarri askotara etorri zan gari joteko makinia.

-A, auzuan ibiltzen zana.
 -Hori da.
 -Ez, guk ez.
 -Ez zebein ibili hori?
 -Hori ez guk, etxekua bakarrik.
 -Beti matxakia?
 -Bai, etxekuakin bakarrik. Ta gero ha garixa garbittu beste makina batekin.
 -Haize-errotiaz.
 -Bai.
 -Ta gero haize-errotiakin garbittu ta garixa nun gordetzen zeen?
 -Kutxetan. Kutxak eren ta hantxe gordetzen giñuan.

2. Euskara

2.1. Ikazkinaren lan-baldintzak

- **Hizlaria(k)**: Elortza Elkoro, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ELG-050/029
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:30:22. **Bukatu**: 00:34:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Lexikoa
 Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Jatekoak: baba beltza; taloa... 10 laguneko taldea zenean, bat sukaldeko kontuez arduratzen zen. Taloa zelan egiten zen. Sukaldean erabiltzen zirenak. Lexikoa.

Transkripzioa

- Eta ze jateko eruaten zenduen txondorra eittera juten ziñienien?
 - Txondorra eittera... Gure aurrekuak ibiltzen eben baba baltza ta askotan talua ta... Ta bat koziñerua eukitzen eben; kuadrillia zanian, bat koziñerua. Harek baba baltzak egosi ta...
 - Bertan?
 - Bertan. Oin, guk, ba, etxe inguruan giñanian, ba, etxetik.
 - Ta talua zelan eitten zan?
 - Talua, ba, kozineruak ein bihar. Ba, gure aitta ta aittitta-ta ebizenian, harek bat ibiltzen eben, ba, taluak eitteko ta koziñia eitteko ta. Igual hamar lagun edo kuadrillan ta bat espresamente [koziñan]... Oin, lana ein be bai, baiña bittartetan, ba, koziñia.
 - Ta zelan eitten zan talua?
 - Taluak be, ba, oingotxe estilora, ba, zerian, palan, palan einda. Ein sua ta... Lehelengo masia.
 - Masia zerekin eitten da?
 - Arto-urunakin.
 - Arto-uruna ta gero esnia edo botatzen jako?
 - Ez, ura. Arto-uruna ta ura ta gatza bota ta ein masia ta...
 - Eskuakin eitten da masia?
 - Eskuakin. [Sartu] ta berakin zerian. Ta gero, trapu baten geiñian, ohol baten geiñian jo ta gero, zerakin, palan erre.
 - Palan erre. Eta buelta emoteko edo zerekin emoten jakon buelta?
 - Ba, hontaraxe jaso ta, [...]"ra" ta gero...] Ta beste batzuk ondo-ondo [...]

hartu ta holaxe, "tak!" emoten dotse paliakin berakin.

- Ta bestelan pala batetik bestera...
- Ta bestela, bai, batek hola [eskura edo] zer batera ta gero "da!" aguro ipini bihar.
- Berriro, oster a be ipini palan...
- Pixkat artia daukanak, ba, paliakin berakin.
- Orduan, jatekua han eitten zebeñian, ze eruaten zebeñ, ze ontzi eruaten zan? Lapikuak edo...
- Ba, orduan... lapikuak orduan. Ta beste balden bat edo...
- Zer zien, metalezkuak zien lapikuak?
- Lapikuak porzelanazkuak jeneralian.
- Ta zartaiñik?
- Zartaiña be bai.
- Ta buluntzalixa ta zer eruaten zan gehixao? Kazua edo...
- Ba, kazua edo [buluntzalgixa], ba...
- Zelan esaten dozu zuk?
- Guk [burruntzalgixa] esaten giñuan. Ta oin, ba, kazua gehixao ibiltzen da.
- Baiña ordun, zeuek...
- Bai, [burruntzalgixa].
- Ze zan, egurrezkua ala burdiñazkua?
- Burdiñazkua.
- Eta arrautzak prijitzeko edo?
- Arrautzak prijitzeko, ba, koillaria edo tenadoria. Baiña orduan, gu gaztiak giñanian, egurrezko koillarak eta tenadorak ziran. Gero urten eban burdiñezkuena.
- Eta platerra egurrezkua izaten zan orduan?
- Orduan platera... Bueno, danak plater batetik jaten eben e!
- Bai. Izenen bat bazeukan horrek plater horrek?
- Ta, zera, batzuk eukitzen eben egurrezkua einda be bai, ganbelia moduan. Egurrezkua ein ta...
- Zer da ganbelia?
- Ba, ganaueri ta emoten jakuen zera, pentsua emoten jakuen zerak. Baiña paguakin, paguakin berakin ein ta, ba, ostian oholak josi barik, paguari berari, pago zatixakin berari ein huekua ta ya plato lekua edo.

2.2. Eskola erdaraz; dotrina euskaraz

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/007
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:06:34
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** 13 urtera arte egon zen eskolan. Gaztelaniaz jaso zituzten eskolan. Eskolan zer ikasten zuten azaltzen du. Dotrina irakastera abadeak joaten zitzaizkien eskolara, dotrina aldiz, euskaraz ikasi zuten. Eskola bukatu ostean baserriko lanei ekin zien.

Transkripzioa

-Zenbat urtera arte egon ziñan eskolan?
-Pues... Hamahiru urtera arte.

-Eskolia euskeraz ala erderaz?
 -Erderaz.
 -Erderaz dana.
 -Eta ze ikasten zeuen, kontuak edo irakurten edo zer?
 -Ba Historia Sagrada, Historia de España, Lengua Castellana. Ta Aritmetikia, Geometria. Ta horretxek gauzok.
 -Dotriña gogorra, ezta?
 -Dotriña bai. Dotriña, egonero etortzen zan, apaizak etortzen zien erakustera dotriña.
 -Dotriña be erderaz, edo dotriña euskeraz eukitzen zeen?
 -Dotriña euskeraz.
 -Etortzen zan Elgetako abade bat eta erakusten oskun.
 -Orduan hamahiru urte arte. Eta hamahiru urtekin zer ein zeen?
 -Basarrixan, basarrixan lanian.

2.3. Ate bat nola egin

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-070/007
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:07:45. **Bukatu**: 00:12:25
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Lexikoa
 Natura » Meteorologia
 Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Ate bat egiteko eman behar diren urratsak.

Transkripzioa

- Pixkanaka-pixkanaka [ohola...]. Ohola hartzen dounian, zer ein bihar izaten dotsau atia eitteko? Lehelengo, ohola zela preparatzen dou?
 - Neurrixak hartu; lehenengo, neurrixak hartu bihar dittuu. Dana: alturia, zabaleria, lodieria ta gauzak hartu ta, beno, orduantxe preparau bihar [dittue] oholak zertzeko, atia eitteko.
 - Bai. Eta ya behin horrek dauzkagunian preparauta, ze ein bihar izeten jako?
 - Ya, ba, kolokau. Kolokau, zertu ein bihar dozu. Atia ein bihar badozu, ba, zelakua dan atia.
 - Ez, baiña lehen esan dozu "matxinbrau" edo ein bihar dala...
 - Bai, matxinbria. Matxinbria.
 - Matxinbria zer da eta zela etaratzen jako?
 - A! Makiñan etaratzen jako.
 - Bai, oin makiñak [darelako] ta lehen, makiñak ez zerenian?
 - Ba, esku zerian.
 - Bai. Eta zerekin?
 - Esku-zepilluekin. Esku-zepilluakin. Bai. Esku-zepilluakin ataratzen gauen.
 - Lan edarra, e?
 - Matxinbradora ta "hembra y macho".
 - Eta horrek gero lijau bihar izengo zien, ez?
 - Bai. Gero lijau ta zertu ein bihar.
 - Eta hori zerekin eitten zan edo zelan eitten zebeñ?
 - Ba, lehen be lijiakin-ta zertzen zan, ta gero, bestela, zepilluakin edo zertu. Zepilluakin emon [hur] bat eta laga. Oingo moduan lehen-lehenguek oingo

moduan, oin eitten dan moduan, ez ziran eitten lehen ta.

- Eta kolia ibiltzen ziñuen gero behin matxinbrau...
- Kolia? Bueno, bai. Kolia be ibiltzen da. Bai. Kolia be zertzen da. [Espigetan]-ta, atia eta ate-markuak eta zertzeko, ba, kolia-ta zertzen da.
- Orduan, esan dou atiak dauzkala oholak eta matxinbrauta doiazela. Ez? Orduan, gero, hori, ba, nunbaitten ipini eitten da.
- Armazoia ifintzen da enkolauta. [Bikolauta] ifini ta armazoia, oholak eta danak ifini zertuta, ta, ba, gero, ya kolokau eitten da. [Bisagriekin]-ta ya kolokatzen da zerian, markuan. Markua [...] moduan ipini bihar lehenengo, e! Lehenengo, markua ipini ein bihar.
- Eta markuak ez dia izeten zuzenak, eukitzen dabe hemen holakotxe zer bat, [okertua].
- A! Biribilla?
- Ez, okertuta egoten die, ez? Hola izeten die markuak. Ezta? Hola.
- A! Hor [espigia] etaritzen jate, espigia.
- Espigia. Eta espigia holakotxe... [...] izaten da espigia?
- Bai, bata alde batera ta bestia beste aldera. "Rrrraa!". Eta erdixan, "rraa!", inguletian zertuta, ebaitta, [nahi bada] ipini...
- Zela ebaitta?
- Inguletia. Hauxe.
- Ingulitia, ezta?
- Ingulete. Hamen, honetara. Begiratu. Hortik. Markua, hau da kuadrúa, hau markua, ezta? Hortik [preparauta]. Hamen "rraa!" inguletian ebai ta...
- Inguletia, ez?
- Bai, zeuk markutako moduan!
- Hori da inguletia, ez?
- Bai, hori da. Hori.
- Eta kolia emoteko orduan, lehenao, behintzat, kola berua izaten zan, ezta?
- Oin hotzakin be igual eitten da.
- Eta zelan izeten zan hori kontuori, kola beruan kontuori?
- Kola beruan kontua? Panelak etortzen zian, hola, "veinte por veinte" inguruko panelak. Ta ura ifintzen dozu katxarro baten; ura, halako topin moduko zer baten edo, aproposkuek izeten zian honek [zerak]. Ta apurtu, haraxe bota. Ta uretan zertu eitten zan. Sutan ifintzen zanian, "rrraaa" ta ha dana biguntzen zan ta dana geratzen zan eztixa bigundutakuan geratzen dan modu-moduan. Ta gero, hari [...] bat emon ta "Ba! Ointxe daok ondo!". Hartu ta "ra-ra-ra-ra" emoten dotsazu ya zertu bihar dozun tokixan ta "da!" ipintzen dozu egurra edo espigia, markua edo ohola enkofrau bihar badozu edo dana. Ta "rraa!", haura hoztutzen da, pegau eitten da ta, ba, akabo.
- Ya, ta hoztutzen baldin bada lehenao?
- Hoztutzen bada, ya... Behin hoztutakuan ez dau balio. Oin, gaurko egunian, kola zurixa dao. Horrek ez daka. Horrek, "ra-ra-ra" emoten dotsazu ta akabo. Horrek ez daka zerikan.
- Eta kolia hozten zanian, zela esaten jakon?
- Atzera berotu ein bihar izeten zan!
- Bai. Eta horri kolia "gibeldu" edo esaten jatzen?
- Kolia... Kolia hoztutzen zanian, ba, atzera berotu ein bihar izeten zan. Epeldu atzera.
- Ya, baiña "gibeldu" ez dozue ibili, ez? Ez dozue esaten.
- Ez dot uste. Ez, ez, ez. Sekula ez dotsat iñori entzun horixe.
- Kola hori etxian eitten ziñuen?
- Ez, ez. Horrek etorri eitten zian, kanpotik etortzen zian. Bai. Holakotxe kuadrúak.
- Antzuolatik ez ziñuen ekarriko hori [kurtiderixatik]?

- Horixe ez dotsut esango. Ez dotsut esango nundik etortzen ziran, ahaztuta nao.

2.4. Ate bat nola egin

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-070/008
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:12:25. **Bukatu**: 00:13:35
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Lexikoa
Natura » Meteorologia
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Ate bat egiteko eman behar diren urratsak.

Transkripzioa

- Bai, lehenaoko baten han esan zosten, kurtiderixatik sebuak-eta hartzen zittuen eta, orduan, sebuekin eitten zebe kola hori. Eta, orduan, haretzek esan zosten gero gibelziarena eta kontu horrek.

- Ba, hori lodixan, lodixan zenbat izango zan, ba? Hauxe katxarruau ta baiño... hau baiño mehiaua. Mehiaua [...].

- Horren erdixa?

- Bai, erdixa pasautxo... holakotxe...

- Zentimetro erdi bat?

- Bai, holakotxe bat inguru. "Ta!", ta gero "di-da-da!" jo ta apurtzen zan. Apurtu ta haraxe bota, ta han ura berotzen hasten zanian, "rrrraa", dana urtutzen zan. Ta, esan dotena, eztixa berotzen badozu, haretxen formara jartzen zan. Ta gero, ba, brotxiak hartu ta hamen hau pegau ein bihar dozu? Bata bestian gaiñian pegau bihar dozuz? Honi, "ra-ra-ra" emon ta "blast!" ifini bestia ta listo. Beruan, artian [...]. Oin, hoztutzen bazan, ba... Baiña ez, ez zan, "así por así" ez zan hoztutzen, e! Behin berotzen zanian katxarruan, ha... denporaldixan aguantatzen [zaben].

- Neguan be bai?

- Bai, bai, bai.

- Bai, neguan be denporia aguantatzen zeban...

- Bai, bai. Ta zela egoten zan elektrikua, elektrikuan gaiñian ipintzen zan, "tak", zeinda hor, butanuan edo zerian ipintzia moduan, ta "ra!" ensegida berotzen zan.

3. Aisia

3.1. Txorroburuko bolatokia (Aranzetan)

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/002
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:05:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Aranzeta auzoan bi bolatoki egon dira. Ezagunena Txorroburukoa (Ojanguren baserri ondoan). Lucio Aranzetakoa da eta ume-umetatik hasi zen boletan. Inguruko guztiak bertara joaten ziren boletan egitera, baita beste herri batzuetatik ere. Eurak umeak zirela sarri egoten ziren bertan, boletan. Nagusiak heldu arte, jai egunetan, alboherrietako gazteak. Apustu ugari egiten zen, botada bakoitzeko hainbat (txakur haundia, erreala..), eta eurak gazteak eta ezin jokatu.

Transkripzioa

- Elgetan, hik badakik ni zein auzotakua naizen?

- Ez.

- Aranzeta. Apellidua...

- [...Uberarako] bidian [...] bueltia badakizu zein dan, buelta eskas bat...

- Aranzeta. Apellidua Sarasketa. Elgeta. Dana -eta [jaukat nik]. Bueno, gure auzuan egon dittuk bi bolatoki. Ta Elgetan famosuena, el año cuarenta y ocho edo cuarenta y seis inguruan, gure auzokua zuan: Txorroburua Ojangurengua. Txorroburua esaten [...]. Ura jausten zuan bolatoki onduan. Narras etortzen dok ura, ta holako salto bat jeuan, ta "Txorro burua" ipini otsen izena. Hasi Uberan, San Juan errekan, ta Bergaran... Hortik ez, e! Horrek barrixak dittuk, novatos. Osintxu., Elgoibar, horrek, Eibar ta... hara etortzen zittuan domeka atsaldian. Txorroburuan Ojanguren jauan izena basarrixai. Gure ama hangua zuan, ama zana, ta tio hangua. Ta gu, mutikuak, ba, oin beste zeoze dibersiñua, baiña orduan boletan edo zeozetan eitten zuan. Ta bolak hasi zian bolak ta "ño!", [faten giñuazen], ba... zortzi urtekin ta bederatzikin... [...] bazkaldu ta siestarik-eta, ostias! Hara faten giñuazen ta "Hi, [esaixok tiori]", "Klaro! Beti [esango...], [esaixok] heuk!". "Bai, tio ez dok, ba?", "Bai, tio...Beti... Fango nok". Ni faten nitzuan normala dan moduan. "Tio, bolak...", "[Erueizak, erueizak]". Bolak eskatu bihar zittuan etxian. Hara juaten nitzuan bolatokira, ta jangoikua baiña harruaio, zortzi bat mutiko edo han, ja-ta "jik-jak-ta-tak" egurrian. Hor, atsaldeko laurak inguruan edo bostak inguruan, honek guapuok etortzen zittuan --guapuak, erromerixarako mutillak, sasoikuak--, hasi Uberan ta hamen inguruko danak etortzen zittuan, ba, boletan eittera hara. Ta guk, orduan, harek etortzen zianian, retiro. Bai, ba, [guk pezetarik be ez giñuan]. Harek dirua jokatzan juen, ba. Ez oingo moduan, baiña... Bueno. Han jauan poste bat be argixana oholan onduan, ta [jeukan] zulo bat. Ta orduan monedia jauan: txakur haundixa, erriela ta halakua. Ba, hara zulora botatzen zuan. Jo, guk ez, ez geunkan ta. Guk bolak handik bota, ta ordubetian edo txakur haundi bat emoten baeben gustora. [Geu be] hantxe, mutikuak, [nunbaitten ibili bihar ta] hantxe.

- Baiña zetako botatzen zebeñ dirua hara zulora?

- Jokuan eitten eben eurak, boletan.

- Posturia bera hara botatzen zan.

- Bai. Baiña harek ya nausixak, e! Joder, harek hamazortzi urte edo hogei urteko... erromerixara urtetzen juen, ba, atsaldian, ez dakik? Ba, haraxe urtetzen juen lehenengo ta gero hona ta... Baiña lenengo han boletan eittera atsaldien [...] hiru-lau bat orduan. Erriela-ta botatzen juen. Ta gero [eren] posturak jokatzan zittuenian, txakur haundixa ta erriela jokatzan juen eurak, eta guk zera. Guk... Eurak ibiltzen zittuan ta guk... Handik ikesi eitten dok, mutikuek ikesi eitten jok zetan ibiltzen zian ta ze eitten zebeñ. Ta gu han egoten giñuazen beti jefe. Jefe, geuk pentsau. [...] astien], ta "Hi, botatzen badok ordubete bat [emongo deuat] erriela". Mekauen, bai aguro!

Baitta ordubetian be! Handik hona bolak eta txirluak ipini. [Ta haretzek ipintzen giñuzen] ta...

3.2. Zabalburuko bolatokia

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/004
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:07:45. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Zabalburuko bolatokia ere ezaguna zen. Mendrakorta inguruan. Lucioaren gazte denboran hasi zen indarra hartzen. Hala ere, indarra galdu zuen urte batzuetara.

Transkripzioa

- Gero, hori pixkat... pixkat ez, segitzen juan. Ta Zabalburu, badakik? Hik entzun dok Zabalburu Mendrakortan? Jauan bolatokixa Zabalburu.
- Zabalburu izeneko bolatokixa?
- Bai, Mendrakorta baiño goratxuao. Pixkat famosotu zuan ha be, pixkat, orduan. Ta gero, ba, pixkat repartidu ein zuan [...] ta... Bueno, holan, pixkat... Baiña ha segiduan hustu zuan. Honek segi ein otsan. [...] Pixkat hoztu zuan ha, ta horrek segitzen juan. Bueno, gero, agertu zuan, hamen bolatokirik ez ta herrixak ipini bihar dabela bolatokixa ta ez dakit zer ta...

3.3. Elgetako eta inguruko bolatokiak

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Elgetan bolatoki ezagun bi zeuden, Txorroburukoa eta Zabalburukoa, eta inguruan ere bai, Goimendian eta beste auzo batzuetan (Asentzion, Uberan...). Baina Elgetan herrian beste bolatoki bat egitea erabaki zuten. Salbador kalean jarri zuten. Bera izan zen onena, ezagunena sasoi handi batean.

Transkripzioa

- ...bolatokirik ez ta herrixak ipini bihar dabela bolatokixa ta ez dakit zer ta... Bueno, orduko baeuezen Goimendixan, Asentzion...
- Goimendin oin be ingo zebe [kanpeonatua], aurtan be.
- Bai, aurtan be kanpeonatua egon dok. Goimendixan nere akordu guztian. Bueno. Asentzion, beste nun? Zabalburun. Gero, gure auzuan beste bat

Aranzabalen egon zuan, e! Gure auzuan famosua gure zerori, gure etxe ondokuari, baiña beste harutzatxuao, bueno [...]. Han be egon zuan bolatokixa. Ta gero, Uberakua zuan bestia: San Paulo. Egon zittuan, orduan epokan, San Paulo, hori zuan lehenenguetakua auzua famosua. Gero, Zabalburu ta San Paulo ta gero hau, konparaziño barik, neretako hori. Fotografixia ez dakik? Ikusi dok, ba? Nik...

- Hemen, herrixan bertan? Kalian?

- Horrek ez jok ikusi? Ez jok ikusi ala, horrek?

- Fotografixia ez.

- Joe, nik bialdu najuan, ba! Etorri zuan, ba, [Goienkalian]?

- Bia, baiña honek ez dau ikusi.

- Bueno, han ikusten dok nun egon zan bolatokixa hor.

- Kalian bertan, hamen?

- Bai, bai, bai. Hortxe, hortxe.

- Salvador kalian.

- Hamentxe, e! Hamentxe. Hau etxiau akabatzen dok, ba? Hortxe akabatzen dok. Ba, hortxe, handik harutz. Baiña famosua, e! Hamen inguruan... A! Esatera najoiak, gaiñera: hamen inguruan --han, urtian bi-hiru bidar--, Arrate izan dok onena.

3.4. Arrateko bolatokia zen diru gehien erabiltzen zuena

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/006
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Arrateko bolatokia izan zen garai baten onena. Zestapuntalariak sasoi horretan (Arrate egun inguruan, iraila hasieran) etortzen ziren Ameriketatik, diru askorekin, eta Arraten diru asko mugitzen zen; trabesak eta posturak ugari. Bai Arrate egunean, eta bai repetizioan.

Transkripzioa

- Urtian bi-hiru bidar, Arrate izan dok onena. Badakik zegaittik? Zestaz jauan orduan fama haundixa, zesta-punta. Zesta-puntan Ameriketan izaten zittuan zestadunak, ta udia pasatzera hona etortzen zittuan. Honek dolarrakin etortzen zittuan, honek guapuok, eta, joder, [etortzen dittuk] Arratera "Joe [... dolarrik... ehun dolar]". [Kriston] famosua [izan da]. Joe... Han jokutzen zittuan trabesian... La ostia! Puu! Ta jentia?

- Trabesian, zer da trabesian jokatzia?

- Posturia, ez dakik? Bat ezetz edo bat baietz, edo bi-hiru baietz edo...

Trabesa ez dakik zer dan, ala? Bueno, ba, [tranpak be ipiniko...], ta hobeto.

Ta igartzeka. Bueno, han jokutzen juen...! Bueno, hori izaten zuan Arrate egunian, repetiziñuan ta, ostian be, urtian bi-hiru bidar, baiña... Oin, Arrate egunian, konparau be ez iñokin, e! Egoten zuan... [Jesus! Ez dot ikusi] ta ez jakixat nik zenbat bolak botatzen. Bueno. Baiña hau zuan fijua.

3.5. Elgetako bolatokia denen artean ezagunena

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/007
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Arrateko bolatokian diru asko mugitzen zen, eta Osintxu ere ona, baina inguruko herri guztietan ezagun eta onena, askogatik, Elgetakoa izan zen. Batez ere 1950-1960 inguruan. Etxeak egiteko bota zuten. Zapaturu, domekero... Osintxutik ere dozena erdi igotzen zen, oso onak, baina tranpak egiten zituzten.

Transkripzioa

- Bueno. Baiña hau zuan fiju. [Ta gero] zuan domekero, zapatuero. Ta jentia? Jode...! Hau izan dok hurrik emon barik... Osintxu famosuena. Hortik urten juan bola-zera, asuntua. Osintxun egoten zuan. Baiña jentia egoten, urte askuan, urte askuan, hau.

- Elgeta gehixen?

- Jode!

- Bergara edo...

-Et-et-et. Nahi dabenak esango dau nahi dabena. Konparau be ez! Klaro, herri barruan jeuan, ba, ta tabernak eta danak bertan bueltan be bai, ta gero famia edo hartu juan. Ba, pixkat Bizkaiakin be puntua eitten jok, ta hau Eibar hau bueltiau ta, bueno, igual dok. Hau zuan askogaittik, askogaittik famosuena.

- Ze sasoittan hori? Gerra-ostian edo...?

- Bai! Baita sesenta... Sesenta baiño aurrerao hori, cincuantan.

Cincuentatik sesentara, hortxe, hortxe hamarkadan. Gero be bai, baiña... Gero honek etxiok ein jittuen, ta bueno, ha kendu juen. Baiña, orduan, hamar bat urtian... Askok jokatzen juen, ba! Guk, joder, pezeta bat, ta guretako durua-ta asko zuan. [Hori ez geunkan] ta, joder, ezin sartu! [Ha sartzen] zuan, ta [banatzen]. [...] Osintxuarrak gaizki hartzen giñuzen, e! Haretzek jodidu giñuazen. Tranpak eitten jittuen. Etortzen zittuan bost edo sei onak, e! Jo, fenomenuak bolarixak. Baiña tranpak...! Joe...! Puu! Harek eitten jittuen! Dios! Jo be asko eitten juen ta haretzek joditzen oskuen. Baiña harek etorri zianian, hemen ez jeuan koloreik; gu ta horrek hona etortzen zian danok [eliminatzen giñuzen]. Hor zertzuk einddakuak garan gu, e! Enee! Nik trabesa behin "jo ala pasa" jokatzen zuan orduan. "Azkorta" Osintxukuak. Txomin [Ansotegik] be bai. "Dzu-bu"! Bolia hartu, bai? Emoten otsan inddarrakin ohola jo orduko baztarrera [allegatzen] zuan. Dios! "Jo ala pasau", hirurak jo edo gaiñetik pasau. Ein ein bihar dok hori! Eta jokatu, e! Ezetzik iñok gutxik jokatu. "Jo ala pasa", bota bolia, hirurak jo edo gaiñetik pasau baietz jokatzen juen harek. Dios! Baiña gero, esan deuat, e! Hartu bolia "dzu-bu!", askotan salto batekin be bai [sei txirluak]. Jo holan ta salto ein ta "ddza!", balia moduan. Honek [...] fusillok? "luup!", jo-ta behera danak.

3.6. Elgeta inguruko herrietan boletarako zaletasun handia

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Boletan zaletasun gehien Osintxun zegoen. Eta bestela, Elgeta inguruko herrietan: Bergaran, Osintxun, Eibarren, Sorluzen... Igual 14 orduan geratu barik trabesak eta posturak, geratu barik.

Transkripzioa

- Orduan, afiziño gehixen nun zeuan hamen inguruan? Ba, esango [dot] Osintxun. Bueno, Osintxun lehelengo, e! Gero hoztu ein zuan Osintxu be. Guapuak sortu zittuan asko, ta basarritarrak [...] ta... Bueno. Ta hementxe.

- Elgetan?

- Bai, esan gura juat, kanpotik hona etortzen zuan, ba, ta gero bertakuak be bai, baiña... Bertakuak be bai, baiña kanpotik sartzen zuan hamen... Badakik zenbat jente ibiltzen zan han? Ta, joe, ba, dirua jokatzten juen. Frontoian ze pasatzen dok? Frontoian dirua jokatzera igual faten dok zera, jokularixa. Ta jentia noizbaitten partiduak [daozenian] bai, faten dok, baiña ez dok... Baiña hau fijua zuan, e! Ba, hamentxe gehixen. Epoka, ba... Hamar bat urtian bai illaran.

- Ta hor, Mondragoi aldera ta?

- Horrek hotzak dittuk.

- Gehixao hemen?

- Fagorra [...]. Horrek, horrek danok... Oin bai. Oin [ilusiño] haundixa dao hor. Eskoriatza ta Aretxabaleta-ta oin... Baiña orduan? Orduan Aramaixon. Aramaixo ta honek ya... Orduan Aramaixotik ta hortik be etortzen zuan jente banakia, baiña gehixena hamen, e! Ta Eibartik. Bergara ta Osintxu plenua egoten zuan. Ez egun baten! Esaten dot, ba, joe, astian be erdi-jai edo jaixa bazan, edo zapatu-domekia, lleno! Ordubetian ez, e! Igual hamalau orduan geratu barik! Joder, hi! Ba, ekin hamabixak inguruan ta goizeko ordu bittan be igual, argixa bonbillak ipinita. Geratu barik, e!

3.7. Hiru-txirlora jokatzten zuten. Diru asko jokatzten zen

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/009
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Hiru-txirlora nola jokatzten den: trabesa egin, dirua bota, eta ea nork irabazten duen. Bi bolako pezeta bat, hasieran, gero duroa

ere bai. Pilotariak eta futbolistek kirola egitearren kobratu egiten dute; bolariek, ordaindu!

Transkripzioa

- Boletia dok bolia hartu ta txirluak jo han. Goittik fan bihar jok, kanaletik.
- Hiru-txirlukua jokutzen da hamen.
- Ta hik, ba, hori botatzeko pagau ein bihar dok. Jokua, jokua da hori. Guk botatzen juau hemen [...] millana pezeta, hi, zeñek salto haundixaua ein. Bueno, ba, horixe. Boletan horixe dao. Hi, bota dirua ta [zein izengo dok gehixen joten dabena]? Ta gehixen joten dabena poltsilluan gordetzen jok. Jo! Ta diru asko egoten zuan! Klaro, jente askok parte hartzen badau, ba, dirua gehixao dao kajan.
- Bi bolako pezetia edo zelan [eitten] ziñuen?
- Bai, ta durora be fan zuan. Baiña, joe, ya durua ta hasi zanian, jentia hoztu eitten zuan. Pixkat... Lehen berrogeta hamarrek botatzen bazeben, ba, berrogeira-edo bajatzen zuan. Justuan han morroiak eta geu be justuan [...] duro bat ikusten zanian ta... Pezetiakin-ta danok!
- Ta berrogei-berrogeta hamarrek botatzen zebe, e?
- Larogeik be bai makiña bat bidar hemen.
- Bai, e?
- Askotan, baiña, e! Ez baten! Joder, hamen... Hau famosua izan dok hori bolatokixori. Enee! Puf! Ta dirua, e! Hor jokutzen zuan dirutan...! De dios! Txandia hartu ezinda dirua jokutzen!
- Eta zetorren edozeiñek jokatu leikian?
- Bueno, hik bat ezetz jokatu ta nik bat baietz! Gero...
- Berrogei-berrogeta hamar lagun eta edozeiñi jokatu leike?
- Nahi dabena botatzen dau...
- Hi, ta beste... Hori eitten dou guk, euskaldunok, e! Beste gauza batzuk badauzkau, baiña... Hori be iñok ez daukana [daukak], e? Gaur ez daok posturaik korretajerik pagau barik. [Horixe...]. "Ahí tienes otro detalle". Hor ez dok korretajerik pagatzen. Hik, hamar duro, ba, hamar duro emon ta hamar duro pagau. Fari frontoira ta fari harrijasotzera [...]. Han porzentajia pagau bihar dok, normala dan moduan. Hori be [...]. Eta beste auza bat: biharra eitten dounok, biharra eitten dounok, nik hori botatzen juat nik eitteko biharra. Oin deportistak eitten juek biharra, baiña kobrau! Ta nik eitten juat pagau biharra! Horrek holan dittuk! Nik bolak botatzeko pagau ein bihar juat! Fubolista ze eitten jok? Treinta mil millones ta esaten [...], zaratia, ta bi milla milloi-ta kobrau. Deportia, deportia eingo ez dok, ba? San dios! Guk deportia be pagau eitten juau! Pagau! Joe, egon [daixela] eze kobratzeke! Joe, holan? Mekauen! Geuk [... hari]. Guk pagau eitten juau. Beste bi detalle, esan deuat: jokuan korretajerik ez daok. Jokutzen duana integrua pagau edo kobrau. Baten batek pagatzen ez badau, ba, jodete. Baiña deskontau ezebez.

3.8. Elorriko bolatokiak

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/011
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:23:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa » Jokoak

- **Laburpena:** Elorrion ere bazeuden bolatokiak. Orain Argiñetakoa berriztu egin dute, baina zaharra da. Berrion, Miotan, Argiñetan, kalean bi... Gutxienez sei zeuden. Elorrion ere zaletasuna zegoen, eta bertatik ere etortzen ziren bolariak. Kalekoak berriak dira, baina Argiñetakoa bizi guztikoa, zahar-zaharra.

Transkripzioa

- Harrazkero bolatoki batzuk ein dia, e?

- Oin, oin! Fan dan hamar urtian ein dittuk [hor batzuk]. Hik ez dakik, [hik ez dok] aitzen, baiña nik entzuten juat, bai, radixua jaixetan ta hamen Bizkeixan auzo danetan.

- Argiñetan ta...

- Auzo danetan...

- [...] egon giñan Argiñetan, ta han be egongo zian...

- Joe, Argiñeta beste bat, Argiñeta beste bat zaharra, e! Elorrixon zaharrena ei zan; lehenautik [dauena]. Oinxe [...] bai. Haixe izango dok Elorrixon zaharrena seguramente. Elorrixon, kalia, nik bi ezautu jittuat. Bata han behian --gutxi durau jua harek--, han... Berrizera urtetzen dok, ba? Ez jakixat zela... Hari zoniari zela esaten jotsek?

- Erreka-kalia [...]...

- Igual dok. Hiru bat urtian egon zuan. Baiña, jeneralmente, hamen zerian egoten dok, goixan, zaharren han zerian, hor. Hor bi ezautu jittuat; Berrizen beste bat; Argiñetan beste bat; han handikaldien. Zela da haura? Berrizera goiezela... Oin ez jatak akorduako...

- Miotan be bai...

- Miotan.

- Argiñetan, Miotan, Berrizen, bertan kalia beste bi, Gazetan... sei edo zazpi lekutan bai behintzat. Neuk, behintzat, neuk ezautzen dotena. Besten bat be igual... Hori...

- Horretxeaittik esan dotsut. Lehen Elgetara esaten [dozu] Bergara aldetik-ta etortzen ziela, baiña Bizkeittik eta [...]...

- Elorrixotik banakia bai, e! Elorrixo hurrian dao, eta Elorrixotik bai, Elorrixotik. Baiña hortik harutz pentsau be ez! Berriz ta Zaldibar ta... [ez jakixat] iñor ikusi [doten] sekula. Hortxe Elorrixotik bai. Elorrixotik... Ta oin Argiñetakuori bastante hori... ya hori zaharrena izango dok. Hori nik beti ezautu juat. Oin, honek kaleko bixok barrixak dittuk, Gazetakua be barrixa. Barrixa edo joe... [...] eukiko dittu] larogei urte. Ta barrixak eukiko dabe... [...] be zenbat eukiko jittuk, ba? Baiña hori Argiñetakuori zaharrena. Ta Miotakua be zaharra. Miotakua be... harek be eukiko dittu berrogeta hamar urte bai. Ta [...] Elorrixon... A! Gero Kanpazarkua beste bat zaharra, e! Ta famosua.

3.9. Kanpazarren jai handiak

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:24:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Aisia » Taberna giroa » Jokoak

- **Laburpena:** Kanpazarren ere bolatoki bi zeuden, bat ona. San Inazio egunean jai handia egiten zen: bolatokia jendez "baltzituta", hiru soinu eta hiru korro dantzan... Jai handiak.

Transkripzioa

- ... A! Gero Kanpazarkua beste bat zaharra, e! Ta famosua. Kanpazarren bi lekutan ezautu [juat]. Lehen han zuztar artian, arbola artian egoten zuan. Hantxe [diru asko jokatzan zuan] San Inazio egunian. Gero, hi! Hiru korro egoten zittuan dantzarako be; hiru soiñujole ta beste sei taberna bai arbolapian ta... Joe! Kanpazar lehen... puu! San Inazio egunian...!

- San Inazio egunian izaten zan?

- Asko kanbixau da...

- Baiña ikusgarrixa! Joe... zenbat neska, zenbat mutil! Hiru korro soiñujoliekin, bolatokixa jo-ta baltzittuta jentez egun guztian. Puu! Ta jokatu? Gero kargau be eitten zuan oindio gehixao jentia, ta joe... danak... kriston anbientia egoten [zuan]! Oin tabernian onduan daok bolatokixa, baiña lehen han goixan, Elgetara gatozela, zer artian, arbola artian ezautu juat nik beti. Ta han egoten zuan jentia.

3.10. Eibarko bolatokiak: Asolabarri, Sautsi, Arrate...

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio

- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** ELG-001/014

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa » Jokoak

- **Laburpena:** Eibarren ere bolatoki ugari: Asolabarri, Sautsi, Iparragirre, Agiñazpi baino goraxeago, Arraten, Usartzan, Azitainen...

Transkripzioa

- Asolaberrin egon naiz. Bueno, egon... Asolaberrin, Iparragirre — Iparragirre badakik nun dauan? Karmelitan onduan—, Sautsi... Bueno. Gero kalia ezaututa nao ni kalia Agiñaspi baiño goratxuao. Oin etxiak inda dauaz han, Agiñaspitik gora, Untzaga aldera. [Han barrura] etxe huts una bat jauan ta han bolatokixa egon zuan; egon zuan hiru bat urtian edo. Ta hamen zerian Sautsin ta hor Iparragirren, Arraten, Usartzan...

- Azittaiñen be egongo zan, ez?

- Ez nok akordutzen. Egongo zuan seguramente, Azittain famosua izan dok, baiña neu ez nok legau ta... Baiña egongo zuan, Azittain halako asuntuetan famosua izan dok.

- [...] entzunda, baiña ez dakit aspaldiko kontua dan, Pagei kalia be bai. Ez dakit zuk ezautuko ziñuan edo lehenaukua dan.

- Calle Pagei, han, estaziñuan gora hoiela?

- Estaziñotik gora, bai.

- Nik ez juat ezautu.

- Ez, hori...

- Joe, ba, antxiñakua izan bihar jok, e!

- Antxiñakua. Hori gerra-aurrekua edo izango da...

- El año [...] daukat nik, e! Ta ez juat nik han ezautu. Hor bai, Asolaberrin ta hor esan [dodan] Sautsin, Iparragirren, Arraten, han kalia ta beste... ez dakit beste nunbaiten be...

- Txontan edo ez zeuan beste bat?

- E?

- Txontan?

- Ez, ez juat ezautu.

- Eta Sautsin nun zeuan, ba? Han, basarrixan inguruan?

- Bai, Iparragirren onduan. Iparragirre... Karmelita elizian gaiñekaldian dittuk horrek danok. Ha auzounia ez jakixat ze... Otaegi auzua edo ez jakixat... Killarra ballia edo ez jakixat ze...

- Kiñarra ballia, bai.

- Killarra ballia uste dot esaten dotsela. Han bi. Ta Izkuak be ez jakixat ez zaban euki, e! Izkua, badakik, han Txontatik harutz... Txontan ez, Azittaiñen han...

- ... Arrazola edo...

- Bai, bai, hantxe be ez jakixat ez zan egon. Ni ez nok haraiño fan, baiña hor [...] danian eitten zuan.

3.11. Gaztetan zeregin gutxi: boletan edo lapurretan

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/015
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:27:40. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Zaletasun handia zegoen. Dirurik ez, beste ezer egiteko ere ez... Antxixiketan edo boletan dibertitzen ziren gaztetan. Bestela, lapurretan. Besterik ez zegoen orduan. Luzioren lagunak, gaztetan, Elorriora joateko joera zuten. Jai-egunetan Elorriora beti. Oinez, edo kamioian. Goizeko ordu txikietan etxera etorri, eta zazprietan Eibarrera, lanera "txahalgintzan" beti (botaka).

Transkripzioa

- Orduan, afiziñua sekulakua zeuan orduan...

- Jode! Eske, hi, gaztiak ze ein bihar juan, ba? Ta gero, ze esango deuat, ba, nik? Dirurik be ez jauan, ta dibertitzen giñuazen, ba, halakotxe... dana deportia. Eran ez [...] eitten, erateko ez jauan dirurik eta. Piku-pasan batzuk edo nunbaiten erosten bazian, ba, bueno. Gero, ba, dibersiñua [...], jeneralmente, aintxintxika edo holako... karrerak edo halakotxe... boletia baeuen, hantxe, boletan edo. Ta, gero, ze esango deuat, ba, nik? Lapurretan [gehixen be] gaztia ibiltzen [ei zuan]. Etxian guk nahikua keixa ta auzora fan ta lapurretan. Elkarri amorratu eraittiarren, ez dakik? Bestia ta, bueno, holakotxe ibillera, ba, ez zauan, beste salidaik ez zauan. Holaxe.

- Fubola ta [...] be bai...

- Ba! Fubolian jokatura gauaz kantzontzillo hutsian Elorrixon be.

- Bai, e?

- [...]

- [...]?

- Puntua. Kantzontzilluakin. Ha atzekuaz aurrera ipinita fubolian jokatura gare gu zerian, Elorrixoko... [...] jauan han, [...]... zelaixa edo, bueno, baeuan behintzat zeozer ta hantxe. Joder! Elgeta Elorrixon kanpeoi izan [zuan] [Elorrixo...] Elgetan, e!

- [Famau]?

- Joe, buu... Baiña famosua. Gaur be, pixkat zaharrerri preguntaixozuek. Mozkorrian, neskatan, dantzan, boletan, fubolian ta... Bueno, bueno, bueno...! Elgetakuak faten zianian, "Hamen datuaz", [...].

- Zuek nora zekazuen jokeria?

- Elorrixora.

- Elorrixora gehixao? [...]

- Gaztetan bai. Guk Elgetakuak, gure sasoi... gure kuadrilla ingurukuak beti.

- Elorrixora.

- Elorrixora oiñaz ta oiñaz etorri. Ta dirua juntatzen bagiñuan danon artian edo, batenbatek zeoze erosi edo nunbaitten pagia edo beste zeozer, ta dirua... taxisa. Ta [bentanan segika taxisa]. Belozidadia, beti [...], baiña bueno. Ba, bost laguneko [kotxian] hamalau inguru etortzen giñuazen gu. [Ja-ta] atzeko kapotian gaiñian hiru-lau bat ta, ba... [...] pezetia edo biajia.

- [...] bide motzena be bai.

- Bai. Ta "ran-ran-ran-ran" arrankatzen juan, ta, ba, ordubete gora-behera. Ostianguan oiñez, e! Jeneralmente oiñaz. Ajia, zera eukiko giñuan ajia guk! Urteik goizeko ordu bittan Elorrixon ta etorri hari oiñaz hona.

- Ajia pasau...

- Ta goizeko zazpiretako autobusa hartu bihar Eibarrerarako. Aber, esplikaidak hori zela dan... Joe! Txahalgintzan! [...], de dios! Klaro! Aurreko zerak: lorik bapez ta jan be ez ta... Joe! Oin beste batzuk moduan. Gaztia, ez dakik?

3.12. Elgetan boleta asko, eta bolari onak

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/016
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Euren domeketako plana boletan egitea zen beti. Musika izaten zen bolatoki ondoan, eta bertan beti. Bolari ezagunenak Luzio bera, eta Arantzabaltarrak. Oraingo gazteek ezer ere ez. Euren aurrekoek ere ez zuten horrenbeste jokatzeko; gerraostean hasi zen boleta indarra hartzen. Lana eta dirua ugaritzen hasi zirenean, 1950 inguruan, orduan indartu zen boleta kontua. Urtean bi-hiru bider frontoira, baina bestela, boletan.

Transkripzioa

- Boletia esan dozu izaten zala zapatu eta domekero, zapatuero...
- Konparaziñorik be ez. Orduko deportian, gaiñera, pixkat zertu in zuan, ofizializau-edo, esan gura juat, joder, hik boletan ein bihar dok. Badakik, “Nun dao?”, “Zerian”, “Ba, haraxe juan bihar juau”. Kuadrillak [...] boletara. Erromerixara, ba... erromerixia egoten zuan. Hamen tanboliña joten juen hamen. Hamentxe. Epifanio Elejaldek tanboliña joten juan ta... edo... zera, txistua joten juan harek ta gramola zahar bat be han ta bueno, dantzan be hemen, joder, hi! Neskak Eibartik eta, joe, [...] eta neska asko etortzen zuan hona saso´ baten, e! Mekauen! Ta harek be oiñez. Lekeixuak-eta hortik harutz juaten [zienerako]. Eibarrera be... ahal dana, ez [jeuan], ta, ba...
- Eta bolarixak famosuak hamen zeintzuk izan ziran?
- Famosuak, hi...
- Bera famosua bat.
- Honen aitta bat. Ba! Gu be... bai. Joe, omenajia in jostek ta zeoze...
- Zeozegaittik izango da...
- Bueno. Baiña... Gure kuadrillia. Gero, handik atzerakuak... Honek, honek, honek ze eitten juek? Neskataru juaten dittuk eta akabo. [...] “se jodió la patria”.
- Honek gaztiok ezebez.
- Ba, ibiltzen dittuk, baiña “ñññiiii”, ta hara begira beti. Ta bueno... Bale. Ta...
- Lehenguak, lehenguak, lehenguak. Lehengua esan, baiña. Batenbat egongo zan lehen be.
- Ba, aurretikuak be bai, zuen aitta ta. Edo... aittajuna.
- Aittajunak be eitten zeban, e?
- Joe, “[...]”, “Hi, [...]”, bat baietz, bat baietz. Joko [juat...] bat lehelengo, e!”, “Zera joko dozu zuk!” eta “Joko juat bat, e!” ta jo eitten juan, politta zuan. Bueno, edadiakin, hirurogetaka urtiekin, e! Ta [“Txilio”] ta... Ta zuen aittak [...] pixkat eta [...] pixkat eta jesus!
- Bola-jokua noiztik etorriko da?
- Jode, ba, hi! Gauzak...
- Zure aurekuak-eta zuk beti ezautu zenduazen? Zeure aitta ta...?
- Bai, bai, bai, bai. Gure aitta ta be... Halako famarik ez, e! Gure denporan hartu jok famia [gehixenbat].
- Indarra?
- Bai, bai...
- Baiña ezautu lehendik?
- Bai. Orduan be boletan ibiltzen zittuan, baiña ez... Ya gu... gu hasi giñanian, gu baiño aurreratxuau, ba, hortxe inguruan, haxe ein juan.
- Gerran? Gerraostian...
- Gerraostian, baiña joe, hi, gerraostia zuan treinta y ocho, cuarenta... hor. Baiña atzeratxuao. E? Pixkat —ze esango deuat?— biharra ta pixkat hasi zuan, ba? Diru pixkat manejatzen hasi zuan jentia ta...
- Orduan...
- ... Bufo! Jo-ta, baiña... Puf! Dominauta [euki juan] boliak [haura] gazterixia, e! dominauta izan dok, ba, afiziñua! Ta, ba, dibertimentua horixe zuan. Joño, frontoira ta... Joe, frontoia, ba, pagau ein bihar zuan frontoian be ta dirurik ez jauan. Ba! Noizbaitten bai, urtian bi-hiru bidar-edo frontoira, baiña, aber, hi!
- Domekero...
- Hamen gordeta beti! [...] galdu edo irabazi. Irabazten bazan, ondo; ta galtzen bazan, hau ta aste guztian jódete.

3.13. Bolatoki bakoitzean bola bana, eskuz egindakoa

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Auzo bakoitzean bola bat egoten da. Alboko etxean egoten ziren txirloak eta bolak, eta baserritarrari eskatu behar izaten zitzaizkion. Bolak eskuz egiten ziren. Artea izaten da egurrik onena, gogorra delako.

Transkripzioa

- Nik sekula ez dot boletan ein, ta ez dakit zelan izaten dan, baiña bolia-eta zelan izaten da? Norberak eruaten zeban edo bertan egoten zan edo zelan izaten zan?
- Eee, etxian, etxian... Bueno, hi.
- Bertan bolatokixan?
- Bai.
- Auzo bakoitzian bat.
- Bai. Hor Ojangurenen be egoten zuan bertako [...]. Bolatokixa... Basarrixa gure tiona, bolatokixa euken ta, ba, bolia einda, txirluak eta... etxian, etxian. Ta han etxetik ekarri bihar zuan, txirluak eskatu ta... Ez, klaro, bestela, [ohol ...] lagatzen [baeben], bolia harrapau, harrapau eitten eben, ba? Bolia be pagau ein bihar izeten zuan ta...
- Egurrezko bolia izaten da. Hamen oin zeñek eitten dittu bolak?
- Hamen egoten dana, hor Markiñako zera. Antonio dauka izena. Txapelduna, ez dakik? Ha txapela?
- Bai...
- Haren laguna?
- Bai, bai, bai, bai.
- Joe, haxe dok artistia. Hor [...] eruaten jok materixala.

3.14. Bolak eskuz eginda, eta artearekin

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/019
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:42:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Bola batetik bestera aldea egoten da: arinagoak, astunagoak... Beti artea erabiltzen da. Pagoa apurtu egiten da. Artea gogorra eta astuna da, ona. Lehen Osintxu edo Bergara aldekoen

batek egiten zituen. Txirloak lizarrekin egiten dira. Lizarra ere ez da erraz zartatzen.

Transkripzioa

- Klaro, batzuk izaten dittuk ariñak, ta beste batzuk haizia hartzen juek ta beste batzuk mazizuak eta...
- Bakoitzak beran...
- [...] pisua... Esku txikixakin [...] hanka eitten jotsek pisua daukanak eta. Pixkat arin samarra dana ha edarto [ibiltzen] juek, baiña astun samarra dana eskutxueri “ffiit-fiit-fiiitt”, hanka eitten dotse.
- [...] allegau ezinda, ohola ta baztarra [eitteko nahikua], ala?
- [...]
- Eta beti artia, orduan? Beti... Lehen be bai holan izaten zan?
- Bai. Ba, bestiak apurtu eitten dittuk. Pagua be bai pixkat, baiña pagua be maskaldu eitten dok bizkor. Gogorraua dok, baiña kaskau eitten dok, zatixa botatzen jok. Golpe txar bat edo zeoze ta... Ona dok, baiña... Ta artia dok, astuna, gaiñera, egurrik astunena dok, hamen daonik egur klasia. Hurrengo alkazia dok astunena, bolumen igualian, e! Artia astuna dok, baiña... klaro, eindda [daok] ha pixkaka-pixkaka, ez urtebetian “bou!”.
- Eta lehen hamen inguruan bazeuan iñor bolak eitten zittuana edo?
- Ez juat ezautu hamen. Bai, joe, Osintxun, joe, badakik zenbat bola eitten zan? Nik ez juat ezautu, baiña hor derrior egon bihar! Hori barrixa dok. Barrixa edo... horrek hamar-hamalau bat urtian-edo jardungo jok, baiña, jo, aurretik [...] nik hor. Bergara aldian eitten juen, [...] edo.
- Ta txirluak be...?
- E?
- Txirluak be egurrakin?
- Bai, bai.
- Artiakin dana?
- A! Txirluak ez. Txirluak jeneralmente lizarrekin eitten zittuan. Oin ez jakixat zerekin ingo dittuen.
- Ariñaua [bihar da] ta...
- Bai, harek lizarra. Lizarra be pixkat zera dok, ba? Zatirik ez jok botatzen. Zimurtu edo zertu eitten dok, baiña zatixa ez jok botatzen. Eta lizarra [izango dok] seguramente. [...]
- Gaiñera, sekreto gutxiao eukiko dau, ez? Txirlua eittia ez da izango hain gatxa...
- Ez, txirlua, ba, bere formia emon bihar jakok, baiña... Joe, ha be astuneixa... ostias!
- Komeni ez.
- Bolia geratzen jok bestela. Hau astuna... Nik hau jo bihar juat ta hau astuna badok, bolia [geratzen] jok! Pixkat arin-samarra bihar dok bolia bultzaka eruan deixen aurrian. Bestela, hori joten bajuat nik, bolia [...], mobitzeko... mobitzeko baiño pisu gehixao badauka, se jodió. Sekretuak danian [...]. Ta hori, gaiñera, oin kriston sekretuak jauaz. Inportantziarik ez [...] emoten, baiña kristonak. [...].

3.15. Elgetan hirutxirloan; Araban seitxirloan

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/021

- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Elgeta inguruan hirutxirloan beti. Araban sei txirlorakin jokatzan duten, baina ez da hain polita. Araban ere zaletasun handia zegoen lehen.

Transkripzioa

-Hemen beti hirutxirloan jokatu izan dozue?

-Bai, ni jokatuta najaok, jokatu ez! Araban, seikuan eitten juek. Ze esango juat ba nik, explikatzeke ba, ipintzen jittuek hiru alde batera eta beste hiru hamendikaldian ta ohola erdi-erdixan ta botatzen dok bolia ba, han be sekretua egongok, direziñua ona daukan o hara daukan-ero, baiña hamendik hor jotzen juek, oholara eruaten dok eta hara juaten dok-eta...

-Beste gauza bat da.

-Beste gauza bat dok, baiña erderaz esanda "soso" e!, "soso". Da! Bolia soltau ta bata horra igual ta bueno balee! Hi, kostunbria ta! Hor kriston afiziñua hor e, herri txikitan e, lehen e! Oiñ, hainbeste ez dok egongo, baiña lehen, [...] horixe zuan, domekia ta zapatua, bai! Hor be hoixe, bolatoki zerori-ta, basarritar guztiak hara juntau ta hantxe, txakur handixa ta bestia, hantxe ibiltzen zittuan! Ni hor, bi-hiru bidar pasau nok hor, Araba inguruan, oin dala urte asko, oiñ hogeita hamar urte ta joer! hoixe jirioi!

3.16. Bolatokietako oholak egiteko haritza onena

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:45:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Ohola egiteko haritza ala gaztaina izaten da beti. Haritza, baina giharraduna, bihotz gogorrekoa; zuririk ez dezala izan, maspildu egiten delako. Gaztaina eta pagoa motelagoak dira. Haritza onena. Elgetakoa haritza da. Elgetako bolatokia, oraingo berria, oso ona da.

Transkripzioa

- Lucio, ohola zerekin eitten da, ze egurrekin?

-Ohola, gaztaiñiakin be bai ta haitzakin be bai, paguakin be bai, baiña haitza ero gaztaiña onena. Hori haitza izangok, hor dagona ta gizarria izan deilla e!

-Zer izan deilla?

-Haitzak gizarria euki deixela, ahula badok, zurixa badok, baltza izan deilla, gizarria eindakua barruan, harek aldamenetan holakotxe zurixak zera [...] Erdikua, bestela zurixa segiduan maspildu ... ta haitzan, zera, erdiko mazizo bihotza, gogorra, hobeto eitten jok. Gaztaiña be bai, baiña gaztaiña zera dok, motela, motela, harek golpia amortiguau eitten jok, frenau eingo jok asko, motelaua dok, duraderua dok baiña, hor haitza,

haitza dok bizixa ta aguentatzen dabana, ez dana, pixkat zaonian botata badaok brindau be ez dok eitten, hori haitza izangok oin daukana ta ohola earra e! Lelengo ipinittakua ta ondo ipinitta ohola be e!
 -Aguantau ein dau harek e?
 -Bueno ohola ipinitta ez da mobidu be eitten ha e! Halako bolatokirik e!
 -Suerteko gare orduan.
 -Ba, anunziauta, bilddurrik barek, faten zaran leku daneri, zeinek bolatoki hobia jokatu hiri, kapitalekua ba haiz be igual dok, jokatuko juat nik. Geure herrixan daona.

3.17. Trabesak eta posturak

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/024
- **Iraupena**: 0:06:05. **Hasi**: 00:49:00. **Bukatu**: 00:55:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kirola » Herri-kirolak
 Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Lehenengo ondo begiratu behar da nortzuk dabilzan boletan, ondo begiratu, denak ezagutu, eta horren arabera baten alde edo bestearen alde jokatu. Botada bi izaten dira, eta ea nork gehiago bota. Norbaitek bota behar duenean, ingurukoek euren arteko posturak egiten dituzte: "bat ezetz" edo "bi ezetz"... Edozer. Boletan ez dago bitartekaririk; jokatzeko den guztia, eskutik eskura. Bolariek, jokatzeko ordaindu egin behar; trabesak osorik jaso; eta gainera espektakuloa eman.

Transkripzioa

-Txirluetan posturak eta zelan izaten dira, ze...
 -Bueno, hor be, hor be, honek-eta botatzen dabenian, ahal bada, baietz jokatu, baiña asko ez e! Jentia izautu izan bihar izaten dok, hi boletan, hi ze deportetan, futbolian ala pelotan noizbaitten-edo ibiltzen haiz-edo?
 -Ba...
 -Izautuko dittuk behintzat baten batzuk, jugadore...
 -Ba, futbolian, ba!
 -Roberto Carlos izautzen dok? Beno bistaz e! Bueno futbolistia ona, ez dok? Ba holan ba, hor be, han e..
 -Hari gola sartzia errezaua.
 -Ha, gogorra Roberto Carlos e! Ni ez. Bueno boletan be horixe daok! Hik han berrogei lagun bagabillaz, honek botatzen jok, politto botatzen jok honek, horrek geizki bota jok horrek, ta bestiengana, joe, horrek bai jo jittuk beeno, ta [...] illuntzi guztian bape ez jok jo, baiña hor tokau zuan, hor eretan ta baietz esan ta, gero, zera, hau! Ta luzera, hurrenguan be ikusten dok eta bai! Horrek jai jaukak! "De churro" joten jok eta bueno heuk bestia ikusten dok eta leku askotan beti jo, txirluak bota, ona. Ez leku baten bakarrik, leku askotan taka, taka! Hi joño izautu..., hik posturia jokatzeko ba, haren fabore jokatuok normala dan moduan. Beste txanboi bat ikusten dok eta haren kontra, kontra jokatu. Oin ba, ez dok beti irabaziko, igual joko jok, baiña ez dakik izautu ein bihar dok, personia

izautu bihar dok, pixkat orientau ein bihar dok, hik ikusi, ibili ein bihar dok.
Hori gauza danian daok, praktikau egin bihar dok, teorixiak balixo jok,
baiña praktikiak be bai. Hik ikusten dok ta ño horrek e... ona dok hori!

-Eta normalian ze izaten da bola bi bota eta...

-Bai hik bola bi bidar botatzen dok.

-Bi bidar eta ia hirurak, hiru txirluak botatzen diran.

-Bai, bueno honek-eta bai, hiru.

-Amesetan.

-Han hiru jauaz, bat be bota heike, baiña "generalmente" bapez... baiña
hirurak be bai.

-Baiña jokua zein izaten da ia zeñek gehixao bota?

-Gehixen botatzen dabena, hik hiru botatzen badittuk eta nik bi, ba hitako.

-Baiña batzuetan ez da izaten bi baietz edo bat ezetz-edo...?

-Posturak zelan izaten dira?

-Hik bolia hartzen dok ez dok, batek hartzen jok eta, joño! Horrek bat
ezetz! Hik esaten bok ta nik baietz, bat e! Txirlo bat, nik esaten dot baietz,
ta beste batek esaten jok "hi! Bi baietz!" Ya jo bihar jok. Ezetz jokatzek dok
eta igual joko dittu eta igual ez. Baiña jokua hoixe dok, hik hots ein bihar
dok eDo han esaten dabena azeptau ein bihar dok. Han esaten jok batek
bat ezetz edo baten parra bi baietz edo zeozer ta hi! Ba! Azeptau ein bihar
dok edo bestela heuk esaten dok: hi! Horrek etara baietz! Bat ezetz! Edo bi
ezetz! Edo hirutan bi baietz-edo!

-Konplikaua eitten da bestela baten parra bi baietz.

-Ez ba hi, hori defensia dok, jokulari jokatzek dabenantzako defensia, aldia
kristona daok, joder! Hik bi jo bihar dittuk irabazteko ta batekin nik parra
eitten juat, joder! Parra behintzat hi, jo ein bihar dok e! Oin, jo egin bihar
dok behintzat, hi! Bape jotek ez badok jai daok. Baiña baten parra bik
defendidu eitten jok. Bota ... ta irabazteko bi jo ein bihar dittuk, batekin
parra eitten dok, horretxegaittik esaten dok baten parra bi baietz edo
baten parra bi ezetz, batekin parra. Bi parra o hiru igual dok, bi jotek
badittuk parra, hiru jotek badittuk irabazi eta bape jotek ez badok ba "a
cobrar", hor ez daok, karua dok! Integrua, jokatzek duana, mila duro
jokatzek badittuk "mil duros pa allá y mil duros pa acá".

-Eskutik eskura.

-[...].

-Eta hori beira dauan jendian artian

-Bai ba!

-Eta euren artian eta bolarixen artian be bai.

-Bai eske begira darenak eta bolarixak igualak dira.

-Oin beste gauza bat, guk espektakulua ipintzen juau, geuk pagau ta jentia
entretenu, hiru gauza.

-Andra gutxi ibiltzek da.

-Andrak e, andrak e, bueno ez najoiak ezebe esatera...

Hi, hiru gauza esan nahi juat. Nik biharra eitteko pagau. Bi: trabesa
integrua kobrau, hiru: espektakulua ipini. Han mostradorera ez fatearren
ordubete ta bi pasa zittuanak guri beida bat baiño gehixao ikusten jittuat
nik e! Harei gastuari ebitau eitten jotseu. Mostradorera edo norabaittera
joan bihar dok eta guri beida disimulan jarriko dittuk harek. Ta
mostradorera joan be ein barik atzera etxera, bat baiño gehixao ikusi
jittuat nik, e! Ordu bi edarto pasau han! Gu han biharrian ta berak
kristonak esan gaiñera "aparte eso" disfratau ta diru pezeta bat be gastau
ez. Ta gu ez bagiñuazek ba ze ingo dok ba, ridikulurik ezingo juau egin ta
tabernan zeozer eskatu edo zeozer ingo dogu [...] ta zabaldu atia ta
martxa! Mostradorian lan ederra daok ba kafia edo zeozer komeni dana,
gastau eitten dok hara juan ezker-ta. Ta ordu bi edarto pasau jittuau e! Ta
bai, edarto! Bape gastau barik, etxera! [...] Ze espektakulu dan hori! Ta

razonau ein bihar juek, nik uste juat...Balorau ein bihar dok, hau be balorau ein bihar dok daukana, baiña bapez ez, e!

3.18. Bola nola bota behar den

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-001/026
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:55:45. **Bukatu**: 00:59:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena**: Boletaren inguruko hiztegia; berba berezi batzuk. Bola botatzea ez dela erraza. Jakin egin behar dela. Oholuts egitea erraza dela, hau da, oholare ez asmatzea. "Jo ala pasa", oholare jo bai, baina txirloen gainetik pasa. Errazena bola jaustea da, oholare asmatu ez, eta behera joatea. Txirlo batek bigarren txirlo bat jotzen badu, horri "birlatzea" esaten diote.

Transkripzioa

-Hor egongo dia berba batzuk gero eta gutxiao erabiltzen dianak, e!
-Berba espezialik edo erabiltzen da bola kontuetan?
-Oholuts eta...
-Espeziala ze esan... posturia jokatzeko?
-Ez normalian erabiltzen diranak.
-Jokuan bolia botatzeko orduan-edo.
-Ez, kondiziñuak daoiz bolia botatzeko e! Bolia ez da, hartu ta hara gora begira bota ez e! Nik lelengo hartu bolia, lelengo pagau.
-Kartia pagau.
-Kartia pagau edo bestela... lelengo behintzat pagau, gero bolia hartu biharko dok bolia botatzeko ez dok? lelengo. Bigarrena, oholare jo bihar dok, hemendik horrainoko ohol bat, ohol estua, hik lelengo ha jo bihar dok hara botatzeko bolia. Oholik jotzen ez ba dok ez jok balixo nahiz ta urriño bota be, alperri dok! Lelengo oholare jo bihar jok. Gero zuzen bota ta harek txirluak jo, horrek bastante zail dittuk e!
-Ta oholare ez bada jotzen.
-Jai!
-Lehen beste gauza bat, lehen erdixa kentzen jakuan.
-A bai e!
-Bai.
-Oin osorik kentzen da.
-Ba lehen erdixa kentzen jakuan baiña hori jotzen ez badok, hik jotzen dittuk bi joku guztian eta nik bi, hik baten oholare jotzen ez badok nik irabazi, erdixa kendu, erdi kendu eitten jakuan. Oin ez, oin kale!
-Oin dana kalera.
-Kale esan gura jok, hori jotzen ez badok ez jok balixo gaiñian jota be, nada, huts! Txorrada zerian, Bizkeiko zera, beti erderia dok ta txorra esaten jotset zerian, txorra! Oholuts! Berak esaten jok oholare huts, ez dabela jo oholik esaten jok horrek euskeraz, hor txorra esaten da.
-Oholuts beste moduren baten esaten da?
-Oholuts.

-Gaiñuts-edo ezagutzen dozu?

-Ezagutzen juat gaiñuts, bai hori be berbia dok, gaiñuts be bai, hik bolia botata txirlua jo barik gaiñetik pasatzen bada gaiñuts dok hori, baiña lehen esaten zuan bost duro jokatzeko jo edo gaiñetik pasau baietz, jo ala pasa? Baiña gaiñuts be berbia dok, gaiñuts jo barik gaiñetik pasau...

-Ohola jo baiña...

-Gaiñetik pasau txirluan ondotik gaiñetik, behetik e, behetik danak pasatzen dittuk.

-Txirlua behetik pasatzen bada ez dau balio, goittik pasatzen bada, joteka, hori meritosua da, ez dau balio, baiña merito handikua da.

-Joe hi! Hori artistena dok gaiñetik-ta, dios!

-Meritua behintzat

-... Errezau behera, behera... hona. Hi hamen kolokatzen haiz, hau goixa dok handik joan bihar dok, han unatxua daok, handik joan bihar dok bolia. Hau libre daok dana, hona etortzen dok dana, generala hona behera.

-Ta txirlua, txirlua botatzen dabenian-ta.

-Txirlua botatzen dabenian, kristonak pasatzen dittuk, kasualidadiak pasatzen dittuk.

-Horrek-eta izenak-eta badakaz baiña.

-Birla ez da esaten hemen?

-Birlatzia dok txirlo bat boliaz botatzian txirloak, harek txirluak joten jok hurrengo daona behera, birlatzia horixe dok, birla beste barbarik ez dao.

-Birla da boliak jo biharrian txirluak botatzia bigarrena, txirlo batek bestia botatzia.

-Birlatzia.

-Eta horrek berdin balio dau?

-Baaaai, bota ein bihar dok txirlua, bota ein bihar dok, baiña kasualidadez dok haura ezkiñia jota etortzen dok hona txirlua ta joten jok hori ta behera, bale! txirluak joten duan txirlua handik ibili ta beste txirluak joten bajok bale! Birlatzia dok hori, birlar.

-Ta gero bueltan botatzen dittuanak bolak ez dauka izenik, nik uste dot entzun dotela, beti ibiltzen da baten bat eta.

-Biheko gu ibiltzeko!

-Horixe ba!

3.19. Bolak jasotzen eta txirloak berriro ipintzen umeak ibiltzen ziren

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Ojanguren, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-001/027
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Bolak jasotzen eta txirloak ipintzen beti norbait egoten da. Lan gogorra da. Eurak ere sarri ibiltzen ziren gazteak zirenean. Bolatoki batzuetan ordaindu egiten zuten.

Transkripzioa

-Botatzen dittuanak bolak-eta ez dauka izenik, nik uste dot entzun dotela baiña, bat beti ibiltzen da baten bat-eta

-Biheko, gu ibiltzeko! Lehen gu egoten giñuazen .

-Umiak normalian, ezta?

-Bai, baiña hamen bolatokixan pagau eitten juen e! Hor orduko, beti pagatzen juen, eske famosua zuan-eta, joder hor e, egun guztian, egun guztian, hamar orduan, mutikuak kanbixatzen zittuan, hor neu be ibilitta najaok hiru pezeta-ta emoten jittuen-ta -

-Orduan, orduko hiru pezeta...

-Gitxi gorabehera, hola denporalitxo baten, ordubete... hi nahikua dok? Beno aiba hiru pezeta ta gero beste mutiko bat juaten zuan eta harek bete ekiñaldi bat eta.

-Ta ze eitten zeban bolia hartu eta bota?

-Bai eta txirluak ipini, jausten bazian edo botatzen bazittuen ba txirluak zea ipini, zuzen ipini bihar dittuk, tente ipini bihar dittuk. Ta biharra dok! makurtu ta gero txirluak bota ein bihar dittuk, bota ta, bota ta, bota ta. Hori gaztiak edozein modutan eitten jok, baiña joder hi! Ha bolia ta jotailliak badare la puta Dios! Txirluak ipintzen gero han hamazazpi bidar makurtu ta. Joten ez bajok ondo, bolia bakarrik bota, baiña bestela, los ! txirluak ipini bihar oiñ!

-Bolia ze eitten da bota ero jaurti ero...

-Hor be sekretu handixak dauaz, bolia kurioso ahal bada etara bihar dok oholian

-Bolia etara eitten da.

-Etara eitten da?

-Etara, ba etara esaten juau guk, bota kurioso ein bihar jok.

-Baiña etara esaten jako...

-Bai etara, oholian etara bihar dok bolia kurioso, etara. Hartu bolia eta bum! Joten badok, ba, te has jodido! Txarra dok hori! Kurioso etara bihar dok etara, bota kurioso ein bihar dok bolia zizt ez bup! Horri esaten jakok etara. Esaeria dok, bolia earto etara jok? goittik etara jok bolia? behetik etara jok? Igual batzuk behian igual joten juek ta beste batzuk goixan ta beste batzuk erdi-erdixan eta etara esaten jakok horri.

-Eta zelan etaratzen da bolia zuzenian ero efekturen bat emoten jako?

-Bai, baiña ahal izan bihar jok hi! Horrek gauzak e...

-Hor badao beste berba bat boliari holan...

-Bai, azpijana dok hori, ba azpijana, hik bolia pixkat, ze esango juak ba nik, pixkat okertu-edo ein bihar dok, pixkat azpikajana emoteko bolia eskuan

-Boliak eukitzen jok pisua alde baten, pixu handixena.

-Boliak [...] harek zuluak ba haiziak eutsi deixon behera jausi ez dein.

3.20. Aitak 'Euzkadi' egunkaria irakurtzen zuen

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/010
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
 Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
 Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Irratia lehenengoz noiz entzun zuen. Aitak irratia entzutea eta egunkaria irakurtzea gustuko zituen.

Transkripzioa

- Ezta radixoik be ez! Ez zeuan radixoik be. Begittu, lehenengo entzun nebanian radixua Bergaran kriada neuala entzun neban. Lonbiden tabernia genkan geure behian. Eta "Mi jaca" ta kantatzen zebeu radixuan. Aiii... Ha zan politta! Musika batzuk ederrauak...! Orduan, e? "Soy soldado de levita" ta... Ez zian... Entzun dozu baten be?
- Ez.
- Ez. Ta "Mi jaca" entzungo ziñuan.
- Pentsatzen dot baietz.
- Bai. Ordukotxiak. Hasieran, e? Hori, radixua. Ta nere baserrixan bastante... Nik hogeï urte neukazenerako bazeuan radixua. Bai. Bazeuan nere baserrixan. Bai. Bazeuan radixua, porke aitta, gure aitta, zera zan, prosperotxua zan. Beste gizon batzun onduan, e! Periodikua be egunero leitzen zeban.
- Bai, hori kontau zestazun. Ze periodiko hartzen zeban?
- Euzkadi. Ondiok be ikusten nao harek periodikuak zelako "Euzkadi" haundixa eukan letrerua. Euzkadi. Eta berak eta aldemenian bere lehengusua bizi zan baserrixan. Baserrixa zan bi...
- Bi bizitzakua?
- Bai, bi bizitzakua. Gure aittittak, bi mutil ezkondu zian eta baserrixa ein zebeu erdittik bi. Baserrixa haundixa. Terrenuak eta danak ein zittuen erdittik bi. Ifini... parzelak ifini eta ein zebeu erdittik bi. Eta gero sorteau, ta tokau jakonai tokau jakona. Eta aldemenian nere aittak eukan lehengusu karnala: Evaristo Aranzeta. Ta nere aitta zan Juan Kruz Aranzeta. Eta periodikua bixen arte hartzen zebeu. Ta aste batian tokatzen jakon lehelengo leitzia batai, ta hurrengoko astian tokatzen jakon lehelengo leitzia bestiai. E? Ta holaxe konpontzen zian. Ta pagatzen zebeu bixen artian. Ta orduan periodikua nork leitzen eban, ba?
- Hori esan bihar netsuan, ...
- Nork leitzen eban, ba, periodikua?
- ... nun lortzen zebeu periodikua? Eurak erosten zebeu...?
- Ekarri eitten zeban karteruak Uberara. Ta gu eskolara goiezenian rekogitzen giñuan Uberan periodikua. Ta gero etxeruzkotan kartak be alleatzen zian. Asko ez, baiña kartak be alleatzen zian. Nere aittak eukan anai bat Ameriketara eta kartia, ba, urtian bat edo alleatzen jakon, karta bat. Haren notiziak alleatzen zian.

3.21. Ardo "txikitea" baino, "baso haundixa" zen ohitura

- **Hizlaria(k)**: Zabala Arruabarrena, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-009/004
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:09:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Taberna giroa » Jokoak
 - Aisia » Taberna giroa
 - Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Udan dantzara joaten ziren, eta neguan frontoira. Txikitea ere asko izaten zen; tailerretik irten, eta 21:00 arte tabernetara. Eibarren ohitura handia zen "baso haundixa" hartzeko (txikitea baino, jarrita, baso haundia hartuz). Eta ugazabak eta

beharginak, denak elkarrekin. Beraiek ere taberna jakinak izaten zituzten, eta baso haundia hartuz, jarrita.

Transkripzioa

- Ta, orduan, zuen plana eguenetan horixe zan?
- Bai, bai, bai, bai. Bueno... biharra-edo [bihar dan] moduan, ta gero hamabixetan lehen esan dana. Ta neguan frontoira.
- Frontoira?
- Bai. Arratietan. Eguen gabian, hamarretan, pelotia Astelehenan. Pelota partiduak. Ta gallinerora.
- Gora?
- Ba, ba... diruan zerak, gauzak. Ta, ba, gallineruan egoten giñuazen. Ta... orduan han goixan —gallinerua esaten gontsan— diru asko eskutik eskura jokatzan zuan, korredoriekin barik. Bueno...! Jentia bost durokua ta... Bost durokua haundixa zuan, e, jokatzeko be! Banaka batzuk bai, Pako Frantsesak eta bai jokatzan juen. Biziko dok...
- A, ez dot ezautzen.
- Pako Frantsesa, bai, nere edade ingurukua dok ha. Biziko dok. Berak be pelotan asko eitten juan, e!
- Sasoi horretan diru asko egongo zan Eibarren, ez? Hor...
- Karo, ordu asko biharra! Hamar ordu gitxien eitten ebanak. Gutxien. Zortzi ordukorik ez jeuan; hamar ordu. Ta harek ordu bixak extra, pixkat ez bada be, extra. Ta jentia, ba, ze esango deuat, ba? Askok Eibarren dirua jabillan. Ta zazpi terdiak arte biharra ein ta eskuak garbitzeko asti barik teillarretik orduan. Ta tabernetara juan ta txikiteua edo... Eibarren ohittura asko jeuan baso haundixian erateko. Baso haundixian. Ogi zati bat edo gazta punta bat edo zeozekin. Bai.
- Txikitua baiño, baso haundixa?
- Bai. Behin edadian pixkat —ez jakixat, ba, nik— berrogei bat urtera edo hogeta hamarretik gora edo, jarritta jente asko. Uezaba ta bihargiña. Kontu, e!
- Bai, e?
- Bai, bai, bai. Han ez jeuan distinziñorik taillarreti urtendakuan.
- Eta hori espeziala zan? Eibarren bakarrik gertatzen zan edo Bergaran edo...?
- Bergaran be egongo zian. Karo, guk Eibarko barri ikasi giñuan. Ta ikusi. Geu be, ba, apopillo. Ta zazpi terdietan taillarretik urten ta, ba, zortzi terdiak edo bederatzirak arte tabernan. Ta geu be... txikiteuan nekez eitten giñuan geuk be. Taberna [hartuak]: lehelengo Txokuan hasiko giñuazen, gero Valentiñanian. Valentiñana plaza aurrian jauan. Bueno, nik ezautu najuan Bidebarrixetan be bai. Baiña plazia barrixa ein zanian, haintxe plaza aurrian ifini juan tabernia. Ta ohittuta jeuan lehen... Bidebarrixetatik entradia jakan harek, Muñoaneko dendian ingurutik. Ta plazia behian ta berak tabernia goixan. Ta plazako jente dana, ba, kafietesnia edo orduan usatzen zana hartzera androk edo gizonok edo danak etorten zittuan. Ta gero plaza aurrera pasau zuan. Oin ez [jakixat] caja de ahorros-en bat edo bankun bat edo zer daon Valentiñanian. Oin... Bai. Ta guk urtiak ein giñuazen han. Ba, hantxe. Geuk be baso haundixoi edo... Ba!
- Zuek be ohittura hori hartu zenduen?
- Karo, txikituori, ba, ezpanak busti orduko husten zuan ta...
- Askoi ibili bihar...
- Ibili ta... Ba! Hantxe jarritta jokuan ein... Ta afaltzeko ordua allegatzen zanian, etxera.
- Ta Elgetako jende asko egongo zan holan...?
- Gu... Elgeta, Angiozar... gero Oñati aldean bat be... basarritarrak. Ta gu

dozena bat lagun inguru egoten giñuazen kuadrillan.

3.22. Lehenengo Uberan erromeria eta gero Aranzeta auzoan

- **Hizlaria(k):** Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-010/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
 - Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Lanerako paraje onak ziren eurenak. Bi ermita zeuden euren auzoan: San Blas eta San Martin. Jaietan zer egiten den orain. Lehen erromeriak egiten ziren. Uberan San Pauloak ospatzen ziren eta errepetiziokoa Kandelario eguna (San Blas bezpera) izaten zen. Soinujoleak han erromeria amaitu eta Aranzeta auzora ekartzen zuten San Blas egunerako.

Transkripzioa

-Munak esan dozu. Zuen inguruan-eta toki batzutan aldapa dexente dago, ezta? Lurra lantzeko-ta.

-Ez, ez. Oso paraje zera, oiñarrixa, paraje ona.

-Zuen ingurua be bai?

-Bai, bai. Lau-lauak ez dittuk baiña bai; urak korritzeko moduan, baiña oso paraje... Bai, bai.

-Ez orduan munarik egin beharrik-eta?

-Ez, ez. Ondo. Makiñekin biharra eitteko-eta fenomeno. "Sin problemas". Ez dakik ba, aldapia edo. Ez, ez.

-Aittatu dozu ermitta bi zerela zuen auzuan, San Blas eta San Martin.

-Bai. San Blas azkenengo etxiak daozen lekuan jaok.

-Eta bat zan zeuen auzoko ermitta inportantiaua bestia baiño...? Jaixak batekuak edo bestekuak...

-Jaixak ba... Zeoze. Zelebratzen dok, ba... Mezia egoten dok, eta meza ondorenguan ba zeoze, [luntx] pixkat [...], eta umientzako karamelo batzuk eta beste salda pixkat eta txorixo puxkat eta, enfin. Lehen eitten zuan erromeixia pixkat. Uberan San Paulotan, Uberan San Paulotan izeten dittuk jaixak. Eta eitten zittuan erromeixak San Paulo eguna, San Paulo Txiki, eta hurrengo errepetiziñokua izeten zuan jeneralian Kandelaixo eguna, "dos de febrero". Kandelaixo eguna, San Blas bezperia. San Blas hiruan.

-Orduan astebetian hiru edo lau jai.

-Bai. Jeneralian egualdi txarra eitten juan. Oin ez jok eitten hainbeste edur; iez ein juan, bai, baiña lehen sasoe baten eitten juan edurretan! Gu mutikuak giñanian-eta, hola hamalau-hamabost urteko mutikuak, eta mekaueu zotz, [egunetan] fan ezinka goittik behera, hori Uberara, Ubera behian dagola, e! Edurra? Baiña faten giñustan, hala ibiltzen giñustan. Jeneralian egualdi txarra. Handik [...] Kandelaixo egunian erromeixia izeten zuan hangua. Hara etortzen zuan soiñojolia, hangua akabatzen zanian, gabian goiz alderutz gora altzatzen giñuan. Guk ez, gu baiño nausitxuak; gure anaia-ta. Hiru-lau urte diferenzia, baiña... Itturrittara altzatzen juen.

Itturritan lo eitten juan, eta San Blas egunerako soiñua. Mutikuak, gaztiak, soiñua.

3.23. Abadearen amenazuak erromeriak zirela eta

- **Hizlaria(k)**: Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-010/015
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:26:10. **Bukatu**: 00:30:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- **Laburpena**: Neska-mutilak kongregazioetan sartuta egoten ziren: mutilak luistarrak eta neskak Hijas de Maríacute;a. San Blas eguneko erromeria dela-eta abadeak izugarrizko bronkak eta amenazuak bota zizkien. Honen inguruko kontuak. Hala ere, erromeriekin jarraitu zuten. Soinujoleak Bergarako bi anaia ziren, Lazkanotarrak. Dantza lotua egitea bekatua zen garai batean.

Transkripzioa

- Kontatzen zenden San Blas egun baten...

- Argixa ifiñi juen [...]. Joan dok Elgetako don Juan mezia emutera. [...] Mutil gaztiak giñuazen, eta neska gaztiak. Orduan jauan, e, oin ahaztu zittuan horrek gauzok baiña, kongregaziño bat jauan, Luistarrena. San Luis Gonzaga; eta "Hijas de María". Emakumiena, neskena. Hillero-hillero izeten zuan komuniuoi, hillian behin. Fetxa fjuan. Medallak jauazen, eta [...] komulgatzia. Ipiñi juau argixoi, etorri dok don Juan mezia emotera; ikusi jittuk harek. Han geuazen gu aingeruen moduan, "más contentos que chichi", elizara fanda mezia entzutera. Sermoia [...] haserretzen jakok, berotu jakok, hasten dok gaizkiesaka: "Bata luistarra, bestia Marian Alaba, infarnura joan bihar dozue!" Ein joskuan diskurso bat, ai "la hostia"!, zer da hau? Ze entzun bihar dou hamen? Kristonak esan joskuazen. "Infarnura! Erromerixia pekaturako bidia... Gaiñera beste gauza bat esan bihar dot: honek, hau, Salbador, Asentzio eta San Adrian -Altuben San Adrian egoten zuan-, honek gaiñera erreta egon bihar leuke, beittu!, erreta, pekatua besteik eztabe eitten-eta". Harek emon joskuan berotua guri! Mekauben dio! Hau dok bihalekua! Jentia, badakik, jentia tontua... ha be estudixautakua, baiña tontua... "Joño. Ez jok ba esan Santiago porsiakaso! Santiago Azurtza". "Ez ba, hamen badakik zer pasatzen dan? Hamen ez jotsek ezer emoten, eta Santiagon jo eitten jok edarto horrek, eta Pakok nahikua emoten jotsak horri".

- Hori guzti hori zan erromerixia zekazuelako eta pekatua zalako. Eta argixekin gehixago gaiñera.

- Joe! Buuu! Ha zuan ha! Pasau zuan. Baiña ez zuan amaittu. Erromeixia ia behintzat segittu jotsan soiñu horrekin. Baiña egualdi txarrak eitten jittuan San Blasetan, jeneralian egualdi txarrak, eta iñor ez zuan faten-eta. Baiña gero ba, atzera ba ahaztu jakuan. Ahaztu zuan gero. Gaztiok, e, gu ezkondu giñuazen eta alde egin giñuan kalera-eta. Gastua beti egoten dok, soiñujolia-eta, debalde ez dok ezer etortzen; bergararrak zittuan soiñojoliak, bi anai, bat etortzen zuan, baiña onak, Lazkanotarrak. Harekin

pasatzen giñuan denporioi; ostientzian ondo.

- Orduan...

- Ein joskuan amenazu bat! Ha ez dok ahazten. Okerra zuan ha. Don Juan. Abadia zuan baiña okerra zuan; okerra, okerra.

- Normala izaten zan jaixetan-eta abadia puxkat hasarretzia? Esatia pekatua! Eta dantzarik ez! Eta?

- Sasoe baten dantzia [...], hori ez zuan bihar. Agarrauan dantzia eittia? "Santísima"! Sueltuan be "aún y todo" tira, danboliñakin be zeozer, baiña agarrauan dantzia eittia eta?

- Pasadobliak eta?

- Eurak ba libre, baiña baakik hemen nobera ibiltzeko bestiei ze ein bihar jakuen, atia itxi; nobera ibilli bihar danian ibiltzeko. Bestela bestia ibiltzen bada, ikusi eitten jok-eta. "Joño hi, fulano be hor egon dok, hi!"

3.24. Inguruko jaietara

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-016/010
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:17:16. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: San Juanetan Eibarrera, Pazkoetan Bergarara eta irailean Elorrioko feria nagusira joaten ziren, 15 urte inguru zituela. Eibarren musika-banda eta atrakzioak egoten ziren eta pagarik izanez gero, pastela jan eta kasa edaten zuten Antonik eta lagunek.

Transkripzioa

- Eibarrera sekula ez ziñen jeitsi?

- San Juanetan, San Juanetan faten giñan. Pazkuetan... Gure salidia gazte-denporan, san Juanetan, san Juan egunian Eibarrera. San Juan egunian, besterik ez. Pazkuetan, Pazkua Erdiko egunian Bergara, ta Ferixa Nausiko egunian, setienbrian, Elorrixora. Horretxek hiru salidok eukitzen giñuzen.

- Eta zelan joaten ziñaten?

- Autobusa. Elgetatik autobusa egoten zan.

- Zenbat urtekin hori? Hamabost edo?

- Bai, pasauta. Hamabost baiño gehixao. Ez dakat goguan hori, baiña gure gazte-denporan. Ez, oiñez be faten giñen gaiñera. Bai, oiñez be fanda nao, eta ez baten bakarrik gaiñera, Bergara porrejenplo. Eibarrera oiñez fatia ez jata akordatzen, baiña Bergara bai. Baten baiño sarrixao nao fanda Bergara oiñez Pazkua Erdiko egunian. Eta etorri ez dakit zelan ingo nitzan. Etortzeko, gabian etortzeko autobusa eukiko giñuan edo. Eibarrera beti autobusian, fan eta etorri autobusian. Eta ostientzian ba beste erremedioik ez genkagun hamen.

- Zer egoten zan Eibarren san Juanetan?

- Ba bandia be bai ta tiobibuak eta. Bueno ba, ez dakizu hori gauzioi? Ta ostientzian ez dakit egoten zan holan aparteko... Musikia. Ez naiz akordatzen besteik. Ta bueno, paga txikin bat egoten zan Kasa erateko. Pastelen bat edo jaten baziñuan eta Kasa eran, buenooo!, ha izaten zan guretako zera. Puf. San Juanok. Ja-ja, dirua be gutxi egoten zan eta. Diru gutxikin badakizu, gauza asko ezin in.

3.25. Domeketan plazara dantzara; San Antonioetan Urkiolara

- **Hizlaria(k):** Atorrasagasti Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-018/004
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
 - Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Musika egoten zen plazan domeka guztietan, hasieran danbolina eta gerora soinua. Tabernara sartzeko ea inor begira zegoen beldurrez egoten ziren. Inguruko herrietara (Bergarara edo Eibarrera) egun berezietan joaten ziren soilik. Urkiolara joaten ziren San Antonioetan, oinez. Erromerietatik iluntzerako etxera etorri behar izaten ziren.

Transkripzioa

-Dantzia edo egoten zan?

-Bai. Orduan soiñua asko egoten zan. Eta neri gustau izan jata dantzan baiña asko, asko. Hamabost urtekin Kas bat hartzera tabernara fateko, alde guztittara begira iñor ete dagon begira.

-Zer ba?

-Bakizu [...], orduan ez zan faten tabernara; oin bai. Orduan tabernara ez zan faten iñor. Holaxe [noizipeiñ autua pasauta gero], baiña alde guztittara begira, iñork ikusiko ete gaittuan, e. Kas bat hartzera fateko. Gure bizimodua zelakua pentsatzen dozu ixen dala? Eta gero ba ezebez; erromeixara faten giñan, astegunian lana eta jaixan ba erromeixara Elgetara.

-Domeketan?

-Bai.

-Beti egoten zan?

-Bai, bai. Lelengo denporale baten danboliña. Danboliña jakingozu zer dan. Txistularixak, txistularixak. Bat egoten zan [...] soiñua jotzen, eta gu "al son de...", haretxen zerian eitten giñuan eitten bagiñuan dantzan. Geruao [...] agertu zan fillarmonikia. Ia hamazortzi urtekin.

-Hemenguak ziran musikuak?

-Ez. Gizon bat zan zera jotzen ebana, txistua eta danboliña jotzen ebana. Haxe ixeten zan gure hamazortzi urterartian gure soiñua.

-Beti gizon berdiña?

-Bai, beti berdiña.

-Eta Eibarrera edo Bergarara edo joaten ziñan?

-Bai... Keba. Pazkuetan-edo faten bagiñan.

-San Juanetan?

-San Juanetan. Ya está. Akabo. Urkiolara. Oiñez faten giñan, e! Urkiola.

-Urkiolara?

-Oiñez, Urkiolara fatia pentsatzen zanian, San Antoniotan edo. Oiñez, urten etxian eta.

-Eta gero buelta gabaz?

-Gero bueltan be oiñez.

-Gabaz?

-Gabaz.

-Zelan ikusten ziñuen?

-Ba linternak eruan bihar poltsikuan. Gabaz gero hemendik domeketan, hemen hamarrak arte, handik aurrera ez euan permisoik, e. Hamarrak, hamarrak eta laenak [etxera joan bihar zan]; eta beratzitterdixak inguruan urten ein bihar, laga erreimeixiorri eta etxera. Illunian linterniakin ordubeteko bidian.

-Orduan domeketan beti plazara?

-Bai. Eta ba hoixe, Pazkuak Bergaan, edo San Juanak Eibarren; eta holaxe, holakotxe lekun batera faten giñan, baiña bestela ez giñuan herrittik urtetzen ezertarako.

3.26. Inauterietan, baserriz baserri eskean

- **Hizlaria(k):** Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-029/027
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena:** Elgetako jai ezberdinak aipatzen ditu: gaztainerre, feria... Elgetako uztaileko azoka berezia izaten zen, ganadu ugari eramaten zuten eta. Inauterietan, baserriz baserri eskean joaten ziren soinua hartuta. Politika zela eta, debekatua egon zen urte batzuetan.

Transkripzioa

-Beste jai batzuk be dadaoz Elgetan, ezta, Gaztaiñerre ta.

-Gaztaiñerre be egoten da. Gero Sardau Eguna be egoten da setienbrian.

-Lehen be egoten zan?

-Len-len ez. Oñ egoten da. Gero ferixia ba "el primer domingo de julio" egoten da ferixia. Ganaua ta honek erreminttak, tratorak eta zerak egoten dia.

-Lehen be bai?

-Lehen be bai, lehen be ganau asko egoten zan Elgetan. Elgetan hillan, juliuan lelengo domekia, San Pedro hurrengo domekia, ixaten zan inportantia. Gero jaixa berrido agostuan. Baiña oin agostukuak kenduta dagoz. Dana kanpora faten da jentia ta.

-Eta karnabalak ospatzen zenittun?

-Karnabalak prohibiduta be egon zian. Tolosan be prohibiduta egon zian, e.

-Zeaittik?

-Politikiaaittik edo eztakit zer. Disfrazatzioi ez zala zea ta prohibiduta egon zien. Baiña karnabal batzen eta ibiltzen zian mutillak eta basarrixan.

Soiñuakin fan eta.

-Joaten ziñan?

-Ni ez, ez nintzan fan sekula baiña. Baserrira faten zien. Ta baten bat hildakua baeuan barrixa etxian edo, han errezaue eitten zan. Ta bestela ba soiñua jo ta zoeze emoten jakuen eta.

3.27. Andra Marietan soinujolea

- **Hizlaria(k):** Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref:** ELG-035/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:45
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Jaietan ez zen gauza handirik egoten. Goimenditik etortzen zen soinujolea, "Bergaretxe". Geroago hasi ziren musika ekartzen: Andra Mari egunean Bergarako musika banda eta San Roke egunean Eibarkoa. Dantza lotua gustatzen zaiola dio.

Transkripzioa

-Eta jaixena, akordatzan za jaixena? Kontau zelakuak zien orduko jaixak.
-Orduko jaixak ba filarmonikakin jo plazan, eta kitto. Ostian ezebez, e. Aiuntamentutik-eta ezebez, ezebez! Andramaixak ziela-eta kitto, ezebez. Filarmonikistan bat Goimenditik-edo etorten zan.
-Nundik?
-Bergaretxen anain bat-edo, Bergaretxe zaharran anain bat etortzen zan filarmonikia jotera. Majua gizona! Eta haretzek jotzen zittuan piezak-edo eiñ eta kitto.
-Dantzarixa izan za?
-Eta gero hasi zian musikak ekarten, baiña urtietara, e! Andramaixa egunian Bergarrak musikuak, eta San Roke egunian eibartarrak. Gero hori, urtietara.
-Dantzarixa izan za, Ixabel? Dantzan gustau?
-Neri dantzan gustau? Bai. Baiña trikitixak-eta ez asko. [...] eta, pasadobliak-eta bai ingo nittukek, ointxe be bai.
-Orduan gustau.
-Hoixe, hoixe. Ondo eiñ ezkerro. Ondo dakixenakin, bai.
-Orduan arrimua be ez zan izengo ondo ikusittakua?
-Ez. Ezebez holakoik.

3.28. Idi-probak I

- **Hizlaria(k):** Telleria Retolaza, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-038/025
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:35:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Idi-probak oso gustuko izan ditu beti Javierrek. Ikustera herritik kanpo ere joaten ziren, apustuak egitera-eta. Bere auzoko batekin joan izan da askotan. Bizkaia aldera asko joan izan dira, Gipuzkoara Aiara baino ez ziren joaten.

Transkripzioa

- Hasi lehenao, ni ezkonbarritan andriakin Abadiñora ta. Andria ez [dako]

gustatzen, andria kontrarixua da.

- Idi-probena?

- Hari ez [dako] gustatzen.

- Gero gu beste bat ibiltzen giñen, hau Migel eta beste bat, Eugenio Gorosabel, Arrotakua. Ha zan, ha zan fenomenua. Gu harekin faten giñen, bueno, hor Bixkai guztia pasatzen giñuan hori.

- Zeuek eruaten ziñuzen irixiak?

- Ez, ez. Geuk iririk ez. Gu probak ikustera faten giñen. Ikustera.

- Apustuak eittera ta hola?

- Bai, apustua ta. Guk iririk sekula ea dogu euki. Migelek bai. Migelek berak esplikauko dotsu, berak euki zittuan irixak.

- Baiña zuk esan dozu etxian irixak bazeuzkazuela.

- Irixak bai baiña guk probarakoik ez. Ez, ez.

- Migelek bai.

- Migelek eitten zeban proban. Esplikauko dotsu berak.

- Eta hamen nun eitten zien probarik...

- Bueno, oin probia alde guztietan daukazu.

- Baiña zuek hasi ziñatenian?

- Hasi giñanian guk gehixena Abadiño. Gero Bixkaira, Bixkaira be bai, Gatika, Bakio, Mungia, Artea.

- Eta Gipuzkoa aldean ez?

- Gipuzkoan Aia unikamente. Aia. Harutz ez nai pasau sekula. Aiatik harutz ez naiz sekula pasau. Aia. gero Markiña-Etxebarri. Hamentxe, hamentxe.

4. Lanbideak

4.1. Aita arotza; etxegintzan ere jarduten zuen

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/005
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:05:37. **Bukatu**: 00:07:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Arotzak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Aita arotza zen. Etxegintzan eta baserriko tresnak egiten jarduten zuten. Amaren zereginak. Baserrietan dirurik ez.

Transkripzioa

- Umetan, basarrixan-eta...

- Baserrixan jolas pilla bat.

- Eitten zenduezen? Aitta, esan dozu, arotza zala...

- Aitta arotza zan, bai.

- Ama basarrixan.

- Ama baserrixan. Baiña aittak be, arotza, baiña ez zan... ibiltzen zan, holan, baserriko arregltxuak-eta eitten, ezta? Baiña, ostian, etxeko zerak eitten zittuan. Eitten zittuan sillak, eitten zittuan bankuak, eitten zittuan banastak, konpontzen zittuan baztarrak, eitten zeban teillatua arreglau... Aitta. Aitta oso...

- Eta ze ibiltzen zan, orduan, etxegiñian? Pixkat, ba, basarrixetan...

- Bai, baserrixetan. Deitzen bazotsen, ba, orduko arregluak izeten zian

ganauen jateko askak-eta ifiñi ta holakotxe gauzak eitten. Baserriko trastetxuak konpontzen. Ta ibiltzen zan hortan be. Aitta maniosua zan, oso maniosua zan. Bai.

- Eta ama? Basarriko...

- Amak baserriko lanak. Soluan ta... Aittak be bai soluan ta danian, e? Baiña hamar ume daukazenak zenbat lan eingo dau soluan? Haren jatorduak preparau, ta harei galtzetiñak ein, ta haren erropak konpondu ta txikixakin haundixa ein ta haundixakin txikixa ein... Nahikua zeregin eukiko zeban harek danak tapatzen. Ta diru gutxi. Ta dirurik... eske, baserrixan ez zeuan dirurik. Mantentzeko lain. Ta txahaltxo bat noiz edo noiz saldu, txahaltxo bat, ta haretxekin, ba, onbre, zulotxuak tapau ta ogixa gehixao erosi... Etxian ezin hartu danendako lain ogi be; erosi ein bihar pare bat hillabetian. Ogixa erosi egin bihar kanpuan. Ogixa ta ardaua ta olixua ta txokolatia ta gauza asko dare erosteko.

4.2. Emakumeak josten ikastera

- **Hizlaria(k):** Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-029/013
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:13:16. **Bukatu:** 00:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Eskolatik irten ondoren josten ikastera joaten zen. Titareak asko balio zuela eta esku ezkerrez ikasi zuen josten.

Transkripzioa

- Eskolaz aparte, bueltauta eskolara eta, egoten ziran gero musika ikasteko edo...?

- Baiña guretako ez euan, guretako ez. Ez dakit orduan kalekuak-eta.

Guretako ez euan orduan musikarik eta, ez euan astirik! Guk goizetik eskola pixkat eta, gero, atsaldian, emakumiak ikesi bihar eben josten.

- Ikasi zenduan zuk?

- Bueno, zeozetan.

- Etxian edo...?

- Eskolan.

- Eskolan?

- Bai. Ta nik ezkerakin ikesi neban josten be. Titaria bihar izaten zan atzaparrian ipintzeko, baiña ez dakit zenbat balixoko eban, txakur haundi bat be igual ez, baiña dirua falta erosteko. Eta gero ezkerakin ein neban eta, ba, ezkerakin eitten dot oin, josten ezkerakin, ez dot oin asko eitten, baiña... Bixetara ikesi dot, esku bixekin.

4.3. Arotzeria lana ugaria izan zen sasoi batean

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Narbaiza, Anaje
- **Erref:** ELG-069/001
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:50

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Arotzeria lana ugaria izan den arren sasoi batean, lan horretan jardun duen bakarrenetakoa bera izan da.

Transkripzioa

- Nik zenbati esan dotseten, hola, zertuta: "koño, biharra..." bata ta bestia, ta nik hogeta hamar urte nakazenian, ein ahala guztia eukitzen najuan biharra. Hogeta hamar urte ta berrogeta hamar urtekin be bai. Ta ein ahala guztia. Ta "ekiozue, mutillak!" ta zera ta biharra ondo ein bihar dok, e! Ondo. Nik zenbat bidar esan dotseten! Ta jentia: "hire moduan eitten dabenik ez daok eta... Heuk ein bihar dok bata ta bestia be heuk ein bihar dok", eta... danak neuretako, neuk eitteko! Baiña ezin danak nik ein ta... Holaxen [gare]. Jentia martxa hortaratxe jarritta.

4.4. Gurdigintza eta arotzak

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Narbaiza, Anaje
- **Erref:** ELG-069/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:01:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Gurdiak ez zituen berak egiten; Albitxubaso baserrikoak egiten zituen. Elgetan ere gurdiak egiten zituzten beste bi arotz zeuden.

Transkripzioa

- Burdixak nork eitten [zeban]?
- Burdixak.
- A! Burdixak? Burdixak eitten zabenak ez. Neuk armazoirik ez dot ein izen. Burdi asuntuan ez dot ein armazoirik, ez. Oin, erraillen bat apurtu bajako, ba, haxe sartu edo zera. Baiña lehen burdixak eitten zabena hamen bat zuan "Albitxubaso". "Albitxubaso". Badakik nun dauan Albitxubaso basarrixa? Ba, haretxek. Haxe izen dok hamen inguruko burdigiña. Ta Elgetan, Elgetan bazittuan Ziriako ta bestia, zela jakuan izena? Ez jakixat. Haretxek zittuan burdixak eitten zittuenak, oin zala... harek... oin zala berrogeta hamar urte edo gehixaokin... Berrogeta hamar urte edo gehixao izengo dok harek eitten zittuela burdixak eta. Baiña oin [gaur ...] be burdixa be dana gastau dau zihero. Kitto! Dana tratoria ta zera ta akabo. Ez dao burdirik.

4.5. Egur mota desberdinak

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/006
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:06:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Arotzak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Egur klaseak. Klean erabiltzen zen egurra batez ere pinua izaten zen. Pinu klaseak: zuria, maritimua...Gaztainarik ez dago jadanik (etxeetako lurra egiteko erabiltzen zen).

Transkripzioa

- Orduan, ze egur klase? Egur gogorrak eta egur bigunak dare?

- Bueno, egur bigunakin eitten genduan... Izeten zan, piñua da, lehen biharra eitten zana kalia, piñua. Ohola, enkofraurako ohola, kuadradillua; ohola izeten dok, ba, hiru zentimetro lodikua. Hiru. Zabalian ez jok eukitzen neurrik. Ta kuadradillua "siete y medio por diez"; "dos cincuenta de largo". Puntalak, ba, piñua-ta ibiltzen zuan, ta oin metalikua daok hori be. Dana metalikua. Ta oin, ba, hori egur asuntuoi ya asko zertu ein dok. Oin ya zertuta dao piñua. Ta oin, gero, ba, holan, zererako, suelorako ta, ba, hamengo piñuak ez jok balio, hamengo piñua eskasa dok. Alerzia, horixe piñu zurixoi, hori baldin badao, horixe, ta bestela Gineako zera sartzen dok. Gaurko egunian dana Gineakua. Gaurko egunian bai. Lehen bai, lehen sartzen zan alergia ta maritimua. Maritimua, markerixia maritimua ta dana. Hortaikua.

- Ta gaztaiña?

- Gaztaiña gutxi.

- Maritimua da "pino marítimo".

- Bai. Maritimua, hor, Oñati aldian ta hortik zihar da asko. Maritimua Oñati aldian zihar. Gaztaiña hamen ihartu ein da. Ta lehen bai, gaztaiña be eitten zan puskat, baiña gero ihartu zan ta gastau ein zan hamengo gazatiña ta oin gaztaiñarik ez dao.

- Gaztaiña zetarako ibiltzen ziñuen?

- Gaztaiña da markerixia.

- Markerixia?

- Markerixia ta suelua. Suelua be bai; parketa be igual. Parketa, gaztaiña-ta onak zian, e! Baiña gero gastau ein zan asko ta zera, baiña hoixe. Ta piñua, piñu nortia. Piñua be piñu nortia estranjerixakua, baiña estranjerixakua be ona zan, e! Suelorako-ta ona.

4.6. Egur loratsua.

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/024
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:28:33. **Bukatu**: 00:29:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Egur loratsua.

Transkripzioa

- Lehen aipatu dozu loria, ezta? Arbolian loria? Hori da, ba, adarra kentzen dotsazunian, harek eitten dabon dibujua, ezta? Hori nahi zifuan esan?

- Hori zera da, lehen esan doten lorak egoten da haritz amerikanua, haritz amerikanua. Bai, oin jentia doa sartzen berriro pifun baltza, insignia sartu biher dan lekuan, abetua, abetua. Hori egur gogorra izan biher jok. Oindiokan, holan, materixaletarakorik-eta hamen ointxe dao jentia plantautan, ya zortzi-hamar bat urtekua edo zera. Baiña trongo haundirik ez daok e, oso gutxi.

4.7. Zuhaitzen ezaugarriei buruzko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Narbaiza, Anaje
- **Erref:** ELG-070/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:01:35
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Arotzak
 - Natura » Meteorologia
 - Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Egurrak ura hartzen duenean, pisua hartzen du eta sikatzeko denbora behar du. Berde-berdean mozten badira, zenbait zuhaitz (alkaziak, haritzak..) brintatzeko arrisku gehiago.

Transkripzioa

- Bueno, esan dou, egur bat bringatu ein leikiala. Ura hartzen dabengan egurrak zela esaten jako? Harek emon eitten dau, ez? Egurrak emon eitten dau...

- Ura hartzen dabengan, ba, ura hartzen badau, ba, pisua gehitzen jako hari, ta harek sikatzeko denporia biher dau. Tronkua bada, mendixan badao, han ostropian edo [zapal] artian badao, ba, denporia biher dau atara ta sikatzeko. Ta ebai arren, ebai arren, lehen esan dotena, ardura dotsan inportantia bada arbolia, harik eta sikatu barikan, sikatu barik ebaten bada, [pitzatzen bada], lehen esan douna, harek egon biher dau, denporaldixan egon biher dau. Akazia ta alergia ta horrek dia egur zerak, haundixak, eta haritzak be bai. Konparaziño, berde-berdean ebaten badozu haritza, ba, pixkat asentau barikan, horrek danok faten dia pixkat... bihotzian be, lehen esan douna, erdiko bihotzian be igual "rraaa!" bringatzen dia. Erdiko bihotza, e! Ta horrek puskat asentautakuan isiltzen naiz, baiña berde samarrian ebaten badia, zertu.

4.8. Egurra ondo sikatzearen garrantzia

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Narbaiza, Anaje
- **Erref:** ELG-070/003
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:02:35
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Arotzak

Natura » Meteorologia

Euskara » Lexikoa

- **Laburpena:** Zuhaitzak airean egon behar dira sikatzeko orduan. Egur biziata. Egurra asetu.

Transkripzioa

- Ta lurrian gaiñian ya oholak ipinita, eta horrek...
- Humedadia?
- Humedadia...
- Ez, aidian ifini bihar dozu, aidian.
- Bai, baiña zela esaten jako humedadia hartzai?
- Azpizai ifini bihar dotsazu, konparaziño, laga bihar dotsazu metro erdi bat edo alturan. "[...] dos troncos". Egur haundi bi ifini asentauta edo bere zerian. Distanzian, e! Bere distanzian, hueko haundixa lagatzen badozu doblau eitten dia ta.
- Eta doblatze hori eta gora tripia etaratze hori, horri zela esaten jako?
- A! Horrek, hau doblatziau, hueko haundieixa lagia.
- Biziau.
- E?
- Biziau, biziau.
- Biziau bai, baiña huekua [haundi...]. Bai, huekuan...
- Biziau. Berez bihurtzen dau [...].
- Bai ba! Huekua txarra da, e! Huekua egurandako... Zuk ipini bihar badozu kuartolerixa bat edo, edo kapiroxua taillatuai emon, "hay que dar de cincuenta", "cincuenta a cincuenta". Horixe da neurrixa.

5. Familia eta harremanak

5.1. Baserritik Bergarara tratura

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bergarara tratura Miren joaten zen. Esnea, sagarrak, babak, patatak... saltzen zituen.

Transkripzioa

- Orduan herrira juaten ziran, Elgetara edo Bergarara, zeoze saltzen?
- Bai, bai, bai. Saltzera Bergarara. Bergarara.
- Eta zein juaten zan? Ama?
- Ama ezin zan juan. Denporatxo baten neu juaten nitzan. Esnia eruaten neban, sagarrak eta patatak, baba pixkat... Ta eruan ta plazan diru pixkat hartu. Ama pozik egoten zan: "Eneee... oin be ekarri don, neska, pixkat", eta. Bai. Gero etxeruzkotan txokolatia ekarri, kafe pixkat, ogitxua... Falta dianak eruan. Ta oso zintzua nitzan, gaiñera, e? Ezta... ez neban gastatzen duro bat be ez bidian, e! Amak esateko eukitzen zeban: "Hau fiñaua da ez

dakit zer baiño". Bai. Ta etxerako ekartzen nittuan trastetxuak eta tira! Sagarrak-eta, arbolapian sagar pilla bat eta... patatak-eta horrek bazeren, babia be bai, baiña dirua falta. Ta gauzak etxian bihar dia halako kuadrilliak. Ta, gaiñera, ama kozineratxua ta ondo konpontzen zana zan. Umien gobernadoria-ta zan oso, umien gobernatzaillia-ta. Bai. Zartaiñian ifini olixua ta txitxartxuak eta danendako arrautza bana ezin allegau, eta ifini arrautzatxo bana ta, aunke sea, txitxartxo bat arrautza erdikin ta... Ni egixa esaten nabil, e! Hor etortzen badia, ez badia neri ez dosta inporta, e! Ni nabil pasautakua esaten, pasautakua.

- Zeu juaten ziñan Bergarara...

- Bai. Hamabi urtekin ya...

- Bezeruak zekazuzen?

- Baitta bezeruak...

- Ala plazara zuzenian?

- Plazara be bai, ta bidian be bai, e? Bidian be ezautu eitten giñuezen bai?

Ta Mugertzako tontorra euan entradan. Oin handik hona einda dao beste

Bergara bat, baiña orduan Mugertzako tontorra zan entradia Bergarakua.

Mugertzako tontorra. Eta [han] ya klientiak baneukazen, e? Bai. Itxeitten

egoten zian. Eta sagarrak-eta onenak harrapau eitten ostezen plazara

orduko, apartau ederrenak eta. Baiña hareri gehitxuao kobrau, ta gero

plazan merketxuago ifiñi ta holakotxiak ein bihar. Baiña umiekin-ta jentia

okerra da, e? Ni ondiokan gaztetxua, hamabi urte. Zer? Hamahiru urte,

biherrera fan baiño lehenao zan ta. Ta fan ein bihar. Amak... hamar ume

eukittako andria, bidetan ezin ibili be ein, ya estropeauta dao. Eta, ba, neu.

Lau mutil neukazen aurrian ta neu nitzan. Han, zenbat eskola ikesiko

neban, e? Horrek danok eindra ibiltzeko... e? Zenbat eskola? Dividir ezin

ondo ein. Ezin ein dividir be ondo. Multiplicar, ta restar ta sumar, ta dividir ezin ikesi ondo.

- Espaiñiako mapia ondo, baiña.

- A! Espaiñiako mapia.

5.2. Tortolosak

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/008
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:13:20. **Bukatu**: 00:14:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Tortoloseara asko jolasten zuen.

Transkripzioa

- Pelotia gora bota ta buelta emon.

- Kanturen bat eitten zenduen tortoloseri buelta emoteko ta?

- Bai, bai.

- Gogoratzen dozu pixkat zelan zan?

- Asajiak, akarniak, akuluak eta aponiak. Lau izen euken.

-Aponiak, asajiak, akarniak eta... akuluak?

- Akuluak uste dot ziala bestiak. Bai.

- Eta zelan eitten zan? Pelotia bota, kanturen bat edo zeeze esaten da?

- Ez. Asaje bat, bota gora pelotia, gora bota ta han goixan dauen bittartian,

behian tortolosai buelta emon bihar jako, eta ifini bihar da tente. Ta jausten bada galdu dozu. Ta zeure laguna gero, txandaka. Galtzen dozunian, laguna. Eta oso politta zan, e?

- Esaten dozun izenen aldera ipiñi bihar dozu.

- Izenen aldera.

- Eta izen bakoitza ze zan?

- Izen bakoitza diferentia.

- Akordatzan jatzu, asajia, apona, ze...?

- Bai. Ez dakit, ba, lehelengua zela zan.

- Ni neu be jolastuta nao, e?

- Bai, hori be jolastuta. Nik asko jolastu dot hori. Hori gure umetan oso popularra zan.

- Hori ze izaten zan, negu partian gehixao, ez?

- Guk ez giñuan negua ala udia zer dan, guk jarri ta ekiñaldixak eitten giñuzen, nahiz neguan, nahiz udan, e! Orduan ez zeuan plaiara faterik eta, e! Plaiia nun dauen be ez genkiun, Deba nun dauen be ez. Baten fan nitzan, e! Baten fan nitzan eskursiñora.

- Umetan?

- Bai, umetan.

5.3. Debara hondartzara

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/009
- **Iraupena:** 0:06:52. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:21:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Debara hondartzara joan zenekoa. Bainujantziak. Erromeriara Arratera.

Transkripzioa

- Plaiia nun dauen be ez genkiun, Deba nun dauen be ez. Baten fan nitzan, e! Baten fan nitzan eskursiñora.

- Umetan?

- Bai, umetan. Baiña edarra pasau jatan! Bai. Soiñeko bat nekan, ta bera, nere fan biharran fan biharrakin, bidian labanduta fan nitzan lokatza artian, holaxen, paparran gaiñian. Ta buelta ein da atzera negarrez etxera. Fan bihar nitzan Debara eskursiñora Eta Uberan zeuan autobusa. Ta ni basarrittik Uberara jua bihar. Ta amak ifiñi zotan bazkaixa zapata kajan. Zapata kaja baten ifintzen zotan bazkaixa. Eta jantzi neban soiñekua, aldemeneko nere lehengusiña batek erregalautakua, gaiñera. Ondio ikusten nao: zan azul cielua eta ojatxo batzuk eukazen zurixak. Oso politta, kaidiakin ta dotoria neukan. Kuello zuritxuakin ta politta. Baiña haixe nekan bakarrik fateko modukua, bestiak zatartxuak zian. Eta amak ifini bazkarixoi eta banoia abixada guztian autobusoi hartzera, ta eitten dot laban holako lokatza-arte baten, ta faten naiz paparran geiñian. Ta zikintzen naiz paparra. Buelta ein ta atzera etxera, eskursiñora ezin jua ta negarrez. Ta amak soiñekua etara, garbittu, su-onduen --orduan sua, ez zeuan besterik

ezer, ta--su onduen ifini, su haundi bat eindda, sikatu ta ondio harrapau ein neban autobusa. Eta itxeitten neri egon zan, porke ikusi eitten niñuen autobusetik aintxixiketan bidian noiala. Bidian ikusi eitten niñuen eta itxein ein osten. Ta automobilan gaiñian jua nitzan Debara, behia beteta zeuan ta. Automobilan gaiñera euan eskillaria, bai? Ostian euan autobusak eskillaria. Orduan autobusak eskillariakin [erezen], ta "rrraaa!" ta gaiñera igo notsan ta bai pozik! Beste batzuk be [bazerezen] han, gaiñien. Debara.

- Ta ze inpresiño?

- Baneban nik erretratua be Debakua, baiña bueno...!

- Eta Debara heldu eta ze...?

- Debara heldu eta gero plaiara. Aiii...

- Ta hondartzia ta itsasua ta...

- Bai. Itsasua. Ta ni denporaldixan egon nitzan bildurrakin. Debako plaiak euan --oin be ez dakit zela dauen, ez naiz fan aspaldixan--, euan murallatxo bat. Han... zela da ha, txurrerixia esaten gontsana? Txaletxo baten modukua, txurrerixia. Ta haren onduan murallia; plaiak azkena murallatxo bat. Ta han jarri ta beittu ta beittu. "Etorriko ete dok hori honutzao". Olatuak etortzen zian, ba, "rrrrrraa", ta harutzatxuao geldittu. "Ta hori etorriko balitzok honutzatxuao, zer?" Ta, porsiakaso, petrillan barrukaldetik denporaldixan egon nitzan begira, inpresionauta. "Hori dok... hori da itsasua haundixa! Enee...!" [Han ikusten dana] ta neuri halan pentsatzen jatan ta. Egonaldixa ein, ta gero konfianzia hartu giñuanian, fan aretara ta, ba, hankak busti ta han ibili giñan. Ez naiz akordatzen bañau giñanik. Euki ein bihar da, baiñadorerik ez dao.

- Orduan ez...

- Nik hogeï urte neukazenian be, Deban, baiñadoredunik ez zeuan. Fan Debara ta txabolatxo baten beste batzuk usautako bañadoria jazten giñuan. Han egoten zian eseitta, sikatzen. Han polittena pentsatzen dana hartu tenderetian ta jantzi. Ta hori haundi ein ta gero, e! Hori hogeï urtekin, e!

- Bai, pentseizu gaztetan... [...]

- Erretratua etara giñuan, frontoi baten etara giñuan erretratua, porke akordatzen naiz, eskillarak, eskillarak, eskillarak, bai? Eta aureko puntan etzindda nao ni erretratuan, bestiei ez traba eitteko. Ta haretxekin soiñekuakin. Baiña ha baserrixan geldittu zan. Ni ezkondu nitzanian, laga nittuan baserrixan traste guztiak eta ez dosta falta ein. Ta oin akordatzen naiz, harek gaztetako erretratuak. Zenbat lekutan etarata erretratuak...! Erromerixara juaten nitzan guztian! Bai. Arratera be jua nitzan, bederatzi bidar illaran Arrate egunian solteratan. Orduan holakotxe erromerixetara juaten giñazen.

- Bai, hemen inguruan, gaiñera...

- Hemen inguruan.

- Hor, Deban, esan dozu, hondartzan, txabolatxo moduko bat zeuala...

- Bai, egoten zian txabolatxuak. Zereko... egurrezko txabolatxo batzuk egoten zian. Bai.

- Eta gizonen bat egoten zan zaintzen?

- Bai. Gizonak eta emakumiak be bai. Ta harek baiñadoriak alkilau eitten zittuen. Hutsa dirukin alkilatzen zittuen. Eta zu bañau ta lagatzen dozunian, emoten zotsen astinddu bat ta atzera eseitzen zittuen. Soka bat egoten zan txabola batetik bestera, ta han soka botatzen zittuen sikatzen. Ta hurrengo doianak berak pentsatzen dabena hartu eta jantzi, ta pagau ta holaxe zan orduan. Batak tirantiak luzeegixak, bestiak hau zabal-zabala... Bueno...! Milla personak ibilittako erropak.

- Gogoratzen dozu, sokaren bat-edo zeuan neskak saltoka eitteko itsasuan...?

- Bai, bai, egoten zan sokia. Hari obatuta, bildurra baldin badaukazu, sokia egoten zan, baiña, baiña egoten zan, igual, laurehun metruan be igual, e! Sokia. Bajatzen zanian itsasua ifintzen zeben, itxuria, gogortuta. Ta soka gogor-gogor bat egoten zan ta hari obatuta, bildurra eukanak, haritxi obatuta baiñua. Bai. Ta nik igarixan ikesi ein neban, e!

- A, bai?

- Gero, haundi einddakuan faten giñazen gehixaotan. Nobixotan be bai faten giñazen. Ta gero, ikesi ein neban igarixan, uretan fateko bestian ikesi ein neban. Ta, holan, "a la plancha" egoten be bai, behetik gora begira. Geldi-geldixan, e? Ta zuk arnasia nasai hartu ta egoten bazara, gein-gein-geiñian egoten zara. Ta larritzen hasten bazara, "dzast" sartzen zara barrura. "¿Qué cosa!" E? Nerbiosa jartzen bazara, "dja!" hunditzen da.

- Gorputza, ezta?

- Bai. Eta egoten bazara trankil... Zuk horrek ondo dakixuz, igarixan ondo jakingo dozu ta. Bai. Baiña...

- Esan, esan...

- Bai.

5.4. Sorgin kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/029
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:50:30. **Bukatu**: 00:52:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak,
mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Sorginen inguruko kontuak. Aurreko belaunaldietakoek guztiz sinesten zituzten kontu horiek guztiak. Aitak eta amak irakurtzen bazekiten.

Transkripzioa

- Eta zuek umetan eta, halako, sorgin kontuak eta entzunda, billurra senttzen zenduten?

- Billurra be bai e. Nere aitta difuntuai nau entzunda, Eibarren ibili zan ofiziuari. A bai, e nere aitta difuntuai nau entzunda, Eibarren ofiziuia ikesten ibili zan, arotzerixan ikesten bai, eta Eibartik hona etorri ein bihar oiñez. Eibartik nere baserrira oiñez etorri bihar. Eta haren billurra! Haren billurra, sorgiñen billurra. Bai, erreka onduan erropak garbitzen ta ibiltzen diala sorgiñak, eta errezatzen bide guztian, errezatzen, sorgiñik ez daixen ikusi! Aitta e! Hamazortzi urtekin ta hogeitaz urtekin. Nere aitta hori pasatzeak on e, ze siñistu ta ibiltzen zien. Baiña nik uste dot...

- Ignorantiak zian...

- Ignorantiak zian, eta persona gaiztuak be bazerezela eta bestiak sustatzen ta ibiltzen zianak. Hori gure aitta baiño lehenaokuak e, ibiltzen ziala izaria hartu holan da sorgiña dan plantak eitten da, ibiltzen ziala e.

- Orduan e halako...

- Okerra eitten.

- Halako beldurra e...

- Bai, bera billurrez, denpora guztian errezatzen bidian, sorgiñik ez daixen

topau, bidian.

- Dana dala, aitta eskolara ta juango zan, ez?

- E bai, bai. Nere aittak bazekixen, eskribitzen da leitzen ta...

- Periodikua ta...

- Bai, periodikua ta leitze eban, aittak bazekixen, bai, bai bai. Amak leitzen ondo ekixen, baiña eskribitzen ahaztu in jakon.

5.5. Egoetxeaga baserrian jaioa

- **Hizlaria(k)**: Billar Altzuaran, Miren Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-007/002
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:03:47. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Egotxia (Egoetxeaga) baserrian jaioa. Gurasoak bertakoak; familia Bergarakoa. Ezkondu ondoren ere bertan bizi izan zen.

Transkripzioa

- Eta jaixo, esan dozu, Egotxian?

- Egotxia basarrixan, bai.

- Familixia bertakua edo...?

- Bai, bai, bertan zerian.

- Ta aitta edo ama edo...?

- Ama zan hangua, bai. Ta aitta be bai. Aitta be... Bizitza bikua zan eta bizitza... ama bizitza batetik bestera ezkondu zan. Ta haintxe jaixo nitzan.

- Eta aittitta ta amama ta danak, orduan...

- Bai. Bueno, kanpotik etorritakuak zian aittitta ta amama ta. Aitta-ta be bai Bergaratik etorritakuak zian. Bai, Bergarako jatorrixa zian aitta ta ama ta... edo... aitta-ta. Ta aittitta ta, aittitta Arantzazukua, ta amama Bergarakua.

- Oñatiarra...

- Bai.

- Eta gero bertan jarraitu zenduan bizi izaten?

- Bai, ezkondu ta zenbat? Ointxe zenbat urte etorri giñan gu? Berrogeta... ointxe gabonetan berrogeta...

- Senarra: Ezkondu ta hamar bat urte edo...

- Bai. Bost urte? Berrogeta bost urte? Ez, gehixao...

- Senarra: Zer? Etorri giñala?

- Bai.

- Senarra: Bai, zera! Gutxiao.

- Anek bi urte eukazen. Ba, berrogeta lau, berrogeta bi urte orduan.

Berrogeta bi, berrogeta bi urte. Bai. Bigarren alabiak bi urte eukazen hona etorri giñanian ointxe gabonetan.

- Hona bertara?

- Bai, honaxe bertara etorri giñan, bai.

5.6. Aranzabal abizena ugaria Angiozar eta Elgetan

- **Hizlaria(k):** Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-014/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Lau generaziotakoak Aranzabal izan dira Zabaleta baserrian. Euren tarteko bat Portugaleteko zubian ibiltzen omen zen jendea batetik bestera lantxan pasatzen. Angiozar eta Elgetan da Angiozar abizena. Rosario eta senarra biak Aranzabal dira. Amona Angiozarkoa zen eta ama Kanpazar ingurukoa.

Transkripzioa

-Basarrixan historixaik badakizue?

S: Beti Aranzabal. Aranzabal. Gure aittaittan aitta-eta behintzet Aranzabal zian. Ibili zan, hamengo aittaittan aitta uste dot zala, Puente Colgantian, gizonak pasatzen, lantxan, alde batetik bestera. Sekula Puente Colgantian egonda zaoz? Han lehen lantxan pasatzen zittuen eta hantxe lantxan pasatzen ibiltzen zan.

R: Lanian ibili zan?

S: Bai, lanian, lanian.

J-S: [...]

S: Gizonak pasatzen. Eta gero hona etorri eta basarrixan. Eta gero gurian lau jeneraziño, geuk dakigunak behintzat, Aranzabal.

J: Baita bestekuak be, lehen [...] eta zittuan Aranzabal; etxokonak be.

R: Baiña lehentxokuak. Gero Olañeta-ta...

S: Lelengua aldamenekua be Aranzabal zan.

R: Angiozarren Aranzabalak asko. Elgetan be bai. Gu be bixok Aranzabal [ga] eta. Eta gure seme-alabak Aranzabal Aranzabal.

-Gurasuak, aitta eta aurrekuak hemen bertakuak zian?

S: Aitta Angiozarkua.

R: Eta ama be beste mendikua, Altunamendi-edo, Kanpazartik gora. Hangotxia honen ama be.

5.7. Angiozarkoek dantza egiteko debekua

- **Hizlaria(k):** Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-014/008
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Inguruko guztiak Angiozarrera joaten ziren mezara goizeko sei eta erdietarako. Abade gogorra izan zuten auzoan eta dantzan

eginez gero ez zuen absoluziorik ematen. Sebastian Gernikara ere joan izan zen dantzara motorrean. Dantza soltea libre zen, baina lotua debekatu egiten zuten. Elgetakoek ez zuten hainbeste arazo izaten, baina Angiozarkoek ezin zuten dantzarik egin. Kongregazioak: Hijas de María eta San Luis. Gurasoak ere egoten ziren kongregazioetan. 12:00etako mezara baraurik joan behar izaten zuten. Meza ondoren mutilak tabernara joan eta ardaux goxoa eta barkilloak jaten zituzten; baina neskak ezin ziren sartu.

Transkripzioa

R: Mezetara be neu-edo faten naiz bakarrik auzotik, besteik iñobe ez da faten. Neu kotxiakin faten naiz oindio eta, "¿a dónde?" eta faten naiz, baiña.

-Hori lehenago asko joan zarelako eta oin...

R: Goizian seitterdietarako danok, hartu lastuak eta hola, hango mendikuak eta hemengo mendikuak eta.

S: Zerua irabazi [...]. Zazpirak alderako...

R: Eta gero atsaldian dantzan ein bihar eta absoluziñoik emun ez abadiak eitten oskun; eta guk hemen auzoko honek euki dau, e... Hemen abade bat etorri zan, eta harek zer gogorra emoten eban, e! Bueno! Gero (Segurara) fan zan badioi. Eta gehixenok eruan zittuan, eta hemen zati batzuk moja be; eta atzera bueltan erdixok etorri zien, baiña...

-Eta absoluziñua zergatik?

R: Dantzan eittearren atsaldian. Ez eban emuten, ez eban emuten zerik.

S: Konfesau eta absoluziñua emun bihar izeten da. Edo erreza eizu aittagure bat eta barkatuta dago. Baiña ez eban emuten...

R: Ez eban barkaziñoik emoten, [atzeratu] ein bihar; eta guk hoixe dantzan ein bihar. Hoixe eukitzen giñuan, geure... Epoka bat egon zan hemen! Bueno!

-Gogorra zan, orduan?

R: Bai, bai. Gogorra zan.

S: Gu baiño lehentxuao-edo. Gure denporan, baiña gu orduan Bizkaira-ta faten giñan dantzan eittera, Gernikara-ta. Hamen prohibiduta egon zan; Garizuman, ez dakitzu, "Cuaresma" edo; eta gu Gernikara-ta faten giñan dantzara. Kanpora. Ordurako motorrak-eta bageunkazen-eta, motorrian, ez dakitzu.

-Dantzia zela izaten zan, sueltuan.

S: Agarrauan.

R: Sueltuan libre zan. Agarrauan zan pekatuoi. Hamen momentuan agarrauan zan pekatua. Elgetan ez zan horrenbeste. Hementxe Angiozarko auzo [...]. Elgetan? Keba!

S: Entzunda nao Antoni [...] Iturrikua kastigau edo zeoze ein ebela.

R: Parrokua egon zen Elgetan be, baiña hainbeste ez. Elgetakuak, e...

Asentzion-eta akordatzen naiz ni, gu dantzan eta Elgetakuakin, eta Angiozarkuak han begira goittik behera... Harek ez eben eitten, eta guk dantzan ein bihar... Gure pekatua hoixe zan, dantzan eittia zan zera eta!

S: Orduan, gaiñera, kongregaziñua eukitzen giñuan, orduan [herrittan] medalliakin-eta gure jauna...

R: San Luisenak eta Hijas de Maria.

S: Hijas de Maria eta San Luis. Gonzaga edo; ez dakit zer. Eta hillian jai bat izeten zan, eta hartu medallia bertan eta ra! Poltsilluan eruan hara eta elixan, sakristixan...

-Gurasuak-eta juaten zien kongregaziñora?

S: Sasoe baten, bueno!

J-S-R: [...]

R: Lehenao bai, lehenao fede haundixa.

S: Urik eran barik eta fan bihar, e, ez urik eran eta ezebe ein barik.

R: Hamabixak [...] Oñ operaziñua eittera oin.

S: Gero ha eitten giñuanian eraten giñuzen tabernan, hogei lagun edo, hamar behintzet askotan, eta honek emakumiak ez, emakumiak tabernan sartu be ez. Eta guk, igual [Gran Ciegua] esaten zan, ardau gozua, nastauta zurixakin-edo, bueno! Bosna txikito-edo eraten giñuan; gero handik etxera. Barkillu horrek, luzeska horrek, zuk ez dakit..., estu batzuk jaten giñuzen-eta, barkillo moduko batzuk baiña barrua beteta, hiru pisu, holako sendo-senduak zien; edarrauk! Oin halakuak gitxi ikusten dittut, egongo dia baiña.

5.8. 1929an Iturri baserrian jaioa

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-016/001
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1929an jaio zen Elgetako Arantzeta auzoko Iturri baserrian.

Transkripzioa

-Ba dakat setenta y ocho años maietzian pasauta. El año veintinueve creo, nacida el año veintinueve, creo.

-Beti bizi izan za baserri honetan?

-Beti, beti. Hamen nago oindio.

-Kontau baserrixa zein dan eta nun dauen.

-Basarrixa da Iturri, basarrixan izena da Iturri. Ba lehenao familixa haundixa zeuan hamen, ni txikixa nitzanian gurasuak, kriaui ta. Bueno. Obreron bat be hartzen zan lanak eitteko ta. Oin berez ba legau nai ni bakarrik. Ni ezkondua naiz, alarguna, familixaik ez naban euki, ta oin bakarrik bizi nai.

-Zu bakarrik?

-Bai.

-Basarrixa Arantzeta.

-Arantzeta da "barrio", eta hau da Iturri. Caserío Iturri.

-Lehen esan dozu jente asko bizi ziñatela hamen?

-Bai. Gu be hiru anai-arreba giñan, ta kriaui ta gurasuak, ta aman aizta soltera bat be bai, ta bueno. Danendako lana egoten zan, eta basarri ingurua egoten zan hobeto zainduta, ta oin ba mano de obria zeuk beste bati eraitten ba dotsazu, ba kobratzen dotsue diru pillu bat, ezin leike pagau. Ta ba erdi abandonauta terrenuak eta hola.

5.9. Eskolara astean hirutan; baserriko lanak

- **Hizlaria(k)**: Atorrasagasti Arana, Sebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-018/002

- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Bederatzi urterekin aitarekin basora joaten zen, zuhaitzak botatzera. Astean hiru egunetan joaten zen eskolara, baserrian lanak egin behar izaten zituelako: oiloak zaindu, itulan egin... Ordubeteko bidea zuen etxetik eskolara. "Maistrarekin" ibili zen eskolan. Mojak etorri zirenean, gehienak haiengana joan ziren, eta bederatzi neska bakarrik geratu ziren irakaslearekin.

Transkripzioa

- Txikittan laguntzen ziñuan basarrixan?
- Beratzi urtekin faten nintzan ni basora aittakin arbolak botatzera. Beratzi urtekin, e! Aitta bakarrik, lagunik ez. Trontziai tira eitteko. Trontziai alde bittatik tira ein bihar izeten jako. Ba bestaldetik tira eitteko eukitzeko, beratzi urtekin faten nintzan ni aittakin basora, arbolak botatzera.
- Eta eskolara joan ziñan?
- Eskolara astian hiru egun; eta hirura aillegatzen bazan. Eguenian jai izeten zan. Goizetik ixeten zan bakarrik, eta goizetixagatik bakarrik handik... ordubeteko bidia, goizetixagatik bakarrik handik hona ezin leike, Elgetaraiño ezin leikela etorri, eta etxian. Hurrungo egunian soluan -zer dan be ez dozu jakingo ittulan eittia, ittulan, ganauen aurrian ibili bihar izeten zan-. Solo-lantzen, solua lantzen ebillenian; solua landu..., idixekin lantzen zan orduan, eta harek idixak dirijitzeko aurrian ibilli bihar izeten zan bat, eta [...] pasatzen zan.
- Zu ibiltzen ziñan?
- Bai. Akabo. Ba astian hiru egun eskolia. Pentsa eizu zenbat ikasiko giñuan.
- Eta ze gehixao eitten ziñuan?
- Ba ahal dan dana. Ze gehixao eingo giñuan ba? Ba ahal dan dana. Ba oilluak zainddu edo, ganauak zainddu edo. Beratzi urtekin ez dozu asko eingo, ezta? Ahal zan dana.
- Eskolan monjekin ibili ziñan?
- Ez, ibilli nintzan maistriakin. Monjak etorri zienian, danak esateko moduan esanda, pasau zian monjetara; geratu giñan beratzi edo. Gure aitta difuntuak esaten eban ze: oin artian be horrek emon dotsu eskolia, eta oin hori despeziau? Hori ez da eitten. Eta zu segi lehengo lekura. Eta ibilli nintzan maistriakin. Beratzi bakarrik ibilli giñan, beste danak monjetara pasau zien.
- Neskak bakarrik, ezta? Mutillak ez.
- Ez. Nesken eskolia zan. Mutillak aparte.
- Eta ulertzen zebe ez joatia eskolara eta lanian egotia, edo?
- Bai, ze erremeixo. Ez eben ezer esaten; ezin baziñan fan, ba ezin ziñan fan.

5.10. Txirikilan nola jolasten zuten

- **Hizlaria(k):** Atorrasagasti Arana, Sebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-018/003

- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** 15 urte ingurura arte ez zen hasi kalera joaten eta umetan baserri inguruan jolasten zuten auzoko lagunek. Egiten zituzten jolasak: bale-baleka, txirikilan... Txirikilan nola jolasten zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta jolastu lagunekin?
 -Bai, bai. Ni jolasteillia izen naiz nere denpora guztian. Txikittan eta gero be bai.
 -Baserri inguruan?
 -Bai. Kalera lelengo etortzen hasi giñanerako hamabost urte genkazen, e! Hamabost urte. Basarrixan han inguruko lagunak juntatzen giñan eta ba hantxe. Oingo moduan...?
 -Eta zetara jolasten zenduten?
 -Ba antxintxiketan edo, bale-baleka edo, txirikillan edo.
 -Zer esan dozu azkena?
 -Txirikilla ez dakizu zuk zer dan be; ez ba. Txirikillia ixeten da holako gauzatxo bat. Eta zera... galderona ixeten da haunditxuaua. Eta eitten da hemendik... han handikaldian ipintzen da holako zeozer, haraxe jo bihar ixeten da. Txirikillia hemendik jo eta haraxe; eta han egoten da personia, eta harek hartu bihar izeten dau altzuan edo nun edo nun, txirikilloi hartzen bo(t)zu tantuak dare, baiña ez bo(t)zu hartzen, lurrera jausten bada ba...
 [...]
 -Horretan be bai.
 -Eta beste jolasen bat?
 -Kaniketan edo... Kaniketan zulora botatzen. Ba, holakotxe lanak.
 -Eta gero nagusixauak, hamabost urtekin?
 -Hamabost urtekin ba, kalera, plazara. Elgetara.

5.11. Erromeriak; madari saltzaileak; bikoteak

- **Hizlaria(k):** Atorrasagasti Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-018/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** 14 urterekin ezagutu zuen senarra erromerian. Erromerietan madariak saltzen zituzten Zaldibar inguruko bizkaitarrek. Gazteek madari saltzaileari egiten zizkioten pikardiak. Orduan bikoteek ez zuten izaten elkarrekin egoteko aukerarik. Dantzan edo etxerakoan bakarrik elkartzen ziren neska-laguntzea egiteko. Bere senarra Larragilbel auzoko Baztarrika baserrikoa zen.

Transkripzioa

-Eta ordurako ezagutzen ziñuan?
-Bai.
-Txikitatik?
-Hamalau urtekin, ezaututa.
-Elgetan?
-Bai. Ha hemengua zan, eta ni ba esan dotsutena, harutzauko etxekua.
-Erromerixan ezautu ziñuan?
-Bai.
-Esan zesten erromerixan saltzen zittuztela madarixak.
-Madarixak.
-Kanpotik ekartzen zittuztela.
-Bai. Orduan madarixak asko. Zaldibar. Zaldibar badakizu nun dauen? Fruta asuntua hor euan, eta hortik etortzen zian madarixak; asko baiña, e. Egoten zan ba illaria, e, madari-illaria. Eta madarixak..., ba jentia bakizu hortik, eta atzekaldian pasua. Arkupe bat, arkupia ixetia moduan, ez dakizu. Atzekaldetik pasua. Eta gaztiak han zeretik, bestiak zerbitzen diharduen bittartian, atzekaldetik fan eta erdixak inguru harrapatzen zotsen. Bai, orduko kontuak; holaxe zan eta.
-Mutillekin joateko tokiren bat bazeuan?
-Ez. Bai zera. Oingo moduan hala pentsatzen dozu? Illuntzian etxerakuan kontau etxera laguntzeko. Artian ba, juntatzen giñan, ezta? Dantzan eitteko-edo, baiña... Oin behin ezautu ezkerio, ia pegauta dare! Baiña gure denporan ez zan hola.
-Nungua zan senarra? Beste auzo batekoa?
-Senarra hemengua, neu nintzan beste auzo batekoa.
-Kamiñua diferentia, ez, etxera joateko?
-Bai. Ni behetik ibiltzen nintzan, horko beheko bidetik hara, eta bestiak ba handik hona. Kamiñua diferentia.

5.12. Garizuman "txirikilan" jolasean

- **Hizlaria(k)**: Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-029/017
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:18:45. **Bukatu**: 00:20:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Lagunekin mendira joaten zen jolasera. Garizuman soinua jotzea debekatua egoten zen eta "txirikilan" jolasten zuten. Jokoaren nondik norakoa azaltzen du.

Transkripzioa

-Txikittan lagunekin zelako jolasak eitten zenittun?
-Zelako jolasak? Ba gu han mendixan ibiltzen giñan. Ezer ez geunkan jolasteko ta txirikillan eta. Zuk ez dakizu hori be zer dan be: holako egur bat, eta beste bat txikixa, harekin jo ta handikaldian dauenak ha hartzen eta gero tantuak, hamar tanto ta bost tanto ta. Zuk ez dakizu. Tantuak itten giñuzen. Baiña altzuan azertatzen ez bazan hartzen ba faillo.
-Eta irabazten zebanak premixua zekan?

-Bai ba, hainbeste tanto edo hainbeste zer irabazi edo galdu.
 -Hori eguneroko...
 -Ez, hori Garizuman ixaten zan, Garizuman ez euan soiñuik. Garizuman ezin zeiken musikaik be jo. Ez. Hasi zerian Garizumia hasten zanian, Hauts Egunion, Martes Carnaval, geratzen zan erremeixia "hasta Pascua" ez euan, ezin zeiken musikaik jo. Ta oin Bariku Santu Egunion be joten dabe.
 -Beste zeozer be eitten zan Garizuman?
 -Garizuman? Hoixe, txirikillan edo jolasian ba Intxorta aldera fan edo beste aldera fan edo. Ibilixak.

5.13. Umetako jolasak: txirikiletan, gurdiarekin kulunka...

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref**: ELG-035/013
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:11:20. **Bukatu**: 00:12:55
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Umetako entretenimenduak. 11-12 urterekin gereziak lapurtzera joaten ziren. Orduan ez zegoen zaburik eta gurdiarekin jolasten zuten, bi ertzetan jarri eta gora eta behera eginez. Txirikiletan nola jolasten zuten.

Transkripzioa

-Orduan zetan jokatzen ziñuen?
 - [Bentako?] etxazpixan, akordutzen nai. Pagatzarako bidian jeuan [Bentajakixan?], eta hiru keixa-arbola zeren bidian han erdi-erdixan; herrikuak ziela-eta. Haraxe keixak harrapatzera-eta faten...
 -Zenbat urtekin?
 -Ba hamaika edo hamabi edo hamahiru urtekin; akordutzen nok.
 -Orduan ez zien egongo ba ziburuak eta?
 -Keba! Holakoik ez genduan ikusi be ein guk. Zer ziburu! Ziburuik onena badakik zer zan? Torrezarko etxazpixan burdixa, bai; batzuk atzekaldetik sakatu, bai, eta beste batzuk puntan gora-behera; eta jausten zanak hartu golpe edarra-ta, negar ein eta [...]. Haxe zuan ziburua, burdixan ibiltzia, atzetik sakatu eta puntatik gora ixotzia.
 -Zer joku gehixao? Txirikillian-eta ibiltzen ziñaten?
 -Bai. Txirikillan bai.
 -Zelan ibiltzen zan txirikillian? Zelan zan hori jokuoi? Akordutzen za?
 -Ba kalderoia edo esaten jakon, eskuan hartzen zan, bat sendua, ezta?
 -Kalderoia?
 -Bai. Eta harekin ba jo ta urrin bota, eta gero holako zer bat, egur batzugin egin zera, eta ha azertatzen zebanak irabaztia. Txirikilla faten zan lekutik ha azertatzia. Irabazi eitten zan. Irabazi zala, bat zala eta ez dakit zer eta. Baiña diruik-eta ez, e! Ez jauan diruik orduan eta. Ibilli zeozetan!
 -Oin beste gusanito-eta ez.
 -Et-et-et-et. Ezebez.

5.14. Domeketako entretenimenduak

- **Hizlaria(k):** Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref:** ELG-035/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:14:35
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Gaztetan ez ziren mendira joaten, astirik ez zuten izaten eta. Noizbehinka amarekin astoa hartuta sutarako egur bila joaten zen. Igandetan bakarrik izaten zuten jai, larunbatean ere lan egiten zen eta. Igandetan gramola egoten zen eta haren ondoren danbolina (txistularia).

Transkripzioa

-Orduan mendixan ibiltzen ziñaten? Basora joan edo?
-Bai zera! Lekutara faten zuan. Astixa jeuan basora-ta fateko!
-Ez?
-Umetan ez joskuen lagatzen faten basora. Hoixe, Ikatzerre ostian basua eta haraxe, abarretara-edo, amakin astuakin fan eta ekarri egurrok sua ixotzeko eta holakotxe batzuk. Baiña ostian basora Intxortara-ta? Et et. Domekan batzutan ixan ezik. Zapatuan be lana eitten zuan eta. [Orduan ez jauan?] zapatuik jai hartzeik.
-Baiña orduan be dana ez zan izango lana? Biharra tamaiñu baten...
-Bai, baiña zapatura arte. Gero domekia jai eta astelenian lanera berrido.
-Domekak zelakuak zian?
-Hemengo domekak? Jesus!, zelakuak izengo zittuan ba? Txanboliñek danboliña jotzen zeban-eta, trikitixan-edo plazan eitteko-eta; eta gramolia hortxe Oskarbixan zeuan, bentanan ipiñi zezen, Txanboliñenekuak. Eta eskerrik asko haretxi haxe akordau zanian, baten batek esan eban hantxe ipiñi bihar zala, eta ipiñi be bai. Atsalde guztian musika jotzen.
-Aspaldittik orduan egon da musikia hemen.
-Egon zan, bai, bai. Gazte-denporan hasi zan hori.
-Dantzan-eta eitten zan?
-Hoixe eitten zala!
-Gramoliakin?
-Bai. Gero ha ixildu eitten zeban, eta berak, Txanbolin zaharrak tanboliña eta tanborra jotzen zeban kamiño baztar baten. Hemen Martonian bizi zuan, eta tanborra jotzen juan horretxek. Antxiñako denporan.
-Txistuakin dantzan, orduan?
-Bai.

5.15. Jolasak: pilota, arbi-bolaka

- **Hizlaria(k):** Telleria Retolaza, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-038/014
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Mutikotan pilotan, arbi-bolaka... aritzen ziren lagunekin. Arbi-bolaka zer den azaltzen du. Zumarragan pilotan aritzen zirela dio. Mutikotan ibiltzen ziren batzuen izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Zuek eskola-garaixan ze jolas-klase egiten ziñuen?
-Jolas-klasiak hamen eitten giñuzenak ba, zapatutan edo domeketan juntatzen giñazen mutikuak pelotan ein o lokesea, ta arbi-bolaka ta.
-Arbi-bolaka?
-Arbixak harrapau solotan kalia botatzeko; ba holakotxe tontokerixak. Baiña ostian deporteik...
-Ez daukat sekula entzunda.
-Arbi-bolaka sekula ez dozu entzun? Guk eitten giñuzen, han arbi-soluak, lehen arbixa egoten zan, nabua, bakizu, arbixa. Joan eta mutikuak grupuak [etaratzen giñen]. Grupak batak bestiai arbixak etara soluan, ta batak bestiai jaurti ta joten. Holaxen.
-Arbixa, arbixa...
-Sorokuak?
-Sorokuak, ganauak jaten dabenak.
-Basarritarra ez zan haserreketan?
-Baiña ez pentsau danak etaratzen giñuzen. Bat edo bi etaratzen giñuzen hor kale inguruan zagozenak eta. Lehen hor danian zeuan kalia basarrixa. Ganauak, batak behi bi bestiak bat. Ta ostian guk pelotan puxkat. Fubolik eta, futbol asuntuik eta ez.
-Orduan arbixok atara eta batak bestiai bota?
-Batak bestiai bota. Zeozetan ibilli.
-Arbixak buruan emon ezker...
-Arbixak?
-Narrukuak be bai galantak [...] emon, e! Jolin! Baiña ez. Baiña ez. Ostian guk deporteik eskolako denporan.
-Eta horri esaten zontsein arbisoroka?
-Arbi-bolaka. Ta gero Zumarran ba pelotan eitten giñuan gehixao. Kuadrillia juntatzen giñan pelotan eta gero bizikletan be ibiltzen giñan. Baiña...
-Eta txirikilletan eta holako jolasetan zuek?
-Txirikilletan eta jokatzen giñuen baiña gutxi hemen. Aste Santuan, hortxe Garizuma zerian igual eitten zan, baiña guk gutxi. Gu oso gutxi. Gu asko ibiltzen giñan goittibeheran. Goittiberak badakizu zertzuk dien? Karruak, horrek karruok? Gu horrekin ibiltzen giñan.
-Badaukatzue erripa ederrak hemen.
-Hemen goittik behera guk hartu giñuzen narrukuak hemen. Baiña karruak bixkorak. Hor goittik joaten zien, zienian joaten zienak kotxiak, e. [juegobolosekin?], karruakin eta. Grupo bat egon giñan, booo. Kuadrilla bat, Abadeko Jabier eta Idigoras eta.

5.16. Kalekoak baserrietara jan eske

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/032
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:38:32
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Kalekoak baserrira joaten zitzaizkien jan eske, ezagunak zirenez beti ematen zieten zer edo zer

Transkripzioa

-Baserrittan ez zan gose haundirik pasauko.

-Ez, guk goseik sekula ez genduan pasau.

-Ta hemen kalekuak ze moduz ibilli zien?

-Eztakitt, gurera eskera etortzen zien jan billa. Emoten gontsen guk, daukaguna emoten gontsan.

-Kaletarrek basarri basarri, ezta?

-Baserriz baserri ez, baiña ezauna, ezaupidia daukan lekuan pues mesede bat eskatzen, jana. Ba emoten gontsen ogi bat edo, artiriña edo, babak edo...

5.17. San Juan bezperaz auzo-errotako "juntaizua"

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** ELG-039/037

- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:41:14. **Bukatu:** 00:42:15

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Aisia » Jai-giroa » San Juan

Baserrria » Baserriko lanak » Errota

- **Laburpena:** Soziedadeko errotako mantenua bertako arduradunak egiten zuen. Baina urtean behin kanalak garbitzen zituzten. San Juan bezperan kanalak eta presa garbitzen zituzten eta gero gastuen kontuak egin. Ostean, bakoitzak etxetik eramandakoa jan eta ardoa edaten zuten. San Juan sua ere bertan egiten zuten.

Transkripzioa

-Hor auzo-errotia edo soziedadeko errotan mantenimentua-ta zela eitten zeuen?

-Mantenimentua? Ba bat egoten zan enkargaua, harrixak pikau; ta aberixia dauanian ba arreglatzeko. Ta urtian behiñ eitten giñuan kanala garbittu, eta egun hortarako ipintzen zittuan ze gastutsuk eindda dagozen. "A partes proporsionales" pagau.

-Eta jain bat ez zan eitten San Juan inguruan edo?

-San Juan bezperan eitten zan kanalak garbittu ta presia garbittu. Ta gero kontuak.

-Eta gero afarixa.

-Afarixa ez. Eruaten giñuen bakotxak ogi-txatal bana ta ardaa nahikua eraten genduan ta erdi tontotuta mordo batek urtetzen genduan.

-San Juan bezperan orduan?

-Bai, San Juan bezperan.

-Sua be bertan eitten zeuen edo gero etxian?

-Baitta. Ez, ez, bertan sua be. Eta gero etxera etorritakuan etxian.

5.18. Jolasak: Bale-baleka, sokasaltoan, txirikiletan...

- **Hizlaria(k):** Askasibar Lazkano, Josepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-043/006
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Bale-baleka, sokasaltoan, txirikiletan... Zelan jolasten ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Bale-baleka, sokasaltuan...

-Txirikilletan eta holan?

-Bai, baiña eskolan ez, e. Hori hemen lagunak kamiñuan. Gaur aiña automobil ez euan. Kamiñuan ibiltzen giñan, ipiñi erdixan kamiñuan, ta denpora guztian be goizao hasitta. Lelengo bezperetara fan ta gero txirikillan. Baiña lelengo behian hasi giñan, hemen parian, lagunok. Hori Bitori esan dozuna ta. Irazabal. Eta gero puxkat haundixuao ein giñanian, Elgetan sartu baiño lehen beherao, puxkat haundixauak ein giñanian. Baiña txirikillan. Baiña mordua jentia, e! Osea, batzuk gorao ta beste batzuk beherao. Ta txirikillakin hara joten. Ta automoillen bat, atsalde guztian bi pasatzen bazien, ha txortia kendu ein bihar izaten zan, "abarrak" esaten zien, kendu albora ta pasatzen zan. Erruberak be txiki-txikixak, mehe-mehiak eukitzen zittuen automoil txikixok, haundixa ez zan pasatzen. Gero hasi zien autobusak, diarixuak edo, Bilbora Bergatik-eta, gero, e.

6. Ohiturak eta bizimodua

6.1. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/007
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Uberako eskola kontuak. Irakaslearen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Espaiñiako mapia ondo, baiña.

- A! Espaiñiako mapia. Aii...! Geunkan maistria, geunkan ezkondua, lau ume daukazena: Luis, Lola, Kasimira eta txikixenak ez dakit zela eukan izena, Manolo edo. Lau ume eukazen. Ta nausixenak, hamazazpi bat urteko mutilla. Ta bere gizona zan maisua. Ta aldemenian maisua ta maistria, bi eskola, ta andra-gizonak. Ta ni oin akordatzen naiz ze pasatzen zan. Etortzen zan goixian bederatziretan, "ra!-ra!" Atia zabaltzen zan, "rrrraaa!", danok barrura. Ta pixkaten leitzen giñuan manoeskritua-edo, eskuz

eskribidutako liburu bat, gorri-gorrixa zan ondiokan, eskuetan danak ibilita gastau-gastau einddakua. Han eskribitzen giñuan ta "Bueno, ahora coger el palo y..." mapia, Espaiñiako mapara. Nik Espaiñiako mapia ikesi neban...! Baiña, nun dauen errekak, nun dauen tontorrak, nun dauen sakonunak, nun dauen probinziak eta nun dauezen danak! Buruz! Danak, danak, danak. "Ya sabía todo", ta Franzia nun dauenik ez. "Oye", e? Franzia nun dauenik be ez. Ta han geiñekaldian letrerua, Franzia, ezta? Ta sekula ez zoskun esan ha Franzia danik. Gu denporia pasatzeko gu ifintzen giñuzen han, ta bera gora fan. Lau ume ta andra-gizonak sei lagun, ta harek ein baiharko zeban jatordua ta jabonaduria, holan, jabonaduria. Ez oingo moduan, entxufau ta aide! Eta ezkututzen zan ta, ba, ordu ta erdi baten maistria falta zan. Ta gu, bixen bittartian, geure paluorrekin alkarri takateko batzuk emon eta mapiai begira.

- Maisuak zer ziran, kanpotik etorritakuak?

- Kanpotik etorritakuak. Erdeldunak. Erdeldunak, porke orduan maisuak ekartzen zittuen erdeldunak, guk pixkat erderaz ikesteko. Ta leitzen be erakusten zoskuen erderaz. Baiña jakin bapez erderaz, "ni tu tía". Ezebez. Aii, ni akordatzen naiz, komoda gaiñeko trapua zan nere bordaua ein bihar nebanoi. Atsaldian laboria. Goizetik hortan pasau, ta gero atsaldian laboria eitten. E? Batzuk eitten zebe, ba, pañelua; beste batzuk kortiña; ta beste batzuk komodian gaiñekua. Komoda gaiñekua ixa gehixenak, porke hori zeuan, itxuria, komodak [erezen] etxietan, ta komoda gaiñekua. Nik ein neban komoda gaiñeko bat, ondio be ikusten nao. Harittan sartu notsan ez dakit zenbat: marroia ta berdia... ondio be ikusten nao, e! Koloriak bai polittak, e? Hori bai. Oso kolore polittak. Tontorrak ein notsazen bordaut. Tontorrak eta tontorrak. Ifiñi notsan harittan... pilla bat! Haixe eitten pasau neban... nik hiru bat urte eingo neban ha eitten! Ha zan ona! Holako maistria tokau egin bihar da norbera parian dauenian, e? Ezebez. Ezebez ikesi. Ez esplikaziñoik, ez Franzia nun dauen, ez illetargixa nun dauen, ez euzkixa urten bihar daben... ezebez. Denporia pasau eskolan.

- Kabuak eta golfuak "de España".

- Bai. Horixe. Jo...!

- Klasiak, argi dao, erderaz izango ziala, ez?

- Bai, bai, erderaz.

- Eta euskeraz edo...

- Euskeraz ezebez.

- ... entzuten bazetsuen, zeoze...

- Ez, ez, ez geunkan kastigurik, ez geunkan. A! Ta rekreua ein bihar zan bixen bittartian. Gero, hamarrak aldian rekreua, beste ordu erdi bat rekreua han. Ta alkar harrapatzen ta karabaka ta orduan zan, aide-aideka ta, holan, lurrian ein arraixak eta "ri-ri-ri", holan, arraixak, eruaten harrixa. Ta arraixiari ikutu barik han erdixan ifintzen. Hori be bai: aide-aide. Ta karabaka [...], alkar harrapatzen. Bueno...! Ta nik asko ein dot tortoloska, tortolosakin.

6.2. Familia giroa

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/020
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Familia giroa. Ume-umetatik lanean. Jateko ohiturak; bakoitzak bere ontzia. Josten ikasten baserri baserri. Amamak esandako ipuin-esaerak.

Transkripzioa

- Zelako ama ona nekan, e? Neukan ama bat onaua! Aitta be bai, e! Nik neukazen gurasuak ejenplarrak. Hainbeste konflikto zeuken, hainbeste falta zeuben, ta sekula ez neban ikusi alkarri kontestaziñotxo bat emoten be ez. Ejenplarrak gurasuak, e! Negarguria emoten dosta akordatzia! Ta ama ona, e? "Zuk kantaixu, kantau ume, kantau, zuk holan bizkorrao eingo dozu". Danak ezin zittuan berak ein, ta neri tokau jatan txiki-txiki-txikittatik biharrian ikesi biharra tokau jatan, porke falta zan etxian, falta zan. Fregaua-ta, fregaua-ta eitten-ta; txiki-txikittatik fregaua eitten-ta. Ta oin fregaua eittia ez da ezer. E? Oin fregaua eittia... ur berua ta fairy ta fi-fi-fi eitten dozu. Han, ur berua zerian, suan berotu bihar balde baten ura, ta gero ha eruan fregaderara. Fregadera txiki-txiki-txiki bat, hamar lagunen ontzixak, ta bakotxak bere platotik jaten giñuan, e! Orduan be, e!. Ta geruao, ni geruao ibili nitzan josten ikesten, ezta, baserririk baserri, eta makiña bat etxetan erdittik jaten zan. Erdixan ifini bai babak, ta handik karriatzen zeuben. Ta gure etxian bakotxak bere platua zekan. Bakoitzak. Bai. Baiña ama...

- Asko aldatu dia gauzak...

- E?

- Asko aldatu diala gauzak, e?

- Asko aldatu dia. Zuk ez dakixu, nere generaziñuan ze diferenzia ein dan, ein dan. Bueno, bueno, bueno! Ezin leike kontau be ein! Baiña orduan be personak bazerezen onak, e! Porke nik euki nittuan guraso batzuk... oso guraso onak euki nittuan, ejenplo ona emotekuak. Zelako onak zian! Ta formalak zian! Ta religiosuak zian. Ta amama be bai. Amama zazpi bat urte neukanian-edo hil zan.

- Zeuokin bizi zan bertan?

- Bai, bai, bai. Bai. Nere aittan ama zan. Bai. Eta, gabian, silla danak bakotxa bere lekutan kolokau eta sukaldia garbittu barik ondo ez [euen] fateik, e! Harrixa sukaldian lurrian, e! Baserrixan, harrixa. Ta amamak esaten oskun: "Hemen aingeruak ein bihar dabe dantzian, eta hau geldittu bihar dau garbi". Eta dana garbi-garbi-garbi eraitten zoskun sukaldia ohera fateko, hemen dantzian ein bihar dabela aingeruak eta. Amamak hori. Amama zan kuriosa-kuriosa-kuriosia.

6.3. Ama ipuinlaria

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/021
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:43:08. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Ama ipuinlaria.

Transkripzioa

- Bai, bai, bai, bai.
- [...]
- Ez, ipoiñik ez nai akordatzen. Ama zan ipoinlarixa. Nere ama zan... asmau eitten zittuan, gaiñera! Ume danak berari begira eukitzen zittuan! Enee! Konejotxo batena asmatzen badau, harek konejuak eingo zittuan egundoko saltuak, fango zan basora, etorriko zan bueltan... iñun dianak asmatzen zittuan umiendako ipoiñak! Bai. Sorgiñenak-eta orduan asko zeozen kontuak, e!
- Bai? Gogoratzen zara zeozetaz?
- Bai, sorgiñenak eta. Enee! Akordatzen nai, bat kontatzen zeban...

6.4. Sorgin kontuak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/023
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Sorgin kontuak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- ...oin sorgiñena esango dot, sorgiñena. Etxe baten zebizen goruetan. Holan, eitten, ezta, gabian. Harek eitten zeбен, ba, holako argirik ez zeuken, eta beste argi bat. Ez dakit zela zeukan izena harek argixak... Ez dakit zela zeukan izena harek argixak. Izen bat zekan. Ee... ezin nai konturatu ze izen zeukan. Baiña faroltxo baten barruan egoten zan. Bai. Ez dakit nola zeukan izena. Ta harekin goruetan, ezta? gizona ta andria. Badihardue goruetan. Ta katu haundi bat... katu haundi bat bentanara. Ta "Gizona izenda, goruetan?", katuek esan otsen, eta bestiak: "Katua izenda, barriketan?". Joten dau goruakin katua bizkarrian, ta urrumaka-urrumaka-urrumaka hor doia katuoi. Eta hurrengoko egunian, auzuan bizkar-hazurra apurtuta euela atsua. Holakotxiak. Sorgiñen kontuak dia horrek, e!

6.5. Sorgin kontuak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/024
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:46:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Sorgin kontuak.

Transkripzioa

- Hau amamak kontautakua, ta amak be...
 - Amak be... beste bat be badakit. Bazoian... Hau, lehenau pasautakuak esaten zittuen erak, e! Erei pasautakuak ez dia honek. Eta badoia mutil bat nobixiagana, Uberatik Bergarara. Badoia ta egundoko erromerixia Ubera baiño beheratxuao! Harek parajiak duaka izena... [Lezane] dauka izena. Ta han [Lezanen] egundoko erromerixia! Neska ederrak eta jo-ta eraten ta egundoko erromerixia! Ta mutilloi geldittu da, "Honek dittuk neskak!" eta geldittu da, ta emon dotse berai be eraten. Sorgintzekua zan eratekuoi. Eta eraten badihardu, ta "Jesus! Hau da gauza ederra!". Ta "Jesus!" esan dabenian, jo-ta danak baltz-baltz inda, nun dianik be ez sorgiño! Danak desaparezidu! "Jesus" ez zan esan bihar, ez zan, religiñoak harek ez zian ta. Danak nun dianik be ez! Ta bera, bere baso baltzoi eskuan dabela, geldittu zan bakarrik. Ta holakotxe kontuak? Bueno!
 - Orduan, entzunda etxian, ez?
 - Entzunda etxian.

6.6. Sorgin kontuak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/025
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:46:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Sorgin kontuak. Anbotoko "señoria".

Transkripzioa

- Orduan, entzunda etxian, ez?
 - Entzunda etxian.
 - Anbotoko señoria ta...
 - Anbotoko señoriena be bai! Bai. Anbotoko señoriena ez dakit zela zan. Ene! Guk... Anbotoko señoria zaintzen egoten giñan ez dakit zenbat bidar. Ta igual izarra ikusten giñuan... Badia... egoten dia kometia holan "jjiii" faten dianak? Beti zain egoten giñan. Ta baten ikusi giñuan. Aaa! Guk izarra danik be ez, e! Anbotoko señoria zan ha, e! Bere buztana atzian dabela. Guretako Anbotoko señoria zan ha, e! Bueno...! Beste bat be bazeuan. Zela zan hori? Neri ahaztuta horrek gauzok. Lagata, ez dakizu? Kontau be ez. Honek be ez dotset nik horrek kontau.
 - Bai...
 - Bai? Kontau dittuzu?
 - Goruetan eitten zebana, ez dakizu? [...] gizona zala ta...

6.7. Sorgin kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/027
- **Iraupena**: 0:00:16. **Hasi**: 00:47:34. **Bukatu**: 00:47:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Eskopeta agertu zenean, orduan desagertu ziren sorgin kontuak.

Transkripzioa

- Sorgiñen kontuak.
- Horrek eskopetia agertu zanian danak akabau zian.
- Danak akabau zian.
- Neri...
- Noiz akabau zian?
- Eskupetia urten zebanian ya...
- Eskopetia agertu zanian, tirua, desaparezidu zian sorgin danak. Baiña hara arte nahikua gerra emon zeбен, e! Hara arte emon zeбен...

6.8. Sorgin kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/028
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:47:50. **Bukatu**: 00:50:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Sorgin kontuak. "Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik Akelarrera".

Transkripzioa

- Beste bat be bai. Zela da? Aa! Oin be ez jata akordauko. "Sasixen azpittik eta laiñuen gaiñetik akelarrera". Hau be bazan. Igurtzi-igurtzi ein... Suen azpittik lapikotxo bat etara, hautsen azpittik. Lehen, badakizu, beheko sua zan. Handik etara lapikotxo bat ta igurtzi-igurtzi ein danian eta... Andra batek zeukan sorgiñen famia, baiña gizonak ez ekixen eta zainddu eitten eban ze eitten daben. Pentseizu, bixen bittartian ohian ez zan itxuria egoten berakin. Bueno... Kustiñua da, gizonorrek obserbau dau: lapikotxo bat etara hautsen azpittik eta igurtzi eta esan dabela: "Laiñuen gaiñetik... sasixen gaiñetik eta laiñuen azpittik akelarrera" eta desaparezidu jako sorgiñoi. "Bai? Topauko juat nik hori nun dauen". Etara berak be lapikua, igurtzi-igurtzi-igurtzi ein dau ta esan dau: "Sasixen azpittik eta laiñuen gaiñetik" ez dau, ba, esan? Ta lehelengo sasipetik pasau bihar, ta gero laiñuen gaiñetik. Dana urratuta allegau zan akelarrera! Ta gero han zeuan Martiña [Zapolos] izenekua, ipurdixan mun emon bihar jakona, sorgin

haundi bat han, Martiña [Zapalos]. Ta ez dakit, ba, zelan... Zela zan gero, hara... Hara allegau zan ta harek igarri ein otsan sorgin barrixa dala. Baiña ze esan otsan ahaztu jata. Ze esan otsan harek...?

- A! Nik badakit.

- Ze esan otsan?

- Zan...

- Ze esan otsan?

- Beran... Klaro, eruan zeban eskuan abarkia jostekua.

- Abarkia jostekua eruan zeban! Bai.

- Ta, orduan, allegau zanian ta hari mun emotera oianian, ze ein zotsan? Mun emon biharrian, sartu hori.

- E, zera...

- Eztena edo ze...?

- Eztena dauka izena, zirixa.

- Abarkia jostekua edo zan.

- Abarkia jostekua izeten zan. Bai.

- [...]

- Si. Oin ahaztuta nik.

- [Esaten dotsa]: "Sorgin berri, zorrotza dek mutur hori".

- Bai, hori da.

- "Nik pasau dittuten sasixak eta laiñuak pasatzeko bihar be bai!".

- Bai, ba, oker esan zeban. Beran andriak esan zeban: "Sasixen gaiñetik ta laiñuen azpittik". Ta berak konfundiduta ze esan eban? "Sasixen azpittik ta laiñuen gaiñetik". Baiña abarkia josteko zirixoi eruan eban eskuan. Bueno, honek ez dia kontatzekuak be, e!

- Bueno, ba! Klaro baietz!

- Horrek dia antxiñako ipoiñak...

- Antxiñako kontuak.

- ... "que han venido de tu abuela..."

- Polittak...

- "... de la madre a ti..."

- "Sí, sí, de la madre. Sí".

- "...y luego tú me has contaó a mí y por eso sé yo".

- "Sí, sí. Fíjate, yo tenía olvidaó y tú en cuenta. ¿Ves? Ésta contará algún día a otro. Sí".

- Bes? Hori da politta, ez?

- Bai.

6.9. Erlijioaren indarra

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-003/037
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:58:56. **Bukatu**: 01:00:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Erlijioaren indarra. Gurasoak oso fededunak. Dotrina guztia ikasi beharra zegoen jaunartzea egiteko. Pazkoa sasoian, txartela.

Transkripzioa

- Ama eta aitta, esan dozu baiña fede haundikuak ziala, ez?
- Bai, bai, bai. Religiosuak eta fede haundikuak zian. Eta formalak gaiñera e. Oso, nik e satisfaziño haundixa dakat horrena, nere gurasuak ziala oso onak.
- Orduan e, abadiak eta indar handixa zeken...
- Bueno, abadia zan dana.
- Berak, berak [...]
- Abadiak, abadiak etxian be ainddu eitten zeban, kanpoko etxian be, abadiak. Ni e, nik e dotriña ikasi nebana Don Eusebio Bereziartua. Etxata ahaztu, neretako ona izen zan, bederatzi urtekin komunio haundixa in neban. Ta ezeuan dotriñan letraik nik ez nekixenik. Hori ikesi neban e, dibidir ez baiña, hori bai e.
- Dotriñara ze juaten ziñazien...
- Dotriñara...
- Astian behin?
- Bai, ta etxiak ikesi! Etxian ikesitta! Ni pekataria ta, bueno, bueno, iñun dianok e nere [...] eta kredua ta salbia ta... Dotriñak daukazen letra danak, pekatu kapitalak eta beste guztiok nik danak nekitzezen. Todo sabía.
- Orduan e...
- Komu... Bigarrena... Dotriña dana ikasitta ein bihar zan bigarren komuniua ta beatzi urtekin ein neban bigarren komuniua, dotriña dana ikasitta. Ez zeuan letrarik nik enekixenik. Dotriña.
- Komunixua eitteko txartelen bat edo bihar... Bihar izaten zenduen edo...
- Bai. Hori gero.
- Hori gero.
- Urtero-urtero in bihar da pazkuaskua. Ta ha txartela emote zeban sakristiñan, abadiak. Ta etxeko danendako etortzen zan txartela. Bakotxa bere izena atzekaldian ipinita. Da baten bat badau eztabena eiñ, han agertuko zan gero elixan. Bai, pentsaizu, que esclavitud! e? Bai, baiña ez zeuan iñor in bihar ez dabenik e. Konfesiñua ta komuniua urtekua bandiduenak be ein in bihar zaban. Ya está!

6.10. Jaunartzearen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/038
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:00:45. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Jaunartzean arropa berriak. Jaunartze handia eta txikia. Gero ospakizuna etxean. Beti izaten zen jateko bereziren bat, etxean egindako arroz-esnea, esaterako. Dotrina.

Transkripzioa

- Kumunixua ta ein zenduzenian erropa espezialik...
- E? Erropa espezialak!
- Zelebrasiñoren bat edo eitten zenduan?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai. Erropa barrixak. Nik oindio bistan daukat zelako

soiñekuakin iñ neban kumunio haundixa. Txikixa ahaztuta daukat, baina haundixa... Txikixakin mantillia erre notsan beste bati. Kandeliakin fan biha zan eta beste aurrekaldekuai su emon notsan kokotian. Bai ba, kandelia ta mantillia ta trastiak... Mantillia holan kolokauta eta nere aurrekaldekuai su emon notsan. Zein zan oin ahaztuta daukat, baiña aldamenetik etorri zan beste bat eta emetau zotsan bizkor e! Komunio haundixa ze erropakin in neban daukat bistan ta fotografixia be bada gaiñera haren soiñekuen.

- Zelebrazitoren bat ein zenduen etxian?

- Bai, gero etxian zelebrazitotxua beti itten zan. Bai, oilo haunditxuaua ero, ingo zan zeozer. Edo arrozkoletxia gaiñerako edo... Eztaizu? arrozkoletxia be postre ona zan e, baserriko esniakin. Ai nik oin zenbat bidar kentzen dotsatenian hemen tapoia esniai, esaten dot "hau ez da esnia ta ez da ezebe! Ezebe ez dauko honek gustoik esnianik". Baiña... Han, hare arrozkoletxia, hombre! Etxeko baserriko esnia, holako natia eitten jakon esnia. Hori, hori, horixa ederra... Harek bai! Zeozegaittik hanka zuzenak euki giñuzen guk, esnia edanda!

- Dotriña esan dozu letra guztiak...

- Letra danak!

- Letra danak jakiten zenduzela... E dotriña liburua ze zan orduan erderazkua?

- Dotriña txiki-txiki txikixa zan, baiña lodi-lodixa e. Guk ikesi giñuana, txikitxua baiña potolua e.

- Eta erderaz dana? Ero?

- Ez, euskeraz izengo zan e.

6.11. "Autokontalarixak"

- **Hizlaria(k)**: Billar Altzuaran, Miren Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-007/004
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:06:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: "Autokontalarixak", berba asko egiten dutenak.

Transkripzioa

- Miren, aittatu dozu zuek esaten zenduela bateronbatek ipuin asko ta kontatzen zittuanian...

- Bai. Enee! Ba, gure aittittak-eta esaten zebe zerian: "A! Ha, fulano? Autokontalarixa dok ha!" holan esaten eben zerian, horreaittik. "Autokontalarixa da".

- Horrekin nahi zebe esatia...

- Ba, gizon zera zala, gustatzen jakola ipuiñak esatia zerian.

- [...] kontatzia?

- Bai.

- Antxiñako istorixak edo...

- Hori da. Bai. Ta Candido hortan... autokon... ba, bueno! Hortan zera da ixan, e? Oso-oso da... Ta gustau eitten jako, gaiñera, berai. Bai, bai.

6.12. Elgetar gazteak Eibarrera lanera

- **Hizlaria(k):** Zabala Arruabarrena, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-009/002
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** 1944. Urtean joan zen lanera Eibarrera, ABCra "Euzkiñera" (Arizaga). Mutiko zela joan zen beharrera Eibarrera, 15 urterekin. Nahiko arrunta zen Elgetako mutil gazteen artean. Armeria Eskolak izen handia zeukan, eta gazte asko joaten ziren bertara ikastera, gauzez. Egunez lan egin, eta gauzez eskolara (17:30-19:30). Normalean, gazte horiek apopilo geratzen ziren Eibarko etxeetan.

Transkripzioa

- Eta hamen bertan?
- Bai, bai, hamen jaio ta hamen... Karo, horretxek hogeitortio Eibarren ein jittuat edo ein najittuan. Hemeretzi edo... "El año... el año cuarenta y cuatro" jua nitzuan Eibarrera, "Euzkiñera" biharrera. "Euzki", ABC?
- ABC.
- Isasixan jakan orduan.
- Arizaga.
- "Arizaga, Bastarrika y compañía". Bai. Orduan jakan Isasixan. Jauan separau barri Carreras-ekin. "Miguel Carrera y compañía", gero Vitorixara fan zuan ha enpresia. Ta koñatuak edo ixan bihar juen, ta apartau ein zan. Ta gero "Euzkik", itxuria, Isasixan ifini jua. Ta Carreras-ek zerian jakan, han, Karmelita inguru...
- Txontan edo...?
- Txontan ez, ez, ez. Urkusuan.
- Urkusuan?
- Urkusuan jakan harek. Bai. Ta gero ha, ez jakixat, bizkor fan zuan. Gero pasau zuan zerera, Otaola-erdikora. "Imperial" edo... ta "Miguel Carrera" ta zittuan han taillarrak kamiñuan ta errekian bittarte, bittartian. Gero handik Vitorixara fan zuan Carrera; ta "Euzki", ba, Eibarren.
- Eta zelan jua ziñan zu hara biharrera?
- Apendiz, mutikua.
- Hamabost urte?
- Hamabost urtekin. Mutikua, apendiz.
- Orduan Elgetatik jende asko jeisten zan Eibarrera?
- Bai, bai.
- Gerra ostian...?
- Bai, ta gero ofiziuia ikestera gu hamendik mutil-gazte mordua, mutiko edo mutil-gazte esaten dana. Batzuk, ba... Eibarrek gauza bat edarra euki dabena dok Eskola Armerixia. Ta hamendik, ba, dirua euketak edo ahal ebanak-edo Eskola Armerixara batzuk. Ta gu, ba, Eskola Armerixan gabaz ibili nitzuan ni. Hiru urte ixaten zuan. Ta Eskola Armerixan gabaz ibilittakua nok ni.
- Eta Eibar inguruko mordua ibiltzen zian orduan, ez? Elgetarrak eta Elgoibartarrak eta...
- Elgoibartik be asko zerera, Eskola Armerixara, gaba... bueno, gabaz

esaten zana, bost eta erdi... edo... seiretatik zortziretara. Ordu bi.
 - Biharretik urten ta...
 - Bai, bai, bai, bai. Ta gu be... Eibarren astioi han pasatzen giñuan apopillo.
 - A, bai? Aste guztia bertan?
 - Bai, guk bai. Batzuk etorten zittuan etxera, baiña ba! Aittak edo... Eskola pixkat edo ta han apopillo ta han emon gendun denporioi.

6.13. 'Unión Apostólica'ko mojek klaseak eman eta eliza zaintzen zuten

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:28. **Bukatu:** 00:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Unión Apostólicako lau mojurekin ibili zen eskolan. Irundarrak ziren. Klaseak eman eta elizak zaintzen zituzten. Eskolatik joaten ziren elizara edo bezperetara. Errepublika garaian, mojak bota egin zituzten. Gaur egun, ideologia ezberdinak errespetatu egiten direla dio.

Transkripzioa

- Gu mojatxo batzuekin gengozen hemen eskolan. Lau mojatxo, "de la Unión Apostólica" zien, Irunguak zien mojak, Irundik etorritta. Asko repartiduta egozen, Bilbon, eta Orion eta Aian; eta hemen Gipuzkua guztian eozen, zerak, zabalduta. Horrek zer eitten eben, eskolia emun eta aparte elixak garbittu... Garbittu ez, elixak apaindu; lorak ipiñi-eta. Oso diferentia zan, orduan juten giñan e, bezperetara juateko be lelengo eskolara juaten giñan, eta gero biñan-biñan danok elixara. Mezetara juateko be puxkat aurretuxo jua, jaixan "sobre todo".

- Lelengo eskolara?

- Bai. Eta gero biñan-biñan elixara. Eta oin baiño zuzenago egon bihar izeten (giñuan) elixan. Oin jua be ez die eitten.

- Orduan disziplina haundixa zekazuen.

- Bai. Baiña pozik bizi giñan, e! Halaxe zala-ta. Holaxe zala-ta pozik bizi izaten da jentia. Zela ikusten dozun, ba haixe. Eta nik neuk penia, aittana-ta penia horretxena daukat, ha gerra-denporan hil biharra, ezta? Zer da horregaittik... Beti esan dot republikanuengaittik: zegaittik hainbeste abanzau? Moja koittaei etorri eskolara eta kurutzia kendu. Hori da fundamentua? Hori ez da fundamentua naziñua eruateko. Oin oso diferente dago, gaurko jentia beste pentsamentu bat dauka, oin bakotxak berak pentsatzen dau. Nahi bozu ixango za katolikua eta nahi bozu protestantia eta nahi bozu nahi dozuna. Ez da egixa, ala? Honek etxeik etxe ibiltzen dienok be hor dare mordua, zerok, Jehovahuak. Makiña bat bidar jotzen doskue atia, eta. Bueno, horregaittik ez ditzuzu... Ba gu lenguakin konforme gare eta ba akabo, ezta? Ez dago zetan baaa! Ez esan holako gauzaik. Lenguaikin konforme gare gu, eta holaxe.

6.14. Jendea lau kongregazio ezberdinetan biltzen zen

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/004
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Bezperak latinez abesten ziren. Frantziskotarrak lehen nola jantzita joaten ziren. Orduko txarrena: egiten zuten zaintza gogorregia. Kongregazioak: neskak Hijas de Maríak; mutilak "luistarrak", frantziskotarrak "Hirugarren ordenakoak" (gehienak andrazkoak) eta "Apostolokua". Bere ama azken kongregazio horretakoa zen.

Transkripzioa

- Asieske guk ondo dakigu latinez, euskeraz eta erderaz. Hirurak ondo ikasi giñuzen. Bezperak kantatzera juten giñan. Eta bezperak kantatzera ez e hamabi urtekin, hamazortzi..., hogeikin be bai, e. Ni nausi ezkondu be ein nintzan, ezta? Eta asko ibiltzen giñan gu mojekin-eta, eta gero gure kuadrillan be bai, eta gu bezperak kantatzera... Bueno! Ia buruz ikasi giñuzen! Salbia-eta... ointxe be iñoiz kantatzen da latinez salbia. Guk ondo dakiguz horrek.

- Eta orduan bezperak latinez kantatzen zenduzen?

- Bai, bai. Ez euan besterik. Liburu bana emuten oskuen, liburu txiki bana, eta nik ointxe be goguan dakat gauza asko ze kantatzen giñuan. Koruan abariak eta guk behian kantatzen giñuan. Gero etortzen zien altarara. Eta segun ze, porke ipinitta zeozen orduan: lelengo domekia Apostolaukuena. Danok gengozen kongregaziñua, Apostolaukua. Lelengua ez, bigarrena uste dot zala. Gero hirugarrena, Hirugarren Ordenia esaten otsen, frantziskotarrak. Andrak-eta juten zien zera ipinitta. Franziskotarrak [...] han ibiltzen dittue Arantzazun, baiña telebisiñuan eta danian ikusten dozu zelan urtetzen daben. Domekero egoten da Beristain. Ha fraillia da geuk dakigulako. Bere alkondaria-eta beste edozeiñen moduan. Hemen orduan komulgatzera be eskupularixuak, hau bestekuak bai, e; hau bestekuak, atzian-aurrian, eta hemen lotu sokia gerrixan... Hirugarren Ordenakua zanta. Eta gu giñan laugarrenian, "Hijas de María"kuak gu, eta gu juaten giñan... Nik ez dakit nun doten, baiña luzaro euki neban: lazo azula, beti plantxauta, dotore ipinitta, medalliakin; laugarren domekia "Hijas de María"kuak. Eta bezperetan eitten eben sermoia zer tokatzen zan: hirugarren ordenakua bazan, hirugarren ordenakuen gauzak, eta guri ba "Hijas de María"kuak eta. Txarrena izan zan orduan be listia hartu eta, ez dakizu? Txarrena. Listia hartu zeñek faltatzen daben-eta; hori txarto dau beti! Hori diktadura haundi bat da. Mutillak be, hau be, laste izango da hemen, Luistarrena honek, eta honek be meza ondorian listia hartu.

- Eta kongregaziñuak orduan "Hijas de Maria" ziñazien neskak. Hirugarren Ordenakuak zer zien?

- Hirugarren Ordenakuak esan gura dau frantziskotarrak.

- Eta zer ziran andrak edo gizonezkuak?

- Bueno, gizon gitxi ikusten zan orduan be. Andrak, gehixenak andrak. Nik

ointxe be ikusten dittudaz eskupelarixuakin, eta mutillak luistarrenak geure modura eken; guk lazo azulakin Ama Birjiña eukagun moduan, horrek San Luis.

- Eta ez dakit, zuen gurasuak be kongregaziñuetara...

- Bai, bai. Gure ama hirugarren ordenan ez neban ikusi, baiña Apostolaukua zan beste bat. Apostolaukuak ekazen beste eskupelarixua esaten jakona, ezta? Eskupelarixuak, eta harek eken Jesusen Bihotza gorrixian, Frantziskotarrak eken moduan zera. Gure ama-eta zien Apostolaukuak.

6.15. "San Joseren zazpi domekak"

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/007
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Komunioa egindakoan sartzen ziren kongregazioan. Bi komunio egoten ziren: komunio txikia eta haundia. "San Josen zazpi domekak" egiten zen, zazpi domekatan gure Jauna hartzera joaten ziren eta zapatuetan konfesatzera. Berak abade bati esan zion laster konfesionariorik ez zela beharko. Bera eta beste lagun batzuk eliza garbitzen ibiltzen ziren.

Transkripzioa

-Zer izaten zien kongregaziñuak? Komunixua egin, jaunartzia egin?

-Bai, konfesau eta komulgau eitten zan.

-Eta orduan sartzen ziñazien kongregaziñuan?

-Ez, ez. Jeneralmente komuniuak eindda. Komuniuak bi eitten zien orduan. Lelengo zazpikin, seikin edo zazpi urtekin, Komunio Txikixa esaten ebena. Eta gero hamaikakin Komunio Haundixa. Honek be hola egingo eben ba. Honek be gaztiauak die ba. Gure umiak dia, e.

-Jarraitu dau ohittura horrek?

-Bai. Haundixa eitten zan.

-Eta inportantzia gehixao zeñnek zekan?

-Bueno, horri inportantzia emoten otsen, baiña ez litzake hola izan bihar. Aldrebes topatzen dot nik. Zuk zazpi urtekin komuniua eitten bozu, komunio haundixak zer ikusi dauka? Beste zeozer ikasi dozula, dotriña gehixao edo? Ez dozu pentsatzen? Porke zu bazoiaz hamaika urtera arte zeure egunetan komulgatzera eta konfesatzera. Bueno, "Zazpi Domekak" eta sekula ez jata ahaztuko neri.

-Zer da Zazpi Domekak?

-San Josen Zazpi Domekak eitten zian. San Josen zazpi domeketan gure Jauna hartzera, eta zapatu guztietan konfesatzera, eta zer esan be ez abariai, zer esan bihar otsaun ba? Gizurra da, ala? Sekula ez jata ahazten neri. Gu Juli-eta juntatzen giñan, Juli eta Martintxoneko Juan Mari eta hirurok, akordatzen nai ondo. Guk zer esan bihar dotsau ba horri abariaorri? Asteko ipuin... inuzentekerixan bat esatera fan bihar.

-Pekaturik ez, eta...

-Hoixe, ze pekatu eukiko giñuan ba? Nik zenbat bider esaten neban hori! Elgetan akordatzan nai abade batek, gu ibilitta gare asko elizia garbitzen-eta, ni asko ibilitta nao, e, elixia garbitzen-eta, konfesonarixo barruak eta ostienguak garbitzen-eta. Nun ekartzen daben konfesonarixo zahar haundi bat Bergatik. Esan notsan: "Hau zelan ekarri dozue? Lehen hainbeste traste eta oin hau? Oin, gaiñera, laster alperrik dia". "Ke ba..!", abade gazte bat euan orduan, "ke ba!". "Ke ba? Honek ez dabe funzionau bihar. Honek ondiokan danok alperrik dare". Han etorri da. Zenbat urte da Esteban egon zala, hamar, hamabi? Ni ezkontuta hona etorri baiño lehenago ixango zan, hemendik faten nintzan elixia garbitzera be. Akordatzan nai egun baten lau lagun, lau, hiru lagun bakarrik elixa guztia garbitzeko. Elixia, korua, portikua... Eta bata ez dakit zer, ez jakola komeni... Lelengo eitten zan pasillua eskobau. Gero ha altzau bihar ziñuan bankua, banku danak bankupiak garbitzeko. Bi bakarrik, Juli eta bixok. Bueno, kalte izugarrixa ein ostan neri harek. Zikiña da, ha zikiña, txarra da personiandako. Ha hautsa, elizan dauan hautsa da zikiña... Hainbeste jente, entierruak dala, ostian dala, hainbeste. Ha garbittu hille bittik behin edo nik ez dakit zer. Eneee! "Así es que" jangoikuak apuntauta badakaz gure kontuak, guk zerua irabazitta dakagu. Gehixao jua ezta be bai. Ez dozu pentsatzen?

-Eta orduan San Josen...

-San Josen zazpi domekak esaten jakon. Zuk ez dozu entzun hori. Hori zan san Jose eguna baiñok zazpi domeka aurretik. Entenditzen dozu? San Jose ixaten da "diecinueve de marzo", eta haren aurreko zazpi domeketan zatozen San Josen zazpi domekak.

-Eta orduan joan bihar zan derrigor konfesatzera?

-A bai, bai.

-Eta bestela be sarritan konfesauko ziñazien...

-Bai, bai. "Hijas de Maria" dala, ez dakit zer dala, zenbat bider! Zenbat lelokerixa esan ete dogu geure denporan!

6.16. Entierroetan hiru klase egoten ziren diruaren arabera

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-011/009
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:15:10. **Bukatu**: 00:18:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
 - Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Lehen hiru meza ematen ziren. Baserritarrek lehelengora joaten ziren, seiak eta erdietakora. Lastazaua eramaten zuten argi egiteko bidean. Hurrengo meza zortzietan eta meza nagusia hamarretan izaten ziren. Entierroak goizean egiten ziren eta hiru klase egoten ziren. Klasearen arabera, jartzen zen mahai modukoa tamaina desberdinetakoa izaten zen. Hilkutxa lehen ez zen elizara sartzen.

Transkripzioa

-Guk ezautu douz geure denporan hiru meza: lelengua seitterdietan; basarritarrak lelengo mezetara. Lehenguan esan ebana zerak, Ramonak,

Azurtzakuak, Azulakuak. Lelengo abariak edo sakristauak atia zabaldu orduko, lelengo kaletarrak baiña lehen erak. Lastazaua hartu holan argi eitteko, eta sei t´erdietako mezetara. Haren argixakin. Biderdixa pasau orduko emetauko jakuen argixa, bai...

-Goizian sei t´erdietan eta gero?

-Zortziretan. Hamarretan egoten zan meza nausixa orduan. Orduan entiarruak-eta oso diferentia zan, goizian eitten zian entiarruak eta. Hamarretan. Han be euan, e, klasiak. Oin ez dao halakoik.

-Hori zer?

-Klasiak, karuaua eta merkiaua. Ezta? Karuaua eta merkiaua.

Gizona: hiru klase, primera, segunda eta tercera. Eta etaratzen zittuen katapla..., horrelako katapulkuak; etaratzen zittuen eta. Meza haundixa bazan [...] katapulko haundixa ipintzen otsen...

-Horri zela esaten dotsazu?

-Hori da..., oin ez dabe ipintzen, oin mahixa ipintzen dabe bakarrik. Baiña altuak, e.

G: Baiña lehen ipintzen zebeu dana baltzakin eta holan dorauekin. Primera, segunda y tercera. Terzeria bazan, ba pobriena; ha txikixa, ezebez. Eta segundia bazan [...] bestia, katafulkua haundixaua

- Ez zan sartzen elizara hilddakua, beti elizpian egoten zan. Hori ez da urte asko hasi diela elixan sartzen. Elizpian egoten zan kajoia, eta elixako funziñua einddakuan, hartu elizpian eta eruaten zan kanposantura. Oin sartzen da elixa barrura, oin oso diferente da. Oin mahi bat eta danendako berdiña da.

-[...]

-Elizkizuna eitten eta mezia emuten ezautu giñuzen orduan hiru altaretan hiru abade-ta. Oin ez dao, oin gauzak dao askoz be...

G: Etortzen zien igual lau abade kanpotik.

-Dana abaria euan eta; oin ez dauan moduan abareik, orduan herri bakotxian, pentsa eizu, bi habitante eta hiru abare.

-Orduan esaten dozu klasiak desberdintzen zirela maila bajuauak edo altuauak. Beste zeoze?

-Pagatzeko, pagau bihar zan gehixao.

-Beste zeozertan, kantuan gehixao edo, beste zeozertan be igartzen zan aldia?

G: Kantuan be igual egongo zan aldia.

-Beste zeozertan be igartzen zan aldia, kajia edo?

-Hori etxeukuak.

G: "Primera, segunda y tercera". Ipintzen zaben eliza erdixen katapulkuak; katapulko zer bat ba..., primeria oso haundixa, segundia txikixaua eta terzeria bape be.

-Lotsagarrixa. Lotsagarrixa.

G: Bai, eta hori danok gero fuera.

-Horrek kendu zien, nun dian be ez, e, desaparezidu zian nunbaitetik, eta ordua zan! Bueno! Danok ez gara berdiñak, ala? Baiña oin apenas kobrau be eitten daben entierroik, apenas, ez dot pentsatzen kobratzen... Guk pagau giñuan, e. Nere gizonana nik pagau naban.

6.17. Bakoitzak bere sepultura zuen elizan

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/010
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:21:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Bakoitzak bere sepultura izaten zuen eta numeratuta egoten ziren. Kandeleroa eta trapu zuri dotore bat hartuta joaten ziren urtean hainbat egunetan. Norbait hiltzen zenean urte guztian manta beltza izaten zuen gainean. Sepultura eta aulkia ordaindu egiten ziren. Elizan gizonak aurrean jartzen ziren bankuetan eta andrak atzean aulkietan.

Transkripzioa

-Akordatzen zarie ume edo gaztia ziñanian sepulturak elizan?

-A bai. Enee! Sepulturak guk txikittan? Haundi eindda gero be, ez konduta gero be bai. Faten giñan kandeleroa, trapua, buenoo! Eta batak baiño bestiak dotoriaua, trapua, ipintzeko elixan azpitan trapu zurixa, eta kandelaria; eta kadelerua badakizu zer dan? Kandelindako...

-Eusteko.

-Bai. Egongo da gurian, kandelero bat hemen egongo da. Ha kandelaria sartzeko. Domu Santutan-eta. Egunak egozen, ezta ba? Urtian be bazegozen beste egun batzuk eruaten ziana. Hori esplikau eben [oiñurrenguan] telebisñuan, telebisñuan be esplikau eben. Eta gero bat hiltzen zanian, urte guztian eukitzen zebe hori, mantia esaten jakon. Manta baltza ipintzen eben. Porke hemen be numerauta egozen zerak, oin be hola egongo dia. Oin tapauta dare bankuekin, baiña lehen bankuik ez euan, eta sillak, eta bakotzak bere numerua eukagun, bakotzak bere sepultura. Eta sillia, sillia pagau eitten giñuan eukitzia. Sillia eta sepultura bixak pagatzen zian.

G: Elixan behien euen holan arraiekin markauta eta numerauta, eta orduan holako silla zian, hau baiño zoezer bajutxuauak eta, ez dakizu?

-Batzuk atzian belauniko hola jarritta, hola hartu sillia, elixan, e, eta hemen lurrian belauniko. Hori ezautu dou elixan. Gero altuak hasi zian eta sillan belauniko, oin bankuak. Baiña lehen lurrian belauniko eta sillatxua. Jartzeko hau ein, nik ein dotena, eta jarri. Eta belaunikatzeko hartu sillia eta lurrian belauniko.

-Orduan sepulturetan ez euan izenik.

-Ez. Numerua. Ia bazekigun zein numero zan geuria.

G: Metalezko txapak.

-Bai, txapa dotoriai ekazen, e. Txapa metalezkuak.

G: Oin be egongo die harek, igual...

-Harek danak dare. Ezta kendu tablaik eta. Bakarrik tapauta darella bankuak ipinita. Bankuak ipiñi eta horrek danok tapau ein dia; baiña harek hantxe dare, harek zerak.

-Esan dozue bankorik ez eguala, sillak zeren.

G: Bankuak hamar bat edo, zortzi-hamar bat edo. Eta gero atzerao danak sillak.

-Andrak silletan. Gizonak eren bankuan aurrian, guk danok atzian silletan.

-Eta sepulturak nun zeren, aurrian?

-Ez. Atzian. Lelengo bost eta bost edo egongo zian, bi zer dare eta. Erdixan dago zera, ezta, pasillua, eta hemen egongo zian bost edo, eta bestian beste bost. Eta gero handik behera dana zan egurra, dana sepultura. Elix haundixa da [...].

-Eta gero ia sillak andrak jartzeko...

-Andrandako sillak. Geure sillak, e! Eta zu jua elixara eta baten bat [bazeuan zure sillan], "mesedez" esan eta kendu be bai. Sillia be pagatzen giñuan eta sepultura be pagau eitten giñuan, urtero.

6.18. Kongregazioetakoek lista pasatzen zuten mezatan

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:25:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Lau kongregazio zeuden: luistarrak, Hijas de Mariakuei, Hirugarren ordena (frantziskotarrak) eta Apostolukoak. Meza ostean lista pasatzen zuten. Bere ezagun batzuk kongregaziotik bota zituzten garizuman dantza egiteagatik.

Transkripzioa

-Lehen esan dozu sermoiak egitten zittuela. Hori zer izeten zan, domekero?

-Luistarrenian luistarrei eitten otsen, eta Hijas de Mariakuei. Gero Hirugarren Ordenakua esaten jakon horri, frantziskotarrok; eta gure ama-ta zien Apostolaukuak. Harek, akordatzen za, eskupularixo gorrixa, Jesusen Bihotza aurrian dabela, eta bestiak berriz hemen gerrixan lotuta, hirugarren ordenakuak. Honek bigarren domekakuak zien, luistarrak.

-Hori zer zan, bezperetan?

-Ez, goizian, goizian mezia. Horregaittik, esan dotsut ba, txarrena eitten eben orduan be listia hartzia. Ez dakizu? Jentia atzeratu eitten da holan. Porke holan dakizu seguru-seguru fulano-ta ez die etortzen, mengano-ta apuntauakuak herrixan. Guk baiño lehenao badakit nik, neuk be ezautu neban eta gaur ez dia bizi, ezta? Baiña Garizuman organillua zerian Panaderokuan, organillua; dantzan ein ebela, bai, Garizuman, eta Hijas de Mariatik fuera.

-Eta hori zuk ezautu dozu?

-Bai, gure aurrekua, Juanita Panaderokua-ta, bota ein zittuen Hijas de Mariatik dantzan ein ebelako Garizuman. Oin dantzaik be ez, oin plazia hutsik.

6.19. Arantzazuko abadeak ejerzizioak egitera etortzen ziren

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/015
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma

eta Errauts Eguna

Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

- **Laburpena:** Lehen Arantzazutik abadeak etortzen ziren noizbehinka ejerzizioak egitera. Baserritarrak nekatuta etortzen ziren, eta batzuek lo hartzen zuten. Zer santu dituzten gaur egun elizan eta prozesioa non egiten den.

Transkripzioa

-Etortzen zien Garizuman edo Arantzazutik edo abadiak...?

-Ejerzizioak emutera, bai. Jota bota kurtiña baltzok, tapau elixia, erdixak lo. Uberatik-eta jentia basarritik eta etorritta, kantsauta. Elixan zer [...]

gizajuak, erdixak lo. Ordubeteko sermoia, atsaldian, atsaldeko lauretan-edo ipiñi sermoioak, etorri kantsau-kantsau eindda, erdixak lo hartu... Ejerzizioak esaten otsen horri. Gero asko segidu dabe horrek ejerzizioak, e. Gure denporan ni indda nago ejerzizioak Donostian, indda nago; eta Loiolan be bai. Bai, bai, guk ondo sartuta dakaguz buruan gauza guztiok.

G: Aste santuan politto egoten zan. Aste santuan be egoten zien prozesioak Eguen Santu eta Bariku Santu...

-Elegantiak egon die Elgetan. Hemen santuak-eta oso-oso-oso dotoriak daoz. Eruaten dabe hau..., danak moro jazten dia. Urte morduan ez da ein, bai, eta apaiz bat euki dou gazte bat Bergakua eta harek zertu dau atzera, eta ein dau urte bixan edo hiruan; dakagu Jesukristo Andakua, edo Jesukristo hilddakua be ederra, aberatsen batek erregalauta. Gero dago beste bat eindda zerak, Jaiotzakuak; hau andakua, Kristo Andakua esaten otsena. Ama Birjiña Doloretakua be dotoria dakagu, dotoria; eneee! Ha mantilla ederrakin-eta. Eitten da prosozioa plazatik bueltan, ederra, iez be egin zan, e. Fotografixak be etara zittuen. Eta gero San Juan eruaten dabe aurrian; San Juan, ez dakizu ha txikitxua?

6.20. "Illua" eta honekin lotutako ohitura zaharra

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/002
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Natura » Meteorologia
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Insignis pinua 40 urte ingururekin egoten da botatzeko moduan. Hortik gora ez da komeni, "ilotzen" hasten delako. "Illua": enborrari barruan sortzen zaion egur ustela. Aste Santuko ohitura: mutikoak etxez etxe joaten ziren su bedeinkatuarekin sututako "illua" eramatera.

Transkripzioa

-... sartu dana piñuz eta... Ointxe bota dabe. Horrek piñuixorrek eukazen hogeta hamabost urte inguru. Hortxe inguruan, hortik berrogei urtera. Behin berrogeta hamar urte ezkerio zarra da piñua, "sobre todo" insenisa, zarra da, ze illotzen hasten da, segun ze parajetan dauen, baiña. Illotzen

hasten da. Illua badakizu ze dan, ezta? Ba tronguai barruan formatzen jakon ustela, egur ustela. Illua. Illua da guk ohittu ixan doguna aste santuan, "sobre todo" zapatu santuan; hartzen da su bedinkatua illuakin eta eruaten zan orduan, ekarten zan etxetara, labatara, eta sutara botatzen zan ba... ez dakit nik zegaittik. Ohittura, ohittura zahar bat da hori, botatzen zan, eta guk ba mutikuak zela giñan, ba etxetara-ta entregatzen giñuan eta gero hiru edo lau txakur haundi emoten oskuezen, eta haren aldera han sua hartu eta ekarten zan; eta bazian, orduan be danerako jentia euan eta gu baiño espabillautxuauak be, eta harek eitten eben, guk baiño ordu erdi bat lehenao erak emon sua zeozekin, pospoluakin edo zeozekin, eta entregau hango sua dan moduan, eta gu etortzen giñanian suakin: "Bai, ekarri doskue ba sua". "Zelan ekarriko otsuen ba zuei?" Hori Jesukriston kurutzian moduan da: Jesukriston kurutzia, ba, judixuak toneladak salduittue. Toneladak Jesukriston kurutzia diela! Baiña saldu dabenak be dirua hartu dau, eta erosi dabenak be beren fede onakin erosi dau; oseake bixak ondo serbiduta geldittu dia.

-Su bedeinkatua nun hartzen ziñuen?

-Su bedeinkatu hori egoten zan elixpian.

-Egun horretan bertan egitten zan?

-Bai. Lehen Bariku Santu, Bariku Santuan ez dait, Zapatuan eitten zan lehen be. Baiña oin diferente dao. Oin eitten da zapatu gabian, mezia eta elizkizuna eta eitten dia. Bueno, oin diferente da. Oin kanbixau ein die gauzak eta diferente da. Eta han bedeinkatzen eben sua eta, bedeinkatzen dau abadiak sua, eta Kandelarixoz kandelak bedeinkatzen dien moduan San Blasetan, ba sua bedeinkatzen da Zapatu Santu egunian. Eta gero, ba, esan doten moduan, ba, sinisten dabenak edo, sinisten ez dabenak be bai askok, numerua eittearren edo zeoze eittearren eruaten dabe.

-Eta esan dozu etxeko sutara botatzen zala?

-Bai. Ni akordatzen nai gurian amandriak-eta, amandriak-eta gurian fede haundixa euken, aittajaunak-eta gure aldian. Fede haundiko personak zian-eta; harek sutara botatzen eben eta labara-ta, harekin aittiaren ein-eta. Bai, halako istorixak, halako istorixak. Ze antxiñako sorgiñen moduko istorixak, bakizu? Bestekaldera, baiña bueno...

-Eta ohittura horrek poliki-poliki...

-Bai. Horrek ohitturok ba geldi-geldi... Ez, gurian oindio esistitzen dau. Bai, oindio esistitzen dau gurian. Baiña gurekin amaittuko dia horrek be.

6.21. Prozesioetan moro jantzita

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- **Laburpena:** Erramu egunean gurutzeak egiten ziren. Prozesioetan moro jantzita ibilitakoa da; aitonarengandik datorkion tradizioa da. Prozesioak egin ondoren afaria egiten zen. Prozesioak nolakoak izaten ziren. Prozesio bakoitzean ze santu eramaten zen.

Transkripzioa

-Hori eta Erremu Eguneko kurutziak-eta nik nere denpora guztian ezautu dittut. Ni prozosiñotan-eta ibilitta nago, moro jantzitta. Bai, urtero, ze hori etorren, aittajunen zeretik etorren. Ni, nere aittajuna moro jazten zan zerak eruateko, Kristo Andakua-ta, Ama Birjiñia-ta eruateko. Eta gero aitta jazten zan, eta aittak edadia eukanian ba gero ni hasi nintzan.

-Tradiziñua zan?

-Tradiziño moduan, ba ni hasi nintzan. Eta ba gero ba nerekin [nahasi?] amaittu zan tradiziñuoi. Eta gero ni barruan nauela ez zala ein bihar, eta eztakit zer. Eta badakizu zer pasatzen dan, ba, lehen huskerixa batekin... Ez zan morotzia bakarrik. Morotza ondorengua ixaten zan, meriendia edo zera eitten zan, afarixa eitten zan, eta moruak... ha zan inportantia, orduan noiznahi ez zan tabernan afarixa eitten-eta. Eta klaro, elixiak pagatzen eban zati bat, porejenplo emoten eban ba, elixiak emoten eban honenbeste diru, diru asko ez zan emoten ebana, baiña emoten eban, pagatzen eban ardaa harako, eta ardaa sobratzen zana saldu eitten zan atzera tabernarixai, eta bittartian gelditzen zan diruakin pagau eitten zian afarixak. Eitten zan Erremu Egunian San Rokera eitten zan erromerixia. Erromeixia nik, ostera. Prozosiñua, eta gero eitten zan Eguen Santu Egunian, eitten zan Ama Birjiñiakin... Nik Ama Birjiñia eruaten naban betik, hori bakotxak bere zerak erezen-eta. Eta Ama Birjiñia eta santokristua. Santokristua nere lagun batek einddakua da azkenegua dauena. Bai, "el año cincuenta y dos" inaugurau zan hori santokristuoi. Eta gero esan doten moduan, santokristua, Ama Birjiñia, eta zein ixaten zan bestia? San Jose uste dot. San Jose ixango zan. Eruaten zien, hiru santu eruaten zien, baiña San Jose eruaten ebenak ez eben jazten moro, ez zien jazten. Jazten zien bakarrik Ama Birjiñia eta santokristua eruaten ebenak, eta gero barikuan ixaten zan prozosiñua diferente.

6.22. Domingo Iturbe; ikastetxeen historia Elgetan

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/004
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Ramona Kortabarria izeneko emakume batek santu bat eman zion elizari. Emakume honen senarra, Domingo Iturbe, elgetarra zen izatez baina Ameriketara joan eta aberastu egin omen zen urrearekin negozioak eginda. Domingo Iturbe. Mojak zeuden lekuan eskolak jarri zituen eta eraikin berri bat sortu ere egin zuen gerra aurrean. Gerra garaian eskolak apurtuta geratu ziren eta herritarren artean eraiki zuten eskola berria.

Transkripzioa

-Santokristua ez zan eruaten, gero eruaten zan Kristo Andakua. Oseake, hori zan, hemen euan andra, bertakua zan baiña klaro; zan Doña Ramona Kortabarria, erregalautakua zan hori, emon otsan elixiai [...] Kristo Andakua. Emon otsan elixiai; klaro, ha eitteko elixiak ez eukan diruik be,

baiña hori zan andra bat; ba, ointxe Elgetan badago ba itturixa, itturixan onduan soziedade bat dao, hoixe soziedadioi gerratian apurtu ein zan, "en el treinta y siete", treinta y seisko gerran apurtu ein zan, eta gero harek atzera eiñ eiban. Eta ha andria zan, haren gizona zan amerikanua, hemengua ixatez, hemengua zan, baiña Ameriketan diru asko ein eban, diru asko ein eban. Urria etaratzen dabenei erosten otsen urria, eta berak saldu eitten eban berak dakixenai. Oiñ txatarrerua ixatian moruan, txatarra erosi, [...] eta gero saldu, berak jakingo eban zeñi saldu. Nik ez dakitt ezer, baiña hori gizonoi gure aittajunen edade ingurukua zan, eta aittajunak, aittak-eta esanda, han pistola bikin ibiltzen ei zan; segiduan han forrua kentzen ei eben, ikusten eben dirua-edo, gabaz ikusi ezkeriok, edo badoia hau hara edo hona-edo, voló!

-Berez Elgetakua zan?

-Elgetakua uste dot zala. Hortxe Iturbe basarrixa, hor badare basarrixak handikaldian, hor Itturbe edo, han jaixua izan bihar eban.

-Gero hona etorri...

-Bai, gero kriadiakin ezkondu zan. Kriadiakin ezkondu zan eta familixaik ez eben euki. Eta horrek einddakuak dia Domingo Iturbe, horrek einddakuak dia zerak, eskolak eta danak, oiñ Malaa esaten dotseun eskolia, oiñ tabernak eta darena, horrek ein eban. Horrek ein baiño gehixao, horrek arreglau eiñ eban Malaa. Malaa(n) mojak erezen eta eskolak ifiñi zittuan horrek. Eta gero Patronatua esaten jakona, Domingo Iturbe, etxe haundi bat dago hor geldi-geldi, eta ha eiñ eiben, eskolak, eta gero eskolak emoten ibilli zian ba gerra aurretik. Gerra aurreko istorixekin nabill. Eta gero gerria etorri zan, eta gero fraillio desbandadia jo eben gerria etorri zanian, eta, klaro, hori kuartel moruan euki eben, eta han erdi-apurtu ein zan kaiñonazoka eta bonbazoka. Eta gero atzera gure aittak-eta, eta beste haren moduan herrixan beste batzuk eiñ eben, eta hemen basarritarren danen artian, ekixenak arotzak arotzerixia eitten eben, eta hargiñak ekixenak hargiña. Eta gero han bihar zan materixala danak irixekin-eta eruaten eben, bakotxak bere basotatik bota-ta. Ze esaten da hori oiñ... auzolana, auzolan.

6.23. Angiozarrera eskolara

- **Hizlaria(k):** Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-014/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara Angiozarrera joaten ziren hasieran eta gero Elgetara. Merienda poltsan hartuta joaten ziren eskolara. Angiozarren senitartekoren bat izaten zuten eta euria zenean zakuren bat uzten zien estaltzeko.

Transkripzioa

-Aittatu dozue zu hemen jaixua zarela, zu gertu-gertuan; auzo honetatik eskolara nora joaten ziñazien?

Julian: Lelengo Angiozarrera; gero Elgetara.

Rosario: Hartu maletan, holako paiñolo baten lotu bezkeixa-eta-. Sagar bat

[...] denporan-eta, hantxe eguardixan bezkaldu kalia eta gero illuntzian etxera.

Sebastian: Etxian eukitzen giñuan maletioi-ta, danok eukitzen giñuan tia edo amistadia [...] Honek eztakit nik, parientiak...

R: Guk Joana Josepanian. Andra haundi bat zan-eta. Eurixa zanian zakuak burutik emuten oskuzen, zaku bana, eta...

-Eta harekin tapau eta...

R: Oingo moduan erropak egongo balitzaz, gaiñera. Ez txaketaik eta holakoik, bueno! Abarkan batzuk. Erdi busti-busti eindda.

6.24. Angiozarko eskola

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-014/009
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Angiozarren ibili ziren eskolan. Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren eta bakoitzak bere irakaslea zuen. Irakasleek ez zuten euskaraz jakiten eta gogorak ziren. Bergaran nahi ez zituzten irakasleak bidaltzen omen zituzten Angiozarrera. Ondo ikasten ez zutenean zigortu egiten zituzten. Euskaraz egitearren gogor hartzen zituzten, baina zigor berezirik ez duute ezgutu.

Transkripzioa

-Eskolara Angiozarrera edo Elgetara lelengo...

R-S-K: [...]

-Angiozarko eskolia zela gogoratzen dozu?

J: Angiozarrek be maixua eta maistria.

-Neska eta mutillak aparte?

S: Aparte, aparte. Nik ezebe ez naban ikasi.

R: Guk gaizto-gaizto bat euki giñuan maistra, kastillania zan.

S: Danak kastillania... Guk be kastillanua. Emuten eban palizetan!

-Zeuria be bai? (Juliani)

S: Horrek ixa danak antzera. Euskeraz ez ekixen eta.

J: Guk erderaz ez...

S: Egurra, egurra... Hona guri txarrenak bialtzen oskuen. [...]

R: Maistra zahartxo bat eta zimela. Eta eruaten gontsazen gero basarrixan erezen ba... zeozer, patata edo baba edo halako., noizipeiñetan, eta orduan ondo esaten oskuen, baiña atzera be gero...

S: Txarra, txarra. Estudixatzen, bueno!

-Kanpotarrak zien eurak, klasiak erderaz emuten zittuen. Baiña gero zeuek euskeraz berba eitterik bai zeuen artian?

S: [...] Urtendakuan handik, akabo. Danok fiestan eitten giñuan.

-Eta kastiguak zergatik izaten zian, klasiak ez zenduezelako entenditzen edo euskeraz berba eittearren?

J: Euskeriagaittik be bai.

S: Baiña gehixen beste zeozegaittik izaten zan, beti zeozegaittik. Ikesi ez, edo. Hortara (besoak zabalik) liburuak hartuta zenbat bidar! Ezin euki-eta,

ipiñi zeoze-eta.

R: Kastiguak.

S: Kastiguak? Bueno! Gu beste kastigu hartutako ez da egongo... munduan be asko ez.

-Eta euskeriagaittik zer kastigu izaten zien akordatzen jatzu?

J: Behintzet batzutan euskeraz eitteagaittik gogor eitten oskuen.

S: Orduan izeten zan errekreua; ordu erdi-edo ez dakit ze izeten zan, eta orduan kastigauta. Enjeneral ha izeten zan. Bestiak urtendakuan eskolan egon bihar.

-Anillorik ipintzia, edo zeozer eruan bihar izatia, edo sokaren bat?

S: Gero entzunda nao, baiña orduan ez.

6.25. Angiozarko eskolatik Elgetako fraideetara

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-014/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:25:35. **Bukatu**: 00:27:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: Angiozarko eskolan ez zuten gauza askorik ikasi. Eskola utzi eta 13 urte bete baino lehen neskame joan zen Rosario. Sebastian eta Julian fraideetan ibili ziren gero Elgetan eta han askoz gehiago ikasi zuten. Irakasle onak zituzten, batez ere, don Felix. Julian gero gau-eskoletan ibili zen. Sebastian Eibarko armeria-eskolan ibili zen.

Transkripzioa

-Eta eskolan zer ikasten ziñuen, "sumar, restar"...?

R: Honek gehixao ikisiko eben, baiña guk behintze dividirrerañok eta akabo.

S: Elgetan bai, Elgetan asko.

J: Elgetan [maixu] onak eren, Elgetan frailliak.

S: Maixu bat don Felix-edo ona eta.

R: Eta honek Txanbolinttenekuak be bai.

S: Eskolia Elgetan zatixa gehixao. Gero Angiozarren gure edadetik atzeraokuak ikasiko eben baiña.

R: Bai, zer egongo zan gero be. Angiozarren, e...

-Zuk Angiozarren ikasi, eta gerora?

R: Gero iñora be ez. Hamaika urte baiño lehenao fan nintzan auzo batera kriada.

-Orduan hori izaten zan, ezta, hamabi-hamahiru urte...

R: Bai. Honek gehixao ingo eben igual.

J: Gutxiao!

S: Honek gehixao, gabeko eskolan ibilli zan gero.

J: Bai, gabeko eskolia...

S-R: [...]

-Eta gabeko eskolia ze zan ba?

S: Ein biharra eta illuntzixan zazpiretatik beratzietara edo, ez dakitzu?

Basarrixan biharra ein egun guztia eta gero gabian.
 R: Baiña zeoze pagauta.
 S: Bai. Norberak pagauta.
 -Eta zeñek emuten zeban gau-eskolia?
 S: Berak maistruak. Aurretik emoten ebanak.
 R: Gero hemen beste andra bat egon zan, Bittori edo.
 S: Emakumiena.
 J: [...]

6.26. Dotrina ondo ikasten zen; komunioak

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-014/011
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:27:15. **Bukatu**: 00:28:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Dotrina elizan bertan ikasten zuten. Garai hartan lau apaiz zeuden Angiozarren. Don Inazio apaizak gogor hartzen zituen. Dotrina ondo ikasi zuten, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz. Bi komunio egiten ziren: handia eta txikia. Ospakizun berezirik ez zen egiten baina traje berria eginez gero pozik.

Transkripzioa

-Eskolan bertan ikasi zenduen dotriña?
 R: Elixan. Koruan-eta.
 S: Lau apaiz zagozen orduan Angiozarren, lau apaiz. Orduan? Orduan dotriña bai ikasi giñuan ondo.
 R: Batek gaiñera, abade batek palo batekin edarrak emoten [zittuen] harek be, don Ignaziok edo. Harek be emuten zittuen, abade batek be.
 S: Danak ahaztu jaku, baiña dotriña ikasi orduan? Dana, dana.
 R: Oin be ze pasatzen jakue ba? Komuniua eitten dabe eta gero akabo.
 Gero ezta iñor elixara fan be eitten-eta; gazte-jenteik. Elgetan ez behintzet.
 -Dotriña ondo-ondo ikasi...
 R: Hoixe. Erderaz eta euskeraz, bixetara ikistta gaiñera, e!
 -Bixetara?
 R: Bai, bai.
 -Komunioxua eitteko derrior jakin bihar?
 R: Txikixa eta haundixa, bi komunio eitten giñuzen, e!
 S: Nik bata Angiozarren egin naban txikixa, eta Elgetan, beratzi neskakin, beratzi neska eta neu bakarrik, komunio haundixa.
 -Zenbat urtekin izaten zien?
 R: Zazpi txikixakin eta hamar-edo zera.
 S: Hamar baiño gehixao ein naban nik haundixa.
 R: Hamar, hamabi, hortxe.
 -Egoten zan zelebraziño espezialen bat? Gaur beste ez, baiña...
 S: Orduan be traje barrixa-ta.
 R: Igual haundixena txikixai igual orduan, e!

S: Nik haundixa ein nabanian hamen honainoko [orkatilarainoko] prakakin ein naban. Lotu hamen-eta.

R: Hori izaten zan, lelenguai trajia eta gero igual [bestiei]... Bai, aprobeztatzeko.

6.27. Arropa eta oinetakoak erosteko dirurik ez

- **Hizlaria(k):** Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-014/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Sebastian anaiaren gabardinarekin joan zen ezkontza batera, aitaren lutoa besoan jarrita. Arropa berria gutxitan izaten zen eta halakoetan pozik. Garai batean modan egon ziren gabardinak. Kalera joaten zirenean poltsan eramaten zituzten aldatzeko oinetakoak. Inguruetan etxean kubiartekin egindako abarkekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa

S: Nik esan naban oiñurrenguan be, bodara honen gabardina batekin. Aitta hil zanian, hamabost urtekin, orduantxe urtia-edo eta, lutua-edo, lehen halako brazaletia eruaten zan. Honen gabardiñiakin, [barrixa eruango eban edo], ni honenakin fan nintzan-eta. Nere ustetan elegantiao fan nintzan! Honek igual urte bixan edo hiruan ibilittako gabardiñiakin.

R: Baiña zenbat bidar jantziko eban gabardiña? Ein bai holakotxe zeren baterako, baiña gero jantzi be ez. Oin jazten dan moduan ez behintzet! Beti gordetzen geroko denporarako.

S: Gabardiña sasoe baten moda-modan egon zan, e, bueno!

R: Oin plazara be edozein erropa jantzitta, elegante joaten jatzu jentia gero, e! Konprak eittera be eta danera.

S: Hamen basarritarako ez euan jaztekoik ezebe. Etxetik urten orduko bustitta zagozten. Zapatak apurtuakin ibiltten giñan.

R: Beti aldatzeko erropakin, gaiñera; gero oiñetakuak, kalera fan bihar bazan, hartu poltsan eta oiñetakuak aldatzeko kalian.

S: Honek gomazkuak gero bai urten eben, gu haundi egin ta gero. Gomazkuak, edozer, ez dakitzu? Zapata, bota, edozer; baiña aurretik dana sueliakin; eta suelia behin busten bazan, segittuan apurtzen giñuan. Gero bai, gu haundi egin giñanian bai. Baiña aurretik? Bueno, bueno...

R: Ez euen dirurik-eta, orduan ez euen-eta.

S: Desastre. Etxian einddakuak, hamen Angiozarren einddakuekin-eta, Elgetan bertan eta etxian einddakuekin ibiltzen zien. Automoillan erroberia ipiñi, kubiartia azpitan, eta haren gaiñian beste zer bati ein-eta.

Labanauak! Lagunak eukitzen zittuen, gu hortara ez giñan ibilli, baiña antzera, danok antzera.

-Gaiñera, sasoi hartan danok antzera, ezta?

S: Bai, bai. Ezebe ez euan aldeik.

6.28. Gabonetan familia elkartuta; menua

- **Hizlaria(k):** Atorrasagasti Arana, Sebastiana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-018/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Lehen ere ospakizun garrantzitsua izaten zen Gabonetakoa. Lehen ez zen erraza batetik bestera ibiltzea eta familia elkartzeko eguna izaten zen. Aza eta karakolak edo oilaskoa jaten zuten. Lehen oilaskoa jateko inportantea izaten zen. Txerria Gabonak aurretik hiltzen zen eta haren solomoak ere gordetzen ziren Gabonetarako.

Transkripzioa

-Oin Gabonak eta dirala, lehen zela izaten zien?
-Lehen e, lehen be inportantiak izeten zian Gabonak. Bai. Kasik-kasik lehen oin baiño gehixao igual. Orduan ixeten zan familixak juntatzeko obligaziñuan lezkotxe gauza bat egoten zan. Oin ba, aurtan ez gatoz, edo aurtan hara goiaz edo bestaldera goiaz edo, samurrao zertzen da, baiña orduan ez, orduan Gabonak pribauak izeten zien. Orduan angulak be jan eitten giñuzen; diruik ez geunkan, baiña jan eitten giñuzen angulak; oiñ dirua daukula pentsatzen, eta oiñ ez ga aillegatzen angulak jatera. Hoixe esaten dot nik. Egixa da hori!
-Zer jaten zenduten orduan?
-Orduan be ba azia; gabon egunian azia. Gero ba karakolak edo bakaillaua edo. Oillaskua. Oiñ ia oillaskua baztartuta dao, baiña orduan, e... Jan [zer bat] haundi bat eitten baziñuan oillaskua-ta izeten zien, e! Oiñ ez, oiñ oillaskuaoi, e... Aspertuta dao jaten jentia.
-Baserrixan txerrixa bazeukazuen?
-Txerrixa? Bai.
-Gabonetan hiltzen ziñuen txerrixa?
-Gabonetan gutxittan. Lehentxuao ixeten da txarrixa hiltzeko denporia. Baiña Gabonetarako-ta ba solomua eta horrek gauzok gordeta, e.

6.29. Eskola 10 urterekin utzi zuen

- **Hizlaria(k):** Elkorobarrutia Gallastegi, Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-019/002
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Zazpi urterekin hasi zen eskolara eta hamarrekin utzi zuen. Baserriko lanetan aritu behar izaten zuen. Astoa, txerria eta beste zenbait ganadu zituzten. Baratzeko lanetan aritzen ziren etxerako jakiak lortzeko. Goizeko lehenengo lana behiak jeiztea izaten zen.

Transkripzioa

- Orduan zu umetan baserrixan bizittakua zara?
- Bai, bai, bai... baserrixan, bai.
- Eta gustatzen jatzun txikitan bizitzeko tokixa baserrixa?
- Baserrixa? Kalia gehixau gustatzen jatan neri. Baiña han genden ta herrira ezin jua. Zazpi urtekin hasi nintzan eskolan eta hamarrekin laga. Ta gero, berriz, urtetzeko ez euen lagunik, ta etxien egon bihar sarritan.
- Eskolara zazpi urtekin esan dozu?
- Bai, bidia be ez genkiun herrira, sekula jua be ez. Oingo moduan? Oin umiak-eta hazi orduko badoiez kalera.
- Baserrixan lan eitten zenduan?
- Bai, hoixe lan...! bihako in! bihako in! Gerria etorri zan hamar urtekin, hamabi urtekin edo hamarrekin ta... hantxe.
- Eta ze itten zenduan baserrixan?
- Baserrixan? Esandako danak: bixkarrian karga arbixak hartu ta etxera eruan, ta astuakin ta... ahal dan moduen esaten dan dana.
- Animalixak, ze animali zittuzuen?
- Danetik. Ganauak, astua, txarrixa be urtero hazten giñuen etxerako.
- Zuk danak zaintzen zenittuan edo?
- Bai, nik eta aitzia be han euan, ta danon artien.
- Eta zelan banatzen zenuten lanak?
- Lana? Ba... nik esandakua in bihar beti.
- Gaztiena ziñalako?
- Bai.. horixe.
- Ahizpiak agintzen zeban?
- Bai. Aitta [...] bat zan eta aittak esaten otsan gerraostian: "hau kolegixora, kolegixora". Oin beste jakin banu, kolegixora juango nitzan ni! ta baserrira ezkondu be ez.
- Aittak be bai baserrixan itten zaban lan?
- Bai, bai, bai.
- Kanpuan ez, ezta?
- Ez, ez.
- Beti baserrixan?
- Klaro, lehen dana baserrixa zan. Oin ez dao baserrittik ezer, baiña orduan baserrixa zan, orduan baserrixa zan.
- Eta ortuan eta be bai aritzen ziñaten edo?
- Bai, danien, etxerako jenerua ta.
- Eta ze izaten zan jaiki ta lehenengo lanak eta?
- Ba... hori... behixak jeiztia lehenengo lana, esnia etara edo saldu-edo eitteko.
- Eta gero beste ahizpia juaten zan saltzera edo?
- Ez dakit, nik horrek danok ez dakat goguan be. Hogeita bat urtekin ezkondu nitzan honaxe ta akabo.
- Lan haundixa izango zan, ez?
- Honbre!! Hoixe lan handixa! Beti diziplinapian. Oingo moduen? Oin umiek eta... gozotan bizi die!

6.30. Bezperetan latinez kantuan

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Alberdi, Angeles; Arantzeta Alberdi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-026/009
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:17:07. **Bukatu**: 00:18:49

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Mezara Elgetako elizara joaten ziren igandeetan.
Arratsaldeetan, bezperetan, latinezko kantuak kantatzen zituzten.
Eskola ordua amaitzean apaiz bat joaten zitzaien kantuan irakastera.

Transkripzioa

-Orduan kapillara noizian behin bakarrik.
-Bai.
-Mezetara domeketan?
-Ez. Parrokixara. Ointxe be bai.
A: -Goxian mezetara ta atsaldian gero bezperak, latinez kantuak itten zian.
-Kantatzen ziñuen zeuk latinez.
ML: -Entendidu keba, ze esaten giñuan be ez. Buruz.
-Akordatzen zarie?
-Bai hoixe.
-Kantuekin, ze kantu zan? Hasten zanian "magnificat", a, ointxe laster.
Pozik kalera urtetzeko.
-Bezperak, oin be kantatzen dia "monjas de clausura" ta kantatzen dittue horrek gauzok bakarrik. Baiña len-len domekero.
-Ta hoixe, obligaziñua mezetara fateko.
-Eskolan ikasi ziñuen kantatzen?
-Bai, abade bat etortzen zan. Orduan izaten zan zortzitterdietatik eta hamaikak arte edo eskolia. Gero abadia etortzen zan kantuak erakustera.
-Herriko abadia?
-Bai, bai. Herriko parrokua. Afiziño haundixa zeukan musikarako ta sofeuak be bai erakusten zittuan.
-Ez zenduen ikasi solfeo?
-Ibili bai ikasten.

6.31. Agur egitea ere debekatua

- **Hizlaria(k):** Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-029/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara eta ez zuten etxerako lanik eramaten. Zigor modura belauniko jarri eta liburuak jartzen zizkieten eskuetan. Euskaraz eginez gero, reketeek gaizki begiratzen zieten; agur egitea ere debekatua egon zen.

Transkripzioa

-Eskoliak goizez bakarrik egoten zan?

-Ez, arratsaldian be bai. Ordu bi uste dot. Goixetik hiru ordu izango zien, hamabixak arte, hamaika terdiak arte eta gero atsaldian ordu bixetatik laurak arte.

-Ta eskola ostian zer eitten zenduan?

-Etxera. Ta distraitzen bagiñan basuan, [aubixak] edo holako fruta batzuk eozen eta igual distraitzen giñan harek jaten e ta gero berandu fan eta biharrrak eitteka etxian.

-Irakasliak etxeko lanik emoten zotsuen?

-Ez, orduan ez geukan astiik. Gure umiak eta hori euki dabe baiña guk ez geukan astiik.

-Irakasliak kanpotarrak zian edo?

-Kanpokuak ez, herrixan bizi zianak zien. Herrixan bizi izaten zien.

-Kanpotik etorritakuak?

-Bai, bai, kanpotik etorritakuak.

-Baiña kastiguak egoten ziran?

-Bai.

-Asko?

-Asko edo. Orduan holaliburuak ipinita; belauniko ta, horrek be eukitzen giñuzen.

-Eta zegaittik?

-Ba leziñua ez giñualako jakin edo.

-Erderaz eitteagatik be bai edo?

-Ez. Euskeraz ez zala in bihar hau frentia hemen pasau zanian, euskeraz ez zan in bihar. Agur eittia be proibiduta egon zan eta.

-Eta euskeraz eitten bazenduen, zer?

-Bueno, behintzat batzuk txarto beitzen eben.

-Herriko jentia?

-Bai, herrikuak, reketiak. Ganauak be herriko jentia kendu oskuzen.

6.32. Eibarko azokara saltzera

- **Hizlaria(k):** Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-029/014
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:14:17. **Bukatu:** 00:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena:** Baserriko jakiak saltzera Eibarrera joaten zen astoa hartuta. Marmita bizkarrean hartu eta esnea banatzen ibiltzen zen. Auzokoak kalera jaisteko ze garraio erabiltzen zuten azaltzen du. Jende askok urtean hainbesteko bat ordaindu eta postu jakina izaten zuen azokan. Arrautzak eta babak saltzen zituzten, besteak beste, olio a erosi ahal izateko.

Transkripzioa

-Baserriko gauzak saltzera ze joaten ziñan, Eibarrera?

-Bai, Eibarrera.

-Astuakin?

-Astuakin.

-Zeuen a zan astua?

-Bai, bai. Astua etxekua, bai, bai. Eta gero han ba hartu marmitta holan eta Isasira ta bestera ta partitzera esnia, partidu Eibarren.

-Jente asko joaten ziñaten hemendik, ezta?

-Bai. Hiru jeneral faten giñan, hiru faten giñan astuekin.

-Alkarrekin?

-Bai, jeneral inguruan izaten giñan. Ta beste bat faten zan karrokotxiakin, kaballuakin ta karruakin. Ta gero Olabarria beste kamioi batekin. Oiñez be jarraitzeko moduko kamioia zan. Ordu terdi ta eitten zittuan Eibartik Elgetara ta. Sinistu ezindako kontuak dia ta.

-Eibarko merkatu-plazan jente asko egoten zan orduan, ezta?

-Bai, bai. Puestuak be askok, guk ez giñukan baiña abonauak eukitzen zittuen, urtian edo hillian edo tanto pagau ta han beste bat jarten bazan be ha abonaua fandakuan alde in bihar izaten zan Eibarko plazan.

-Danetik saltzen zenduan?

-Bai. Babia ta, arrautzak eozenian. Etxerako jateko falta ta saldu in bihar olixo puxkat edo ekarteko.

6.33. Muxu ematea ere bekatu!

- **Hizlaria(k)**: Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-029/024
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:28:25. **Bukatu**: 00:29:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena**: Hilean behin konfesatzera joaten ziren Mariatarren kongregaziotik. Mutilei muxurik ematerik ere ez zuten izaten. Erromeria bukatzean neska-laguntzea izaten zen.

Transkripzioa

- [Oin...] baiño txartuao geratu nitzan.

- Orduan, konfesatzera asko juaten ziñan?

- Bai, bai, hillero behintzat bai, hillian behin, “Hijas de Maria” izaten zan ta.

- E?

- “Hijas de Maria”, hillian behin.

- Zer da “Hijas de Maria”?

- Ba medalliakin konfesatzera juateko; konfesau ta komulgau, hillian behin, gutxienez. Ta mutillak San Luisuak, harek be medalliakin. Bai, ba, Eibarren sozialistak eta republikanuak dagoz ta...! Bueno, oin holako gauzarik ez dago hemen be ta.

- Eta mutillekin muxuak emoteko-edo ezkutu itten ziñaten edo...?

- Bai! Orduan ez euan musurik eta! Noiz ikesi dou, ba, mosuak emoten ta horrek? Horrek...

- Ez, esan nahi dotena igual mutillak etxera laguntzeko...?

- A! bai, hori kostunbria baeuan: neska-laguntzia. Erromerixia akabautakuan, neska-laguntzia. Ta norberak nahi ez baeban, ba, hanka bestekaldera ta...

6.34. Gabonetan;aza, bakailaoa eta intxaur-saltsa

- **Hizlaria(k):** Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-029/028
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:36:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Gabonetan familia elkartu eta afaria egiten zuten. Aza, bakailaoa, konpota eta intxaur-saltsa jartzen zituzten. Azken hau zer izaten zen azaltzen du. Eguneroko otorduetan babak, azak, etab. jaten zituzten.

Transkripzioa

-Gabonetan zeoze berezixa eitten zan?

-Gabonetan bai. Gabonetan beti afari... Famelixia juntau ta. Ez oingo moduko gauzak. Orduan ez euan entremesik eta. orduan azak ipintzen zian.

-Orduan ze zan janari berezixa, azia?

-Azia ta. Gbon-gabian azia, "olixo-azia" esaten jakon; gehitxuao botatzen jakon itxuria ta edarraua egoten zan. Ta gero bakaillaua ta intxaur-saltsia ta konpotia.

-Intxaur...?

-Intxaur-saltsia. Zuk ez dakizu hori zer dan eta. Gurian urtero itten da oin be, nik urtero itten dot Intxaur-saltsia. Ogixa, intxaurrak eta azukria ta kanelia. Egosi... Ta gero konpotia, sagarrak eta okan-pasak edo aillegatzen zana. Ta azkenian gure alabiak, e, "Bueno, honen gaiñian ez dou jan bihar hori" ta ba... Nere anaia Eibarren egon zan bai urte askuan biharrian ta gero ba nereana etorri zan. Ta beti azia bihar izaten eban, egunero ipintzen azia igual eta, "bueno, gaur gaberako ez dou ipini bihar, eguardixan janda dao azia". "Akabo!, joan zian gabonok, azaik be ez!". Ta karakolak be bai, karakolak be etxian batzen zien orduan eta karakolak be ipintzen zien.

-Eta egun normaletan zer?

-Egun normaletan ba goizian jaiki ta babia. Apartau babia ta babak ipini.

-Egunero?

-Egunero, jeneral, jeneral egunero. Orduan lentejia ta ez gekigun guk zer zan be ta.

-Egunero babak?

-Babak. Eta azak parian baegozen ta ordai puxketatxo bana. Gero oin kolesterola ta. Bai ba, orduan ez [...] kolesterolik be egoten, justuan jaten giñuan eta, neurrixan.

6.35. Elurretan abarkekin

- **Hizlaria(k):** Arizmendiarrrieta Ojanguren, Bernarda
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ELG-034/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- **Laburpena:** Abarkak jantzten zituzten eta elurra egindakoan gaizki ibili ohi ziren. Abarka-sokak egiten aritzen ziren. Emakumeek ezin zituzten prakak jantzi; honen inguruko pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Eta jantzita nola ibiltzen ziñaten?

-Normal. Baiña hola frakak eta ez, abarkak. Abarkak Markiñara ta abarkak, eta Bariñara be bai iñoiz ondo garbittuta abarka-galtzia ama guriak eta abarka-galtzia jantzitta. Edurra itten ebanian txarto. Hamen hainbeste edur ez dau eitten, e. Zuenetan bai?

-Bueno. Hainbeste ez.

-Hamen ez dau eitten edurrik hainbeste, hau itsaso onduan daolako.

-Ta abarka-sokaik itten ikasi zendun?

-Bai, ikasi giñuan e sokak itten eta, ama guriak sokak eitten eta galtza artulezkuak eitten eta. Oinddio be artulezkuak badaoz baiña sitsak hondatzen dittu.

-Ta emakumezkuak prakaik ez zuen jazten?

-Prakaik ez. Nik hor eon nintzanian, frakak jantzitta larrak ebatera, ta horko gizon bat eta hamen: "Harek be bajiharduk, harek be gizon usaiña jaukak prakak jantzitta. Beittu zelako prakak jantzitta." Ta [...] holakotxe despreziuak.

-Ta kastigurik elizak jartzen zuen emakumezkoren bat prakekin ibili ezker?

-Ez, ez. Ez zan ibiltzen baiña! Ez zan ibiltzen hamen prakakin iñor. Orduan dana gonia izaten zan, orduan ez zagon prakaik. Hau modia gero etorri da. Ta eskerrak etorri dan. Andrakumia beheti hozten da, edozein be bai, behetik gora hozten da personia. Prakia gauza edarra da

6.36. Gaztainak eta morokila jaten

- **Hizlaria(k):** Arizmendiarieta Ojanguren, Bernarda

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** ELG-034/006

- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:15:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Beheko sua zuten etxean eta gaztainak eta morokila nola erretzen zituzten kontatzen du.

Transkripzioa

Baiña aittitak babia ta urdaixa ta danak, harek ondo, harentzako ondo etorri zan.

-Hor esan dezu txapa izaten zala eta, beheko sua ala zer izaten zan?

-Beheko sua be bai.

-Laratza ze izaten zan?

-Gelatza hori zera? Gurian hor ez dao ipinita, hor dao beheko sua ipinita baiña ez dao gelatzik. Gelatza esaten da ba zein da ba horren atiorren

moduan zerak, [onguak?] eta goixan gantxuakin katiu, goiko gantxuakin, ta gero behian kakua, ta morokilla ta eitteko han. Ta gaztaiñak-eta erretzeko eta. Gurian be hor dago baiña gelatzik...

-Gaztaiñak erretzen zittuzuen?

-Bai, bai. Gaztaiñak katxarruan...

-Danboliña...

-Danboliñian buelta emon eta gaztaiñak.

6.37. Lantegia erre zeneko kontuak

- **Hizlaria(k):** Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref:** ELG-035/006
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:04:35
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Gogoan du lantegiak behin su hartu zuela. Orduko bizipenak. Aldamenean zegoen Etxeberri etxeak ez omen zuen kalterik izan.

Transkripzioa

-Akordatzen za zoezer graziosua-edo pasau zana han fabrian? Lan eta lan izango zan, baiña eukiko eukiko ziñuzen zeuen tartiak be.

-Su hartu egun baten, akordatzen nai. Hoixe, jota Etxebarriko etxia be ixa erre bihar eta. Ha zuan estuasuna! Sua hartu zeban.

-Eta gaiñera mueblerixia izanda errez hartu.

-Hoixe. Eta gaiñera [...] eta zeozertzuk baekezen, eta ha zan billurra! Zati edarra erre zan, e! Ez zotsan ikutu Etxebarrikuai, e! Eztakit zela ez zotsan ikutu. Etxebarriko etxia haundixa zan ba orduan, basarri haundixa. Badakik zelako korta garaua, zenbat ganau-ta! Harek zittuan irixak. Zure aitak bai, hamabi urtekin jarri han irixon aurrian eta. Ai!, ha zan [billurra].

6.38. Egea irakaslearen zigorrak; mojak

- **Hizlaria(k):** Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref:** ELG-035/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:16:50
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Sei urterekin hasi zen eskolan. Egea irakaslea gogorra zen eta lekzioa ez zekitenean atzamar puntetan jotzen zituen. Behin ama kargu hartzera joan zitzaion. 13-14 urtera arte ibili zen eskolan. Gero mojak etorri ziren; bi moja ziren irakasleak eta hirugarrena sukaldaria.

Transkripzioa

-Eskolara-eta faten ziñazen Isabel?

-Bai.

-Zenbat urtekin?

-Zenbat urtekin orduan be? Sei bat urtekin edo, maistra zar bategana.

Ejea. Ai!, harek emuten joskuazen guri makillakadak! Atzapar-puntak eta...

Hara!, inddarrik barik lagatzen joskuazen. Hola ipintzeko eskua esan eskua, bai, eta jo, ez giñuanian jakitten leziñoik edo zer. Ai!, apurtuta atzapar guztiak be lagatzen joskuazen. Bueno!, kuxaria be heldu ezindda ni joanda nago etxera, e! "Ze, ze dakan eskuan, neska?" "Ze dakaten? Maistriak jo ein dosta, eta jo dosta, gaiñera, makilliakin gogor; jo dosta". Eta gero egun baten gure amak esan ein zotsan maistra zarrai. Eta ba barkatu ezker ez dogula ezebe eitten, bai, eta emun ein bihar izaten doskula. Eskuan ez bazuan buruan emoten joskuazen. Ha zuan maistria! Benetako maistria.

-Ze leziño ikasten ziñuen?

-Orduan? Nik ez jakixat zer leziñotsuk izengo zien; antxiñako liburuak zelakuak zien be; ixa ahaztuta najaok.

-Abadiak-eta egongo zien emoten?

-Hoixe. Hiru abade baiño ez, gere denpora guztian ezautu jittuau. Hiru abade gandul-gandul pasio batian; batian Baztarrikara..., zerera, Larrabeltxora fan ziela eta atsaldia pasau zebela, eta bestian ez dakit nora fan ziela-eta; hor ibiltzen zittuan basarrik basarri.

-Iñoz entzun dogu batzuk eskolara faten ziala, baiña beste batzutan etxian be nahikua lan eta eskolara batzutan faillau eta.

-Ez. Faten giñan, faten giñan. Bai, bai. Ni eskolia akabau artian, hamahiru urte arte edo ez dakit hamalau urte arte edo.

-Hamen Elgetan?

-Bai. Monjak egon zian gero. Hortik Irundik edo etorri zian eta. Bat txikixendako, txikixauendako, eta bestia nausixauendako. Madre Benigna eta Hermana Junkal. Bestia aitzia zan.

-Bi eren?

-Bi, eta hirugarrena kozineria eken..

-Bertan jaten ziñuen?

-Haortxe. Jan? Ez. Etxera fan bihar jatera.

-Zeuana jatera.

-Hoixe. Babak eta urdai zatitxo bat jan eta kalera. Aide. Orduan jaten beste ezer.

6.39. Elgetako eskolak; Domingo Iturbek emondako diruarekin eraikitako eskola

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-039/004
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:02:27. **Bukatu**: 00:04:44
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Eskolan Elgetan ibili zen. Bost urte zituela Elena izeneko maistra izan zuten eta gero fraideak: Heraclio eta Emiliano. Eskola pribatukoak ziren. Elgetan lehenengo "Hermanos de doctrinas

Cristianas"-ekoak egon ziren eta gero Eskoriatzan zentroa zuten batzuk. Hiru fraide elkarrekin bizi ziren eta emakume bat zuten etxean laguntzeko. Domingo Iturbe elgetarra Ameriketara joan, han irabazitako dirua eman, fraideak ekarri eta eskola eraiki zuten. Juanek eskola horretan ikasi zuen.

Transkripzioa

- Hogeta bixan jaio ziñan. Eskolan nun ibili ziñan zu?
- Elgetan, Elgetan bertan.
- Goguan daukozu maisuan izenik-edo.
- Bueno lehelengo zan maestra bat Elena, bost urtekin sartu nintzanian, Elena maestria.
- Elena maistriakin hasi...
- Bai. Ta gero frailliak zien. Nik izenak esango dotsut: Heraclio bat, beste bat Emiliano.
- Frailliak Heraclio.
- Bai eta bestia...
- Emiliano?
- Emiliano.
- Eta, baiña zer zan, ze eskola klase zan? Karo hori republika garaixan izango zan ezta? Zer ziren eskola nazionalak edo fraillien eskolak ziren?
- Ez, ez, horrek pribauak zien.
- Pribauak?
- Lehelengo egon zien "Hermanos de Doctrinas Cristianas" ta horrek ziren Eskoriatzan-edo daukie eron zentrua, etxia, zera hori, konbentua. Eskoriatzakuak.
- Eskoriatzakuak, e?
- Bai. Eskoriatzan zeken zentrua. Ez dakit zelan zan haren zer hori. Lehelengo lehelengo etorri zienak "Hermanos de Doctrinas Cristianas" zien, ta gero...
- Horrek ziran Eskoriatzan zentrua eukiñak?
- Ez , bestiak bestiak. Zelan zien harek? Bueno, gu hor gagozela fraille sotanakin etorri ziren eta gero sotana laga eta paisano ibiltzen ziren baiña eitten zebe fraille bizimodua eren etxian, hortxe dao etxe bat.
- Mezie-eta emoten eben edo?
- Ez, mezia ez, mezaik ez zebe emoten. Baiña egunero joaten ziran komunioa hartzera. Gu egunero joaten giñan mezetara eta eurek joaten zien gure jauna hartzera eta fraillen bizimodua eitten zebe. Erak bizi zien, han zegozen hiru, hiru frailliak alkarrekin, emakume bat eukitzen zebe igual sukalde sukalde-lanak eitteko ta hola.
- Eta honek ziran, honek Heraclio eta Emiliano ziran "Hermanos de Doctrinas Cristiana"-kuak?
- Ez, ez.
- A, horrek barrixak.
- Bai.
- Horrek geruaukuak.
- Bai. Ni harekin ez nintzan ibilli. Harekin ez nintzan ibilli.
- "Hermanos" horrekin ez ziran ibilli?
- Ez. Hemen, hortxe dao etxe bat, Domingo Iturbe zan hori, hementxe, hortxe, Tellerian baserrira fan bihar dozula esan ziñuan ba, horkoxe semia pentsatzen dot zala. Fan zan Ameriketara eta diru batzuk in zittuan eta in zittuan donau, donaziño bat in zeban harek diruakin Elgetako eskolari, eskola-etxe barri bat eiñ, frailliak ekarri eta in zittuan.
- Domingo Iturbe.
- Bai, Domingo Iturbe, "el bienhechor de Elgeta".

- Eta horrek einddako eskolan ibilli ziñan zu?
- Bai.

6.40. Eguneroko jatordua

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/030
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:36:39. **Bukatu:** 00:37:49
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Sasoi hartan ohiko jatordu bat zen aipatzen du: esnea taloarekin, babak urdaiarekin, porru patatak, sagarrak... Okela jaiegunetan jaten zuten, hala ere gutxi. Gerra aurretik zein ostean antzera jaten zela dio.

Transkripzioa

- Ze jatordu klase edo ze janari klase eukitzen zeuein egunero?
- Goizian esnia artuakin edo taluakin edo ogixakin. Hori beti. Gero eguardixan babak urdaixakin, da gabian porru-patatak edo leka-patatak edo lokesea, eta esnia gaiñian sagar batzuk, zaozenian sagarrak jan eta aurrera.
- Okelaik eta gutxi, ezta?
- Okelia... Jai egunetan, eta bertan be gutxi.
- Jaiegunetan garbantzuakin edo?
- Garbantzuakin.
- Eta zuk uste dozu gerra aurretik hobeto jaten zebela ostian baiño ala antzera?
- Ez. Bueno, gerra oste-ostian lelengo urtetan lengo moduan. Gero hasi zan mejoratzen. Baiña gerra aurretik eta gerra ostian urte morduan, ze esango dot ba. Hau liberau zan el treintaynueve, ez, hasta el cuarenta y tres o cuarenta y cuatro edo lengo moduan hamen, eta gero hasi zan mejoratzen, okelia gehixao ta ba janak, enfin, diferentia eta.
- Baiña edozein modutan gerra aurretik be menua antzerakua.
- Bai, bai, iguala.

6.41. Abadea konjuruak egiten

- **Hizlaria(k):** Basauri Larrañaga, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-059/030
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:07:14. **Bukatu:** 01:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Abadea konjuruak egitera etortzen zenean, lan askorik hartu gabe, etxeko arrautza eta gaztarik onenak eramaten omen zituen.

Transkripzioa

-Eta abadia etortzen zan, konjurua esaten jakon. Eta nundik itten eban? Hemen etxia ta hortxe. Gure amak harendako arrautzaik onenak ta gaztairik onenak. Ha etorten zan abadia, harek berak ez eban eruaten pisuik porsiakaso be, albuak eruaten eban pixuak eruatekua.

-Monagillua.

-Monagillua edo ez dakit zein izaen zan.

-Konjurua eitra abadia monagilluakin joaten zan.

-Bai bai.

-Klaro, monagillua eruaten eben gero gauzak ekartzeko.

-Bai ba. Harek zestua eruaten eban, eta zestora emoten otsan gure amak be, beste batzuk be ze ingo otsen ez dakit, arrautzaik onenak, ta beste gaztai bat be apartauta onena.

-Konjurua eitteatik.

-Bai.

-Eta konjurua eittera orduan sootara ta ez zan joaten.

-Bai zera. Etxe ondolik. Eta ur bedeinkatua bihar izaten zala, ur bedeinkatui ez baeuan txorrotik hartu ta "fir-fri-fri!" ta "ya esta". Horrek egixak dia, e!

-Bai, baiña txorrotik hartutakua bedeinkatu ingo eban, ezta?

-Bai, zeñek? Asike...

7. Politika

7.1. Aita eta politika

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/032
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:53:40. **Bukatu:** 00:54:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
 - Politika » Politika eta Franco
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Aita eta politika. Abertzalea zen. Gerraostean, karlistek agintzen zuten herrian, eta zigorra ezarri zioten.

Transkripzioa

- Aittak esan dozu periodikua hartze zabala ta... anaiana, edo lehengusuren batena.

- Bai, ba, ba, bai. Ta muy poli, politikitua zan aitta e.

- Zer zan?

- Politikitua zan aitta.

- Bai?

- Bai, bai. PNVkua zan aitta. Klaro, orduan besteik ez zauan eon be. Orduan ez zeuen Herri Batasunekoik ta ez zeuan enredorik ezebe. Orduan zeuan...

- Gauza bat.

- Gauza bat. Ta haixe zan bera, Euskadi maittia, bai.

- Karlistak eta hemen Elgetan bazeren?

- Askok. Gerra, gerria pasau zanian ta, karlistak ainddu eben hemen. Gerria pasau zanian amenazo haundixa euki zeuben. Gure gurasuak, nere gurasuak, nere aitta ibilli zan eztakit zenbat, hilabete terdixan edo ibili zan

duan, debalde lanian, erain zotsen kastigua. Kastigua euki zeban, bai. Eta derezen hemen e horma danak eta jausitta eta etxe danak apurtuta ta, bide danak apurtuta ta, dana bonbardeauta zeuan bai, ta harek e alanbradak batu ta, etxia konpondu ta eitten debalde ibili zan. Nere aitta zahar-zahar-zahar eindda geldittu zan e disgustuakin. Beti lagunak izen zianak gero karlistak zielako despreziuak eta eitten otsen. Ta bera ei zan fiña, formala...

7.2. Gerraostean Elgetara itzulera

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/034
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:55:06. **Bukatu:** 00:55:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Gerraostean Bizkaitik etorri eta baserrira sartzen ez zieten uzten. Herriko karlista ezagun batek lagundu zien.

Transkripzioa

- Ta bera karlistia zan, e? Bai, baina gaitzizena Judas zeukan izena, Judas esate otsen gaitzena. Ta guretako izen zan...
- Oena.
- Guretako izen zan onena. Etorri giñan Bizkaittik ganauekin ta hortxe baserrixan sartu giñazen. Ez zoskuen geure etxera faten lagatzen ta. Eta honetxen aittittak etorri herrira ta esplikaziñua emon zotsen. Aber gizona etorri bere ganauekin herrira ta bere etxian sartzen laga ez? Aber hori zer da! Eta bueno ba, fateko. Ta hortxe, horretxen etxian hiru egun edo in giñuzen eta geure baserrira pasau giñazen, bai.

7.3. Aita eta politika

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-003/035
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:55:46. **Bukatu:** 00:58:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Irisarri, Estitxu
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Aita eta politika. Gerraostean, Pazko Egun batean irratitik "Gora Euskadi Askatuta" entzun zuen.

Transkripzioa

- Dana dala, ez zan e normala izango orduan, ez? Basarriko gizonak e ba irakurtzen jakitzia...
- Bai...
- Periodikua erostia...

- Ez zan normala e...

- [...]

- Bai, esateotzut ba, gure aitta e prosperotxua zan, era prosperotxo. Ta entendidua zan, e holan politikan da entendidua zan. Ni neu, ezebe ez nekixen, nik biharra ta biharra ta biharra ein dot. Oin bai, aittenai jarraitu dotsat, ezta, baiña, ni nik ez dot euki holan entusiasmoik ezetako e, nik biharra ein dot, "latigo" ta "latigo", hoixe, bizimodua etaratzen. Baiña nere aitta bai e, nik akordatzan nai ordurako e gerraostia zan, ta honek zerezen aintzen ta Donostia ta horrek danok bakixu, e danak e kontrarixuak, ezta? Eta Pazko Egun baten radixua ifinita zeuan eta ba orduan dana e zan Francon gauzak eta radixua, da! gelditzen da eta esaten dau "Gora Euskadi Askatuta!" radixuak. Donostian in zebe e bai kabliak bai eta bota zebe hoixe ta dra! atzera laga ta kitto. Da aitta tente-tente zeuan armaixo onduan entzutzen sukaldian bai, ta entzun dau bai, ta eundoko near malkuak urten dotse "Ene ba! Oindiok batzu-batzuk bizi dittuk eta!"

- [...]

- Hauxe da gizona.

- Bai...

- Ezautzen dozu ezta?

- Bai. Esaten genduan hori aitta espeziala zala...

- Bai, bai.

- Zuk e Uberan eskolara jua eta karteruari hartzen zetsazunian periodikua ta...

- Bai, bai. Periodikua "Euzkadi".

- Inguruko umiek eta ba, zeoze esaten zetsuen ero? Ze da hori edo...

- Ez, ez, ez, keba.

- Arrarua ez jakuen eitten?

- Ez, ez, ez, ez, ez. Iñok ez zoskun sekula ezer esan. Baiña periodikua... Nik oindiok ikusten naio orduko periodikua, nahixo neuke ointxe bat ikusiko baneu! Orduko periodikua, Euzkadi. E, haundi-haundi-haundixa zan baltza e lelelengoko euskadi. Si, etortzen zana portadan, si...

- Aitta esan dozu oso abertzalia zala...

- Oso abertzalia zan aitta, oso zan abertzalia. Era abertzale... era... Esan dotsut ba, "Gora Euskadi Askatuta!" bota zebe Donostiatik radixuan e ta radixua ifinita zeuen eguadiako ordu bata edo bazkaltzeko ordua ero holaxen zan. Ta Donostiatik dana debekatuta zeuanian e ta in zebe, esaten zebe gero kortau in zebela e radixua, kortau bai ta hori bota ta atzera tak in zebe. Ta hoixe bakarrik esan zebe "Gora Euskadi Askatuta!", Pazko Eguna zan, Pazko Eguna zan. Si, ta aittai jota negar tantak be urten otsan "ze esan jok horrek?" esanda, "ze esan jok, oindio batzu-batzuk bizi dittuk!" Bai, eske ez zeuan ba berbaik be eitteik, ni palabra, ez zeuan berbaik eitteik!

7.4. Miren Lorea Errepublikako sasoiko euskal izena

- **Hizlaria(k):** Billar Altzuaran, Miren Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-007/001
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

- **Laburpena:** Miren Lorea Billar Arzuaran, 1931-12-02 jaioa. Izen horrekin bataiatu zuten, euskal izenarekin; Errepublika sasoia zen. Gerra garaian, oster, arazoak izan zituen, eta Maria Floren jarri nahi izan zioten. "Martintxoneko" tabernakoek esanda jarri zioten izen hori.

Transkripzioa

- Hasteko, izena eta apelliduak eta noiz jaixo ziñan esango destazu?
- Ni Miren Lorea Billar Alzuaran.
- Eta jaixo?
- Jaixo en mil novecientos treinta.
- Eta ze egunetan?
- Edo... Treinta y uno.
- Senarra: Treinta y uno.
- Treinta y uno. Dos de diciembre del treinta y uno. Bai.
- Eta izena holan ipini zetsuen?
- Bai.
- Miren Lorea?
- Bai, Miren Lorea, bai.
- Senarra: Orduan, e?
- Bai.
- Normala zan orduan...?
- Ez zan normala. Ez zan normala, baiña ipini in osten neri... normala. Ta gero, karo, gerria... denporan, ba, kanbixatzeko zera, eta ez neban nik kanbixau, ez osten zertu.
- Ez, e?
- Ez.
- Eta laga zetsuen mantentzen, [gordetzen], zure izena?
- Bueno! Kostata, e! Eta gero hemen parroko bat egon zan eta hori izenoi, karo, gerra zerian, ba, Franco-n denporan ezin zeikiela ta "María Floren" zerian. Eta ni ezkondu nitzanian be, ba, [elistak] ixaten zian orduan. Elistak zian zerak... zelan esaten da? Ezkondu bihar diran aurrian "programaciones" edo zelan esaten dia?
- Ze ein bihar izaten zan?
- Ba, elixatik aber iñok baekan aurretik inpedimentuik edo zertzeko, hoixe zertzeko elixa zerian. Eta ezkondu bihar nitzanian, hori [zertzera], "María Floren" deittu ostan. Eta fan eta esan notsan ni ez nitzala "María Floren", e? Eta, gaiñera, elixan be euan "Miren Lorea" eta aiuntamentuan be "Miren Lorea" euan zerian. Bai.
- Klaro, eske, orduan, zu justo republikan...
- Bai, ba. Bai, ba. Bost urte neukazen-ta republikako denporan ta.
- Jaixo ziñanian, baiña ez? Justo republikia orduan [einda]...
- Bai. Bai, ba.
- Eta hamen inguruan euskal izenik-eta besteren bat...?
- Ba, ez euan; Miren Loreaik ez euan orduan, e? Eta zan hementxe Martintxonekua esaten jakona zerian. Ba, ni jaixo nitzanian ni basarrixan jaixo nitzan, Egotxian jaixo nitzan, Egotxia basarrixan, eta aittittai, nire aittittai, esan otsen: "Lorenzo, ze euki dozue, ba?" —ba, hor eukitzen eben zera, ta—, "Neska txikixa", "Ze izen ipini bihar dotsazue?" ta "Ez jakiñat nik ze izen ipiniko dotsen be! Nik ez jakiñat". Eta batek horkuak esan otsan: "Ba, neuk ipiniko dotsut, Lorenzo, zer izen ipini: Miren Lorea", ta "Neri hori papelian apuntauta ipini! —esan otsan aittittak— Papelian apuntauta", ta "Bueno, ipiniko dotsut". Ta papelian apuntau ta "Miren Lorea" ipini osten zerian. Ta bakarra; ez euan orduan, e? Bakarra zerian. Baiña... bueno! Horrekin euki nittuan zer gogorak, e?
- Ta, orduan, kasualidadez ipini zetsuen izena?

- Bai, bai, kasualidadez, ba! Baiña bueno... hemenguak euskaldun zerak zian, e, Martintxonekuak? Bueno! Harek zian lehengo nazionalista berdaderuak zerian, esaten dana, lehengo nazionalista zerak. Eta, orduan... gero be nik beti Miren Lorea. Ta kolegixuan egon nitzanian be "Miren Lorea" firmatzen neban eta, zerian, "entre paréntesis", "Mari Flor" ipini bihar izaten neban.

7.5. Elgetako mojen eskola

- **Hizlaria(k)**: Billar Altzuaran, Miren Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-007/005
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:06:20. **Bukatu**: 00:11:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Euskara eta politika
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan Durangon egon zen, baina lehenengo Elgetan, mojetan. Hijas de la Unión Apostólica. Gerraostean etorri ziren, eta gaur egun Kafe Antzokia dagoen tokian zen ikastetxea. Fraideen eskola ere bazen, Marianistena ("Papar zurixak"). Horiek gerrarako joan egin ziren, eta gerraostean, mutikoentzat, eskola nazionala bakarrik geratu zen. Orduan, sei urterekin hasten zen eskolan. Baserritik 45 minutuko bidea zuten; eskolan erdara hutsean, eta beraiek tutik ere ez. Eskolan sartu orduko Cara al Sol abestu behar izaten zen, eta gero errezatu. Baserritik abarkak bustita heltzen ziren, eta kalean aldatzen zituzten oinetakoak; bazkaltzeko ere etxeetan geratzen ziren, herrian bertan. Eskolarako bidea milizianoek gerratean utzitako kapote batzuekin egiten zuten, ez bustitzeko.

Transkripzioa

- Eta oin zenden esaten eskola kontuak eta...
- A, bai...
- Eskolarik bazeuan Elgetan? Nun zeuan eskolia?
- Hortxe, zera... oin zera dauan lekuan, Kafe Antzokia dauan lekuan. Guk mojak hor geunkazen. Mojak. Eta gu hor ibili giñan zerian, eskolan, mojekin.
- Eta ze zeuan...?
- Behian... Goixan eren mojak eta behian euan beste eskola txiki bat nazionala. Bi zer eren: han behetik zertu eta gu goittik sartzen giñan. Mojena goixan zan eta bertan euen mojak be bertan, gaiñera, bertan bizi zian.
- Bai?
- Bai. Hiru egoten zian, "Hijas de la unión apostólica". Bai. Irunguak zian. Irunguak zian horrek, bai.
- Eta horrek noiz etorri ziran Elgetara?
- Horrek etorri zian, ba, bueno... horrek gu etorri aur... zerian, ba, gerriak urten ta laster etorriko... Oi, gerria zertu ta laster etorriko zian horrek. Ze gure aurrekuak be ibilitta eren, ba, honek... oin hirurogeta hemezortzi urte daukezenak eta be mojekin ibilitta eren ta horrek zerian. Horrek, ba, ez dakit nik, urtiak ez dot... ezin neike...

- Baiña gerra aurrian, republikan eta be bai?

- Ez, ez, ez, gero, gero, gero. Atzetik.

- Justo hortxe gerra...

- Bai, gerra atzetik horrek egon zian.

- Eta gerra aurrian? Bazeren... fraillarik edo...?

- Frailliak hemen aurrian. Frailliak, zerak, honek, marianistak, papar-zurixak. Guk papar-zurixak esaten gontsen.

- Paper...?

- Papar... paparra. Holan euken zera. Bai. Marianistak. Orduan marianistak eren.

- Eta nun? Bertan?

- Hamentxe. Hau zerau badao, ba, hori eskola zeroi? Hori Domingo Iturben hori eskola haundixoi? Hortxe. Hortxe bizi zian frailliak. Ta gerra-denporan ta hor egon zian. Edo... harek gerra-denporan hor eren, hor egon zian.

- Eta gero jua?

- Gero harek fan ein zian.

- Zuen sasoian ya [ez zeren]?

- Bai, bai. Gure sasoia baiño lehentxuao jua zian harek zerian, ta gero maisuak egoten zian.

- Nazionalekuak?

- Bai, nazionalekuak, maisuak egoten zian.

- Orduan, mutikuak ya, zuen denporan ya mutikuak ez zeken nazionalera...

- Nazionala, bai, nazionala.

- Neskak monjetara...

- Neskak mojetarata, mutillak nazional... Ta neskak be baeuken behian, baeuken maistra bat nazionala zerian, harek zertzeko.

- Ta orduan zenbat urtekin hasten zan eskolara?

- Sei urtekin gu hasi giñan.

- Sei urtekin?

- Sei urtekin. Karo, basarrittik, hiru ordu-laren [hemendik] gure basarrira. Ta gu sei urtekin... Orduan sei urtekin hasten zan.

- Lehenau ez?

- Ez. Orduan ez, sei urtekin hasten zan.

- Eta akordatzen jatzu lehelengo eguna edo hasi ziñanian?

- Bueno! Bueno! Lehelengo eguna akordau? Ba, zer asko zerian. Eske gu handik basarrittik, ba, etorri giñan horra ta guk ez genk... Gaiñera, erderaz. Ta guk erderaz ez genkiun. Ta dana erderaz. Dotriña erderaz ikasi giñuan, zer dan-dan-dana erderaz ikasi giñuan guk. Eta mojak erderaz eitten eben, e? Harek euskeraz ez eben eitten berbaik be. Dana erderaz. Bai. Ta lehelengo eskolan sartzen giñanian "Cara al sol" kantau bihar izaten giñuan. Holako Franco-n zer haundi bat genkan ta hari begira jarri ta eskua altzau ta "Cara al sol" kantau bihar izaten giñuan. Eta gero errezau. Eta gero, ba, bakotxak bere zerak eukazen, bankuak geunkazen, eta han bakotxa bere zerekin zerian. Ta neguan ta gogorra ixa... Ta gero bazkaldu, ba, eitten giñuan kalia; hemen, edo Martintxonian edo tiak eukezenak-eta, ba... Ta beste batzuk bazkaixa etxetik ekarten eben. Ta, ba, jaten eben, holan, egoten zian mezetara-ta etorten giñanian be etxiak hartuta eukitzen giñuzen guk aldatzeko, ze busti eitten zan zerian ta oiñetakuak aldatu-ta eitteko, ta batzuk, ba, han jaten eben. Etxetik ekarri ta han jaten eben. Eta guk...

- Orduan, basarrittik zapata batzuekin, oiñetako batzuekin, etorri...

- Abarkekin. Abarkekin. Bai. Ta etxetik urten orduko abarkekin bustitta. Eta guk geunkazen... Bueno, nik... Gu han auzuan neskaik bakarrik nenguan, ta bost mutillekin etorten nitzan ni zerian.

- Ondo zainduta...

- Bai, hoixe ondo zaindduta! Ta zerian, gerra-denporan, milizianuak,

soldauak, milizianuak guk esaten gontsen, ta kapak laga zittuen zerak. Kapa haundixak laga zittuen, ba, erretiradia-edo emon otsenian, ba, hortik goittik behera fan zian eta basarritan laga zittuen kapak. Ta harekin ein oskuezen guri kapak zerian, kapotiak. Bere txanuakin ta, holan eskuak etara eta kapotia. Eta harekin etorten giñan. Orduan ez euan aterkiñik eta ez euan ezebe. Ta dana kalera orduko, ba, bustitta; neguan-ta bustitta etorten giñan. Ta gero, ba, aldatu eitten giñan zerian, abarkak eta danak, eta gero, ba, beste zer batzuk jazten giñuzen.

- Kaleko oiñetakuak?

- Oiñetakuak, bai. Eta nik... hamaika urtera arte ibili nitzan hemen.

7.6. Milizianoak egon ziren eurenean

- **Hizlaria(k):** Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-010/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** 7 urte zituen gerra hasi zenean. Milizianoek baserriak hartzen zituzten kuartel moduan. Beraien etxean, bi anaia, gurasoak eta aitona-amonak bakarrik bizi zirenez, kuartela jarri zuten.

Transkripzioa

-Zeuen auzuakin jarraitzen, asko aldatu da? Zeu jaixo ziñanetik-eta...

-Eneee! Jeseus mutil. [...] Behiñ gerra denporia ezkerro; zazpi urte nekazen nik gerra-denporan; veintinuevetik. Treintaiseisian sortu zuan gerria, el dieciocho de julio del treinta y seis. Urten juan gerria. Eta ... zazpi urte. Eta [...] gerrakuak bastante, bastante akordau. ... Egoten zittuan soldauak, milizianuak, soldauak, mutill gaztiak. Gurian eta ostiengo etxetan be bai. Kuartel moduan. Jente asko euan lekuan-eta gutxiao egoten zittuan orduan, baiña. Jentia gutxi egon zan etxetan lekua be gehitxuo egoten zuan-eta. Gure bestekuan be bajeuan lekua ugari, baiña familixa haundixa jauazen han, eta familixa haundixetan badakik zer pasatzen dan, [dirua] gutxi. Mutiko bi bakarrik jauazen, eta aitta eta ama, eta aittita eta amama. Egoten zuan kuartel moduan guria. Egoten zittuan zortzi-hamar bat mutil. Famelixia egoten zuan ganbaran.

7.7. Auzoko baserrikoa hil zuten gerra denboran

- **Hizlaria(k):** Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-010/012
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

- **Laburpena:** Gerra denborako kontuak. Soldadu batzuek punteria probatzearen hil zuten auzoko bat. Emaztea lau seme-alabarekin geratu zen.

Transkripzioa

-Gerra ostian oso neurtuta egongo zan hori guztioi, ezta?
 -Gerra denporan txartuen. Zera ein juen, prezintau ein juen. Beti egoten dok nunbaitten aintzen dabena hemen, eta orduan be bajauazen. Gure bestekuan jauazen lau neska-mutil. Gizona hil juen baliakin, Itturittatik goittik behera. Soldauak, mutillak, eta sasoia edarra-ta. Zezia basarrixa behian daok, bestia goixan daok. Laurehun metro distantzia daok; baiña behian, bestia goixan, Etzetik Itturittan, hemen Itturri, basarritan ba, bidia, hormia, horma zahar bat. Horman... goittik bera, eta klaro. Egunez ezin zeikien urten iñora [ganajatekotara]. Munapetik eta zera. Egunez urten ezkerro hamendik joten juen gogor, Asentziotik, Partaitti gaiña, hau gaiñ hau. Hor jauan frentia ba, hortik jota ebaten giñuazen, dios! Eta ezkutuan jarritta, ha gordetzen, ha gordetzen, muna zar baten ieteixakin bedarra ebaten ganauentzako zeoze, gizona. [...] Pentsau bai, baiña hau (burua) gora, eta goittik mutillak, apunterixia: "aprobauko juau zer...", soldauak, mutillak. Dale!, eta zast!, eta blast! Holaxe hil zuan. Geratu zuan ha andria geratu zuan lau umekin, neska bi eta mutill bi. Oiñ hiru bizi dittuk; bat hil zuan, ni baiño urtebete gaztiaua, Iñazi, hil zuan, Eibarren bizi zuan eta hil zuan. Eta harek, ume txikixa, txikiña, neskatua, Benedicta, Elgetan bizi dok. Mutillak etorri zittuan hemenguak Elgetatik; ezaunak gaiñera, e, dios! Errotia zerratzer, prezintatzer. "Eta guk honei umioi ze ein biha dotseu ba, guk honei umioi ze ein bihou errotia itxitta?" "Horrekin pastelak eiñ!", hoixe kontestau otsan. "Horrekin pastelak eiñ!". Hori berbioi, dios! Mutikuak giñuazen, baiña... hori berbioi esan ein bihar da, e? Beti be lapurretan-eta, gabaz-eta. Ahal zan moduan. Eneee! Zenbat holako ibillera triste.

7.8. Etxea batzokia zegoen lekuan zutelako jarri zioten izen euskalduna

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/003
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:03:18. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
 Euskara » Euskararen egoera
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Bera jaio aurretik batzokia zegoen euren etxean eta horregatik jarri zioten izen euskalduna: Miren Arantzazu. Gerra garaian aldatu egin zioten. Gerra garaian abadeek ere sermoiak gaztelaniaz egin behar izaten zituzten eta inork ez zuen ulertzen.

Transkripzioa

-Esaten dozu zeuen etxian bertan batzokixa egon zala.
 -Ni jaio nintzanian batzokixa. Horregaittik daukat nik euskerazko izena. Gurian beste iñok ez dauka euskerazko izenik. Gerokuak ez dauke. Ni

nausiña nitzan eta Miren Arantza nekan nik izena. Eta gero Francon denporan ez euan Mirenik, ez zan ametitzen. Gero Maria Aranzazu. Eta oin daukat medikuanian Miren Arantza. Medikua zela dan, e... bueno. Leku batzutan Maria Aranzazu, beste batzutan Miren Arantza. Nire jatorrixa zan hola, Miren Arantzazu zan. Gero kanbixau-ben. Zelan gerra-denporan ez euan euskeraik eitterik be ez. Sermoiak be danak erderaz. Ni akordatzen naiz abade bi gazte-gaztiak, eta harek abertzale gogorak zien, e; aillegau astesantua, erderaz ein bihar sermoia. Erderaz zeñek ete ekixen orduan? Ezebez. Hogeittik batek be ez formal. Formal? Berba batzuk entendidu. Kulpittora juan eta Eguen Santu eguna eta Bariku Santu eguna, eta erderaz sermoia. Eta dana euskalduna elixan. Fan eta dana erderaz erreza bihar. Ikasi giñuan bai ondo erderaz errezatzen. Asi eske ondo dakigu. Latiñez, euskeraz eta erderaz, hirurak ondo ikasi giñuzen.

7.9. Espartero eta Marotoren besarkada Elgetan

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena:** Espartero eta Marotoren besarkada Elgetako lurretan izan omen zen. Hala ere, Bergaran zeuden epaitegiak eta "Bergarako besarkada" deitu zioten. Aitona mutikoa zen karlistada garaian eta kutxan gordeta egon zen ez harrapatzeko.

Transkripzioa

-Orduan behin baiño gehixaotan pasau zebeu hau, gerra zibillian-eta?
-Bueno, hemen rapapolbua. Karlistak be bai, karlisten denporan, zuk jakingo dozu, "Espartero y Maroto y ésos". Horrena ez zan ixen Bergaran, "El Abrazo de Bergara no fue en Bergara". Ixen zan hortxe mendixan, hor bestekaldian, hortxe, hortxe. Hortxe, hortxe bestekaldian. Zu Elorrixora bazoiaz ba, Elorrixora bazoiaz eta han ifintzen dau ba Bizkaia. Haintxe, haintxe gaiñekaldian, kamiñuan gaiñekaldian.
-Eta horrek izenen bat dauka?
-Horrek Kurutzebarri. Guk Kurutzebarri esaten dotsau. Ez dakit zegaittik, baiña guk Kurutzebarri. Baiña Elgetak zelan ez eukan, orduan denporan zelan ez eukan, zer esangot ba nik, aiuntamentu zerik, jente gutxi zelan bizi zan, eta juzgauak eta danak ordurako, itxuria, Bergan eren, eta, klaro, ifiñi eben "El Abrazo de Bergara", "pero el abrazo fue ahí". Aittajunak esandakua. Eta aittajunak, nere aittajunak ikusittakua. Aittajuna, harrapau ez deixen, kutxan egon zan gordeta. Mutiko-mutikua ei zan. Mutiko-mutiko-mutikua nere aittajuna. Kutxan. Kutxia badakizu ze dan: "granero". Eta kutxan egon ziela umiak soldauak, etorri zienian soldauak. Aittajunak ikusi ebala hor egon zala. "El Abrazo de Bergara fue en Elgeta, no en Bergara". Baiña, klaro, gero Bergara juan zan zeragaittik, oseake Bergak titularidade gehixao eukalako. Titularidade gehixao eukalako Bergara juan zan.

7.10. Gerra karlistako anekdota

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- **Laburpena:** Karlistada garaian tropa bat behean eta bestea goian, "Gentilen pasealekua" deritzon egon ziren. Pasealeku horrek mendiari buelta osoa ematen dio. Soldaduak hantxe bueltara ibili ziren behekoek izugarritzko tropa zirela pentsa zezaten.

Transkripzioa

-Hor goixan dago Jentillen Pasialekua, esaten dotsau; geure basuan dago erdixa inguru; erdixa ez, hirutik bat inguru-edo egongo da. Horrek basuorrek buelta guztian dauka bidia halan eindda, oiñ asko galdu eiñ da. Honek mendixonek, hau Goiko Mendi da, eta halan buelta guztian dauka eindda, eta han buelta guztian zerak, tropak ibilli zian bueltara. Badakizu zegaittik? Bestiak erezen zerian, esto... han Eroskik badaukaz ba oiñ almazenak-eta, San Agustin, San Agustiñen, Elorrixon Eroskik almazenak eta badaukaz ba, hantxe erezen beste tropak. Eta bestiak erezen hemen, hemen erezen bestiak. Eta, klaro, handik hau katalajuekin ondo ikusten da hori mendixoi, eta hortik be bai ha. Eta klaro, hor jentillen bueltalekua eindda dago, eta hor tropak pasau eta pasau eta pasau eta pasau, hango zerak pentsau daixen ba kristona dauela. Eta ezebez, konpañia bat bueltara. Pentsaizu zelako gauzak dian. Baiña hor dao Jentillen Pasialekua, hori hor dao. Klaro, oiñ momentuan dao zerakin, borrau eiñ da asko, beste gauza asko borrau dian moduan. Ezta?, gerrate-historiak be borrau eiñ dia-eta.

-Eta Jentillen Pasialeku hau karlistaden sasoikua da?

-Bai, karlistak-eta. Ez, karlistak handikaldekuak ixengo ziela uste dot. Bai, entre Maroto y Espartero egon zanian. Hortxe egon zan zeroi.

7.11. Gerra garaian jenero ugari kendu zieten; errazionamendua

- **Hizlaria(k):** Atorrasagasti Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-018/008
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Artoa, garia... denetarik izaten zuten etxean. 15 urte zituenean hasi zen Gerra Zibila. Gerra garaian, jenero asko kendu zieten; besteak beste, ganbaran zituzten 700 kilo patata eta zuten baba guztia. Estraperloa. Errazionamendua. Frontea izan zuten bertan; eta

Asentzio inguruan pasatzean, kontuz ibili behar izaten zen tiroek ez jotzeko.

Transkripzioa

- Artua be bazeukazuen basarrixan?
- Artua, garixa, dana [ganauendako janarixa...]
- Uruna-eta etxian eitten zenduen?
- Ez. Urunetara fan ein bihar izeten giñan errotara. Gero aillegau zan gerria...
- Zenbat urte zeneukan?
- Hamabost urte. Gerria. Ez zoskuen lagatzen, eruaten oskuzen jenero danak, danak, e. Patatia be ganbarara jaso, hainbeste kostatako patata-sail pillia, zazpirehun kilo patata ganbaran kargau, zera, kamioia, eta eruan oskuzen. [...]. Hartu giñuzen baba guztiak be bai. Garixa be gorde giñualako. Estraperluan ein bihar izaten giñuan uruna, gabian. Ostian ba fan bihar izeten zan plazara, erak emoten dabenan billa. Emoten eben, zuk ez dakizu zelakua dan be eta, artua, urunik onenak kendu eta einddakua. Asentzio badakizu nun dauen? Eibartarra izenda ez dakitzu Asentzio nun dauen Elgetan?
- Ez.
- Hor Mondrauera bidian dao Asentzio.
- Pasau naiz, baiña...
- Bai. Oin ahaztu jata zer esan bihar naban. Frentia euan hor Asentzion, eta gu fan bihar izeten giñan zeretik, hemendik kalera, artua edo ogixa edo zeozer emoten baeben; intendentzia egoten zan eta intendentzian emoten eben hori jeneruoi. Haretxen eske. Fan bihar izeten zan muna baztarretik-muna baztarretik, Asentziotik ezpazotsuen harrapau tiruekin. Bai, esaten dotsudana, gabaz ekarri bihar izeten zan jeneruoi. Uruna gabaz. Oin, billur galantakin harrapauko baziñuazen.
- Gosia pasau ziñuan gerran?
- Bai. Gosiak... Zeozer jaten giñuan, baiña gosia pasatzeko modua, zela ez zoskuen ezer zertzen. Gero emoten zien zerak. Etxiak ifinita eukitzen zittuen astian behin edo, jenerua emuten eben; kilo bat azukar edo gatza edo, zeozer. Zeozer, gauza haundirik ez. Faten baziñan dozena bi arrautzakin-edo intendentziara...
- Ze da hori?
- Intendentzia zan, gerra, gerrarako etxe bat ifinita euken hemen, eta emoten eben gura ziñuan beste jenero, zeuk eruan ahala, arrautzak eruanda noberak. Eta bestela ezebez.
- Bazeunkazuen arrautzak, ala?
- Bai, guk bageunkazen, baiña ez daukazenak... Guk oilluak genkazen eta bagenkazen, baiña...

7.12. Intxortako frontea; 18 urtetik gorakoak gerrara

- **Hizlaria(k)**: Atorrasagasti Arana, Sebastianana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-018/009
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Frontea Intxorta inguruan zegoen eta frankistak zeuden bertan. Milizianoak Elgeta partean zeuden eta jateko bila ibiltzen ziren etxerik etxe. Frankistek Elgeta hartu zutenean 18 urtetik gorako guztiak gerrara eraman zituzten, baita bere senarra ere. Senarrak lau urte egin zituen gerran, eta haren anaiak zazpi.

Transkripzioa

-Milizianua, soldauak, hemendikaldetik erenak. Eske frentia euan Intxortatik, Bergatik harutz. Ha hartuta euan, Francok; eta bestiak zian hemendikaldetik erenak, milizianuak, harek ibiltzen zian jan billa, bakizu. Ertortzen zian morduak meriendetara; meriendetara eta hamarretakuan bila be igual; eta etxian euan jenero guztia datorrenai emun ein bihar ba, eta sarrik askotan norbera geratu jan barik.

-Zure aitta ibili zan gerran?

-Nere aitta ez, nere gizona.

-Gaztia, ez?

-Bai. Nik baiño hiru urte gehixao ekazen, eta nik hamabost nekazen.

-Hemezortzi.

-Milizianua?

-Bai. Hemendik zerian ibili zan. Ez. Gero ibilli zan. Eruan ein zittuen. Hemen pasau zanian, hartu ebenian, Francok hartu ebenian hau, orduan eruan zittuen gaztiak; hamazortzi urte eindda erenak danak gerrara. Lau urte ein zittuan nere gizon difuntuak, eta haren anaiak zazpi. Pentsaizu zela ibili zian hortik zihar.

-Zazpi urte nun?

-Gerran. Gerrara eruan zittuen eta ba hantxe. Zazpi urte. Nere gizonak lau.

7.13. Gerrak herria apurtuta utzi zuen

- **Hizlaria(k):** Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-029/010
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):** Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Gerrak herri osoa apurtu zuen eta herritarrek konpondu zuten ondoren.

Transkripzioa

-Juliuhan hasi zan gerria, otubrian sartu zian hemen, otubrian, ta abrilian zertu zan, veinticuatro de abril liberaziño eguna.

-Herrixan zeoze apurtu zan?

-Bueno, herrixan dana ixa apurtuta egon zan, herri dana apurtuta egon zan. Oñ eindda dao baiña.

-Herritarrek izan ziran herrixa berriro egin zezenak.

-Bai, herritarrek eta etorri zian arkitektuak edo zerak; honek etxiok eta plazakuak eta danak barrixak in zien eta. Hau be osoik geatuko zan, hau be len-lengo etxia da ta.

7.14. Milizianoak Intxortan eta reketeak Partaittin

- **Hizlaria(k):** Arizmendiarieta Ojanguren, Bernarda
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ELG-033/002
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Frontea non egon zen. Milizianoak Intxortan zeuden; eta erreketek, Bergara aldetik sartu zirenez, Partaitti aldean egon ziren, Asentzio inguruan. Bertatik bertara zeuden eta elkarri "demasak" esaten omen zizkieten. Tiro asko izaten ziren. Aitak ganaduarentzako jatekoa gauzez egiten zuen; baina, hala ere, bala sartu zitzaion eskuan.

Transkripzioa

-Elgetan hemendik Intxortatik, Intxorta jakingo dozu. Intxorta, zer esango dotsut ba? Intxorta horrek mendixok baiño hurrao. Intxorta ta Partaitti arkalen onduan eozen, ta milizianuak eozen Intxortan, ta Partaittin - Asentzio entzunda daukazu, Asentzio? Elgetan dao Asentzio-, Asentzion eozen reketiak pin-paun, pin-pàun, pin-paun, bertan arkalekin eitten eben tiroka, ta haren zera, pakun hotsa, ta haintxe eitten eben lantzian ekiñaldi bat bata bestiai, ta kristonak esaten otsazen ba. Ezebez ba, hor bata hemen soluan egotia ta bestia han egotia lez, hurrian. Eta kristonak esaten otsen batak bestiai. Ta gero gabian eta hango tximista hotsa! Ta guk ba ganauak geunkazen ta aitta zanak eitten eban ganajatekua gabaz, ta hamen eskuan be pasau otsen balia, gaiñian pasau otsen ganajatekuak ekartzen diharduala.

-Nundik ekartzen zuen ganajatekua?

-Solotik etxera, ganauak geunkazen etxian eta.

7.15. Gerra garaian, etxetik alde eginda

- **Hizlaria(k):** Arizmendiarieta Ojanguren, Bernarda
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ELG-033/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Zazpi hilabete iraun zuen fronteak. Ezkurrez egindako ogia jaten zuten. Bernarda gurasoekin mendiaren beste aldean zegoen Egoarbitza baserrian egon zen bizitzen, aita hangoa zuen-eta. Milizianoek ardiak jaten zizkieten, lantzean bat.

Transkripzioa

- Zenbat denbora pasatu zun gerrak han Elgetan?

- Sei hillebete edo zazpi hillebete. Zazpi hillebete usten dot.

- Goseik pasa zenduen zazpi hillabete hoietan?

- Ogirik ez, ogixa ezkurana. Bai, bal-bal-baltza ekartzen oskuen, ekartzen

eban anaiak, harrixa baiño gogorraua itten zan momentuan, ta ezin jan baiña hantxe. Gero, esan dotena, honek sartu zienian ekarri eben ogixa, ta nik esaten neban, gerriak nahi dabena ein daixela, behintzat ogixa ekarri dabe. Ta gero bestekaldera pasau giñan gu ta esan dotena, han bestekaldian euan jentia bueno, montoka, e! Bai ba, etxietan danak alde einda eozen eta.

- Zer egin zuen, Elgetatik jendeak alde egin eta mendira?

- Etxietara, atzeko etxietara. Heren etxiak, e, lagun bat edo itxi ta ba bestiak familixak heren trastiekin etxietara. Ta han egon giñan. Ta gero han Eguarbitza, zuk ez dozu entzutia eukiko Eguarbitza, famosua da baiña Elgetan Eguarbitza.

- Basarrin bat?

- Gure aitta zana zan hangua. Atx ondua, atxa, atx ondua entzunda daukozu, atxa? Haretxen onduan dago etxia, ta han egon giñan gu. Baiña ni han egon nitxan aittakin eta amakin. Ardixak etortzen zien, ardixak eruanda euazen hara, hara etxera, tianera, ta ardixak etortzen zian mendira, ta gure aitta zanak ezautu: "Hamen ba, hamen datoz oin be gure ardixak, koittauaok", ta milizianuak lantzian bat jan. Harek jan itten zittuen; aittak igarri geruao ta gutxiaora doiana, ta fan eta zazpi edo ekarri zittuen kortara. Baiña bestiak jan otsazen.

7.16. Reketeak etxera sartu zirenekoa

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Arregi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-036/005
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:13:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Urriko lehenengo igandean, Ama Birjinari eskainitako jaia egin ohi zen, eta baserrietako uzta orduantxe biltzen zen. 1936ko urrian, Jose Luis eta etxeak uzta biltzen ari zirela, erreketek etxera sartu zitzaizkien gorriez galdezka.

Transkripzioa

-Zela ez zebe abanzau aurrera ba gu baserrixan. Ta zan oktubria, ta orduan egoten da baserrietako kosetzia, babia ta artua-ta, ta gu han lanian ibiltzen giñan. Ta egun baten oktubrien laua zan, esan dotsut ta zela zan oktubria ta gu kosetzia batzen hor ibili giñan zerian, ta zera oktubrian lauan hasi zan mugimentua ya, ez dakizu? Pixkat han zozek urten bihar zeuala, eta tiruak-eta gehitu zian eta enfrentamendua zertu zan. Eta oktubrian lauan, domekia zan, ta orduan izaten zan oktubrian lehenengo domekia izaten zan egun pixkat espeziala ze oktubria izaten zan Ama Birjiñari dedikautako, "La Virgen Del Rosario" ez dakizu? Ta hilan lehelengo domekie izaten zan zerekoa, oktubrekoa, "Domingo del Rosario" esaten jakona.

- Zozer berexixa egoten zan edo...?

-Eliziantzako zan pixkat destakaua. Orduntxe egunian hasi zan mogimentua zeozer, ya mobitzen zeuela. Eta gure etxian fregaderia euan lekuan, zera euan bentania, fregaderian parian, eta handik zaintzen noiz etorriko, ez dakizu? Zozer pasatzen zala ta itxoitten. Ta ama akordau zan

han urrin gizon batzuk etozela ta ya alarmia. Ta aittak-eta pentsau zeбен etxe barruan ba hueko bat han kortan-ta. Balak sartu ezindda, bentanaik ez zekan hueko bat, ta ha refujixo moduan hartuta, etortze bazian ba balak iñundik sartu ez dittean, bentanarik-eta ez zekan eta gu hantxe geldi. Ta amak bentara urten zeban baten, ikusi zittuan ba handik berrehun metrora-edo, holako horrek izeten dira baserriko erromarak, atiak, baserrixan egoten dianak, ganaduak ez pasatzeko. Holako baten pasau...

-Zelan deitten da hori?

-Erromaria. Ta handik pasau ta arbola artian gordetzen zirala, arbola ostean gordetzen zirala. Ta amak esan zeban: "hemen datoz!". Ta danok joan giñan lehen esan doten refujixora Etxebarriko refujixora, hara. Bazkaltzen gengozen, dana laga ta haraxe. Eta hantxe danok alkarri begira ze pasauko ete zan, ez dakizu? Han zeozer pasau bihar zan, etxera allagau ziran ta. Ta jo zeбен atia: "tau-tau-tau-ta". Lehelengo, lehenengo...danak ixilik danok, alkarri begiratuta eta han zozer pasau bihar zeban ta. Bi aldiz: "tau-tau-tau" barriro. Ta nere aitta, gaixua zana, esan dot nire aitta hara erretireuta zeuela, eta urten zotsan atera, eta gizon bat, guretako gizon bat zan hura, orduan egongo zan ba hogeï urtekoa hogeïta bost urtekoa, gu umiak giñan ta gizon bat. Ta preguntau zeban: "¿Aquí hay rojos?". Ta: "no, aquí vivimos la familia y aquí no hay rojos". Ta holako silbato bat eukan hortarako, ha bakarrik etor zan atera, baina han etxe inguruan ezkutauta zeozen, izango ziran hogeïta hamar edo berrogeï-edo, han ezkutauta zegozen. Ta "¿Aquí hay rojos?" eta "no, aquí vivimos la familia". Gero silbato bat "priiii" jo zeban ta ya han ezkutauta zeozenok agertu ziran, ta lehelengo etxe guztia errejistrau zeбен, han iñor ete euan. Baina, han euan ezer. Ta ya gure etxian aurrian gelditu ziran, etorri zan ofizial bat kaballo batekin eta harek esan otsen bazkaltzeko, eurak eukezen zerak kontserbak-eta, eta esan otsen bazkaltzeko, baina jateko raziño erdixa, euren artian partitzeko eukan raziñua. Ta jentia han murmullatzen-eta, ez dakizu? Ta hantxe atsalde guztian. Ta hemen goixan, Intxortan, entzuten zan oso tiroteo haundixa, eta hor zoze pasatze zan normala ez zana, ta gure teillatu gaiñetik balak pasatzen zian. Harek zerak reketiek esan otsen... Baia harek etxia defenza zekan ta teillatutik pasatzen ziran balak.

7.17. Espainiako bandera baserrietan

- **Hizlaria(k)**: Arantzeta Arregi, Jose Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-036/006
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:16:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Intxorta mendian tiroketa egon zenekoa eta teillatu gainetik tiroak pasatzen zirenekoa kontatzen ditu. Ondoko baserri batean bandera espainiarra jarri zuten eta baserri hark eraso ugari jasan behar izan zituen.

Transkripzioa

- Hantxe atsalde guztian. Ta hemen goixan, Intxortan, entzuten zan oso tiroteo haundixa, eta hor zoze pasatze zan normala ez zana, ta gure teillatu gaiñetik balak pasatzen zian. Harek zerak reketiek esan otsen...

Baia harek etxia defenza zeken ta teillatutik pasatzen ziran balak ta: “¡mira, mira cómo tiran!”, ta hola. ... ofizial hori etorri zan eta bazkaltzeko esan otsen, ta atzera berriz joan egin zan ofizial hori, ta han pasau zebe eguna, ta hortarako gure etxetik berrehun bat kilometro, bueno berrehun bat metrora euan beste baserri bat, ta han ipiñi zebe teillatuan bandera española, eta guria be intentau zebe ipintzia baiña...euki zittuen itxuria ixotzeko hara, teillatura, ta ez zebe ipini, ez zebe ipini, ta han banderia ipini zebe baserrira jo ta atakau zebena, bueno! Ta baserrixa zeuan hola tontxortxo baten eta hemetik jo otsen tirua eta ha baserrixa botata, han behian Ubera, badakizu nun daon? Han be beste etxe batzuk, ta in zebe pasau baserrixa jo barik ta han Uberako etxe batzuk jo, han eozen reserbak, ez dakizu reketiak? Han eozen eta jo ta dana...

- Ze reserba?

- Ba, atzetik eozen jende gahixao, dendia gehixao han eozen ta jo zebe lehenengo etxe bat eta gero eskolia, ta zezen prezizamente eskolan, ta juan ziran danak “echando betun” handik haruntz, ta hola. Gurian egon ziran atsalde guztian eta atzera ofizial hori etorri zan, ta esan otsen erretiratzeko handik. Eta guri emon oskuen ordenia hurrengo goizerako etxia abandonatzeko, eurak etorri bihar zirala derrigor ta. Ta karo, gu umiak giñan baiña, ta gu lo, baiña gure zaharrak, gure gurasuak-eta, harek ez zebe lorik egingo. Ta in zittuen hara sakon batera eroan, “una vaguada” ez dakizu e?, hara eruan eta ganaduak-eta eukitzeko zerak desmiontiak egin eta han ganekoa gorde, balak harrape ez zittezen, eta hantxe. Ta itxoiten eta itxoiten ta itxoiten noiz etorriko ziran, eta ez ziran etorri, ez ziran etorri, ta atzera etxian sartu giñan ta normal. Ta ganera esan otsuten banderok edo mastillok ya... ezkututzen joan ziran, ez dakizu? Zelan ez ziran ageri, ezkututzen joan ziran. Eta gero hemen Elgetarainok harutzatxuo gora Asentzio onduan mendi bat dao, mendi txiki bat, ta han geratu ziran ya fijo zerok frankistok, han geratu ziran.

7.18. Errepublikara: Karlistak vs nazionalistak

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/010
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:09:30
- **Transkribatzailea:** Elempuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Gerra hasi aurreko giro politikoa lasaia zela dio, karlisten zein nazionalisten (EAJ) mitinak ematen zituzten, inongo arazorik gabe gainera. Errepublikazaleek ez zituzten mitinak ematen. Monzónen lehen diskurtsoa Elgetan izan zela diosku. Behin politikagatik egondako borroka bat ere aipatzen du.

Transkripzioa

-Ze giro euen gerra aurretuan hemen?

-Gerra aurrin? Politikamente gaur baiñok libria. Eitten zittuen nazionalistak, osea PNVkuak, eitten zittuen diskursuak; baita karlistak be eitten zittuen. Diskursuak eta anbertia egoten zan politikan, gu gaztiak giñan eta ez giñan gu, e..., baiña entzutzen giñuzen mitiñak.

-Eta republikanuak ez zien sartzen?
 -Republikanuak sekula ez zebe mitiñik iñ.
 -Hemen karlistak eta nazionalistak.
 -Karlistak eta nazionalistak. Bazagozen sozialista batzuek, honek destakau batzuek, baiña ez. Hemen karlistak eta nazionalistak eitten zittuen.
 Mozonek lelengo diskusua ein zebe, mitiña, Elgetan.
 -Monzonek?
 -Bai.
 -Jontxo!
 -Goguan dakat. Gu holako akontezimientuetan ba hor egon bihar izeten giñan mutikuak.
 -Jente pillara, ezta?
 -Eta hori orduan gerria hasi aurretik.
 -Bai, gerria hasi aurretik.
 -Mitiñak egoten zien eta burrukaik-eta ez zan.
 -Ba!, ba! Akordatzen naiz burruka batekin be, akordatzen naiz. Sozialistia zala edo ez dakit zer, eta baten batek esan otsan eta han egon zan, muturjoko bat egon zan.
 -Egon zan, e?
 -Bai.

7.19. Frontea Elgetan; Elgeta bonbardatuta

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/011
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:12:21
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerran sartu eta momentuan konturatu ziren. Izan ere, alde batetik, nazionalak sartu ziren; eta, beste aldetik, gorriak (EAJ...). Bergarara egunero joaten ziren esnea saltzera; eta, gerra hasi zenetik, ez ziren joan. Irailaren 24an, Asentzioko mendian kokatu ziren erreketek (nazionalak) lehenengo aldiz. Gorriak Kanpazarrerako bidean kokatu ziren. Zazpi hilabetez egon ziren bertan, apirilaren 24ean hartu baitzituzten Elgeta eta Intxorta nazionalak. Urriaren 5ean, nazionalak kontraeraso eta gero, tiroketa batzuk egon ziren. Tiroak egunero egon ziren, baina ez tiroketa bortitzak. Zazpi hilabete pasatu zirenean, apirilaren 20an, bonbardaketa egin zuten, eta Elgeta guztia suntsitu zuten abioi alemaniarrekin. Hildako mordoia egon zen, babestokia izan arren.

Transkripzioa

-Zela edo noiz konturatu ziñein zuek gerran zeundela?
 -Gu gerran, sartu zan momentuan, zeatik bazatozen horrek, karlistak esaten gotsen guk, behealdetik, Naparroa aldetik.
 -Nazionalak.
 -Bai, nazionalak. Eta hemen bestetik ba gorrixak. Hemen gorrixak PNVia ta sozialistak danak bat eindda ibiltzen zien, baiña gorrixak. Ta konturatzen naiz ba gu Bergara esnetan zela joaten giñan egunero, baiña hor jarri [zanian ezin] giñan joan, Bergara esnia eruatiai laga gotsan, zeatik hor jarri zan frente bat edo. El día veinticuatro de setiembre sartu zien hona

Asentzioko mendira Reketiak lelengo aldiz.

-Reketiak, nazionalak.

-Bai. Eta gero hemen jarri zan frentia, Asentzion reketiak eta (ETENA). Hori zaue, badao ba bidia Kanpazarrerako, han zan bide bat, han zaozen horma batzzuek eta haren ostetik.

-Han parapetau zien gorrixok?

-Bai. Hor egon zien, sartu zien venticuatro de abril.

-Abril ala setienbre?

-Ez, de setienbre. Despatxau, osea. Zazpi hillabete ein zittuen, veinticuatro de abrilian hartu zebe Intxorta ta Elgeta nazionalak.

-Eta bixen bittartian?

-Bixen bittartian? Egon zan el día cinco de octubre, errosaixoko domekia. In zebe, kontratakau zebe nazionalak, baiña ez juen apurtu, osea, eutsi eiñ otsen. Ta gero ba tiroteo batzuk egoten zien beti be, tiroteo batzuk baiña. Egunero-egunero tiruak bai, arkali jaurtzen otsen tiruak baiña hori tiroteo fuerteik ez. Hoixe, cinco de otubria egon zan. Gero horrek zazpi hillabete ixa pasau zienian, lenengo ein zebe atakia zan veinte de abril, bobardeo ikaragarrixa. Orduan Elgeta gehixena apurtu zebe ia.

-Abioiekin?

-Abioiekin. Bonbardeua.

-Zer zien abioiak, alemanak?

-Alemanak. Ta hillak be mordua egon zien. Mordua hildda.

-Herrixan?

-Bai.

-Herriko jentia?

-Bai. Bonbardeuan, e... Refujixuak indda zagozen, baiña refujixora [...] be mordua hil zien, hara zoiazanak, mordua. Eta orduan Elgetako herrixa orduantxe apurtu zebe gehixena. Ta hurrengo egunetan be etortzen zien - hori veinte de abril zan-, etortzen zien abioiak eta bonbardeatzen zebe. Baiña heriotzak egon zien veinte de abrilian asko.

7.20. Anaia eta bi lehengusu hildakoen artean

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/012
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:12:21. **Bukatu:** 00:14:04
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Otxandioko frontean, 2 lehengusu galdu zituen Juanek. Elgeta hartu eta 4 egunera, apirilaren 28an, anaia hil zitzaion: granada bat eskuetan lehertu zitzaion.

Transkripzioa

-Zeuk galdu zeen lagunik edo seniderik edo?

-Senidiak? Bai.

-Frentian, Otxandixoko frentian lehengusu bi, anaiak. Eta gero hau frentia Elgeta hartu, eta el día veintiocho de abril, San Prudentzio egunian, anaia hil jatan hementxe eskuko bonbiakin, eskuan errebentau otsan.

-Eskutan errebentau?

-Bai. Zeaittik eze ez zebe ezautzen honek "[...]... eta joño!, hau ze ete da

ta zinttiakin, eta soltatzen badabil ze dan ikusteko ta eskuetan esplotau otsan ta hil zan.

-Jontxo.

-Bai, ni baiño zarraua.

-Etxian euela?

-Hemen ez, Elgetan.

-Olei Erdikuan?

-Ez, ez, Torrezarko basarrixan. Hor eukitzen zittuen, gure, horko anai bixak hil zienian, gure anaia erueten zebe horra laguntzeko edo. Basarrixa zan ha be, kalia baiña basarrixa. Erueten zebe laguntzera ta gauzak eittera ta gure anaia erueten zebe. Ta sartu zittuen, gerra denporan ganauak kendu oskuezen danak, etorri gau baten eta ganau guztiak eruan oskuezen. Ta han auzoko batenak ba uztarrixa-ta zaozen ta harek hartzera joan zien ta hantxe ikusi zebe hori bonba hori ta hartu zebe eta eskuan esplotau otsen.

-Hori zan abioitik botatakua edo bertan jarritakua.

-Eskuko bonbia, eskuko bonbia. Granadia, bai.

-Jolasian hasi ta [...]

7.21. Elgeta suntsituta

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/013
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:14:04. **Bukatu:** 00:15:07
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Bonbardaketaren ostean, Elgetako etxe asko apurtuta geratu ziren, baita eliza bera ere. Baserrietan ez zuten kalte handirik eragin. Otamendi baserrian, milizianoak egon ziren, eta etxea erre zuten kanoikadaz. Asentzio ondoko baserri batzuei ere gorriek su eman zieten, hango ugazaba bat erreketea zelako.

Transkripzioa

-Zer geratu zien, etxe asko geratu zien hondatuta?

-Asko, asko! Elixia be erdittik behera apurtu zebe, bota zebe. Bai. Daño haundixa ein zebe orduan.

-Eta basarritan eta.

-Baserrixan-ta? Ez. Baiña baserriak, hemen frentia egon zan bittartian, hementxe zan Otamendi baserri bat, ha be erre zebe. Hor egoten zien milizianuak eta kaiñonazuak jaurten zittuen horra; eta beste bat, hortxe Asentzio onduan Udaixa baserrixa dienak, hiru bizitza zagozen, ta ha intezinuakin fan eta erre, su emon otsen gorriek, eta erre ein zan.

-Gorriak eurak?

-Bai.

-Zeatik?

-Pues hango uezaba pixkat reketia zala ta amenazuak, benganzia.

-Eta etxia erre otsen?

-Etxia erre otsen?

-Bai.

7.22. Bera eta ama etxea eta ganadua zaintzen

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/014
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:18:30
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Olaegi inguruan, beraiek ez zuten tiroketarik izan; baina, fronte bien erdian zeudenez, handik alde egiteko agindua jaso zuten, eta izeko biren etxera joan ziren etxeko guztiak, ama eta bera izan ezik; beraiek ganaduak eta etxea zaintzeko geratu ziren. Beldur handia pasatu zuten zazpi hilabetez. Milizianoak produktuak erostera joaten ziren beraien etxera. Neguko gau batean, milizianoak agertu eta ganadu guztia kendu zieten, idiak izan ezik. Horietako behi batek milizianoei hanka egin eta etxera bueltan etorri zen.

Transkripzioa

-Zuek euki ziñuen bape tiroteorik Olaiko inguruan?

-Ez. Baiña billur haundixak pasatzen giñuzen. Eske hemen emon zaben ordena bat, linea bixen erdixan zela geldittu giñan, ba aldetzeko. Ta alde zeбен aitta-zanak eta anaiak eta arrebak eta danak fan zien; guk hemen "[...] ostian gengozen, tia bi baserixetara ezkontuta, ta haraxe. Lineatik kanpora behintzat. Ta geldittu giñan ama ta bixok.

-Etxian?

-Etxian, baserrixan. Bai, ganauak be gobernau ein bihar zien eta. Etxia zaindu bihar ta gu ta bixok. Gu, ama ta bixok, bixak hortxe egon giñan denpora guztian, zazpi hillabetian. Baiña billur haundixakin. Ta harrezkero iñoiz komentau dot, joño, gaur holakoik balitza neu enintzakela egongo. Orduan ba basarrixa, ganauak be zaindu ein biher zien-eta.

-Gaur ganaurik be ez, ezta?

-Ez, baiña orduan bai. Ta hortxe egon giñan.

-Eta milizianuak edo nazionalok ostu edo zeozer ein otsuen?

-Ez. Gurera etortzen zien, milizianuen bendian zaon gure zonia, eta etortzen zien, ia ezautu zien-eta, sagarrak erostera ta arrautzak-eta erostera etortzen zien.

-Erostera?

-Bai, bai. Batak dozena bi sagar eta bestiak sei arrautza edo. "[...] eukitzen giñuzenien emoten gontsen eta pagatzen zeбен harek, ordaintzen zeбен. Ta gero negua legau zan, ta etorri zien gau baten eta ganau guztiak hartu eta eruan oskuzen.

-Eruan eiñ otsuen ganauak?

-Danak, danak!

-Iri ta guzti?

-Irixak ez zittuen eruan zeaittik irixak eitten zeбен, karreterixan eitten zeбен materialak eruatera milizianuei, ta hemen goixan zaozen, hemen, goiko baserrixan, Torrezar edo, lehen esan doten etxe hortan, ta lanak eitten zittuen. Eta pentsaizu, hemen Elgetan kamioi baten sartzen dabizela behi batek hanka eiñ otsan, soltau ein zan, eskutik hanka ein otsan, ta etorri zan baserrira.

-Zeuen behixa?

-Bai, bai. Gu ohera ezin fan, laurak ingurua zan-ta. Meee! "Pinta etorri da".

"Pinta?" Pentsau "[...] zaratia. Zabalduta otsan atia ta ta!, kortara.
 -Ta bestiok, miao?
 -Fuera, gehixau zer zanik be ez. Deklaraziñuak bai ugari, zer eruan oskuen, zer kantidadea eta zelakuak-eta bata ta bestia, baiña akabo: fanak fan.
 -Zenbat behi kendu otsuen orduan?
 -Ba lau behi.
 -Ta bat bueltau?
 -Bai.
 -Oseake hirukin geratu zien eurak?
 -Bao. Ta gero txahalak.
 -Txalok be fuera!
 -Bai, bai.
 -Eta hori milizianuak eruan euen?
 -Bai, milizianuak.
 -Nora edo zertarako edo?
 -Hori erak jakingo dabe.
 -Eta hori ia galtzen ebitzela edo oindiok frentia...
 -Frentian zaozela, frentian zaozela. Handik gerora be frentia egon zan hemen. Izango zan hori febrero aldian edo izango zan. Ta eruan zittuen ta akabo.
 -Eta zuek kortia hutsik.
 -Irixak salbau zien etxian ez eozelako, ezta?
 -Bai.

7.23. Daukanak ez daukanari ematen

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-039/016
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:18:48. **Bukatu**: 00:19:50
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Frontea pasatu zenean herritarren artean banaketa egin zuten: ganadua zutenei kendu eta ez zutenei eman. Juani-eta txahal bat eman zien. Hala ere, jendea ez zen konforme gelditu.

Transkripzioa

-Bueno, hemen lapurretia, ez dakit zelan esango jakon horri izena; frentia pasau zanian ba danei ez zotsezen kendu ganauak, eta gero hemengo frentian jarri zien mandamasak ein zebeu halako daukanai, gelditzen jakonai batzuek kendu eta ez daukanai batzuek emon ein zittuen.

-Hori milizianuak eurak?

-Ez. Frentia pasauta gero, hemengo jentia.

-A, herrikuak,.

-Herrikuak, autoridadia.

-Osea, ganauak partdiu.

-Ganauak partiru ba, enfin. Ez zan jentia konforme geldittu. Geuri be emon oskuen txahal bat. Eta ha txahala iñona zan. Ta ordaindu ein giñuan gero, eta beste batzuek be bai.

-Etxiak ganau barik ez egoteko ba puxka bat partdu.

-Bai, zeozer, zeoze. Baiña ez zan jentia koforme geldittu.

7.24. Gauez milizianoa etxera

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/018
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:24:04
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Baserrian momentu txarrak pasa zituzten, frontearen erdian zeudelako. Gauetan, milizianoek zainketak egiten zituzten inguruetan. Behin miliziano bat etxera joan zitzaizkienekoa kontatzen du. Baserrian geratu zirenez, gaizki pasatu zuten; alde gin zutenek, aldiz, ez. Etxekoak non egon ziren aipatzen du.

Transkripzioa

Beste gauza seiñalaurik gerra denporakuak?

-Seiñalauak?

-Momentu txarrak pasau giñuzela baserrixan. Zeaittik linea erdixan zelan zaozen, pues esaten zebeu, geuk sekula ez genduan ikusi, nazionalak gabetan hara tropak pasau ziela, baiña hemen gorixan artian milizianuak eitten zittuen, gabian bijilantziak eitten ibiltzen zien. Eta egun baten - akordatzen giñan gu oiñez, pauso-zaratiakin-, ta egun baten atia jo oskuen. "Zein da?", eta "Abre la puerta!". Gure ama zanak erderaz be ez zakixen; "pronto pero pronto!". Ama aurrian, ni atzian, fan giñan. Ta, arrebria orduan, etxian tokau zan arreba bat. Ta ia hemen zein egon dan atsaldian. Hamen milizianuak.

-Horrek zer zien, nazionalak.

Ez, komunistak zien, konpañia bat egon zan hemen. "Batallón Castilla", Compañía Castilla, ta zien asturianuak. Enda, bueno, zabaldu otsan atiori, baiña sustua... Billurra, badakizu, hango zaratia ta!

-Gabaz, ezta?

-Gabaz, goizeko ordu bixak aldian edo. Ta, ia hamen atsaldian zein egon dan, eta, bai, milizianuak. Zetara etortzen dien, eta sagarrak erostera edo, arrautzak erostera edo. Ein otsen hola galdera batzuek, ta urten zebeu. Ta handik hamar bat minutura berriro. Bueno, urten giñuan ta zian, milizianua

zan, Bergarako semia zan ha, ta gure arrebiak ezautu ein zeban. "Zer pentsatzen dok, gu zertzuk gazela baiña hortan ibiltzeko?" "Bueno, parkatuizue". Halako sustua zetan emun.

-Harek euskeraz.

-Bai, barkatuizue. Eske arrebia ezautu ein zebeñ.

-Orudan asturianuak, asturiano komunistak.

-Compañia Castilla esaten otsen, zan kapitana asturianua. Gaiñera, pentsaizu, beste danak milizianuak ibiltzen zian buzo azulakin, eta harek kakixakin, militarren moduan jantzitta, jantzitta ibiltzen zan. Halako flako bat zan.

-Orduan gorrixak ikusi zittuein.

-Gorrixak? Hoixe gorrixak. Gurian be, eztakitt, hoixe pentsatzen zan eta pasau ein giñan baiña eske linea bixen erdixan badakizu ze riesgo!

-Arrisku dana. Baiña herrixan egon baziña igual hildda, ezta?

-Ba baiña. Beste ana-arrebak behintzat egon zian kanpuan hor eta ez eben halako estuasunik pasau.

Nora joan ziela esan dozu zuk, aitta ta arrebak eta?

Basarrixa da oin badago ba eindda Eibarrerako, Beko Errota baserrixa.

-Eibarrera fan zien?

-Ez. Han Elgetako partian zaren. Hor badago pantano bat eindda Eibarko urekin surtitzeko, Aixola.

-Aixola.

-Bai. Aixola Errekara. Aixola, basarrixa da Beko Errota. Han egon zien. Eta beste batzuk Lapurdi, gorago ... gertura, han gure aitten anaia ezkondu zuan hara ... famelixa... alde eitteko esan oskuen-ta alde ein bihar.

-Harek trankillao ibilli zien orduan?

-Puff! Hoixe trankillau.

-Zergatik ez zittuen ganauak eruan?

-Baiña nun mantendu bihar zien? Erak be bazekezenta nun mantendu ta zer?

7.25. Moroek jendea hil eta bortxatu

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-039/022
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:28:38
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Apirilaren 24an sartu ziren moroak, eta 25ean tiroketak eta hildakoak egon ziren. Zeintzuk hil edo eraso zituzten aipatzen du. Moroek etorri behar zutela jakin zutenean, jatekoa-eta labean gorde eta amarekin batera Uberara jaitsi zen. Orduan pasatakoak kontatzen ditu.

Transkripzioa

-Veinticuatro eta hurrengo egunian veinticinco. Eibarko honek mendixok, Azkonabietan eta hor tiroteo haundixa egon zan, eta hillak be mordua egon zien, zeatik ni konturatzen naiz hor suak agertu zien mordua, et hor erre eitten zittuen moruak.

-Moruak?

-Bai, moruak sartu zien hemen lenengo, eta horrek moruok sartu zienian veinticuatro de abillian hemen egundoko daño txarrak ein zittuen. Hil

zittuen, Ansuategi basarrikuak bittakuak, gizon bixak hil zittuen. Eta hemen gero Zesto basarrixa hemengua, hor hil zittuen aitta ta ama, ta alabia, hamalau urte, edo hamabost urte -orduan ni baiño urtebete gehixao-, biolau ein zebeñ, ta atzamarrak kendu otsazen, bihetzak, hiru atzamar kendu otsazen.

-Zetako?

-Pues aitta alabia defenditzen, eta tirua emon otsenian, aittai ipiñi otsan buruan eskua ta matxetakin klask!

-Jontxo! Orduan moruak [...] zien orduan.

-Moruak? Orduan gerrako denpora hortan egoten zien "sakiak". Sakia da emoten otsuezen janak, arroza, olixua, garbanzua eta horrek gauzok. Ta Altube baserrixan juntatzen giñan eta han partitzen zoskuen baktxai berai jenerua. Ta etorri giñan horra goizian eguna zabaldu baiño lehen. Auzuan bazan beste bat be, bestiak alde egindda zaozen baiña etorri giñan ta partitzen zebitzen. Ta etorri zan Sagastixoko andra bat: "moruak ei datoz goittik behera danak hiltzen. Zeston hil dittue andra-gizonak eta ez dakit nun be bai ta". Hartu ta, geunkazenok hartu ta etxera. Etxera etorri giñanian sartu giñuzen laban sakian gauzok, arrozok, olixuok, garbanzuok..., ta bajatu giñan, beste bezinua ta ume txikixak eta alkarrekin bajatu giñan ama ta ni ta bezinuak bajatu giñan Uberara.

-Uberara?

-Bai. Eta Uberan fan giñan eta Uberan iñor be ez han be basarrixetan, kaskuan. Eta bazakixan nun egoten zien han, refujixauta zaozen; fan giñan hara ta etorri zian behera.

-Moruok?

-Ez, hango familixakuak, Uberako famelixakuak etorri zien. Ta holakotxe moruak ikusten dou kamioian goittik behera kuadrillia ta, meka..., jota ni hanka behetik gora. Ta hango baserrikuak, goikuak, horrek baserrixak Marki eta Ibargaiñ-eta zien, ta harek goittik behera "'Arriba España" ta "Viva España!" ta, nik ez nakixen horrek zertzuk zien be, horrek verbok. "Nora zoiaz" esan ostan. "Moruak datoz ta". Horrengana nobera joan bihok, ez hanka eiñ, nobera joan bihok". Eta eurekin nahasi bajatu giñan behera Uberara, eta etorri zien moruak, halako berrogeiko gizon edo, moro, eta kapitana zukien, espaiñola zan, arpegi argixakin ta. Esan notsan zelan e, enfin, entzun eta zelan hanka ein genduan ba eta. Fateko, ez jakula ezer pasauko ta, kapitanak; eta gu etorri giñen baserrira, atzera.

-Baiña moruekin jentia billurtuta, ezta?

-Puff. Moruak. Hor gure aldameneko beziñua, ha guregandik apartau ein zan eta egon zan arbisolo baten ezkutauta, eta gu ikusi [giñuzenian] Uberatik gora, ezautu eta ha etorri zan etxera. Horrek moruok Uberara bajau zien baiña atzera behetik gora etorri zien. Behetik gora. Orduan ez zien etorri tropan. Bika, hiruka, lauka eta hola. Ta hemen etxe kantoian, Eleuterio eukan izena, alde batetik zetorren bata eta moruak bestetik, eta "Alto! manos arriba", eta gizonoi estu-estu-estu, ta jota ein otsen hola katxeua ta. "Todavía aquí hay muchos rojillos".

-Moruak.

-Moruak. Eta billurra... Hori zan pasauta gero gure ama-zanak, ha Albitxu basarrikua, haren barri jakitzia nahi zebeñ, ia etxian daozen edo ze ein daben edo, joan eta jakizu. Joan nintzan eta han andra bixak eta aitta semiakin zulon baten sartuta, hor ezkutauta egon zien, eta han gaozela etori zan moro bat hara, eta esan oskun: "Alí hay uba mujer herida". Ta, ene ba!, zein ete da, ta neu banoia haraxe, aintxintxiketari noia ikustera. Ta "alto!", beste moro bi edo zaozen onduan. "¿A donde vas?" y "A ver esa mujer". "Dáte la vuelta que si no te vamos a dar un tiro". Atzera buelta ein ta etxera. Ez dakit zein zan. Emakumia ikusten nabien etzindda.

-Baiña ez otsuen itxi bertaraño joaten.

-Ez. Ez dakitt zein zan.
 -Ez dakizu hil zan eta ezebe.
 -Ez dakit ezebe. Gero, horrek zien goizian eta arratsaldian puxkat kalmau zan arratsalderako. Ta horrek moruok pasau ta gero etorri zien, etorri zian konpañia bat soldauak hemengotxe euskaldunak. Ta harekin pozik geldittu giñan, harek etorri zienian pentsau giñuan salbauta gengozela. Moruak hanka ein zebe behintzat eta.
 -Orduan moruak erabiltzen zittuen jentia bildurketako, ezta?
 -Puff! Billurketako ta hazaiñak eitten zittuen. Zeaittik hil, edo biolau be bai; bi edo biolau zittuen; ta zer? Moruak...
 -Harek euren lana eittera.

7.26. Moro en beldurrez ezkutatuta

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-039/023
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:28:38. **Bukatu**: 00:31:20
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Uberatik itzuli zirenean, moroak baserritar bat arakatzen ari zirela ikusi zuten. Gero, emakume bat zaurituta lurrean. Harengana hurbiltzen saiatu zen, baina ez zioten utzi. Sekula ez du jakin nor zen emakumea. Gerora, moroak joan eta konpainia euskaldun bat heldu zen. Orduan lasaitu ziren.

Transkripzioa

-Baiña moruekin jentia billurtuta, ezta?
 -Puff. Moruak. Hor gure aldameneko beziñua, ha guregandik apartau ein zan eta egon zan hor arbisolo baten ezkutauta, eta gu ikusi genduzenian Uberatik gora, ezautu eta ha etorri zan etxera. Horrek moruok Uberara bajau zien baiña atzera behetik gora etorri zien. Behetik gora. Orduan ez zien etorri tropan. Bika, hiruka, lauka eta hola. Ta hemen etxe kantoian, Eleuterio jaukan izena, alde batetik zetorren bata eta moruak bestetik, eta "Alto! manos arriba!", eta gizonoi estu-estu-estu, ta jota ein jotsan halako katxeua ta. "Es que todavía aquí hay muchos rojillos".
 -Moruak.
 -Moruak. Eta billurra... Hori zan, pasauta gero gure ama-zanak, ha Albitxu basarrikua, haren barri jakitzia nahi zebe, aber etxian daozen edo ze ein daben edo, joan eta jakizu. Joan nintzan eta han zaozen andra bixak, eta aitta semiekin zulon baten sartuta, hor ezkutauta egon zien, eta han gaozela etorri zan moro bat hara, eta esan oskun: "Allí hay una mujer herida". Ta, ene ba!, zein ete da, ta neu banoia haraxe, aintxintxiketan noian ikustera. Ta "Alto!", beste moro bi edo zaozen onduan. "¿A donde vas?" y "A ver a esa mujer". "Dáte la vuelta si no que te vamos a dar un tiro". Atzera buelta ein ta etxera. Ez dakigu zein zan. Emakumia ikusten naben etzindda.
 -Baiña ez otsuen itxi bertaraño joaten.
 -Ez. Ez dakitt zein zan.
 -Ez dakizu hil zan be eta ezebez.
 -Ez dakit ezebe. Gero, horrek zien goizian eta arratsaldian puxkat kalmau

zan arratsalderako. Ta horrek moruok pasau ta ondoren etorri zien, etorri zan konpañia bat soldauak hemengotxe euskaldunak.

-Baiña ia Francokin.

-Francokin, Francokin. Ta harekin pozik geldittu giñan, harek etorri zienian pentsau giñuan salbauta gaozela. Moruak hanka ein zebe behintzat eta.

-Orduan moruak erabiltzen zittuen jentia bildurketako, ezta?

-Puff! Billurketako ta hazaiñak eitten zittuen. Zeaittik hil, edo biolau be bai; bi edo hemen biolau zittuen; ta zer? Moruak...

-Harek euren lana eittera.

7.27. "Sakea" gerra sasoian; "errazionamendua" gerraostean

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/035
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:39:29. **Bukatu:** 00:41:01
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena:** Gerra sasoian sakea errepublikazaleek banatzen zuten. Errazionamendua gerra ostean. Sakea hiru hilabetetik behin-edo izaten zen. Kantitateak zehaztuta egoten ziren.

Transkripzioa

-Lehen esan dostazun hori, "sakia" edo zela esan dozu, hori nork emoten eben?

-Hori, pues gorrixen gobiernuak.

-A, republikanuak. Eta hori gerra garaiko partiziñua izaten zan?

-Bai, gerra-denporakua. Behiñ gerria pasau zanian kitto, hori bukatu zan.

-[...] Gerra ostian izan zan rasionamentua baiña gerra aurretik partidu eitten euen...

-Gerra denporan, gerra denporan partitzen zebe. Gerra aurretik normal, komeni danak komeni dana erosi tta hola.

-Eta orduan gerra denporan gorrixok edo republikanuok edo gura danok "sake" horrek partitten zittuen.

-Bai.

-Eta gerra ostian rasionamentua.

-Bai, gerra ostian rasionamentua.

-Nik sakiana entzun barik neukan. Hori zenbatian zenbatian edo zela izeten zan?

-Hori, ze esango dot ba, hiru hillabetetik behiñ edo ez dakitt zelan izeten zan. Emoten zebe, kantidadia emoten zebe: hiru kilo arroz, hiru kilo azukar, garbanzuak..., ta kantidadia emoten zebe emoten zebeian.

-Hori Elgetako kontua da bakarrik ala Elgetatik kanpo be emoten zebe?

-Elgetan, Elgetakua dakit nik, hemendik kanpora ez dakit hor beste lekuetan ze eitten zebe.

7.28. Errepideak lehertuta

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/043
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:44:16. **Bukatu:** 00:45:25
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Tropak eta tankeak-eta ez pasatzeko, kamioia lehertu zuten. Leherketa gertatu zenean, metrailarekin beraien etxeko teilatua zulatu zuten. Hiru errepide lehertu zituzten; baina, hala ere, segituan konpondu zituzten.

Transkripzioa

-[...] parian kamiñua bolau zeбен, osea, kamiñua bolau zeбен. Zeaittik ikusten zeбен gorrixak ba bestiak badatozela aurrera, ta kamiñua bolau zeбен. Ta ein zan tiro bat!, ta ein zan ikaragarrizko zulu; tropak ez pasatzeko edo, tankiak edo lokesea. Ta akordatzan naiz egun hartan, hori esplosiñuoi ein zeбенian gure baserria teillatuan goittik behera harrixak eta gere..., jota zulatu [oskuzela]... harrixakin.

-Zuena bakarrik ez, Olaikuan etxe danak...

-Bai. Hemen ein zittuen Uberan bat, gure etxe parian beste bat eta hementxe goixan beste bat ein zittuen, bolau zittuen kamiñuak. Ba pasua...

-Makiñentzako pasua kentzeko.

-Bai, baiña laster arreglau zittuen. Hurrengo egunian bertan...

-Bestiak etorri ta atzea zuluak bete, ezta?

-Eurak ez. Auzoko gizonen, han geldittu zienei esan eta ra!, bete moduko bat ein zeбен eta behintzat pasua ipiñi zeбен.

7.29. Artilleria

- **Hizlaria(k):** Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ELG-039/044
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:47:07
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Tankerik-eta ez zeukaten, baina artilleria bai. Non egon zen kontatzen du. Herritarren idiekin garraiatzen zuten materiala (fusilak...) gauez.

Transkripzioa

-Zuk tankiak eta ikusi ziñuzen pasadizuan edo?

-Ez. Nik, ez jatan (etxatan) tokau tankeik ikusteik. Hemen orduan tankeik egon be ez zan ingo ya tankeik. Tankerik ez orduan. Orduan artillerixia egon zan hemen gaiñian, Karabixetako gaiñian, ta hementxe Elgetako ostian beste bat, enda ostientzian pues fusilla ta amatrailladorak.

-Orduan tankeik egon be ez igual. Kaiñoiak.

-Ez. Kaiñoiak.

-Eta zela mobitzen zittuen, kamioiekin edo idiekin edo?

-Horrek irixekin enjeneral edo kaballuakin edo mobituko zittuen.

-Zuek hemen bape kaballerixaik ikusi zeбен?

-Keba! Hemengo kaballerixia ta, irixakin eta eruatzen zittuen, trasportatzen

zeben fusillak eta materialak. Irixekin, ez kaballuekin. Hemen kaballoik be ez dot pentsatzen egon zanik.

-Esaten dot soldauak zaldi gaiñian.

-Ez.

-Arrasate aldian banaka batzuk ikusi zittuela.

-Ez, guk eztou ikusi soldaurik kaballo gaiñian.

-Eta soldauak materiala mobitteko zeuen ganauakin eitten euen?

-Bai. Gurian anaia ibiltzen zan, anai difuntua ibiltzen zan. Ta bestia zan ba basarriko jabia, gizona.

-Nahi eta nahi ez.

-Hori obligaziñua da. Esaten zebeñian joan in bihar.

-Porsiakaso.

-Ta miliziano bat edo lagun eruaten zebeñ, nora eruan bihar daben, ta gabian eruaten zittuen horrek danok.

-Mobimentu horrek gabaz, bestela...

-Klaro, klaro.

7.30. Apirilaren 20ko bonbardaketa

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-039/045
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:47:07. **Bukatu**: 00:49:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Apirilaren 20an, bonbardaketa gogorra izan zen. Abioiek egiten zuten ibilbidea kontatzen du. Zanga batera joan ziren babestera, baina etxera bueltatu ziren ama eta bera. Abioiak gainetik pasatzean, haizearekin, ezkaratzeko leihoak apurtu zituzten. Ganadua galdu arren, ez zuten inongo kalte-ordainik jaso.

Transkripzioa

-Eta zuk abioiena, bonbardeua apirillian esan dostazu izan zala?

-Aprillian, bai.

-Aprilleko bonbardeo hori daukatzu goguan bakarrik, abioiak aurretik ez euen bonbaik bota?.

-Ez, ez. Beno, bonba bat edo beste bota zan, baiña ez. Ha zan gogorra. Ta gero hurrengo egunetan be bai.

-Bonbardeo latza orduan.

-Jo... Gogoratzen naiz, etortzen zien hor Mondrauetik Bergara aldera ta Plazentzia atzera, hartzen zebeñ buelta, ekin hemen Karabixetan goittik behera ta ra!, ra!, aldiko hiru, aldiko hiru, geldittu barik. Ha zan, billurgarrixa egon zan orduan eguna. Abrillan hogeixa zan hori.

-Abrillan hogeixa. Ia fetxak be goguan dakaz. Etxataz (ez jataz) ahaztu.

-Gauza horrek grabauta geraketan dia.

-Joo... Akordatzen naiz, ba guri omoten oskuen halako bonbardeorik edo baldin baldin bada, etxian ez egoteko, etxe inguruan zanga baten sartu ta hantxe egoteko. Ta, bueno, fan naiz zanga batera. Hemen Olazabal baserrixan etorri zien hiru abioi ta rarararara! buelta guztian jaurti zittuen bonbak eta etxera ez. Ta, joe, hemen be kapaz dok hoixe eitteko; eta gero

etxera fan nitzan. Ta honek abioiak amatraillatzen etortzen zien, ra-ra-ra-ra!, ta joan giñan fan nitzan etxera ta ama ta bixok gendezen ataixan, ta hartu ta eren aiziakin brast!!!, ezkatzeko bentanak be apurtu ein zittuen.

-Haiziakin? Hain urrian pasatzen zien?

-Bai, gertu. Amatraillatzen ibiltzen zien, han iñor ikusten bada edo, eztaikit ba.

-Oseake eurek abixadan mobitten euen haiziakin kristalak apurtu, e?

-Bai. Egun latzak zien harek, egun latzak. Ta gu hantxe gizajuok.

-Ganauak zainketan, ta gero ganauak galtzeko.

-Bai.

-Eta gero ez zeuen euki reklamaitterik ganau horrek eta?

-Erek esponitzen zebeñ zeñiñ ze kendu otsen fateko notia emotera. Ta fan giñan baiña ez zan handik bueltarik etorri, ezebez. Ez indemizaziñoik eta ez subenziñoik

7.31. Milizianoak etxera taloak jatera

- **Hizlaria(k)**: Basauri Larrañaga, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-059/025
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:53:24. **Bukatu**: 00:55:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Felisak ez zuen seniderik galdu gerran. Milizianoak etxera etortzen zitzaizkien, taloak esnearekin hartzera. Etxean ez zuten nahikoa esne izaten milizianoak asetzeko. Eibarrera esnea eramaten jarraitu zuten. Etxean gerratik babes bila etorritako elgetarrak eta eibartarrak izan zituzten.

Transkripzioa

-Zuk seniderik galdu zenduan gerran?

-Ez.

-Edo kartzelan euki edo?

-Ez, ez dot euki.

-Anaiak ez zien fan frentera?

-Ez. Soldau bai, soldau fan zian, baiña kartzelaik eta ez da egon.

-Eta zuk zer rekuedo daukazu gerrakua?

-Rekuerdua horrek milizianuena daukat gurera etorten zian, ba hemen erela, ez dakitzu, ta gosia, ta gure ama, esaten otsen, taluak itten otsezen gure amak, eta esnia, taluakin esnia, ta gehixao itteko. Ta esnia geuk be bihar giñuan eta, Eibarrera be faten giñan esnioi eruatera ta, harei emotia be nahi, eta danendako... Baiña taluak, ni akordatzen naiz gure amak taluak ein eta taluak ein ta han jaten zittuen.

-Ta zuek gerria hasitta gero be Eibarrera faten ziñain oindiok esnia eruatera?

-Bai.

-Baiña Eibarren kriston bonbardeua egon zan baiña.

-Bai, baiña faten giñan, bai-bai.

-Gerra denporan ez ziñain iñora fan?

-Iñora be ez giñan gu fan. Gurian, gure baserri-etxian egon zian

kanpokuak, Eibarkuak be bai.
-Refujiauta?
-Refujiauta.
-Gordeta edo?
-Bai, bai. Gordeta edo, han ibiltzen zien. Hemen Elgetako batzuk be bai.
-Orduan jente asko etorri zan baserri-auzotara ta.
-Bai, bai. Ta gurian be mordua egon zien.
-Ta zer zien, senidiak?
-Ez, ez, senidiak ez zienak be bai.
-Bezeruak edo?
-Ez.
-Etortzen zana.
-Bai. Ezaunak edo.
-Eta harek zer eitten eben?, lo eitteko kuartoik be ez zan egongo.
-Bueno, batzuk e, bai. Ta harei dotorienak edo onenak emon eta etxeukuak al dan moduan.

8. Herria, azpiegitura

8.1. Gari-jotzea eta galafariak

- **Hizlaria(k)**: Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-005/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:22:15. **Bukatu**: 00:23:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Garia auzolanean egiten zen: bai gari-ebateak, bai gari-jotzeak... Ondoren galafaria egiten zen, ospakizun moduko afaria. Gari-jotzea oso gogorra zen, zikina, beroarekin egin behar

Transkripzioa

- Eta izenik bazekan? Gari-jote afarixa edo deitzen jakon?
- Bai, hori... Bai, gari-jote afarixa, galafarixa.
- Galafarixa?
- Bai, bai, galafarixa.
- Holan, auzolanian eta gauza asko [eingo zan], ezta?
- Bai, auzolanian eitten zan. Auzolanian eitten zan.
- Garixa eta beste gauza asko, ez?
- Bai. Lantzian etxe batekua jo, lantzian etxe bat... Gero hara... Bata bestiai lagunduta eitten zan auzolanian. Ebaten be bai. Ebaten be... Ba, lehelengo heltzen zian etxe batian igual, ta geruao bestian. Ta zenbat eta altuauan geruao. Azkenengo hemen heltzen zian garixak. Ta lehelengo behekuak ebatera nobera juan bihar behera; ta gero behekuak etortzen zian gora azkenian gari-ebatera. Ta gero jotera iguala. Lehenengo hasten zian leku baten, ta etxe morduak bata bestiari lagundu ta gari-jotia. Baiña gari-jotia lan txarra zan. Puo! Beruakin in biharrekua; berua komeni izeten zan beti gari-joteko. Ta beruakin hautsa ta zikiña eukitzen zaben, ta bof! Izardixa ta jo-ta hautsak be erreta ibiltzen giñan. Txarra gari-jotia; neri gutxien gustau jatan ofiziua. Gari-jotia baiño txarraorik bapez. Oin, atzenian, ba, afaldu ta juergia ta ondo. Baiña ordu batzuk txarrak pasau bihar.

8.2. Lurretia. Aldats handiko inguruetan, lurra gora ekarri behar

- **Hizlaria(k)**: Astola Gallastegi, Endrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-005/003
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:23:30. **Bukatu**: 00:25:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Lurretia ere auzolanean egiten zen. Sorobarrenean otarrak lurrez bete, eta sorogoenean hustu. Aldapak beherantz eramaten du lurra, eta igo egin behar da. Sasoi batean, ganadua ere erabili izan zuten. Ganadua beti goitik behera, eta, polea baten bidez, lera goraka igotzen zen, lurrez beteta. Euren baserri inguruan aldats gogorak daude, eta urtero egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta, holan, auzolanian, beste zeoze eitten zan? Lurretia, [...], edo...
- Bai, lurretia-ta bai, lurretia eitten zan. Lurretia... Aldapetan, lurra beti goldiakin-ta beti labratzen-ta behera juaten da, ba? Ta lurretia eitten zan auzolanian. Baiña hori nik gutxi ezautu dot; nere aurretik gehixao. Bai, nere aurretik --gero be bai, e? Baiña nere aurretik-- asko esaten eben lurretia eitten zala, ba, auzolanian asko.
- Eta ze, zelan eitten zan?
- Zestoka, lur-zestuekin. Barrenian batzuek, lur-zesto txikixak, ba, [zerao] izaten dia, zumitzezko zestuak, ta halakuak betetzen batzuk solo-barrenian. Ta beste batzuk bizkarrian hartu ta solo-guenera ekarten.
- Hartu ta bota?
- Bai.
- Han guenian bota. Bai. Hori...

- Beti... Holan, burdixekin edo [ez zeuan...]?
 - Bai, batzuek... Ez, gero bai. Gero bai. Guk geuk Beizun be altxatzen giñuan lurra, baiña ganauekin. Behetik gora ganauak, edo... ganauak goittik behera, ta behetik gora lurra, leria, [narrian]. Han betetzen zan barrenian, "ta ta!" Guenera etortzen zan, leriori kabliakin, e! Poleakin. Alde batian ganauak goittik behera, ta [bestia] betik gora. [Lleatzen] zanian ganauak geratu, "ta ta!" Errez [...] makilla bat ekan, egur bat, sartuta; drast! eta golpian [...] zan guenian, ta atzera behera.
 - Orduan, poleia goixan ipini ta ganaua goittik behera beti?
 - Ganaua goittik behera. Ganaua errez faten zan goittik behera, ta betik gora lurra be edarto. Lur mordua. Zestoka hogeta hamar zestotan ta berrogeittan be altxau ez hainbeste lur! Ezta berrogeittan bez! Lur mordua altxatzen zan.
 - Bai, ze hamen aldapia asko eta...
 - Bai, aldapia asko, ta lurra altxau bihar asko. Asko [...] lurra altxatzen hara. Urtero eittia komeni, ta urte batzuetan girorik ez dauelako, bustixa dalako edo ezin in, ta hurrengo urtian gehixao altxau bihar gero! Ta solo-barrenian lur pillia, ta solo-guenian gastau eitten zan. Bai, hori bai. Oin, gero atzenian, ba, labratzia gutxittu zan, ta labratzia gutxittu zanian, ba, zelaixan ez da lurrik faten behera, ta zelaixa geldi.

8.3. Leonen autobusa: Elgeta-Eibar

- **Hizlaria(k)**: Zabala Arruabarrena, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-009/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Egutero autobusa izaten zen Elgeta-Eibar artean. Goizean jaisteko, eta arratsaldean igotzeko. Ostegun eta larunbatetan gehiago. Eguetan baileta izaten zen udan. Beraiek Ongietorri tabernan elkartzen ziren, eta gero dantzara

Transkripzioa

- Bestela, egutero Eibartik hona igotzia...
 - "Leon"-ekin orduan; autobusa: Leon Olabarria. Autobusak ezautuko dittuk, ba? Ba, [bajatu han]. Goixian zortzi ta larenak ingururako lleatzen zuan hara ta gabian han [...] zortziretan urten gora. Hori. Gero eguetan bajatu atsaldeko lauretan eitten zuan. Eguetan ta zapatutan. Ta zapatutan bi autobus ifintzen jittuan. Karo, Eibarren be mordua astia pasatzen giñuanak, ta ba! hemen etorten giñuazen.
 - Eta eguetan zegaittik izaten zan?
 - Ba, berak eguna, eguna ifinita aste erdixan. Ba, atsaldian jentia errekauek eittera edo...
 - Zeoze espeziala egoten zan Eibarren eguetan?
 - Ez, denda batera edo ferreterixara edo ze esango dou, ba?
 - Udan-edo bailia ez zan izaten eguetan edo?
 - Neguan. E... udan.
 - Udan?
 - Udan San Juanetatik Arratiak arte Eibarren.

- Eguenetan?
 - Eguenetan.
 - Ta gero gu, ba, ez jakixat zer esan... Hoge bat urte edo ein [genduzenian,] artetan eskolan ta, badakik, beti... ta zerian, dozena bat mutil gazte juntauko giñuazen gu, ba, han, Ongietorri edo... Lehelengo Ongietorrixa genkan eguenetan. Ta han, ba, partidatxua ein lehelengo ta gero Untzagara. Han hamabixetan bailia akabatzen zuan ta bakoitza bere etxetara eitten giñuan.

8.4. Euren sorobarrenean dago Bergarako muga

- **Hizlaria(k):** Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-010/005
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Justu euren soro barrenean dago muga eta handik beherakoa Bergara da.

Transkripzioa

-Zuen basarrira hartzeko orduan...
 -Hantxe, bai, haraxe goiazela, kurbia hartu baiño, Uberatik etorri behetik gora eta kurbia aillegau baiño hogeta hamar metro lehenao jaok entrada.
 -Justu-justu izango da Elgeta, orduan?
 -Berga partia dok hori.
 -Zeuen be bai?
 -Guria ez. Gure solobarrenian daok mugia. Elgeta-Bergara.
 -Justu justuan orduan.
 -Bai, bai. Jalotza eta guria hutsagaittik salbau zittuan.

8.5. Baserriko bizimoduaren aldaketa

- **Hizlaria(k):** Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ELG-010/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Auzoa nola aldatu den. Lehen ganadua egoten zen baserri guztietan eta orain ia inon ere ez. Pinua besterik ez omen dago. Lehen denetarik zegoen baserrian: ganadua, soroak, artoa, garia...

Transkripzioa

-Akorduak, ba... Ordutik hona... Auzua jota apurtuta jak. Ia ez daok iñor. Zaharrak hil dittuk. Gaztiak banaka batzuk. Eta gaztiak be hil dittuk. Lehen

danian jauan ganaua. Gaur iñun be ez daok bat be. Enriken anaiak, Juanitok, hortxe bizi dok Beizun, goixan, haretzek jakazik, behi bi edo zela dakazen, txalen bat edo bi. Auzo guztia garbi daok ezebe barik. Piñua han eta piñua hemen; besteik ez daok hor. Ez dao ezebe! Aranzetan iñok be ez jakak ganaurik, ez Alfonsok eta ez... ez Basaurik eta ez Sarasketak, bape ez jakek ganaurik. Bapez. [...]

-Eta zuen gazte-denporan?

-Joe. Danian ganaua.

-Zer zan gehixao, ganaua, sorua...?

-Dana. Garixa-ta mutil egoten zuan, e... Egoten zuan garixa, artua, babia, ganauentzako arbixa...; eta handik bizi zuan jentia. Bai.

8.6. Errotatik ematen zuten argia

- **Hizlaria(k)**: Untzetabarrenetxea Askasibar, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ELG-010/009
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:12:18. **Bukatu**: 00:15:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Errota bat zegoen auzoan, euren etxetik hurbil. Errekalde izeneko baserria zegoen errotaren ondoan eta bertako gizonak ematen zuen handik argia. Argi asko nahi izaten zuten, baina errekan ur gutxi zegoenean ez zegoen argirik. Mendi-urak dira erreka datazoenak. Argindarra noiz jarri zuten.

Transkripzioa

-Errota bat jauan auzuan. Errota bat, hantxe eitten zuan zera. Hantxe eitten zittuan zerok, urunok, urun-lanok eitten zittuan. Astian egunian batek eitten juan zeroi, errotako lanoi. Turnua ifinita, egunian bat, egunian bat, egunian bat, han pasatzen zittuan. Handik jiratzen zuan jeneruoi, [basarritik bizi zuan] jentia.

-Nun zeuan errota hau?

-Zeziatik, gure etxetik urrian, etxetik urrenengo geuria. Beste etxe bat jauan honutzaio, erreka-zuluan, Errekalde, Errekalde jaukan izena.

-Eta hantxe zeuan errotia?

-Ez, aparte. Hango famelixiak basarrixa jakan. Basarriko lana eitten juan, baiña hango gizona(k) dedikatzen zuan indarra emon... Indarra be bai, e, indarra, turbinia, indarra. Baiña azkenera, gauza guztien moduan, abusau eitten dok. Indarra ibiltzen zuan, bonbilla txikixekin ibilli ezkereta zeozere. Baiña [...] haundixa, bonbilla haundixa. Eta bonbilla haundixak txupau eitten jok, eta leku txikixan, indarra justu samar produzitzen dan lekuan, asko txupatzen baldin bada, badakik zer pasatzen dan: "no puedo", harek ezin leike. Bai. Holaxe, azkenian abusatzen-abusatzen, eta galdu ein zuan. Ezin zeiken abuentau. Aillegau zuan Iberduero santuau sartzera eta, "salvavidas". Gabaz inddarra harek emoten jotsan. Egunaz eitten zuan errotako [lana], uruna, arto-uruna edo ogi-uruna eitten zuan. Eta gabaz indarra emoten jotsan. Gabian segun. Sarritan, e, zeoze hola egun inportanten bat bazan, Gabonak edo bazian ba topia jo arte. Baiña topia jo arte ez, ura, ur gutxi.

-Han erreka txikixa egongo da.

-Bai, bai. Erreka fiñak dittuk harek. Mendi-urak dittuk, bai; itturriko urak, mendi-urak, eta erreka fiñak. Eurixa zanian bai, orduan ondo; baiña ostientzian zapo batek erateko beste ur. Bai. Eta ur gutxixakin... han behian makiniak berriz bihar jua, hari makiniai bultza ein bihar jakok martxan ibiltzeko eta. [...] Argixak tak! Kiñua, eta "badoiazek argixak!" "Hau dok biharra" eta. Kandelía edo argizaixa edo ahal zana. Linternia egongo zua ferreterixan. Dirua dakanak erosiko jua eta ez zakanak, e, miau!

-Zeuen basarrixan noiz ipiñi zan indarra, argixa?

-Auzo guztiakin batera Iberduerok ifini jua eta.

-Noiz izan zan hori?

-Urtiak dittuk. Ez duat esango zenbat, baiña urte mordua. Urte mordua, gauza garbirik ez duat esango.

-Zu ezkondu aurretik?

-Bai, bai, bai, bai.

-Gerra ostian, baiña?

-Bai, gerra ostian, bai. Ha zua gauzia ha ifiñi zanian, joe!

8.7. Dotoreak ziren Elgetako plazako etxeak

- **Hizlaria(k):** Arantzeta, Arantzazu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-011/017
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Eibartik lehen Elgetara etortzen omen zen jendea beraneatzera. Lehen Elgetako plazan zeuden etxeek "galeria" zuten denek eta etxe dotoreak ziren.

Transkripzioa

-Berez Elgeta beti izan da [sanua] halako problemetarako...

G: Zu Eibarkua zaz?

-Bai.

G: Ba Eibartik lehen etortzen zan jentia beraniatzera... Buenooo!

-Asko.

-Eta lehen hasi zana kontatzen...

-Plaziagaitti, plaziagaitti hasi nai. Lehen zela aiuntamentua zan han goixan. Sartzen zan zeretik, elixatik paretik euazen eskillarak holaxe biribillian. Eta plazan egozen etxiak oingo aldian elegantiak. Galerixa batzuk! Nik ez dakit ez dakaten, nunbaiten badakat hor fotografixia. Ba galerixak, ekarri ein eban Elgetako zera. Zuk ez ziñuan ezautu, baiña Jesusa Gaztelu esaten otsena, plazara begira ekan... Baiña zelako etxia! Eta gero Oruenekuak zian, Bilboko beraniante batzuk zian... Orue eken apellidua. Harek be eken galerixiakin. Gero Mari Jose [...] be galerixiakin, eta bestiak Benturanekuak. Plazara egozen danak, buelta guztia galerixiakin. Eta plazia be esan dotsat, ha beheko pareta ez euan, dana goittik behera zuzenian zan. Gerra ondorian ein eben ha, behian einddako pareta. Baiña dotoria! Oingo aldian politta zan, askoz be polittaua zan plazia. Etxiak eozen elegantiak. Galerixa zurixekin, eta elegantiak. Eta nik badakat haren fotografixia.

8.8. 1928 arte Angiozar eta Ubera Elgetakoak

- **Hizlaria(k)**: Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-012/008
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:16:40. **Bukatu**: 00:20:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Ama eta osaba Uberakoak ziren. 1928ra arte Ubera eta Angiozar Elgetakoak ziren eta, beraz, elgetarrak ziren. 1928an Eibarko errepidea egin zenean egon ziren arazoengatik Bergara izatera pasa ziren. Ubera eta Angiozar Bergarara pasa aurretik Elgeta oso handia zen terrenoz; mugak non zituen. Bergarako Santamaña auzoa ere garai batean Elgetakoa izandakoa da. Honen inguruko kontuak.

Transkripzioa

-Tio gero ezkondu ein zan, Uberakua zan nere ama eta tio be bai; Uberan jaixuak zien, Elgetako zerak zian horrek, Elgetako parrokienuak [zuan], hasta el año veintiocho, mil novecientos veintiochoraiñok Elgeta zerekua zan, o Ubera eta Angiozar zien Elgetakuak. Ta klaro, horrek zien Elgetakuak esaten jakuen, eta horrek zien auzounak Elgetakuak, Angiozar eta Ubera. Gero horrek Bergara joan zien el año veintiocho, euki zittuen gorabeheragaittik, gehixen be Eibarko kamiñua. Horren inguruan formau zan folloiagaittik. Kriston folloia montau eben eta klaro gero, e.... Esaten eban, gure aittak esaten eban "bake edarra fan dienian sikiera. Buf!" Esaten eban: "Gutxiao gaittuk, baiña... Elgetan farol bat ipintzen zanian, Angiozarren be ipiñi ein bihar farola, eta Uberan be bai beste bat. Joe!", esaten eban aittak. "Hau dok jiria hau, hau dok martxia hau". Kamiñua ein zanian Eibarrera, klaro, Elgetak salida bat bihar eban, ezta? Eibarrekin

orduan hartuemon haundixa eukan, orduan momentuan. Dana!, dana, dana, dana!, esateko. Eta gure senittarte guztiak be danak Eibarren erezen. Dana, eta karo. Hori kamiñuoi ein zanian, Angiozarrera be kamiñua ein bihar zala. "Joe ba, itxoizue ba, bixak batera ezin leikezela eiñ-eta." "Gero ezta eingo, eta ointxe." "Ointxe ezin leike ein." Eta klaro, Elgetako aiuntamentuak, itxuria ba, orduan momentuan konzejal gehixao eukan. Horkuak egoten zian, Angiozarko konzejala, Bergakuak eta danak. Zela konzejal gehixao eukan itxuria Elgetakuak -eztakitt hori seguru-, ba zertu ein zan, geldittu zan Elgetarako. Elgeta Elgetarako, eta bestiak Bergara fan bihar ziela eta. A, bueno ba. Fan zien eta akabo.

-Bestela terrenoz Ubera-eta haundixak die, ala?

-Ba, ez, Elgeta haundixaua da horrek baiño. Pentsaizu, hasi han behian, Olerrian (Olarreaga) ixa. Zuk badakizu hor beheko sardautokixoi, Ollakorta, hantxe hasten da bai Elgeta, eta amaitzen zan ixa Mondragoko handikaldeko mendixan. Ha Irutontorreta be Elgetakua zan eta. Nun daren harek, Kanpazartik harutz ikusten dian harek, basarri-etxe batzuk; Goimendixa esaten dotsena, Zulota, Zulota Goikua, Zulota Azpikua, Gontzarri, Altune; horrek danok Elgetakuak zien eta ixa San Prudentzioraiño sartzen zan Elgeta. El año mil trescientos y pico, Santa Maiña Bergakua Elgetakua ixenda dao. Hori historialian historixia kontatzen da. Harek egurra emun otsen Elgetakuei, Elgetakuak gutxiao zien eta "a fastidiarse"; ointxe pasatzen jakuena israelitei. Israelitak egurra emuten dotse bestiei, eta bestiak "atrás". Orduan be ze pasau zan? Iguala.

-Eta Santa Mariñako konturik-eta badakizu?

-Ez, ez. Eztakit nik Santa Maiñako kontuik. Santa Maiñan egongo zien, egongo die, baiña. Klaro, errekiak dibiditzen dau eta. San Prudentziora sartzen zan Elgeta, eta, klaro, Elgeta zelan San Prudentziora sartzen zan, zuk badakizu Oñatirako kruzia nun dauen, eta harek errekiak dibiditzen eban, hasi hor eta Osintxura arte. Eta klaro, Santa Maiña barruan sartzen zan. Gu bestekaldian justo, baiña sartzen zan.

8.9. Adinaren arabera elgetar edo bergarar

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Rosario; Arantzabal Askasibar, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-014/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Auzo berekoak izan arren, Rosario Elgetan jaioa da eta Sebastian Bergaran, gazteagoa delako eta 1927 inguruan pasa zelako euren auzoa (Angiozar auzoa) Bergara izatera. Eibarko bidea egiterakoan sortu ziren eztabaidak eta Ubera eta Angiozar Bergarara pasa ziren.

Transkripzioa

S: Hamen basarrixetan daona, hau da Elgetan jaixotakua. Gu kuarto baten jaixo danok, bost ga danera, eta gu beste laurok Bergaran jaixotakuak. Kuarto baten jaixota. Hau (Rosario) Elgetakua.

R: Orduantxe pasau. Veintixietian pasauko zan Bergara.

J: Veintisietian edo, behintzet horrek bixok Elgetakuak dia eta, handik beherako danak hamen barrixuan...

R: Ez, beste bat. Serafin eta Roman eta horrek be ez dakit ba [orduantxe] ez dian.

S: Horrek "seguramente" Elgetakuak izango dia.

-Orduan batzuk Elgetara, beste batzuk Bergarara...

J: Bai.

-Eta hori zergatik izan zan edo, badakizue?

S: Ni entzunda nao, ez dakit egixa dan, hori kamiñuoi, Elgetatik Eibarrera datorren hori Angiozarreraiño eitteko zan, itxuria, eta Elgetan geratu zan. Entzundakua, e, nik ez dakit eta. Horregaittik. Baiña Uberak be urten eban, eta ez dakit ba horregaittik zela izango zan.

R: Hara be ez eben eruango-ta igual-eta.

S: Uberak be urten eban eta. Ubera eta Angiozar Bergara bialdu zittuen, bialdu oskuen.

R: Bialdu, urten, fan eingo zien.

S: Hasarretu ein zien horregaittik. Lehen Elgetara pertenezitzen giñuan guk eta oin Bergarara.

R: Baiña ostian guk dana Elgeta daukagu guk, ostian. Eroso zelan harrapatzen dan.

8.10. Bergara eta Eibarko azoketara saltzera

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal, Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-016/004
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:04:35. **Bukatu**: 00:07:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserrian egin behar izaten zituzten lanak aipatzen ditu. Ama Bergarara eta Antoni Eibarrera joaten ziren etxeko jeneroa saltzera. Elgetatik Eibarrera autobusa zegoen eta goizean joan eta eguerdirako etxera bueltatzen zen.

Transkripzioa

-Orduan baserrixan hamaika urtekin hasi ziñan lanian.

-Hamaika urtekin edo lehenao be eingo neban zeoze. Bai-bai.

-Esan dozu lelengo gaztian lanak eta gero nagusixauenak...

-Politto-politto faten za ikasixaz-ikasixaz.

-Zeintzuk dira umienak eta zeintzuk nausixenak?

-Umienak ba zer esango dotsut nik, iturritik ura be ekarri bihar izaten zan edateko ta lapikua eitteko be bai. Eta horrek izaten zan, ura ekartzia ta horrek umien lanak. Ta igual egurrak su eitteko ekarri leikez umiak; asko be ez kantidadia, baiña gutxiao bai. Ta ba holakotxe lanak. Edo etxe batetik bestera errekaun bat ekarri herritik be-ta. Holako lanak.

-Iturrixa nun zeuan ura ekartzeko?

-Ba hortxe harutzatzuao, ez dakit ba zenbat egongo dan.

-Hemen bertan edo urrutiago?

-Ez, urrutixuao. Ez dakit ba hirurehun metro edo? Edo gehixao. Bai, hortxe bastante harutzatxuao.

-Eta hemen basarriko gauzak gero saldu egitten zenituzten?

-Bai. Eibarrera faten nitzan. Nere ama Bergara faten zan. Ta ni ba, ama be erreumiakin pixkat izurrauta zeuan ta gazteik eziñian geratu zan eta ni hasi nintzan oso gazte, ni hamalau urtekin faten nintzan bendejiakin Eibarrera plazara. Erauten neban ba ettxian euan dana, ortuan euana: letxugak, lekak, tomatia sasoian, frutia be bai euanian, oilaskuak be bai, arrautzak... Ta, bueno, hori dana saltzen giñuan Eibarrera.

-Merkatu plazan?

-Bai.

-Zapatuan?

-Bai. Ta ez nintzan faten. Lehenau nere ama astuakin faten zan, baiña ni hasi nintzanerako Elgetatik autobusa zeuan hasitta, ta faten giñan ba autobusian. Goizian faten giñan, ta hamabitterdietan eukitzen eban Eibarren salidia ta eguardixan etxera. Holan eitten giñuan. Eta etxian sobratzen zan gauza guztia... Sobratzen zana eta igual sobratzen ez zana be. Igual, klaro, zeuk bihar ziñuana eitteko dirua bihar ziñuan eta hori jirau ein bihar zan nunbaitetik. Ta igual gauza eskasauak etxian jan, entenitzen dozu, eta hobiauak eruan diru gehixao hartzearren eta. Holako gauzak be eitten zian. Eztau emoten baiña oin oso aldatuta dao gauzia. Eneee, lehen! Hori egixa da, e. Honekin horrenbeste eta hau eruaten badot horrenbeste. Ba etxian eskasaua jan diru gehixao hartzearren haundixauakin. Ta holaxe.

8.11. Autobusa garraibide nagusi

- **Hizlaria(k):** Arantzeta Alberdi, Angeles; Arantzeta Alberdi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-026/003
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena:** Aitak egiten zituen piezak Eibarrera eramaten zituen autobusez. Plazara saltzera joaten zirenek ere autobusez eramaten zuten jeneroa.

Transkripzioa

-Esaten zeben, artetsua izan bihar zeban aitta biharrian.

-Eta zelan eruaten zittuan piezak eta Eibarrera?

-Orduan zera zaon, autobusa, trasportia, Olabarria, Leon; harek eruaten zittuan.

-Autobusian?

-Bai.

-Jentiak autobusian kargak-eta eruaten zittuan?

-Bai. Plazara eruaten zeban jentiak gauza asko saltzeko ta hori basarritarrak hamenguak.

-Eta zenbat kostatzen zan autobusa orduan?

-Zenbat ba? Ideiaik be ez. Ezin neikezu esan, ni ez nai /enai/ akordatzen ni behintzat. Hi akordatzen haiz?

ML: -Ez, pezetia baiño gitxiao behintzat. Zentimuak.

-Joaten ziñaten Eibarrera zeuek?

-Bai, asko.

8.12. Urkizuko iturrira ur bila

- **Hizlaria(k)**: Beretxinaga Garitaonandia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: ELG-029/043
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:54:12. **Bukatu**: 00:55:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena**: Juanita Eibarren zegoenean, Urkizuko iturrira joaten zen ur bila potina hartuta. Jende asko joaten zen egurretara Eibartik Elgetara.

Transkripzioa

- Mutil gaztiak egoten ziren igual botijero lanian edo?
- Zetan?
- Botijeruak edo, uran billa-edo juateko.
- A bai, ni juaten nitzan Urkizuko iturrira uretara be, bai, botijuakin. Eta ofizinara be eruaten neban igual; "ur freskua ekarrizu" eta, ba, juan. Oin ez dakit dauen Urkizuko iturririxan??
- Bai.
- Bai? badao? ba hara uretara juaten nitzan...
- Ni gaur juan naiz.
- Gaur fan za?
- Ba ni juanda nago hara uretara.
- Ta botijuakin biaje asko??
- Ez, biaje asko be ez. Ez, mutil gaztiak egoten zian eta neri ofizinatik inñioiz deitzen osten ba handik ekartzeko ura ta eruaten notsen ta...
- Jende asko juaten zan iturrira ur bila, ezta?
- Bai, bai... Bueno, ez egunero, edo ordu guztietan ez, ordu guztietan ez euan ura.
- Etxeko andrak be bai juaten ziran horra ura hartzera, ez??
- Bai, bai.
- Inguruko...
- Bai, orduan bai, orduan iturririko ura eran bihar izaten zan ta.
- Taillarretatikan, baiña, kolak-eta egoten ziran iturririxan?
- Bai, batzutan bai, kola haundixak ez, baiña 3 edo 4 lagun igual itxoitzen egoten zian.
- [...] igual nagusixak berriketan-edo iturririxan?
- Ba... bai, orduan barriketarako asti asko ez euan. Eibartik be egurretara be igual etortzen zian horra mendira be andrak e, hartu bizkarrian egurra ta. Oingo moduan butanoik eta gasik-eta ez euan ta... Elektrizidadia bai, argixa zeoze egongo zan, baiña sua...

8.13. Garai bateko estratak (bideak)

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref**: ELG-035/008
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:06:30

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeriara Asentziora eta Salbadorrera joaten ziren. Lanetik irtendakoan Munazuritik ganadua ekartzen zuen. Lehenago ez zegoen ganorazko biderik ("estartak" bakarrik) eta lokatzez beteta ibiltzen ziren. Angiozarrera nondik joaten zen. Bizikletarik ez zuten izan sekula etxean.

Transkripzioa

-Dana lana ez zan izango, baiña? Zeuek be zeoze eingo ziñuen. Oin kartetan eta sarri eitten dozue. Lehen be zeoze eingo ziñuen. Dana lana ez zan izango. Erromeixaik be egongo zan edo zeozer.

-Erromeixak bai Salbadorren-eta, Asentzion-eta. Holakoxe...

-Ein dozuez gaztetan?

-Kartetan, nik ez dakit kartetan. Nik ez dot ikasi be kartetan, eta nik begira disfrutatzen dot gehixao. Nik jokutzen baiño..., ni ez nai kantsatzen.

-Eta lehenago ze eitten ziñuen, lanaz gaindi zer?

-Lana; hortik urtendakuan, taillerretik urtendakuan, ganaua ekartera. Zerraduran egoten zuan Urdazurin eta, hamen Salbadorren eta, ganaua ekartera etxera. Eta hortxe bidian lokatza artian dinbirri-danbarra. Oingo bidia-eta, Salbadorrera-eta orduan egon bazuan... Holakotxe lokatziakin fan eta etorri. Ez euan orduan bideik. Hortitxik faten zan Anguzarrera, e!, hortitxik gora fan. Baiña zuen tio Jose Luis-eta, Jesus...! Iziar-ta, han goiko txabolía-ta, handitxik goittik Olatza guenera urten. Baiña esaten dotsut, zelako estartak! Harek zittuan lokatzak, eta harek zittuan... Enee! Asentziora fan bihar eta...

-Bizikletaik-eta euki dozue?

-Nik etxuat ikusi be ein gure etxian bizikletaik. Iñoi be ez. Ez mutillei, anaiei eta ez...

-Lanera joateko be bertan taillera.

-Bai.

-Orduan biharrik be ez.

-Bai.

8.14. "Txanboliñekua" garai bateko denda nagusia

- **Hizlaria(k):** Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref:** ELG-035/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:18:45
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Baba izaten zen ohiko jakia etxean. Urdai zatiren bat botata edo gabon inguruan odolostearekin jaten zuten. Orduan ez zegoen harategirik, denda txiki batzuk bakarrik. Dendan zer jenero egoten zen. "Txanboliñekua"; estankoa. Lorenzo Errastik jarri zuen denda geroago. Arropak eskuz josten ziren lehenago.

Transkripzioa

-Orduan gaur beste ez zan egongo?

-Keba!

-Zer jaten zan, Isabel?

-Babia. Babia hartzen giñuan, bai, urte guztirako soluetan.

-Etxian hartutakua.

-Bai, etxian hartutakua, babia. Eta haxe urdaixakin-eta, gabon inguruan odolosten batzuk edo egoten zittuan-eta. Baiña karnazerixan ez zan egoten orduan, karnazerixaik ez euan eta. Ostatukua bakarrik. Faustinon aittak ez eban holakoik eukitzen; gero hasi zian odolostiak.

-Danetik egongo zan dendan?

-Dendan danetik? Bai, denda koittau batzuk. Jaboa, txokolate, ontza txiki batzuk; haundirik ez bihar bape, eta harek txikixak ogi zati batekin atsaldian jateko, ontza txiki batzuk. Olixua, abarketak..., zer zuan beste..., garbanzua, eta Txanboliñenian saltzen zittuen. Eta bestia, estankua, lelengo estankua ipiñi zebe. Pospoluak-eta, zigarruak-eta holako zer batzuk. Gero jarri zan denda. [Errasti] jarri zan dendiakin. Politto. Ordurako puxkat gehitzen eta gehitzen bajoian; baiña Txanboliñena izen zan nausi. Harek telia be saltzen zeban, prakak eitteko mauna be bai, eta izarak eitteko tela zurixak be bai, eta... ze zuan besteik? Lanak be bai jertsiak eitteko. Eta horrek be saltzen zittuen, Txaboliñenekua izen zan hemen nausi.

-Jertsiak-eta eiñ...

-Eskuz ein bihar danak. Eskuz eindda jertsiok-eta, gizonendako, mutillendako eta neskendako eta danondako.

8.15. Ubera auzoa: Elgetatik Bergarara

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-039/002
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:02:06
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena**: Ubera auzoa lehen Elgeta zen eta orain Bergara. Banaketa hori zelan izan zen azaltzen du. Ubera eta Angiozar auzoak biak ziren lehen Elgeta eta orain Bergara. 1927-1928 urteen artean aldatu zela dio.

Transkripzioa

-Ubera zer da Elgetako auzua edo Bergarakua?

-Lehen Elgetakua, oiñ Bergarakua.

-Zela izan zan hori banaketa hori-edo?

-Hori badakizu Elgeta eta Angiozar Elgetakuak ziran ta hau Eibartik honako karreteria ein zebeñian, ba hau lapur-bide bat izen zauela ta gastua, eta horrek Bergarara pasau zien gero, horrek auzo bixok.

-Ubera eta Angiozar.

-Bai.

-Eta horrek lehen...

-Elgetakuak zien.

-Eta ze urtetan pasau zan hori?

- “Pues el año...”, urtia. “Mil novecientos veinte siete” edo “veinte ocho” holakotxen bat.

-Orduan gutxi gorabehera zeu jaixo ziñanian, zu jaixo ostetxuan.

-Bai bost bat urtera-edo.

8.16. Lehen autobusa eta kamioia

- **Hizlaria(k)**: Askasibar Lazkano, Josepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-043/007
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:08:08. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Berak 10 bat urte zituen Bergaratik Bilborako autobus-zerbitzua hasi zenean. Elgetan lehenengo kamioia egon zen, esne-saltzailearena, Bergaratik eta Soraluzetik Eibarrera arte joaten zena. Kamioian pertsonak zein abereak joaten ziren. Bidaia batean gertatuko anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Gero hasi zien autobusak, diarixuak edo, Bilbora Bergatik eta. Gero, e.

- Goguan daukazu noiz hasi zien diarixuak?

-[...] Hamar bat-edo?

- Autobusak ya Elgetaraiño igoten eben?

- Elgetaraiño Ez. Bergatik Bilbora hasi zien. Elgetan bai hasi zan autobusa. Lelengo kanbioia. Esniekin Bergatik, Plazentziatik Eibarrera, kanbioia. Han kanbioian faten giñan personak. Txal txikixa be igual. Txal txikixa igual eruan bihar, salduta igual honek Martiñen aittak. Baten zoiala, bertako, kanbioneko txoferran andriai, estaduan euan eta emun otsan sustuakin, txahala jausi kanbioittik, gu andra mordua ta, esniak eta plazarako gauzak eta danak hantxe, kanbioi baten. Eta abortua euki eban.

- Txahala ikusteagatik?

- Ikuste ez. Jausi zalako emon otsan sustuakin.

- Txahala jausi kamioitik?

- Bai. Txahal txikixa. Porrejenplo egun bi edo hiruko txahala saldu beste bati hazi daixen, ta han eruan bihar Bergara edo Plazentziara edo Osintxura edo eruango eban. Baiña oiñez barik hantxe eruatia pentsau. Hoixe pasau jakon.

9. Ekonomia eta industria

9.1. Komulgatzeko ordaindu egin behar

- **Hizlaria(k)**: Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ELG-012/006

- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Gerra aurretik komulgatzera joaten zenak txakur handia ordaindu behar izaten zuen. Jasotako diru hori ez zela mugitzen eta balorea galtzen zuela komentatzen du.

Transkripzioa

- Lenengo dirua, pentsaizu, emuten ebana, horrek emundako diruakin, hori zera eitten eben, hori zelan da, komulgatzera faten ziñanian zu, zeure medalliakin eta uniformiakin faten zi., neu be fanda nao medalliakin! Baiña aurretiko gauzak die. Askoz aurretikuak. Gerra aurreko gauzak die eta. Honek ixango dia sobre el año veinte o por ahí nik kontatzen dihardutenak. "Quince-veinte" ingurukuak. Eta, klaro, komulgatzera faten zanai bere dirua eukan, ez dakit exato zenbat zan, baiña ez dakit erriala ala txakur haundixa eukan. Txakur haundixa da "diez céntimos", ha antxiñako kobrezko txakur haundixak. Harek zian diez céntimos. Eta erriala zan hurrengo, errial bikua, errial eta errial bikua. Baiña uste dot txakur haundixa zala.

-Konfesatzera joan eta...

-Bai, zera emuten dotsuen lekuan, taka, hari komurgatzen zanai danga!, danga!, danga! Eta, karo, horrek gauzok, etorrixa zelan euan neurtuta, harek diruok zelan ez zerezen produzitzen ifinita; produziru-tzen egon balitzaz harek diruak, ba, ordurako asko zien harek diruak. Azkenian geldittu zianian be, diruak danak garbittu zianian be, "no sé si eran trescientas mil pesetas o algo", e! Hori ointxe, orduko diruak! Orduan "trescientas mil pesetas en Elgeta" erdixa erosten ziñuan. Baiña, klaro, gero baloria galdu dau diruak. Amerikano askoi hor galdu jako dirua.

9.2. 19 urterekin Berraondoko altzari lantegian

- **Hizlaria(k):** Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref:** ELG-035/002
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:10. **Bukatu:** 00:01:40
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** 19 urterekin Berraondokoa altzari lantegian hasi zen lanean. Materiala garraiatzea izaten zen bere lana. 18 lagun inguru zebiltzan lantegian. Emakumeak ere ibiltzen ziren. Lantegitik irtendakoan baserrian ere lanak egin behar.

Transkripzioa

-Bueno, Isabel, zenbat urtekin hasi ziñan lanian?
-Hogei urtekin; hemeretzikin, Berraondokuan.
-Mueblietan?

-Bai, muebliak.
 -Ze eitten ziñuan orduan?
 -Hara! Largeruak eta eskillara zahar batzuk ipiñi bai bidetik Berraondoko ganbarara, hantxe goittik behera bajau ahal dan moduan, eta taillarrera eruaten gizonen makinara.
 -Gizonen preparatzen orduan?
 -Bai. Einddakuak eruan ganbarara eta eittekuak goittik behera ekarri.
 -Zelakua zan Berraondokua? Guk ez dou ezautu.
 -Ai... Taillar zahar negargarri bat!
 -Bai?
 -Oj! Taillar zahar negargarri bat zeuan orduan.
 -Jente dezente ibilliko zan lanian...
 -Bai. Hamazortzi lagun edo. Danak hemengotxe mutil gaztiak, gizon zaharrak eta holako batzuk
 -Eta ugazaba, andria?
 -Jose Mari Berraondokuan andria.
 -Andria ugazaba ez zan izango orduan be?
 -Bai. Andrak be bai. Egon giñan. Rufina ta, [Otamendiñeko] Isabel eta, zeintzuk egon giñan? Kantoiko Juanita-eta. Uste dot Kantoiko Juanita be bazala.
 -Makinan eitten ziñuen lana, baiña?
 -Ez. Ezebez guk holakoik. Guk karriau.
 -Pixua erabili?
 -Bai, hoixe. Largeruak-eta; bi lagunen artian kabezeria-ta, barrena-ta jasotzen.

9.3. Lantegitik irten zeneko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Arantzabal Untzetabarrenetxea, Isabel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arantzabal Arrieta, Iban
- **Erref**: ELG-035/004
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:03:50
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Emakumeek ere lan egiten zuten lantegian. 6 urte egin zituen eta lantegitik irten zenean 4 urte egin zituela jarri zioten eta ezin izan zuen ezer kobratu. 26 urterekin lantegitik irten zen ezkontzeko.

Transkripzioa

-Eta lanian esan dostazu emakumiak be bazabiziela, ezta?
-Ene!, ahal daben dana eitten lau txakur haundi irabazteko.
-Nomina eta guzti. Nominia eukitzen ziñuen, hillero pagia eta...
-Bai, eta sei urte ein najittuan, bai, eta lau urte ein nittuala urten nebanian ipini; eta gero ez zer..., zela esaten da, kobratzeko...
-Parua edo?
-Bai. Ezkondu ein nintzan hogeta sei urtekin, eta gero pentsatzen najuan pensiñua euko nebala; eta ezetz, lau urte bakarrik. "Lau urte, sei urte eindda gero?" "Eta ba liburuetan lau urte ipintzen dau". Edarki faltsukerixia. Eta sei urte eiñ. Eta gero ez zosten pagau. Estoy sin pensión de eso.
-Holakuak lehen be pasatzen zien. Oin be bai eta lehen be bai.
-Bai. Ia berrogei urte die bai ezkondu nintzala... Pues eso me hicieron.

9.4. Baserritik tailerrera

- **Hizlaria(k)**: Irazabal Aranzabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ELG-039/024
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:32:38
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Baserritik 48 urtera arte bizi izan zen eta gero tailer batera joan zen lanera "Zabala Hermanos"era, eskopetak egitera, bertan egon zen jubilatuta arte.

Transkripzioa

-Gu oin be joaten ga baserrira.
-Baiña baserritik bizitten?
-Berrogeta zortzi urtera arte.
-Eta gero zer egin zenduen?
-Tailler batera sartu.
-Berrogeta zortzi urte arte baserrixan. Ez euen bizimodurik atarateik?
-Ez.
-Zenbat ume zeukatzun ordurako?
-Hiru.
-Danera zenbat euki dittuzu?
-Hiru.
-Orduan berrogeta zortzi urtekin handik ez euela zerik eta nun hasi ziñan lanian?
-Zabala Hermanos. Eskupeta fabrika.
-Oindiok be bizi da fabrika hori?
-Bai.
-Ze eitten zebein hor?
-Eskupetak.
-Eta hor jubilau ziñan?
-Bai. Ta gero jubilau nintzanian baserrixa atzera. Ganauak ez geunkan, ezta, ganauak kendu ein genduzen eta. Hamentxe ortuan-eta, basuan-eta.

9.5. 1940. hamarkadan, Eibarren etxegintzan lanean

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/003
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:01:54. **Bukatu**: 00:02:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Ekonomia eta industria » Boom industrialak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Gerra ostean hasi zen Eibarren obra desberdinetan lanean, 1940 inguruan.

Transkripzioa

- Ni? Ba, obretan hasi nitzala, obretan hasi nitzala, gerra ondorian. "El año treinta y"... Egon, "cuarenta". "El año cuarenta" inguruan hasitta ni biharrian obretan. Eibarren obretan hasi giñan, ta hortikan lanetikan, gero geure kontura be etxe morduan ein genduan. Bai. Gero ibili giñan, ze urtera arte? Egon. Gu ibili giñan [...] juntau giñala, taillarra zertu genduala, "el año"... Egon. Zenbat esango dotsut? Baiña bixen bittartian nik obra asko ein naben. Hortikan...

9.6. Arotzeria lana gerra aurretik ikasi zuen

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Narbaiza, Anaje
- **Erref:** ELG-069/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Lanbideak » Arotzak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Arotz lanbidea gerra aurretik hasi zen ikasten. 3 urte inguruan jardun zuen ikasten, baina gehiago ikasi zuen bere kontura lanean hasi zenean. Etxe ugari egin zituen Eibarren.

Transkripzioa

- Bai, arotzerixan ofiziuia ikasten ibilitta nao gerra aurretikan, gerra aurretik. Bai, gerra aurretik ein najittuan hiru urte. Bai. Bai, hiru urtian ibili nitzan arotzerixan ikesten. Ez genduan asko ikesi, e? Gero, geure kasetara gehixao ikesi genduan, zeaittik eze ofiziuia ikestera fan ta beti piontzia: "Hau ein bihar dok, hori ein bihar dok" eta zera ta bata ta bestia. Gerriak urten eban, justu-justuan, [hortantxe] urtiak akabatzer, gerrioi zertu zan, azaldu zan, ta akabo. Gero ya obretan hasi nintzan. Obretan hasi nintzan ta hortik-hemetikan, ba, ni ibili nitzan. Obretan, jornalian, bost bat urtian bai. Bost bat urtian ibili nitzan. Bai. Ta gero, ba, geure kontura ta hortikan be hasi giñan zertutzen ta ein genduzen, ba, etxe mordua. Eibarren etxe mordua ein genduan. Danera eingo genduzen, "ciento sesenta viviendas" edo holako bat ein genduan. Bai.

10. Diaspora

10.1. Osaba Californian artzain

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/007
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena:** Bere osaba 17 urtean artzain ibili zen Californian. Morroi moduan joan zen, baina bere nagusia edadetua zen eta gerora haren ardiak erosi zituen. Ardi haiek saltzean prezioa igota zegoen eta aberastu egin zen osaba.

Transkripzioa

-Nere tio be amerikanua zan. Nere tio, aman anaia, Kalifornian pastore ibili zan hamazazpi urtian; eta behin bajau zan bakarrik herrira. Eta harek esaten eban hango moruko bizimodua eruan ezkerro hemen dauala

Amerika. Hara fan barik. Hamazapi urtian bera behin bajau zan herrira bakarrik. Osea, fan zan basora-ta. Harek esaten eban, berak han eiñ daben bizimodua hemen eiñ ezkerio, hemen dauela Amerikak hara fan barik. Hemen ein leikiela ha dirua harek ein ebana hara fan barik. Hari pasau jakon, harek suerte haundixa ixan eban nere tiok, pastore fan zan eta, kriaue fan zan pastore, eta bere uezaba, edadia harek be, eta ardixak tiok eukazen, eztakit nik zenbat, bi milla eta bostehun ardi-edo eukazen tiok. Eta bestiak eukazen hiru milla edo, berorren uezabak. Eta, klaro, tiok ze eiban, uezabak saltzeko ifiñi zittuanian ardixak, tiok erosi ein zittuan harek ardixak; uezaban ardixak erosi ein zittuan tiok. Eta erosi ebanetik saldu zittuanera ikaragarritzko gorakadia jo eban. Lehen esan doten diruena, dirua zelan bajau zan, diruak ikaragarritzko gorakadia egin eban. Eta gure tiok kriston diru pillia ekarri eban. Gero saldu ein zittuan danak, etorri egin zan. Ia edadia be baeukan, etorri zanian tiok euko zittuan berrogei bat urte edo, berrogeta... hortxe inguruan egongo zan tio etorri zanian. Por ejemplo, esango dotsut, zenbat diru ekarri eban? Eta eztakit seguru, baiña bost bat basarri erosteko beste bai behintzat; bost bat basarri hori bai, hori ondo. Hori ondo ekarri eban. Eta, klaro, harek hoixe esaten eban, beti esaten eban harek: han dirua ein bai, baiña gero, klaro, pasatzen jakona zan, zer haundixa euki eban, alde haundixa euki eban dolarrak pesetara kanbixatzerakuan. Orduan denporan. Gaur eurua gehixao da dolarra baiñok, baiña orduan askoz be gehixao zan dolarra pezetia baiño. Orduan pezetia uste dot euala. Bai, pezetia.

-Orduan kanbixora diferentzia haundixa eukiko zeban.

-Bai. Halaxen izan zian horrek historixok. Halaxen pasau dia eta halaxen gelditzen dia horrek.

11. Bestelako kontuak

11.1. Elgeta, "Los campos de Maya"

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/009
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena:** Elgetari "Los campos de Maya" deitzen omen zioten. Erromatarrek izugarritzko sarraskia egin omen zuten handik pasatzerakoan mendeku gisa.

Transkripzioa

-Elgetak zela eukan izena, "Los campos de Maya". Entzunda eukiko dozu hori? Los campos de Maya. Romanuak edo, eztakitt seguru neuk be, hori historixioi bastante ahaztuta dakat baiña, romanuak pasau eben hau "a sangre y fuego". Honek resistidu ei eben hemen, bakizu, orduan hemen dana mendixa zan eta. Bertako barri dakixenak ba "es el jefe, no?", eta resistidu ein eben asko, eta gero por venganza a sangre y fuego pasau hau danau. Esaten dabe hau "campos de Maya".

11.2. Euskaldunen pribilegioak noiz lortutakoak diren

- **Hizlaria(k):** Iturricastillo Askasibar, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ELG-012/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Historia orokorra
- **Laburpena:** Euskaldunek gerra gehienak galdu izan dituzte, baina Castellako erregeekin bat egin zutenean irabazi zuten gerra. Ordukoak dira euskaldunek dituzten pribilegioak.

Transkripzioa

-Euskaldunak hamarretik beratzittan ba gerriakin, juntau dienekin juntau diela, beti galdu eñ dabe. Azkenengua be galdu eiben, eta beti galdu eñ dabe. Baiña behiñ irabazi eben, behiñ irabazi eben, con los reyes de Castilla, cuando..., zuk jakingo zu, zuk historixia jakingo zu.

-Kontau, baiña.

-Cuando los reyes de Castilla fueron hasta Zaragoza. Han erezen zerak, erezen han Zaragozan tropak erezen katalanak eta hori Lerida, Valencia, behe alde guztioi. Hemen erezen Kastillakuak, hemen Kastilla aldekuak. Eta, klaro, euskaldunak zertu zien con los reyes de Castilla bat eñ eben. Eta klaro, euskaldunak dakezen pribilegixo guztiak haixe gerria irabazi ebenian, orduantxe emun otsezelako, no se que... emperador Carlos V o no se quién fue. Eztakitt seguru, eztakitt. Hori eztakitt seguru.

-Eta gerria irabazi?

-Bai, bai. Gerria irabazi eben. Zela fan zian con los reyes de Castilla, gerria irabazi eben, eta orduantxe emundako pribelikuak dare hemen. Esaten dana "los privilegios vascos", orduantxe emundakuak dia.

-Harrezkero gerrarik ez?

-Harrezkeriok ez. Baiña azkenengo gerria be ba horretxek, la independencia y todo eso, ba hoixe sostenitziarren urten eben euskaldunak gerrara. Eta urten eben gerrara, por casualidad urten be eiben; halan (kili-kolo-ren jestua) egon zan gauzia lelelenguan eta.

12. Natura

12.1. Babak eta gaztainak egunero

- **Hizlaria(k):** Elkoro Ansola, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-031/006
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:07:21. **Bukatu:** 00:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Baba jaten zuten egunero. Baserrian beti egoten zen zerbait jateko. Gaztainak ugari batzen zituzten eta 4-5 hilabeteen

egunero jaten zituzten, batean erreta eta bestean egosita. Gaztainak kontserbatzeko ilbeheran buelta ematen zitzaien.

Transkripzioa

-Ze jaten zenduen orduan? Ze jaten zan basarrixan?

-Basarrixan normala ba babia. Gaur babia ta bixar babia ta etzi be babia ta; atzo be bai ta falta izaten ez zanian pozik. Hoixe.

-Baserrixetan baiña goserik ez zan pasauko, ezta, eongo zan zeoze.

Ez. Beti agertzen zan zeoze, patatia edo berduria edo, hau edo hori beti.

Esnia kalera eruaten zan baiña ostian beti azia edo porrua edo lekia edo, zeoze beti agertzen zan eta. Gaztaiña berriz burdika gaztaiña, hasi Domu Santuetan edo lehentxuao eta ia sasoe honetara artian gaztaiña akaberaik barik. Holakotxe pillia eukitzen gendun eta hari konserbatzeko eitten gendun ilbeheran buelta emon. Ilbeheria badakizu zer dan? "Menguante"

-Ilbeheria, bai.

-Hari bueltia emun, bestela geldi-geldixan erne itten zan gaztaiña; konserbatzeko ba buelta emuten jakon. Ta guk ba lau bat hillabetian edo bostian gaztaiña eunero. Batian erreta ta bestian egositta. Horretan amakin ez giñan ondo arreglatzen, erreta gehixao gastatzen zan, ta guk erreta jatia nahi ta amak egositta ipintzia nahi gutxiaokin pasatzeko; ta holan ibiltzen giñan.

-Erreta zeaittik gastatzenzan gehixao, gustorago jaten zenduelako?

-Erreta gustorao. Bai. Holakotxe gauzak.

12.2. Ilargiaren eragina baserriko lanetan

- **Hizlaria(k):** Elkoro Ansola, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Mendicute, Josu
- **Erref:** ELG-031/007
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:11:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Lehen ilargiari asko begiratzen zitzaion baserriko kontuetarako. Simaurra ilbeheran ateratzen zen, bestela berotu egiten da eta. Sutarako egurra ere ilbeheran botatzea komeni da.

Transkripzioa

-Lehen ilargixari inportantzia haundixa emoten jakon baserriko lanetarako?

-Bai, bai, hoixe. Esan dotsutena [...], eta gero ganauei azpizak, ximaurrak atartzeko be "menguante", ilbeheria hobia izaten zan, bestela berotu itten zan, ilbarrixan berotu itten da gauzia.

-Eta esaten dabe arbolak botatzeko...

-Bai. Sutarako egurra bota bihar bazan be ba ilbeheran, bestela ilbarrixan bota ezkerro holako egur bat ipiñi bai sutan eta han sua ta hamen atzetikan ura urtetzen otsan.

-Bai, e?

-Bai. Sua hamen eta hamen atzetikan ura ilbarrixan botatakua bazan.

-Humedadia edo...

-Bai, bai.

12.3. Egur mota desberdinak eta bakoitzaren ezaugarriak

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/007
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:06:01. **Bukatu**: 00:09:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Natura » Meteorologia
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Haritza, etheen egitura egiteko erabiltzen zen. Pagoa ez da egokia etxegintzarako. Pagoa, gurdien ardatza eta uztarriak egiteko erabiltzen zen. Pagoa moztu berri dagoenean uretan sartuz gero, gogortu egiten da. Ez da alperrik galtzen. Busti-lehorrean izanez gero ostera, "alkortu" egiten da.

Transkripzioa

- Piñua eta gaztaiña alde batetara lagata, hemengo beste egurrak zertarako ibiltzen zihuzten?
- Hemengo egurrak, holan, obrarako, zererako, ba, haritza. Haritza armazoia, hola, kuarternerixia edo zera ta ostientzeko bigak, egurrezko bigak, eta hortakua be bai. Ta sueloko ohola, sueloko ohola be basarrixetan dana gaztaiña edo haritza. Bai. Gaztaiña...
- Pagua?
- Pagua ez. Pagua ez da eitten basarrirako.
- Zeaittik?
- Ez da eitten. Ez, ez, ez. Pagua da ostientzeko artikulu zererako, muebliak be eitten dittue paguakin ta zerian, baiña obrako asuntuan, konstrukziñoko asuntuan, pagua bapez. Ez, pagua ez da. Kitto. Ez da pagua, ez. Pagua ez da gastatzen.
- Eta uztarrixak eitten zien, ba, paguakin?
- Bueno, haxe. "Lo único, ahora has dicho, la verdad". Ta burdixei ardatza sartzeko.
- Ya. Eta hori zeaittik?
- Pagua ez dalako zertutzen, ez da usatzen. Ez, ez, ez. Pagorik hamen... Dana [zera da hau]. Honek be dauka kuarternerixia haritza dana, etxe guztia. Kuarternerixia haritza ta gaztaiña. Haritza ta gaztaiña. Ta pagua, berriz, esan douna. Gaur egon be ez dao asko, baiña burdixari ardatza sartu ta holakotxe holan... uztarrixak. Horixe.
- Eta pagua sartzan uretan, ezta?
- Bai.
- Uretan sartzan. Eta zeaittik eitten zan hori?
- Ba, haintxe aguentau deixan. Pagua berdetan uretan ipintzen badozu, "siglos". "Siglos, siglos". Itsasuan, baztarretan, puntalak... madria billau ezin edo basia billau ezin behian ta puntalak igual sartzan dittue makiñiak, sei-zortzi metroko pago zerak. Lurrian jo-ta barruraino sartu ta han hartu dana baten, dana baten hartu haura ta akabo, hantxe egoten ei da beti. Akabo.
- Urak gogortu eitten dau orduan...
- Gogortu. Bai. Ta haintxe, kitto. Ez da bariatzen, ez da bariatzen bape. Haintxe. Ta askara be horreaittik botatzen dozu. Zuk eitten dozu uztarrixak, gaur eitten dou uztarri bat ta haura apurtzen danerako hortxe egongo dok hori. Bota askara ta beste zortzi-hamar urtian be hantxe dao. Uretan bertan konserbatzen da. Kitto. Bai. Horreaittik, botatzen bada... busti-

lihorrian lagatzen badozu, gaur busti ta bixar sikatzen bada, alkortzen da ta akabo. Juaten da [ura] ta harek ez dau balio.

- Zer da "alkortzia"?
- Alkortzia, ba, dana sikatu ta erei eitten da ta ixua moduan jartzen da hori. Ba, alperrik galdu. Basuan botatzen badozu arbola bat, ta lagatzen dozu zuk han urtietan, ta badoia apurka-apurka-apurka ha usteltzera doia. Usteltzera, usteltzera. Akabo. Hilda geratzen da bai, hildakua, ta hildakuan, asuntua, behin botatzen danian, ba, ha badoia.
- Eta zuk pagua sartzen dozunian uretan, han, berak ura hartzen dabenian, haura ez da sendotzen edo ez dau emoten?
- Ez, haintxe egoten da. Akabo. Geuk be baten baiño gehixaotan euki dittuu. Oin ez dakau, e! Baiña baten baiño gehixotan, handiko pago zaharra dauan tokixan, askan, haintxe sartu haintxe, ta haintxe dauala uretan. Ta haintxe, handitxikan.
- Oso ondo. Eta altza eta...

12.4. Altzaren ezaugarriak

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/008
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:09:21. **Bukatu**: 00:10:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Natura » Meteorologia
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Altza, maiatzeko ilberrian bota behar da. Orduan dago bere onenean. Altza ere ez da larregi erabiltzen: gurdien kaxak egiteko orduan oholen bat behar denean, orduan erabiltzen da; "burpartikak" egiteko ere egur ona eta arina da.

Transkripzioa

- Altza, ezer ein bihar badozue, maiatzeko ilbarrixan bota bihar dozue, maiatzeko ilbarrixan. Bai. "Mayo".

- Eta zeaittik ilbarrixa ta beste guztiak ilbeheran?

- Bueno, hori da. Baiña hori orduaintxe, [ilbarrittuta], orduaintxe dau horrek kalidade fuertia. Onen onenian. Orduan botatakuak ya beste edozein egur gogorren lez aguantatzen dau. Bai. Ta esateko, arbolia zer da, ba? Ez da ha [bestiak bezelako] kalidade gogorrekoa, baiña orduan botatzen danak balio dau... akabo! Geuk be [baten baiño gehixaotan esan dou]: "Joño, maiatzeko ilbarrixa. Ointxe bota bihar dok harako egurra. Edo hau eitteko edo hori eitteko edo bestiandako". Haintxe geratzen da, akabo.

- Eta zetarako da ona altza?

- Altza...

- Zetarako ibiltzen da?

- Bueno, altzarik egon be ez dao halako arbola haundirik, e? Txiki samarrak edo zera. Baiña altza, ba, basarrixetan be igual burdixari kajia ein ta hortaiko zerak edo nunbaiten zeoze zertu bihar badok, oholen batzuk, holan, zerraduria eitteko edo holako zeren baterako ta holakotxe objetuetarako. Baiña altza ez da, altza...

- Burpartikatarako ta?

- Burpartikatarako be... sikutan euki bihar dala esaten juek.

- Bai, e?
- Bai. Badakik, gaur eurixa hartutzen jok zarra-zarra, ta barruan [euki...] berriro kanpuan, baiña kaso eitten badotsak, burpartikatarako be ona. Ona. Bai, bai. Ta ariña. Egur ariña geratzen da hori, e! Oso egur ariña. Bai. Oso egur ariña geratzen dana altza.

12.5. Baserrian erabitzen diren egur motak

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/009
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:10:56. **Bukatu**: 00:12:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Natura » Meteorologia
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Baserrian erabiltzen diren egur klaseak: gaztaina, pinua, pagoa, haritza, gerezia. Akazia, "burtetxeak" egiteko gogorra da, astun samarra. Akazia, "esolak" egiteko dagoen egurrik onena.

Transkripzioa

- Ba, basarriko artikulua edo hamengo artikulua da, esan duna. Gaztaiñarian ez dao; hor milagrozkon bat gaztaiña. Piñua ta pagua ta haritza. Bai, pagua...
- Keixia?
- Keixia be, keixia be artikulua zera da, ona. Muebletarako ta danerako balio dau keixiak, e! Keixia muebletarako be ona.
- Akazia?
- Akazia astuna da puskat, e? Burtetxiak eta eitteko be...
- Zertzuk?
- Gogorra burdixan armazoia eitteko, burdixa eitteko. Baiña puskat astun samarra. Berez astuna dok, e!
- Esolak eitteko ona, ez?
- E?
- Akazia esolak eitteko ona, ez?
- Esolak eitteko egurrik dauenik onena akazia.
- Zuzen-zuzen doa, e? Zuzen-zuzena.
- Bai. Ta aguentau, aguentau. Lurrian, emoixok... puntia erre, holako bat inguru. Sutan iketza ein bihar zan pixkat, e? Sartik eta aguentauko jok...! Gaztaiña baiño gogorraua dok asko be!
- Usteldu be ez, ezta?
- Ez ez. Gaztaiñan aldian zer haundixa dauka, gogorra dok. Akazia gogorraua.

12.6. Egur mota desberdinak eta bakoitzaren ezaugarriak

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/010
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:12:09. **Bukatu**: 00:14:09

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Intxaurra, eskopeta kaxak egiteko oso ona. Etxegintzan ez da gehiegi erabiltzen egur klase hau. Zumarra, sasoian botaz gero, altzariak egiteko "loratsua" da (korapilatsua), ona, "gaztaina-makatza" modukoa (mentatu gabekoa). Haritz amerikanoa. Urkia, zotzak egiteko. Etxearen gailurra egiteko, haritza erabiltzen da; akazia ere erabil daiteke.

Transkripzioa

- Intxaurra muebletarako [ezer dana], ostientzian intxorrak ez dot sekula entzun halako zeri dakanik. Muebletarako, "lo único" horixe. Eskopeta kaxak ein ta hortako artikulorako intxorra bai. Intxorra hortarako ona don, e? Oin, egon gutxi. Ba, darenak artikulorako hortantxe, ostientzian ez.

- Artikulo fiñen bat, ezta?

- Bai, ostiantzian ez daok holako zerikan. Intxorrak ez. Ta, ba, ostientzian, lehen esan douna.

- Zumarra edo olmua?

- A! Danak ihartu zittuan horrek. Mordua geunkan ta bat ez jaku ein basarrixan be. Lehen mordua zittuan ta. Hori, ba, hori... Sasoian, bere zerian botata, muebletarako be loratsua izeten dok, e! Gaztaiña-makatza modura eitten jok horrek, e? Gaztaiña-makatza moduan.

- Ta gaztaiña-makatza zer da?

- Ba, mentau barikua. Oseake, "sin injertar". Ta beste bat daok --gutxi daok hamen, baiña--: haritz amerikanoa. Haritz amerikanoa dok egurra gaztaiñian tiporakua, e? Lora edarrak. "Roble americano".

- "Lorak" esan nahi dozu, zerak...

- Lorak, lorak.

- Korapilluak, ezta?

- Bai, bai.

- Bistarako dotoria...

- Bai. Harek ebaten darian edo labratzen darian, oso edarra urtetzen jok.

- Eta urkixa? Urkixakin zeoze...?

- Urkixa? Palilluak.

- Bai. Besterik bapez?

- Palillotarako urkixa onena esaten dabe, urkixa gastatzen dabela palillo-fabriketan. Urkixa palilluak eitteko.

- Ta beste ezetarako ez?

- Ostientzian, bueno, objeton batzuk edo zerian, baiña ez, ez dotsat bilatzen ostientzeko zerikan.

- Eta etxe batian, gaillurra eta, hori ze izaten da?

- Gaillurra [egurretan] sartzeko? Ez. Haritza, hartitza. Haritza edo akaziak be balio dau, e! Akaso akaziak be obrarako balio dau egur haundixak sartzeko. Hortarako bai. Baiña urkixa ez; urkixa-ta ez.

12.7. Zuhaitzak botatzeko garairik onena

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Narbaiza, Anaje
- **Erref:** ELG-069/011

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:14:09. **Bukatu:** 00:15:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Zuhaitzak botatzeko garairik onena. Behin abendua pasaz gero, ez da sasoi ona. Azaroko ilbehera sasoirik onena.

Transkripzioa

- Zu ibilita zare arbolak botatzen?
- Botatzen be ibilita, bai.
- Makiña ba aldiz, ez?
- Bai.
- Ta ze sasoi-tan edo zela...? Lehen zeoze aipatu dozu.
- Arbolia botatzeko, lehen esan dotena, askok ez detsa kasorik be eitten [zerari], baiña da onen-onen-onena, lehen esan dotena, hauxe, hau hillau ta hurrengo ilbeheria be --gabonak aurretikan, e!--. Behin gabonak [ezkeritxiok], pasatzen jakuan haritzari ta honi-ta tintia formatzen jakue ipurdixan. Tintia. Ya udabarrixan etorreria. Ta ha tintiak zertzen badau, berak erre eitten jok, erre, erre. Sikua ointxe daok egurra, ointxe sikuen. Ta sikuan, ba, aguantau eitten jok, baiña gero botatzen badok, marzuan edo botatzen badok, ba, jo-ta tintia urtengo jotsak ipurdixan. Ardua leztxe urtengo jotsak ta harek berak erre eitten jok. Ez dok... sasoi eskasian botatzia dok. Kitto. Bai.
- Orduan, zer da? Nobienbreko ilbarrixa edo ilbeheria?
- Ez. "Noviembre, luna menguante". "Luna menguante", oseake gastatzen.
- Bai, ilbeheria bai. Ilbeheria.
- Ez jok balio.

12.8. Zuhaitz mota desbedinak

- **Hizlaria(k):** Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Narbaiza, Anaje
- **Erref:** ELG-069/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:15:24. **Bukatu:** 00:16:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Ametza. Artea.

Transkripzioa

- Ametza zeozetarako bai?
- Egon. Ametza, ametza...
- Hola, [...], ez?
- Ametza dok...
- Haritza, baiña hola pixkat [...] hori.
- A! Ointxe konturatu nok! Haritzan... "tipo roble".
- Bai.
- "Tipo roble". Baiña hemen ez dao. Ez dao, ez dao. Ez. Parajiak egongo ditudak akaso egoten danak, baiña...

- Hori goi-goittan ta...
 - Bai, mendixetan...
 - Artia ta?
 - Arterik be eza dao hemen ta.
 - Ez, Mondrau aldian eta bai, baiña hemen ez.
 - Bai, baiña [paguana...] akaso. Mutriku aldera ta [behera] ta artia gehixao ixango da, e?
 - Zeuek landu edo erabili edo bai?
 - E?
 - Zeuek landu edo erabili dozue artia?
 - Ez, ez, ez. Sekula ez juat artiakin ezer ein. Artiakin ez juat ezebe ezautzen. Ta ametza be... Ametza hor hortikaldian, baiña holakotxe sastrapotxon batzuk edo [...]. Orrixa be diferentia eukitzen jok bestian aldian. Bai, bai. Hoja diferentia eukitzen jok.

12.9. Zuhaitzen gaitzak

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-069/023
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:27:38. **Bukatu**: 00:28:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Natura » Meteorologia
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Zuhaitzen gaitzak. Zumar guztiak ihartu dira; gaztainei ere gaixoa etorri zaie.

Transkripzioa

- Eta ze fallo eukitzen dabe holako tronguak, ze fallo?
 - Egur haundixak, egur zaharrak gutxi eukitzen dau, e?
 - Eta gaztiak?
 - Gaztiak gehixao [...].
 - Bai, baiña, beste holako gaitzik edo eukitzen dabe arbolak? Ze gaitz klase eukitzen dabe arbolak?
 - Gaitza... batzuk honetxi pasau jakona, gaztaiñiai pasau jakona, gaixua edo zertu zan da ihartu. Zumarra, horrek esan dabena, zumarra be, danak ihartu dia, ez dao bape. Lehen mordua [geunkan geuk] be eta danak ointxe dala lau urte edo, ya atzenak bota giñuzen. Danak ihartu zian ta kitto. Kaletan-ta toki askotan, badakizu, zumar arbola galantak herri guztietan, gutxi [edo...] ta [...] bape baztarretan, danak ihartuta dare.
 - Batenbat muestrarako igual geldittuko zan? Ez dakit...
 - Millagrosekon bat, baiña dana hori, hori razatikan galdu ein dok, zihero galdu dok hori.

12.10. Eguraldiaren eta ilargiaren eragina

- **Hizlaria(k)**: Arana, Sebastian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Narbaiza, Anaje
- **Erref**: ELG-070/005

- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:06:15
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Egurra lurrian josteko hegoia da ona; mendebala sartzea ez da komeni. Egurraren gizona, satsak jaten du. Ilargiaren eragina jendeak uste duena baino garrantzi gehiago du (ilea mozteko; ganaduaren azpiak ateratzeko; simaurrari buelta emateko; e.a). Sutarako egurra ilbeheran moztutakoa izatea ere garrantzitsua da.

Transkripzioa

- Ta ohola josteko be, sueloko ohola josteko be hegoaixia dok onen-onena. Hegoia. Hegoia, e! Mendebala etortzen bada, tontua. Zertu. Ta sikatzen danian, hegoiak sikatzen dabenian, bittartia igual formatzen jako, ta hegoiakin zertik, josi hegoiakin ondo ta haura geratukok haintxe jo-ta [enpapauta] geratzen dok, ondo. Hegoia, e! Hegoiakin. Bai, bai. Ohola josteko, sueloko ohola josi ta zer guztirako egualdi zera. Bai.
- Gero, zerrarixatik ohola zuzen moztuta ez datorrenian, hau baldin bada ohola, eta hola ertzak ez datoztenian oso...
- A! Gizona. Gizona. Hori kendu ein bihar jako. Flojua, flojua da hori. Flojua kendu.
- Flojua eta gizona berdiñak die?
- Bai. Hori ya ke... Flojua zertu [ezkeritxiok], hori jakiñekua da balio ez dabena.
- Zerak jaten dabenian ohola, zela esaten dotsazu horri?
- A! Satsak, satsak.
- Sitsa?
- Sitsa. Bai. Jaten dabenian... Gizona badaka, satsak jan eingo dau, e! Bai, satsak bai.
- Gustokua, ezta?
- Ha ya makal egoten da, ta dana zertzen dau, zulatzen dau. Gogorra ez dau zulatzen harek, baiña...
- Barrukua [giherria eitten] da ta. Barrukua [giherria] ta geiñekua axala, ba...
- Bai, bai. Makala, makala.
- Azala kendutakuan, barruan, hola, zati bat eukitzen dau...
- Gizona.
- ... ta gero barrua giherria.
- Giharria. Baiña hori bestiori makala. Makala. Bestia balio ez dabena.
- Illetargixak zerikusin bat badauka?
- Bai, illetargixak be beti dauka, e?
- Satsak jateko, e?
- Bai, bai, bai. Illetargixak be beti. Ilbeherakuak, ilbeheran botatakuak, ba, geratzen bada [...], harek igual urtietan aguentauko jok. Urtietan. Baiña bestiak urte betegarrengo joiak, "parra-parra-parra" hasiko jakok zertzen. Illetargixak iñok pentsatzen daben aldian enormeko aldia jaukak artikulok guztietarako. Ulia mozteko be bai, ganaueri azpixa etaratzeko be bai, simorrari buelta emoteko be bai. Ta artikulak daoaz asko ilbeheria, ilbeheriak zertzen jok. Sutarako egurra be ilbeheran botatakua asko zeraua dok. Bestia, ura, lehen esan douna, alde batian su emon ta beste aldian "pri-pri-pri-pri" urtetzen jotsak ura.
- Sitsari esaten jatsue "zerena"?
- Bai, hori dok, "zerenak jan". Zerena, hori dok.
- Zuek ze esaten jatsue "satsak jan" ala "zerenak jan" ala bixak?

- Bueno, zerena izengo dok... sitsa izengo dok... Ez jakixat, ba, nik, erderaz dan edo zer dan.
- Ez, ez, bixak dira euskeraz, e!
- Bai?
- Baiña zuek normalian ze esaten dozue?
- Sitsak, sitsak. Bai, bai. "Sitsak jan".

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ardiak noiz ernaldu behar? Ardiak eta ahariak (ELG-005/011)

Ardiak ez ditu inseminatzen; normalean aharitu egiten ditu. Lehen aharia abuztuan erretiratu, eta urrian botatzen zen. Adaria ardiei lehenago botaz gero, bildotsak goizegi jaiotzen ziren, eta mendian oraindik janaririk ez. Ahariak berak topatzen du zein dagoen ahari eske. Artalde handietan 3-4 ahari egon daitezke, baina normalean bakarra. Bi ahari badaude, bata makala behar, bestela topeka hasiko dira. Orain adarbakoak daude, eta errazagoa da. Lehen beti adardunak. Ardiei garbi atzematen zaie noiz dauden arkera eta artzainak badaki gutxi gorabehera ardi bakoitzak noiz izan behar duen bildotsa.

2. Artzainek ardi guztiak ezagutzen dituzte (ELG-005/012)

Artzainek ardi guztiak ezagutzen dituzte, baita 1.000 ardi edukita ere. Denek aurpegi ezberdina dute. Izena ere ipintzen zaie gehienetan.

3. Elgetako artzainak eta larreak: Egoetxeaga, Beizu eta Arraotz (ELG-005/015)

Euren baserritik Azkonabieta ingurura eramaten zituzten ardiak. Larreak eta txilarra egoten zen. Janari asko eta ona zegoen. Orain sasiak jan du dena. Neguan zelaian egoten dira, beste baserriren baten zelaietan, errentan. Elgeta inguruan, ardiak baserri guztietan, baina artalde handiak izan dituztenak hiru: Egoetxeaga (Egotxia), Arraotz, eta eurak (Beizu). Orain bera besterik ez. Elgetan "artzaina" ez da esan izan; beti "pastoria". "ardizaintzia" edo "ardizain egin" bai, baina bestela "pastoria".

4. Eskolan zigortuta (ELG-007/006)

Eskolara sartu aurretik, 08:30ean mezara joan behar izaten zuten. Neguan oraindik ilun-ilun bidean, eta mezara berandu helduz gero, arratsaldean zigortuta. Beraiek baserritik berandu heltzen ziren sarri, eta arratsaldean zigortuta, "mañana vendrá a misa" 200 aldiz idatzi behar. Manga motzean joanez gero, edo gona laburregiarekin, orduan ere zigortuta.

5. Abadeei larregiko errespetua zitzaien (ELG-007/007)

Abadeei "Ave María Purísima" esaten zitzaien paretik pasatzean. Bere semeak abade bati esandakoa kontatzen du. Abadeei larregiko errespetua zitzaien. Konfesatzeko orduan "pentsamendu txarrak" ere esan behar izaten zituzten. Sasoirik txarrena pasa zuten.

6. Gerratean fronte biren inguruan Egoarbitsa inguruan (ELG-007/008)

Gerran ez zuten txarto pasatu; goserik ere ez. Fronteak inguruan, baina ez fronte-frontean. Milizianoekin ere hartu-eman zuten, eta esnea saltzen zieten. Baserriko gizonezko guztiak Mallabira joanda ziren, eta beste batzuk Bilbora, ganaduekin. Aitaren lehengusu batzuk izan zituzten sabaian gordeta, Eibartar batzuk. Senideak ziren, eta alde egin beharrean, beraien baserrian ezkutatu ziren. Hilabete egin zuten bertan, sabaian, ira pila handi bat zegoen, eta haren azpian kutxa batean ezkutatuta egon ziren. Baserri ondoan babesleku bat egin zuten, karobi zahar bat erabiliz. Baserriko ateak eta leihoak estali egin zituzten. Karabieta ingurua lubakiz beteta zegoen. Nazionalak sartu zirenean, milizianoek Aixola errekatik behera alde egin zuten; askotan, baserrietatik lapurtutako gauzekin (arropak, janaria, oiloak...).

7. Gerratean nazionalak sartu zirenekoa (ELG-007/009)

Nazionalak sartu zirenean, andre-gizonak fusilatu zituzten, eta alabari atzamarra kendu. Moroak etorri ziren. Gogorra izan zen; elgetar ugari hil zituzten. Herria ere nahiko txikituta geratu zen, erdialdeko etxe asko, eliza zati bat, plaza ingurua...

8. Elgetako plaza zaharra: kale baserriak (ELG-007/010)

Lehengo Elgeta ezberdina zen. Plaza irekia zen, eta etxez inguratuta zegoen, alde guztietatik. Kaleko etxe guztietan ganadua zuten. Aurreko aldera kalera irteera eta kortako sarrera, eta atzeko aldera baratzea. Beraiek ere ganadua zuten. Ezkondu ondoren, baserritik kalera etorri ziren bizi izatera, baina jarraitu zuten ganadua izaten.

9. Kale-baserriak eta ganadua (ELG-007/012)

Elgetako etxe gehienetan ganadua zuten, eta bakoitzak inguruko larreetara eramaten zituen, herri inguruan. 1960 inguruan hasi ziren baserri gehienak ganadua kentzen. Pinua sartzen hasi, eta ganadua kendu.

10. Baserritik herrirako bidea (ELG-007/013)

Baserritik herrira etortzeko, askotan ilun izaten zen (batez ere neguan), eta lastazaua erabiltzen zuten. Garia jo ondoren geratzen den lastoa hartu, su eman, eta horrekin argitzen zuten bidea. Anekdotak bat ere kontatzen du. Mezetara goiz etorri behar izaten ziren, goizeko 6.00etarako.

11. San Roke jaiak Elgetan (ELG-007/014)

Elgetako eliza bakarra parrokia da. Meza ere bertan bakarrik izaten zen (jaietan baselizetan ere bai). Elgetan baseliza asko dago: Asentzio, San Martin, San Antonio, San Roke... Euren auzoko jaiak Sanrokeak ziren, abuztuaren 16an. Eibarko banda igotzen zen Elgetara, eta jende asko izaten zen. Eibarko beraneante asko izaten zen udan, eta jaietan giro handia izaten zen. Bergarako txistulariak ere etortzen ziren, eta etxerik etxe jotzen zuten.

12. Elgeta inguruko erromeriak: Asentzio, San Blas, Santiago, San Antonio... (ELG-007/015)

Asentzioko jaiak ere handiak ziren. Elgoibarko orkestina igotzen zen, eta Bergarakoa ere bai. San Antonion ere erromeria izaten zen, bidean bertan, orkestinarekin. San Blasen eta San Martinen ere jaiak izaten zen, baina ez hain

handia. Azurtzako Santiagon ere erromeria ona egiten zen; oraindik ere egiten da bertan. Goimendi inguruko hori ere jai handia izaten zen.

13. Txirikilean, kaniketan potxoloka, eta tortoloska (ELG-007/016)

Txirikiletan asko jolasten zuten. Kaniketan eta txapaka ere bai. Batez ere horiek ziren euren jolasak. "Karamelo-papelka" ere egiten zuten. Karamelo-paperak erabiltzen zituzten kromoetara jolasteko. Neskak tortoloska egiten zuten asko. Neska-mutilak elkarrekin aritzen ziren gehienetan. Kaniketan egiteko erabiltzen zituzten zuloak, "potxoloak", oraindik ere eliza atarian daude; "potxoloka" esaten zioten jolasari.

14. Su bedeinkatua (ELG-007/017)

Bariku Santu egunean, matrakarekin ibiltzen ziren kalerik kale, mezetarako deia eginez. Zapatu Santuan ura eta sua bedeinkatzen ziren. Ilua ekartzen zuten baserritik (egur ustel-ihartua). Iluari sua ematen zioten elizan, eta baserririk baserri ibiltzen ziren, su bedeinkatua banatzen. Batzuek dirua ematen zuten, beste batzuek txokolatea edo beste zer bait.

15. Umetan txakolinarekin mozkortu (ELG-007/018)

Domeketan Mendrakortara joaten ziren, zabalgune batera, eta hantxe pasatzen zuten arratsaldea jolasean. Umetako ipuin bat kontatzen du: berak 10 urte zituela, lehengusinarekin joan zen Mendrakortara txakolin bila, Andra Mari egunean, eta mozkortuta itzuli ziren etxera.

16. Baserritarrek vs kaletarrek eskolan (ELG-007/019)

Kaletarren eta baserritarren artean alde handia zegoen. Eskolan ere ezagun izaten zen. Baserrikoak atzeratuta egoten ziren beti, eta kaletarren aldetik ere txantxak jasotzen zituzten. Mojetan lanen bat egin behar bazen, lan guztiak beti baserritarrentzako izaten ziren.

17. Elgetako euskara eta inguruko herrietakoa (ELG-007/020)

Elgetako euskara eta inguruko herrietakoa oso ezberdinak dira, erraz bereizten dira. Arrasatekoa "zatarragoa" da, gogorragoa. Elorriokoa txarragoa. Eibarkoak ere beste zera bat dauka. Elgetan "barikua", Eibarren "barixakua", Bergaran "ebakoitza". Antzekoena Eibarkoa da. Uberan eta Angiozarren ere Elgetako euskara daukate. Elgetan bertan ez dago alderik auzo batetik bestera.

18. Biografia; osaba obispoa (ELG-008/001)

1917ko irailaren 4an jaioetakoa. Baserrian bertan jaioetakoa. Aitajauna Oñatekoa zen eta amandrea Eskoriatzakoa. Basalgora ezkondu eta 1889an Azulara bizi izatera etorri ziren. Aitaren anaia (Fulgencio; Martin) obispoa zen eta 1959an Perutik etorri zen eta Azurtzako jaietan meza eman zuen.

19. Azurtzako jaiak (ELG-008/003)

Azurtzako jaiak buruz hitz egiten du. Santixau eta Santa Ana egunetan jai handia izaten zen: meza, aizkora-jokoa, dantza soltea...

20. Goimendi auzoa (ELG-008/004)

Goimendi auzoa. Baserri izenak. Elgetako mugarría; Bergara. Eibarrera jaisteko joera.

21. La Salleko fraideekin ikasitakoa (ELG-008/005)

Bederatzi urtera arte La Salleko fraideekin ikasitakoa. Gerora herriko eskolan, 12 urtera arte. Domingo Iturbek La Salleko fraideei dirua utzi zien eta eskola doan ematen zuten. Ondoren praktikatuaz ikasi du.

22. Lur-sail baten inguruko kontuak (ELG-008/006)

Eguren abokatuari mendian zuen lur-sailaren inguruko kontuak (bai diru-kontuak eta bai kilometroenak) zehatz-mehatz atera zizkion. Lanak erakusten omen du nola egin gauzak.

23. Langileek beraiek eramandako esnearekin gosaltzen zuten (ELG-008/007)

Esne-partitzen ibilitakoa. Goizeko 6:00retan irteten ziren baserritik; Eibarren langileek beraiek eramandako esnearekin gosaltzen zuten eta lanera irteten ziren.

24. Esnea saltzera Eibarrera (ELG-008/009)

Esnea astoarekin eramaten zuten Eibarrera. Bezeroak Eibarren.

25. Auzolanean egiten ziren lan ugari (ELG-008/010)

Auzolana. Ibarrolan karea egin zuten behin, baina auzokoek lagunduta. 1932-33 inguruan egin zen Eibarko bidea. Mendi-bidea garbitzen zuten auzokoek. Karabietatik Ibur aldera bide bat zegoen; beste bat, elizbidea. Beizuko zabala; Azurtza; Ireiko etxaburura eta handik Altamirara.

26. Elgetako "Martintxo" taberna famatua (ELG-008/011)

Eibartarrak kantuan joaten ziren Elgeta aldera; alegreak. Udan jende asko joaten zen bertara egun batzuk pasatzera. Taberna ezagun bat zegoen bertan, "Martintxona".

27. 1932an egin zen bide berria (ELG-008/012)

1932-33 inguruan egin zen bide berria. Eskuz egindako bidea; auzoko mutilek egin zuten. Basodunak elkartu eta inguruko beste bide batzuk ere beraiek egindakoak ziren.

28. Olabarria autobusa (ELG-008/013)

Olabarria autobusa. Uberara joaten zen, bertako baserritarrak hartu eta Eibarrera eramaten zituen tratura. Gerra aurretik ipinitako autobusa.

29. Obispo egin zen Azulako semea (ELG-008/017)

Azulako semea zen obispoa, 12-13 urterekin fraide joan zen. Aurretik Eibarrera esne-marmitak bizkarrean eraman eta itzulitakoan Uberara joaten zen eskolara.

30. Karegintza; karobiak non zeuden (ELG-008/018)

Karea nola egin zuten azaltzen du. Karobi bat Beizu eta Azularako bidegurutzean zegoen. Karobiak nolakoak ziren. Prozesua azaltzen du. Beste karobi bat Beizuren etxe ondoan zegoen. Egotxeagako etxaburuan; Karabietan karobiak egon ziren garai batean. Aita oso ona zen karea egiten.

31. Egotxeagako haitzean harri ona (ELG-008/019)

Egotxeagako haitzean harri ona zegoen; kareaharria.

32. Karea egiteko prozesua (ELG-008/020)

Karea egiteko prozesua nolakoa zen. Neguan harria, egurra prestatu eta ekainaren bukaera aldera betetzen zuten karobia, abuztu aldean zabaltzeko. 3 lagun inguru behar izaten ziren gau eta egun, errelebotan. Karobiko atea edo ataka.

33. Karea zertarako erabiltzen zen (ELG-008/021)

Karea eginda dagoen nola jakiten den. Kolorean ere igartzen zitzaion. Nola ateratzen zen karea. Arriskutsua zen. Lurrarentzat onuragarri bezala erabiltzen zen karea; igeltseroek ere erabiltzen zuten.

34. Aita eta aitajauna ikazkinak; ikazgintza (ELG-008/022)

Norekin ikasi zuen karea egiten. Aita eta aitajauna ikazkinak ziren; bizimodua basotik ateratzen zuten. Neguan egurra prestatu eta udazkenean egiten zuten ikatza. Lan-banaketa baserrian. Inguruan ikazkin asko egon ziren, baina gerra ondorengo urteetan banaka batzuk geratu ziren. Ikatza egiteko modu desberdinak: pago-abarrak erabilia edo buruak. Basomutilak; ikazkinak. Inguruko herrietara ere joaten ziren ikatza egitera.

35. Ikatza egiteko prozesua (ELG-008/023)

Ikatza nola egiten zen; prozesua azaltzen du.

36. Ikazgintza; Eibarren saltzen zuten ikatza (ELG-008/024)

Ikatza Eibarrera eramaten zuten saltzera. Azkenengo txondorra 1950 aurretik egin zuen. Ikatza egiteko erabiltzen zen egurra.

37. Basoa garbitzeko lanak (ELG-008/025)

Garai bateko basoak, pagadiak. Garoa ere ugaria zen. Basoa garbitzeko egiten ziren lanak; azpigarriak egiteko zer erabiltzen zen.

38. Garo-batzea; garotako Ama Birjina Pilarrekoa (ELG-008/026)

Garoa zertarako erabiltzen zen. Nola batzen zen. Garoa batzeko garaia; Pilarreko Ama Birjinari garotako Ama Birjina esaten zitzaion.

39. Gari-jotzea auzolanean (ELG-008/028)

Gariaren inguruko lanak. Orain zelai direnak, lehenago labratu egiten ziren. Gari-jotzeak auzolanean egiten ziren. 1970 inguruan erein zuten azkenengoz garia. Lantegiko jorjala.

40. Inguruetan lur onenak non zeuden (ELG-008/029)

Baserriko bizimodua gogorra, neke asko. Aldapa handiak eta urtero lurreta egin behar. Soraluzean ere aldapa asko, baina lurra finagoa da. Inguruko baserrietan lur onenak non zeuden.

41. Ubera lehen Elgetakoa (ELG-008/030)

Ubera 1928 inguruan Elgeta izatetik Bergara izatera pasatu zen. Eibarko bidea egiteko orduan arazoak sortu ziren.

42. Elgeta eta Uberako euskara antzekoak (ELG-008/031)

Elgetako euskara eta Uberakoa antzekoak. Eibarkoa, Bergarakoa, Arrasatekoa desberdinak. Euskara asko aldatu da.

43. Abade eta jauntxoei berorika (ELG-008/032)

Abadeei berorika egiten zitzairen. Jauntxoei ere berori esaten zitzairen. Txapela erantziz behar izaten zen abadea ikusitakoan.

44. Argia eta ura noiz jarri zituzten baserrian (ELG-008/034)

Baserrian argia gerra garaian jarri zuten. Ura, 1947an etxe barrura sartu zuten. Gauez menditik ibiltzeko farola erabiltzen zuten; lastazaoak.

45. Gari-jotzea eskuz garai batean (ELG-008/035)

Gari-jotzea harrian egiten zen garai batean; "Txanketia". Gerora, makinak hasi ziren. Gari-jotzeko makina baserri batetik bestera erabiltzen zuten. 16 lagun inguru lana ongi egiteko. Gari-jotzeko afaria. Sagardoa.

46. Txondorra nola egin (ELG-008/037)

Liburua ikusten. Txondorraren argazkiak ikusten dihardu. Txondorra nola egiten den azaltzen du. Egosten zenbat denbora behar izaten duen.

47. Txondorra egitean zaindu beharrekoak (ELG-008/038)

Txondorrean zuloak egiten zituzten ziri batekin. Goiko zuloari, "suetxia" esaten zaio. Txondorrak egiteko orduan zaindu beharreko gauzak; tranpak.

48. Errazena lehengo lekuan egitea txondor berria (ELG-008/039)

Txondorra egiteko lautada bat behar izaten zen. Xamurragoa izaten zen aurreko urteko tokian egitea. "Ikaztoixa".

49. Txondorraren inguruko azalpenak (ELG-008/040)

Txondorraren irudiak ikusten. Gainera igotzeko egurrez egindako eskailera erabiltzen zuten. Txondorra tapatzeko orbela; iduria; soia; e.a.

50. Ikazkinek erabiltzen zituzten tresnak (ELG-008/041)

Ikazkinek erabiltzen zituzten tresnak: eskubara; belakia; baheak; e.a. Aitonak ofizioa ondo ikasi zuen.

51. Elgoibarko sasimedikoarekin gertatutako anekdota (ELG-008/042)

Egurra zerekin edo nola ebaki. Bere aitak Elgoibarko sasimediko bat ezagutu zuen ikazkintzan zebilela. Gero haren beharra izan zuenean ez zion kobratu.

52. Elgetako medikuak (ELG-008/044)

Elgetan ezagutu dituen medikuak.

53. Biriketako arazoa zutenak Elgetara (ELG-008/045)

Garai batean biriketako arazoak zituen jendea Eibartik Elgetara joaten zen.

54. Basoko animalia-izenak (ELG-008/046)

Ez du sekula ehizarako zaletasunik izan. Basoko animaliak; piztiak. Erbiak; azkonarra; basurdeak; satanderak; basakatuak. Zozoa; birigarroa; "azpizurixa", neguan etortzen da

55. 1950 inguruko pilotari onenak (ELG-009/006)

Arriaran anaiak, Zurdo de Mondragon, Kortabitarte, Larrañaga... Pilotari onak izan ziren sasoi haretan. Atano III eta Atano VII ere sarri izaten ziren Eibarren. Zaletasun handia zegoen pilotarako. Elgetan, oster, zaletasuna bai, baina pilotari onik ez da izan, Arantzeta eta Elgoro agertu arte.

56. Elgetako baserri gehienak desagertuta (ELG-009/008)

Elgetan baserri mundua erabat aldatu da. Lehen orain baino jende gehiago bizi zen Elgetan. Baserri guztiak erdi hutsuta daude. Elgetatik Eitzagara bidean bakarrik, 15 baserri inguru desagertu dira. Beraien baserria, Lapurdi, ez zen Aixolaerreka auzokoa, baina hartu-eman handia zuten. Eibarrerako bide zaharra, beraientzat, Eitzagatik zen.

57. Baserriko umeak beti lanean (ELG-009/010)

Astebarruan eskolara joaten zen, umetan, baina larunbatetan astua hartu eta Eibarrera joaten zen esne partitzen. Behin oinez ikasiz gero, beti baserrian laguntzen "ondo hezita".

58. Baserriko bizimodua gogorra zen (ELG-009/011)

Zazpi anai-arreba, gurasoak eta amandrea bizi ziren bertan. Osaba bat ere bai. Baserri gehienetan 10 lagun inguru bizi izaten ziren. Hamabost urterekin Eibarrera joan zen lanera, eta zortea izan zuen. Baina Eibarren ere bizimodu gogorra izan zuen.

59. Jaiegunak Elgetan: dantza eta boleta (ELG-009/012)

Asteburuetan Elgetan erromeria izaten zen. Horixe zen beraien denbora-pasa. Txikitoren bat hartu, eta dantza egin. Erromeria ona izaten zen beti, eta jende ugari, ingurukoetako guztiak bertaratzen ziren. Gramolia eta txistularia izaten ziren. Txistularia elgetarra zen "Epi". Boleta ere izaten zen. Zaletasun handia zen Elgetan. Bolalekua ere ezaguna eta ona zen. Beste auzo batzuetan ere izaten ziren. Garizuman txirikiletan egitera joaten ziren Intxorta ingurura. Garizuman ez zen dantzarik eta holakorik izaten. Ezkontzarik ere ez zen izaten.

60. Garizumako debekuak (ELG-009/013)

Garizuman dena egoten zen debekatuta: dantzaz egitea, ezkontzea, idiak uztartzea (Bariku Santuan)... Kanpairik ere ez zen jotzen Bariku Santuan. Mezetako orduan matrakak jotzen zituzten, sakristauak aginduta. Gero, Zapatu Santuan, ur eta su bedeinkatua banatu, eta gero kanpaiak jotzen ziren berriro. Karnabal egunean izaten zen azkenengo erromeria, eta Zapatu Santuan hasten ziren berriro.

61. Ur bedeinkatua eta su bedeinkatua (ELG-009/014)

Zapatu Santuan sua eta ura bedeinkatu eta banatzen zituzten. Elizan bedeinkatu egiten zuten. Norberak ilua eramanez, egur ihartua, horri su eman, eta baserrikerik baserri banatzen zuten. Sua elizan bertan izaten zuten, ontzi ederrean. Ur bedeinkatua etxera eramaten zuten etxeko andreak. Ur bedeinkatu hori erabiltzen zen gero baserriko lurrak bedeinkatzeko, "konfurua" egiteko.

62. Sorginak Elgetan (ELG-009/015)

Aitajaunaren sasoiaren sorginen kontuak esaten zituzten, baina Eibarren pistolak egiten hasi zirenean desagertu ziren. Sorginak lapurrak besterik ez ziren. Anbotoko Señoriaren berri ere entzun zuen txikitan.

63. Baserrietan lapurretak izaten ziren (ELG-009/017)

Berrio auzoan izandako gertaera bat. Lapurren kontuak. Berak ere ezagutu zituen. Baratzetatik jeneroa lapurtu, edo ardiren bat...

64. Erromeriak, aguazila, "agarrauak" eta neska-laguntzak (ELG-009/018)

Auzoetan ere erromeriak izaten ziren. Asentsion handia izaten zen. Herriak aguazila bidaltzen zuen, eta berak esaten zuen noiz amaitu behar zen erromeria. Orduan, dantza-piezako kobratzen zen. Dantza eginez gero, kobradoreak txakur handia jasotzen zuen. Elgetan "agarrauak" ere egiten zen. Erromeriak izaten ziren neska-laguna aurkitzeko tokirik aproposena. Ezkontza gehienak erromerietan egiten ziren. Eta erromeria ostean neska-laguntza. Ezkutuan, baina lehen ere oraingo kontu berberak, patxoak eta zirriak.

65. Elgeta inguruko auzoetako erromeriak eta jaiak (ELG-009/019)

Arraten eta Elorrioren ere erromeriak izaten ziren. Auzoetan ere erromeriak izaten ziren. Uberan San Paulo (urtarrilaren 25ean); gero Asentzio. San Bartolome, abuztuan. Angiozarren San Martinak eta San Bizente. Larrabiltzearra bailarako jaiak San Roke (abuztuan). Andra Mari egunean Bergarako musika-banda izaten zen plazan, eta San Roke egunean Eibarko musika-banda. Azurtzan ere erromeria ona izaten zen Santiago egunean. Erromerien indarra 1960 inguruan hasi zen galtzen.

66. Gerra zibilean nazionalak Elgetara sartu zirenekoa (ELG-009/020)

Gerra garaian, zazpi urte zituen, baina ondo gogoratzen du. Etxe ondoan hiru bonba jausi ziren. Elgetan frontea zegoen: Bergaran nazionalak eta Intxortan milizianoak. Baserriarrak milizianoei laguntzen aritu ziren, gurdiekin materiala garraiatuz. Beraien baserriko ganadua Zaldibarrera eramanez zuten gerratean.

67. Nazionalen erailketak Elgetan (ELG-009/022)

Nazionalekin batera, moroak sartu ziren Elgetara, eta sekulako triskantza egin zuten. Hiru lagun ere hil zituzten. Gerra baino txarragoa ondorena izan zen, ondorengo mendekuak eta ikusiezinak.

68. Gerra aurretik, karlistak nagusi Elgetan (ELG-009/023)

Gerra aurretik karlistak ziren nagusi Elgetan. Baserritar handienak karlistak ziren. Sozialistak eta errepublikazaleak apur batzuk besterik ez. Nazionalistak gehiago. Lehengo sozialistak, baina, finak ziren, "behar den moduko euskaldunak".

69. Elgetako tabernak: Ostatua, Panaderokua, Martintxona (ELG-009/026)

Elgetan lehen beste taberna batzuk zeuden. Lehengo bakarrak "Ostatua" eta "Panaderokua" dira. Lehengo ezagun-ezagun bat "Martintxona" zan, Donostian eta Bilbon ere ezaguna.

70. Eibarko "beraneanteak" Elgetan (ELG-009/028)

Eibartar asko etortzen zen Elgetara uda pasatzera, "beraneanteak". Andreak eta umeak igotzen ziren; gizonak beharrean. Sabado inglesa ere berandu ezagutu zuten; normalean, larunbat guztian lan, goiz eta arratsalde.

71. Elgetako euskara eta ingurukoak (ELG-009/029)

Elgetako euskara eta ingurukoak erraz bereizten dira. Berriokoa (Elorrio) eta Uberakoa (Bergara) erraz bereizten da. Angiozarkoa are ezberdinagoa da. Elgetako euskarak Eibarkoa dauka hurren, batez ere goi parteko baserrietako euskarak (Goimendi, Larrebiltzearra, Aixola...). Elgetan bertan ere, gazteek oso diferente egiten dute "artifizial". Euren aurrekoek ere ezberdin egiten zuten, askoz hobeto.

72. Elgetan ez zen erdararik entzuten (ELG-009/030)

Elgetan euren gazte denporan ez zen erdararik entzuten. "Dotriña" bakarrik egiten zuten erdaraz.

73. Elgetako fraideen eskola (ELG-009/031)

Eskolan fraideetan egon zen. 1937an udaletxean, baina gero fraideetan. Maisu gogorrak ziren, baina onak.

74. Nagusiei eta emakumeei, beti "zuka" (ELG-009/032)

Lagunen artean "hika" egiten zen, baina nagusiei eta emakumeei beti "zuka". Hamar bat urte nagusiagoak zirenei, beti "zuka". Eta abadeei, "berorika". Bere emazteak, gurasoei ere "berorika" egiten zien.

75. Zezeaga baserrian jaiotakoa (ELG-010/002)

Zezeaga "Zezia" baserrian jaio zen. Bi baserri zeuden elkarren ondoan, baina beste baserria, bi bizitzakoa, desagertu egin zen. Etxea egoera txarrean zegoen eta erosi zuenak baserria bota eta pinua sartu zuen inguruan.

76. San Blasetan eguraldi txarra normalean (ELG-010/016)

San Paulo eguna urtarilaren 25ean izaten da eta San Blas otsailaren 3an. Uberako jaiak bukatutakoan Aranzetan erromeria. San Martin egunean, azaroan, meza bakarrik egoten zen. Bertako jendea bakarrik egoten zen San Blas egunean. Gainera, normalean eguraldi txarra egiten zuen.

77. Lehen negu gogorragoak; berotzeko bideak baserrian (ELG-010/017)

Lehen askoz eguraldi txarragoa egiten zuen eta elurra ere sarri egiten zuen. Eskolara joan gabe egoten ziren egunetan. Lehen izotz-kandela handiak egiten ziren, baina gaur egun ez da halakorik ikusten. Baserrietan nola konpontzen ziren berotzeko hotz handia zenean. Ohea berotzeko adreilua erabiltzen zen, baina horretarako ere txapa edo ekonomika behar izaten zen.

78. San Sebastianen kofradia (ELG-010/018)

Lehen ez zen ekonomika egoten baserri guztietan. Bera mutikoa zela Elgetako arotzak ibili ziren eurenean. Arotz horiek San Sebastianen kofradiakoak ziren eta egun hori jai hartzen zuten. San Sebastianen kofradiaren inguruko azalpenak. Ubera eta Elgetako jendeak osatzen zuen kofradia.

79. Hilero jauna hartzera joan behar (ELG-010/020)

Kongregazioak. Gazteak hilero-hilero jauna hartzera joan behar izaten ziren eta horretarako lepotik medalla bat jartzen zieten.

80. Baserriak babesteko "suaro" edo kofradia (ELG-010/021)

Baserritarren artean ere bazuten kofradia edo seguro antzeko bat (suaroa). Tolosan zeukan gune nagusia. Inauteri inguruan, batzar orokorra egiten zuten Elgetako baserritar guztiek. Baserriren bat erre edo hondatzen zenean denen artean laguntzen zuten, batzuk dirua jartzen zuten eta beste batzuk materiala.

81. Ganaduaren inguruko ermandadea (ELG-010/022)

Ganaduarekin ermandadea zuten baserritarrek. Sei lagunez osatutako komisioak eramaten zuen ardura. Ganadu bakoitza numeratuta eta baloratuta egoten zen. Ganaduren bat galtzen bazen balore hura ordaintzen zitzaion jabeari. Esne-behiak ziren gehienak inguruetan. Esnezaleak ere bazeuden: Olaberria Eibarrera joaten zen saltzera eta Ibaibarriaga Bergarara.

82. Aranzeta auzokoek Uberara joera (ELG-010/023)

Juan jaio zen inguruan banatu ziren Angiozar eta Ubera Elgetatik. Aranzeta auzokoek beti izan dute Uberarako joera handia, hurbil daukate eta. Mezara ere Uberara joaten ziren. Mutikotako bihurrikeriak. Ubera "auzo-lagun ona" omen zen, taberna, bizartegia, eta abar zituelako.

83. Sindikatuan erosten zuten etxerako behar zena (ELG-010/024)

Elgetan "sindikatura" zegoen, baserritarrentzako biltegi antzeko bat. Etxerako behar zutena handik erosten zuten eta aste bukaeran ordaintzen ziren zorrak. Bera mutikoa zela bi litroko ardo-botaren bila bidaltzen zuten. Amak ere larunbat edo igandetan bueltatxo egiten zuen meza entzunaz. Orduan ez

zegoen dirurik. Sindikatuaren behe partean pentsuak egoten ziren. Epifanio Elejalde zen haren arduraduna.

84. Kotxe gutxi ibiltzen zenez errepidean dantzan (ELG-010/025)

Epifanio txistulariak gramola jartzen zuen eta jendeak plazan, errepidean, dantza egoten zuen. Orduan ez zen ia kotxerik pasatzen errepidean. San Roman (eta San Urbano) ermitaren parean ere errepidean egiten zen erromeria, baina kotxerik etorrira ere ez ziren apartatzen dantzariak. Lehenbiziko kotxea estankeroak eduki zuen Elgetan.

85. Elgetako lehenengo kotxean ibilitakoa, kasualitatez (ELG-010/026)

Lehenbiziko kotxea estankeroak eduki zuen Elgetan. Juanek probatu zuen kotxe hura, besoa hautsita medikuarengana eraman behar izan zutelako. Errotara joan eta gaiztakerian zebiltzala, besoa nola hautsi zuen kontatzen du. Errotaren funtzionamenduaren inguruko azalpenak.

86. 1938an hil zitzaion aita 40 urterekin (ELG-010/027)

Aita 1938an hil zitzaion. Aitak gerra denboran intendentziatik jeneroa eramaten zien soldaduei idiekin. Eurak Egoarbitza baserrian egon ziren bien bitartean. Gerra amaitu eta etxera itzuli ostean, hagineko minez Bergarara joan zen aita. Han hagina puskatu zitzaien ateratzerakoan. Etxera itzuli eta arbitarako sahasa ateratzen ari zela, haren gasarekin hortza gangrenatuta, zortzi egunen buruan hil zen. Ilberrian sahasa ondu egiten omen da; ilargiaren gorabeheren inguruko azalpenak. Ama alargun geratzean, aitona-amonek Frantzian bizi zen semeari etxera bueltatzeko eskatu zioten eta ama senarraren anaia harekin ezkondu zen.

87. Galeperretarako zaletasuna (ELG-010/028)

Ehizarako zaletasuna nola sortu zitzaien. Galeperretarako zaletasun handia izan du. Lehen inguruetan banaka batzuk egoten ziren. Tailerrean irabazitako lehenengo soldata txakurra erosten gastatu zuen. Galeperretarako seterrak dira txakurrik onenak. Asentzio inguruan egoten ziren galeperrak.

88. Burgosera joaten ziren Eibartik furgoneta bete ehiztari (ELG-010/030)

Abuztuaren erdialdean hasten zen galeperretarako sasoia. Kotoaren inguruko kontuak. Eibarrera oinez jaitsi eta Burgosera joaten zen beste eibartar batzuekin batera ehizara. Furgoneta luze batzuetan 50 lagun inguru joaten ziren.

89. Galeperrek belarretan egiten zituzten kumeak (ELG-010/031)

Galeperrak bertan inguruetan ere izaten ziren eta kumeak ere ateratzen zituzten bertan. Sail bat deskantsuan, belarrarekin, uzten zen garia ereinda izan eta gero eta sail haietan gustatzen zitzaien kumeak ateratzea galeperrei. Eperrik ez du ezagutu inguruetan.

90. Eskeran egiten da zozo-birigarrotan (ELG-010/032)

Zozo-birigarrotan ere ibiltzen zen. Eskeran egiten da zozo-birigarrotan. Honen inguruko azalpenak.

91. "Keixapian" nola egiten zen eta zer txori ehizatzen zen (ELG-010/033)

"Keixapian" nola egiten den ehizan; zozo-birigarroa, eskilarazoa, durdula... harrapatzen ziren. Txori asko gastatu egin direla dio. Behin guardia zibilek ehiztari batzuk harrapatu omen zituzten; honen inguruko pasadizoa.

92. Zumarragako zaindariak erbi-txakurra hil zueneko kontakizuna (ELG-010/034)

Elgetako Martintxo jatetxean erbitarako txakurra zegoen. Bilbotar batzuk etortzen zirenean, haiekin batera txakurra kanpora ateratzen zen, baina ez zen libre txakurrak solte ibiltzea. Zumarragatik zaindari bat etorri zen autobusez, eta txakurra tiroz hil egin zuen.

93. Txoriak gutxitu egin dira; kanpotik txori gutxi etortzen da (ELG-010/035)

Txoriak asko gutxitu dira, esaterako, zozo-birigarroa. Lehenago paseko denboran birigarro asko pasatzen zen, baina gaur egun kanpotik ez omen da etortzen.

94. Txori-txikiak nola harrapatzen zituzten (ELG-010/036)

Txori txikiak ere (txinboak, adibidez) gastatu egin dira. Txinboek euli edo eltxoak jaten dituzte eta harrapatzeko hauek jartzen zaizkie zepoetan. Nafarroa aldean ikusiak ditu Juanek halako zepoak. Txinboak ez ezik bestelako txori txikiak ere harrapatzen zituzten era honetan eta gero jan. Hau debekatuta zegoen, baina dirurik ez zegoen eta zerbaiten gustua hartzen zuten behintzat.

95. "Pota-botatzailea" txoriaren inguruko azalpenak (ELG-010/037)

Txori-izenak; txorien inguruko azalpenak. Pota-botatzailea edo papar-gorria.

96. Ama neskame etorritakoa Elgetara (ELG-012/014)

Ama Uberako Ibargain baserrikoa zen eta aitona Angiozarko Zuloeta azpikoa baserrikoa. Bera Elgetan jaio zen 1930eko ekainaren 13an. Ama neskame etorri zen Elgetara izeba baten etxera

97. Gurasoek antolatutako ezkontzak (ELG-012/015)

Aitari entzuna du lehenago gurasoek antolatzen zituztela seme-alaben ezkontzak. Euren etxean aurretik ez zuten ezagutu halakorik, baina halako tratuak egiten ziren.

98. Maiorazgoa eta honen inguruko legeak (ELG-012/016)

Maiorazgoa. Normalean anai-arrebatatik zaharrena izaten zen maiorazgoa. Ezkondu artean etxean bizi ziren besteak mantendu beharra zuen eta gero ere besteek jana eta ohea "libre" izaten zuten. "Ley patriarcal"-aren inguruko kontuak. Baserri asko galdu izan dira terrenoak anai-arreben artean zatitzen zirelako.

99. Jatekoaren truk lanean (ELG-012/018)

Maiorazgoa garrantzitsua zen lehen, izan ere, beste anai arrebek aukera gutxi izaten zuten: fraide, moja edo neskame joan edo Ameriketara alde egin. Entzunda dauka XIX. mende bukaeran jendea tripa-truke joaten zela baserrietara lanera. Gerra-ostean ere hainbat langilek janariaren truk lan egiten zuten.

100. Abade eta fraideei ematen zitzaaien jeneroa (ELG-012/019)

Abadeei garia entregatzen zitzaaien. Arantzazutik ere fraideak etortzen ziren jatekoa batzera. Aitak anai bat fraide zuen eta arreba moja eta Arantzazutik etortzen ziren fraideak sarri eurenean egoten ziren. Arantzazutik etortzen zen fraidearen inguruko kontuak.

101. Osaba abade eta enfermero batera (ELG-012/020)

Osaba abadea zen. Abadetza ordaindu egin behar izaten zen, baina euren osabak ez zuenez dirurik, abade zen bitartean erizain moduan lan egiten zuten.

102. Etxejabeari garia eta oilaskoak entregatu behar (ELG-012/022)

Errenteroek etxejabeei garia entregatu behar izaten zieten. Euren baserriak 17 anega gari entregatzen zituen. Urtearen arabera gari gehiago edo gutxiago entregatzen zen, urte txarra zenean ale ximurra geratzen baitzen eta hark ez zuen pisatzen. Babarrun anega tontortuta izaten zen eta garia, berriz, raseroa pasatuta. Neurriak. Urtean bi soro gari eta bi arto ereiten ziren eta hurrengo urtean aldatu. Gabonak aurretik izaten zen ordainketa eta oilaskoak ere ematen zitzaizkion etxejabeari. Honek trukean gabonetarako bakailaoa ematen zuten.

103. Etxejabeak, "señores de la guerra" (ELG-012/023)

Etxe asko zituzten etxejabe handiak egon dira inguruetan. Horien gurasoak "Los señores de la guerra" zirela dio. Gerraren bat irabazitakoan buruzagiei lur-sailak ematen zizkieten eta horregatik zituzten batzuek hainbeste etxe, ez erosita. Independentzia-gerra garaian askok baserriak saldu behar izan zituzten tropei dirua emateko.

104. Baserriaren historia (ELG-012/025)

Euren baserriak 500 urte izan ditzakeela uste du. Aitonak esanda daki lehen Larrabilazpi zuela izena, gero San Juan Txiki eta azkenik San Juan.

105. Basoa aitzurtu egiten zen garoa hartzeko (ELG-012/026)

Garai batean gaizki ibiltzen ziren ganadurentzat jatekoa gordetzeko lekurik ez zuten izaten eta. Baserriko bizimodua. Lehengo baserritarrak pobreak bai, baina tontoak ez ziren izaten. Garoak estimazioa zuen: mendian ebaki, ekarri, pilatu, lehortu, ganaduari azpian bota, satsa egin, sorora bota... Basoan "basatxurrean" egiten zen (basoa aitzurtu) garoa hartzeko. Bera ere ibilia da lan horretan.

106. Elizara oinutsik eta abarketak lepotik zintzilik (ELG-012/028)

Bere aita oinutsik joaten zen mezara abarketak lepotik zintzilik zituela eta elizara sartzeko janzten zituen. Elurra zenean ere berdin. Ermandadeak. Ganaduren bat hiltzen zenean haragia denena artean banatu eta larrua subastatu egiten zen. Larru harekin abarkak egiten zituzten. Galtzerdiak egiteko haria ere etxean egiten zen txabillarekin. Bere aitak osaba hil zenean jantzi zituen zapatak lehenengo aldiz eta hurrengo ezkondu zenean.

107. Kubiartekin egindako abarkak (ELG-012/029)

Gerra-denboran kautxu falta egon zen Espainian. Abarkak ez ziren hura gabe ondo lotzen eta kubiartekin hasi ziren abarkak egiten. Zaragozatik etortzen zirenek ekartzen zituzten asko halako abarkak. Hankarako oso txarrak izaten ziren. Larruzko abarkek ere bazuten bere hutsa: larrua ondo kurtitu gabe izan ohi zutela. Auzoko gazteak goitibeherak egiten zituzten eta haiek hankarekin frenatzen zituztenez astean abarka pare bat puskatzen zuten.

108. Etxejabe ezagunak (ELG-012/030)

Bergarako Irizar eta Arteagatarrak ziren etxejabe ezagunak. Horien gurasoak militarrek ziren. Coronado ere Arteagatarra zen eta bere aita Guardia Zibilaren teniente koronela zen. Elgetan bi baserri zituen.

109. Mutilek abantaila gehiago nesken aldean (ELG-014/013)

Neska eta mutilen arteko aldea. Mutilei bakarrik ematen zitzaaien paga. Eskolan ere luzaroago ibiltzen ziren mutilak, neskak neskame joaten ziren eta.

110. Komunioa egiteko apaizeren galderak asmatu behar (ELG-014/014)

Komunio txikia izaten zen garrantzitsuena. Abadeak dotrinaren inguruko galderak egiten zizkieten komunioa egiten aurretik. Garizuman bijilia kentzeko Angiozarrera apaizarengana joan eta galderak egiten zizkien. Ondo erantzunez gero, "bula" ematen zien, haragia jateko baimena.

111. Asko zegoen jeneroa saldu eta falta zena erosi (ELG-014/015)

Rosariok arrautza dozena ugari eramaten zituen larunbatetan plazara saltzera. Etxeko jeneroak saldu eta olio eta halakoak erosten ziren kalean. Txorizoa bezalako zenbait jenero ez zen asko egoten eta estimatua izaten zen.

112. Ahizpa jostuna etxerik etxe josten (ELG-014/016)

Familia handiak izaten ziren lehen. Inguruko baserri batean 16 senide ziren. Rosarioren etxean 9 senide ziren, baina bi amarenak. Rosarioren ahizpa jostuna zen. Josteko makina hartu eta etxerik etxe joaten zen traje edo arropak egiten. Orduan emakume gehienek jakiten zuten josten, egindako arroparik ez zegoen eta. Prakak puskatzean "aurreatzearekin" erabiltzen ziren, petatxoak jarrita. Langileek aste osoan arropa berdina erabiltzen zuten, laneko mono urdina. Aitak txahala neurtzen zion etxekoren bati trajea egin aurretik.

113. "Txakur errondia", ezkontzetako ohitura (ELG-014/017)

Lehen ospakizunak edo ezkontzetako banketeak etxean egiten ziren. Sukaldaria kanpotik ekartzen zen. Sebastianek gogoratzen du mutikoa zela beheko baserrian ezkontza izan zela eta 3 egun egin zituztela bertan. Txahala hiltzen zen etxean eta sarritan jendeak gau osoa pasatzen zuen bertan ospakizunetan. "Txakur errondia" deitzen zitzaion. Gonbidautza egiten zenean 20 pertsonatik gora elkartzen ziren etxean. Etxekoentzat ardura eta gastu handia izaten zen.

114. Erromeriara auzokoak elkarrekin (ELG-014/018)

Erromeriara auzoko guztiak joaten ziren elkarrekin. Errepidea egin berritan Elorriora erromeriara joan eta kamioian itzuli ziren.

115. Maila desberdinetako hiletak (ELG-014/019)

Maila desberdinetako hiletak egoten ziren, "[oin] haundikoa eta txikikoa". Maila handiagokoarena dotoreagoa izaten zen: bi kanpai jotzen zizkieten eta estandarte gehiago ateratzen zizkieten. Pater noster eta opila.

116. Meza asko eta jendetsuak (ELG-014/021)

Goizeko sei eta erdietan izaten zen lehenengo meza eta jendez beteta egoten zen eliza. Hiru edo lau meza egoten ziren. Goizeko mezara gazteak eta meza nagusira nagusiagoak joaten ziren. Mezatatik etorritakoan lanak egin behar izaten ziren baserrian. baserriko lanak asarritan domeketan egiten zituzten jende gehiago elkartzen zirelako egun horretan. Garai batean debekatuta egon zen jai handietan (San Inazio, San Pedro...) lan egitea.

117. Auzokoak elkarrekin ibiltzen ziren (ELG-014/022)

Auzoan giro ona zuten. Denak elkarrekin ibiltzen ziren adin desberdinetakoak izan arren. Uberara joaten ziren erromeriara. Oinez ibili behar izaten zen batera eta bestera eta goizetan argi egiteko lastoa su emanda.

118. Gorpuak eramateko bideak: elizbideak (ELG-014/023)

Bide txarrak izaten zituzten batera eta bestera joateko. Hildakoak ere oinez eramaten ziren lepoan Angiozarrera. Behin hila eramaten zihona erori eta kajatik kanpora irten zitzairen gorpua. Gorpuak eramateko bide berezia egoten zen: elizbidea. Hilak eramateko ohitura nola izaten zen: apaiza eta akolitoa aurretik, gero anderoak eta familia atzetik. Gorpua etxean edukitzen zen eta "gau-bela" egiten zen. Hil eta hurrengo orduetan auzokoak edo senitartekoak egoten ziren hilaren inguruan eta etxeok haiei afaria ematen zieten.

119. Angiozarren bizirik dirau lutoaren inguruko ohiturak (ELG-014/025)

Baserri bakoitzak bere hilarria zuen elizan. Lutoa bi urtez luzatzen zen eta elizan manta bat izaten da horren adierazgarri. Emakumea izaten zen hura zaintzeaz arduratzen zena. Beste inon ez dute ezagutzen, baina Angiozarren oraindik bizirik dirau ohitura horrek. Luto-denboran lehenengo urtea beltzez jantzita egin behar izaten zen eta gero "medio-lutua". Emakumeak goitik behera beltzez, baina gizonezkoek nahikoa zuten besoko beltza eramatearekin.

120. Letanietan elizarik eliza errezatzen (ELG-014/026)

Prozesioak egiten ziren Ama Birjinarekin Angiozarren Aste Santuan, eta baita Kontzepzio Egunean ere. Gurutzbidea. Letaniak: Asentzio aurreko hiru egunetan Angiozartik irten eta inguruko ermita guztietara joaten ziren errezoak eginez.

121. Su-bedeinkatua baserririk baserri (ELG-014/027)

Konjurua: ekaitza zegoenean apaizak bedeinkatu egiten zituen baserri inguruak txingorrik egin ez zezan eta trukean jatekoa batzen zuten baserrietan. Elizarik eliza joateko pagoaren barruko usteldutakoa pizten zen eta ez da itzaltzen. Su hori oraindik ere Elgetan egiten omen dute batzuetan. Pazko zapatuan egiten zen ohitura hori, mutikoak baserririk baserri ibiltzen ziren su bedeinkatua eramaten.

122. Umetatik baserrian lanean (ELG-016/002)

6 urterekin hasita, mojen eskolan ikasi zuen 13 urtera arte eta ondoren etxeko lanetan aritu zen. Umetatik lan egin behar izan du baserrian.

123. Medikua etxez etxe (ELG-016/006)

Elgetan mediku bat zegoen eta inor gaixotuz gero, bera joaten zen etxera. Artean biderik ez zegoenean, komeriak izaten zituzten eguraldi txarrarekin, ez zuten arropa egokirik izaten eta.

124. Eskolara huts egin behar baserriko lanak egiteko (ELG-016/007)

Sarritan huts egiten zuen eskolara baserrian eginbeharrak zituztelako. Orduan normaltzat hartzen zen baserritarrak eskolara ez joatea lanak egitearren.

125. Eskolan dena gaztelaniaz (ELG-016/008)

Erdaraz ez zekien tutik ere eta nolabait moldatu behar izan zuen. Mojetan bazekiten euskaraz. Lagunekin euskaraz egiten zuen.

126. "Txirikilan" jokoa (ELG-016/009)

Garizuman "txirikilan" jolasten zuten. Jokoaren nondik norakoa azaltzen du.

127. Gramola plazan; jaiak (ELG-016/012)

Elgetan gramola musika egoten zen eta erromeria egiten zen igandero. Andra Mari eta San Roke jaietan Bergara eta Eibartik musika bandak joan ohi ziren txandan. Jaietan Bizkai aldeko emakume batzuk, astoetan madariak hartuta, saltzera joaten ziren Elgetara.

128. Neskari ez tabernetara (ELG-016/013)

Nesak ez ziren tabernara sartzen, baina mutilak bai. Mutilek neskei madariak erosten zizkieten eta haiek janez elkarrekin berriketan egoten ziren. Senargaia umetatik ezagutzen zuen.

129. Neska-laguntzeko pasadizoa (ELG-016/015)

Lagun bati neska-laguntzean pasatako pasadizoa kontatzen du.

130. Etxe atarian garbitokia (ELG-016/019)

Etxean ez zuten urik; etxetik gertu garbitokia zuten eta hara joaten ziren. Etxe atzeko mendia ur ugarikoa izan da beti.

131. Garia ebakitzen auzolanean (ELG-016/020)

Auzoan zuten harremana aipatzen du. Gari-ebakitzea auzolanean egiten zuten inguruko baserrietakoak elkartuta. Gariaren inguruko kontuak.

132. Labesuan ogia egiten (ELG-016/021)

Errota etxetik beheragoan zuten eta handik astoan eramaten zuten irina. Labesua egiten zuten astero, aste guztirako ogia. Arto-esnea eta taloa sarri jaten zituzten.

133. Eguneroko otorduetako jakiak (ELG-016/022)

Taloea nola egiten den azaltzen du. Eguneroko otorduetan babak azekin eta asteburuetan urdaia nahastuta jaten zituzten. Ardoea Elgetako bati erosten zioten garrafoietan eta etxean botiletara pasatzen zuten.

134. Etxejabeei errenta ordaindu behar (ELG-016/023)

Gabonetan kapoia jaten zuten. Errenteroak ziren etxean eta ugazabari ordainetan kapoia, artoa, etab. ematen zioten. Aldamenekoek etxea utzi zutenean, Antoniren gurasoek hartu zuten, eta bi etxeak errentan izan zituzten.

135. Txerri-hiltzea eta odolosteak (ELG-016/024)

Txerria hiltzera harakina joaten zitzairen etxera. Etxekoekin aforaia egiten zuten. Amak odolosteak egiten zituen eta harekin ikasi zuen Antonik. Odolosteak nola egiten diren azaltzen du.

136. Emakumeak gorputza ondo estalita (ELG-016/028)

Gorputza ondo estaltzeko moduko arropak jantzi behar izaten zituzten, agirian ezin izaten zuten ezer eraman eta.

137. Igandeetan zapatak (ELG-016/030)

Antoniren gurasoen aurrekoek, bide erdia oinutsik egiten zuten eta gero jantzen zituzten abarkak. Igandeetan zapatak jantzen zituzten eta gainontzean abarkak.

138. Lasto suaren argitan mezetara (ELG-016/031)

Igandeetan goizeko 7etarako joaten ziren Elgetara mezetara. Meza garaian jotzen ziren kanpaiak eta orduko pasadizoak kontatzen ditu. Lastoz egindako suaren argitan joaten ziren mezetara. Elgetan 3 apaiz egoten ziren.

139. Gerra zibila hasi zenekoa (ELG-016/033)

17 urte zituela izan zen gerra eta orduko gertaera batzuk kontatzen ditu.

140. "Koko" jantziak aratusteetan (ELG-018/017)

Aratusteetan "koko" jantzten ziren eta etxerik etxe dirua batzen ibiltzen ziren. Erromerietara joateko ez zuten ezer berezirik jantzten. Mozorro baten inguruko kontuak.

141. Andra Marietan Eibarko eta Bergarako bandak (ELG-018/019)

Andra Marietan egun batean Bergarako musika banda eta hurrengoan Eibarkoa etortzen ziren.

142. Goizeko zapietarako mezara lasto-azaoarekin argi eginda (ELG-018/020)

Mezara joan beharra zegoen lehenago. Bere aitak, bera txikia zenean, amaren jaiotetxera eramaten zuen bera, eta mezara joan ostean, berriz bila joaten zitzaion. Zazpietarako mezara joateko goizeko seietan irten behar izaten ziren etxetik. Artean ilun egoten zen eta lasto-azaoarekin egiten zuten argi. Komunio txikia bederatzi urterekin eta nagusia 12rekin egiten ziren. Ondoren bazkari berezia egiten zuten etxean.

143. Etxetik eskolara ordubeteko bidea (ELG-019/003)

Eskolara alboko baserrietako lagunekin joaten zen. Ordubete inguruko bidea zuen etxetik eta egun osokoa izaten zuen, izebaren etxean bazkaltzen zuen eta.

144. Josten ikastera joan eta erdaraz ere ikasi (ELG-019/004)

Elgetan gerra ondorenera arte mojak egon ziren. Adin ezberdinekoak elkarrekin joaten ziren eskolara. Dotrina izaten zuten ikasgai nagusi. Erdaraz ez zekiten eta Antoni ez zen ondo moldatzen, mojek euskaraz egin arren liburuak erdaraz izaten baitziren. Josten ikastera joaten zen eta hantxe ikasi zuen erdaraz.

145. Ittulan eta ganadua zaintzen (ELG-019/006)

Beizu eta Asula baserrietako gazteak zaharragoak ziren, baina haiek zituen lagun. Lapiko tapekin jolas egiten zuten, baina ittulan eta ganadu-zain aritu behar izaten zuten eta ez zuten astirik izaten. Ardiekin mendira joaten zen Antoni eta gauerako etxera bueltatzen zen.

146. Kaletar eta baserritarren aldea janzkeran (ELG-019/007)

Kaletar eta baserritarren artean ezberdintasun nabarmena izaten zen jantzietatik hasita. Igandeetan soineko dotoreagoa jantzten zuten. Kaletarrek ez zuten abarkarik jantzten.

147. Pikatxoiez egindako bidea (ELG-019/008)

Garai hartan pagoa zen ugaria eta pinua sartu zenean baserritarrek irabazi handia izan zuten. Antoniren etxerako bidea pikatxoiez egina da bera ezkondu ondoren. Eskolara lokatzetan hankak bustita sarritan joan ohi zen eta izeba baten etxean aldatzen zen.

148. Dutxa bakarra, baldeko ura (ELG-019/009)

Ura beti izan zuten etxean, baina dutxarik ez eta baldean ura hartuta egiten zuten garbitasuna.

149. Mezara goizeko 7etarako (ELG-019/010)

Senargaiarekin hasi zen inguruko herrietara ateratzen. Elgetatik Eibarrera ez zegoen biderik eta Bergaratik bueltan ibiltzen ziren. Igandeetan mezara joaten ziren. Ezkondu ondoren ere zazpietarako joaten zen goizean. San Martin ermita; San Martin egunez garia bedekatzeko ohitura izaten zen.

150. Lehendabiziko argia errotatik (ELG-019/011)

Auzoan errota zuten eta argia ere hasieran handik hartzen zuten turbina batekin. Urik ez zegoenean ezin izaten zuten denbora askoan argirik eduki.

151. Haragia igandeetan bakarrik jaten zen (ELG-019/012)

Ganadua nola zaintzen zuten azaltzen du. Hiltzera Eibarko hiltegira eramaten zituzten oinez. Pasadizo bat kontatzen du. Txerriak etxerako hazten zituzten. Igandeetan jaten zuten haragia, osterantzean ez zen haragirik izaten. Abereak gaixotzen zirenean albaitariarengana eramaten zituzten.

152. Txerri hiltzea eta odolki banatzea (ELG-019/014)

Artoa, garagarra eta abar ematen zieten jateko ganaduari. Ganaduekin egiten zuten soroko lan gehiena (ittulan, goldaketan, etab.). Ganaduak bakoitzak bere askatik jaten zuen eta udan kanpora atera ohi ziren. Txerria hil ondoren garbitu egiten zuten eta ondoren odolki eta txorizoak egiten zituzten hiru lagun artean. Ohitura zen auzoko etxeetara odolkiak banatzea.

153. Abereen inguruko azalpenak (ELG-019/015)

Ardiak zituzten etxean eta gazta nola egiten zuten azaltzen du. Oiloak txitak basoan aterata kanpoan ibiltzen ziren. Arrautzak udan bakarrik egiten zituzten, neguan hotzarekin ez zuten arrautzarik jartzen. Arrautzak saldu egiten zituzten. Haragia Elorriotik erosten zuten.

154. Josten ikasten Elgetan (ELG-019/017)

Eskolako liburuak erdaraz izaten ziren eta meza berriz latinez, ez zuten tutik ere ulertzen. Eskola amaitu eta josten ikasten ibili zen Elgetan, etxerako arropa berak josten zuen.

155. Umetako jolasak; garizuman txirikilan (ELG-019/018)

Garizuman "txirikilan" jolasten zuten; jokoa zertan datzan azaltzen du. Ezkutaketan, sokasaltoan eta beste jolas batzuetan ere aritzen ziren. Ez zuten jostailurik izaten.

156. Neskak ez tabernara (ELG-019/019)

Neskak tabernara sartzea gaizki ikusia zegoen. Andra Mari jaietan madariak saltzen ziren plazan. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Mutilekin erromeriara joan eta etxera bakoitza bere bidetik joaten ziren; muxua ematea ere asko izaten zen. Dena zen bekatu eta hilero joan behar izaten zuten konfesatzera Mariatarren kongregaziotik.

157. San Roke, Santa Ageda eta inauteriak (ELG-019/020)

Festetan meza berezia eta erromeria egoten ziren. San Roke egunean Salbea egiten zen musikaz lagunduta. Inauteriak ere ospatzen ziren eta elkarren jantziak trukatzeko zituzten mozorrotzeko. Santa Ageda egunean baserriz baserri eskean ibiltzen ziren.

158. Ile luzea eta aurpegian hautsak (ELG-019/022)

Igande edo festetan apainago jantzen ziren. Antonik berak moztzen zuen ilea etxean. Arropak "txinbo" xaboiarekin garbitzen zituzten. Elgetatik Eibarrera joaten zen ile-apaindegira; ile luzea eramaten zuen beti. Ez ziren makilatzen, baina hautsak ematen zituen noizean behin.

159. Medikuari ordaintzeko arrautzak (ELG-019/024)

Inor gaixotuz gero Elgetako medikua bera joaten zen etxera eta ordainetan arrautzak edo zerbait ematen zitzaion.

160. Jaiotzari buruzko kondaira (ELG-019/025)

Umeak jaiotzen zirenean, Arrateko elizako barkuan etortzen zirela esaten zen. Antonik ere istorio hori kontatzen zien bere umeei.

161. Arrate eta Santa Eufemiarako joera (ELG-019/026)

Arratera joateko ohitura zuten eta baita Santa Eufemia mendira ere bertako egunean. Osintxuko esnezalearen kamioian sartu eta Markinara joaten ziren haurrak eta gero handik Santa Eufemiara.

162. 7 alabaren ama (ELG-019/028)

21 urterekin ezkondu eta 7 alaba izan zituen. Alaben aipamena egiten du. Jaunartze handia eta txikia egin zituen eta sendikoek etxean bazkaria egiten zuten ospatzeko.

163. Aste Santuko prozesioa (ELG-019/030)

Aste Santuko prozesioaren aipamena egiten du. Antoniren gizona moroz jantzita ibili zen urte askoan.

164. Eibarko merkatu plazara saltzera (ELG-019/031)

Baserritik bizi izan da beti. Ezkondu ondoren Eibarko merkatu plazara joaten zen asteen bitan autobusez. Astoan joaten ziren etxetik autobuseraino. Eibarko azoka handia izaten zen.

165. Autobusean karga ere ordaindu egin behar (ELG-019/032)

Autobusak alde bat karga eramateko izaten zuen atzean eta pertsonako ordaintzen zutenaz gain, karga beste hainbesteko bat ordaindu behar izaten zuten. Elgetatik Eibarrerako bidea gerra aurretik egina da.

166. Gerra garaiko bizipenak (ELG-019/033)

Gerra hasi zenean, Antonik 11 urte zituen. 7 hilabete iraun zuen fronteak inguruetan. Antoniren baserrian ez zen txikiziorik izan. Anaia frontearen egon zen boluntario lehengusu batzuekin. Gerra garaian ganaduak kendu zizkieten. Ogia gauez eta ezkutuan egin behar izaten zuten. Eibartik emakumeak esne eta jatekoaren bila joaten ziren Elgetara.

167. Azurtzatik Eibarrera oinez (ELG-021/002)

Elgetara kanpotik jende ugari joaten zen erromeriara igandeetan. Azurtzatik (Goimendi auzotik) oinez joaten zen Eibarrera Juanito. Amaren ahizpa Eibarren bizi zen eta San Juanetan amarekin joaten zen. 1934 inguruan egin zuten bidea Elgetan. Musika-banda egoten zen Eibarren. Festetako data ezberdinak aipatzen ditu eta bakoitzean egon ohi zen musika-banda.

168. Elgetako aurrekua eta dantzak (ELG-021/003)

Elgetan aurrekulariek egiten zuten dantza. Juanitoren anaia zaharra ere dantzan ibili zen. Dantza bati buruzko aipamena egiten du.

169. Elgetako txikiteoa eta tabernak (ELG-021/004)

Elgetan sei taberna inguru zeuden eta txikiteorako ohitura zegoen. Tabernetara 16 urte betez gero hasten ziren gazteak. Kafea, kopa eta purua izaten ziren bazkal ondorengo tabernako gastua.

170. Elgetako plazan, gramola (ELG-021/006)

Plazan gramola egon ohi zen, diskoa eta altaboza izaten zen.

171. Inauterietan eskean, baserriz baserri (ELG-021/008)

Inauterietan, lagun taldea elkartu, aurpegia margotu eta baserriz baserri eskean joaten ziren lapiko tapak hartuta. Gizonak emakumeen jantziekin eta alderantziz janzten ziren. Baserritarrek oso eskuzabalak izaten ziren borondatea ematen eta fruta jasotzen zuten gehienbat. Horren ostean, tabernan afaltzen zuten, baina ez zen luxuzko afaria izaten.

172. Oilaskoa gabonetako jakia (ELG-021/009)

Oilaskoa jai berezietan soilik jaten zen, Gabonetan adibidez. Elgetan Santa Ageda eskerako ohiturarik ez bazen ere, kanpotik joaten ziren.

173. Gizarte matxista (ELG-021/010)

Neskak tabernara sartzea gaizki ikusia zegoen eta beren aldetik ibiltzen ziren kolean. Emakumeek erre edo edaten bazuten fama txarra hartzen zuten, baita gona motza edo eskote handia eramaten bazuten ere. Apaizak, eskote handia eramateagatik, neska bati jauna ukatutakoa kontatzen du.

174. Igandeetan trajea eta txapela (ELG-021/013)

Gaztea zela ohitura handia zegoen txapela janzteko eta bere aitak beti erabiltzen zuen. Igandeetan trajea janzten zuten. Jostun ugari izaten zen, berak ezagutu ez bazituen ere. Gernikara trajea egitera jostun ezagun batengana joan zenekoa kontatzen du.

175. Gerra hasieran, Bilbora bizitzera (ELG-021/016)

Juanitok 15 urte zituela hasi zen gerra, eta Bilbora joan zen orduan. Francoren tropa nafarrak behean geratu ziren: Bergaran, frankistak; eta, Elgetan, errepublikanoak.

176. Gerra garaiko kontuak (ELG-021/018)

Uztailaren 18an, gerra hasiera gogorarazteko, Francok festa jartzen zuen. 1937an, gerra geldirik egon zen zazpi hilabetez Gasteiztik hasi, Kanpazar, Intxorta, Elgeta, Eibar eta Mutrikuraino. Juanitok arreba bizi zuen Bilbon eta haren etxera joan zen gerra zegoen bitartean. Gerrako kontuak kontatzen ditu. Bilboko kaleak izendatzen ditu.

177. Anaiak errepublikanoen taldean (ELG-021/019)

Juanitoren anaiak errepublikanoen bandoan egon ziren gerran. Anaien inguruko aipamena egiten du.

178. 'Centro Republicano'a Elgetan (ELG-021/022)

Errepublikara garaian Eibartik eraman zuten bandera Elgetara. Elgetan Centro republicano zeritzana zegoen.

179. Gerra garaian, arbia jaterainoko gosea (ELG-021/024)

Elgetan, Francoren soldaduak sartu zirenean, hiru-lau baserritara sartu eta hildakoak egon ziren. Gose handia pasa zuten, arbia jatera iritsi zen Juanito. Errazionamendua urteetan egon zen, pertsonako hainbesteko bat ematen zuten.

180. Gerra ondoren altzari denda Bilbon (ELG-021/025)

Gerra amaitu zenean Bilbon geratu zen altzari denda lanean. Etxea bonbekin txikitu zitzaien eta hura nola konpondu zuten azaltzen du.

181. Salvador ermita inguruko toponimia (ELG-022/002)

Olatza inguruko baserriak. Salvador ermita inguruko toponimia.

182. Elgetako toponimia (ELG-022/003)

Elgetako toponimia: Ania, Belarren txabola eta Intxorta eta Ikatzarre ingurua.

183. Elgetako toponimia; erreka eta baserri-izenak (ELG-022/004)

Erreka-izenak; Olatza inguruko erreken inguruko azalpenak. Lucio Uberaren txabola. Elorrio aldera dauden baserriak. Presara doan erreka: Aixolaerreka.

184. Elgeta-Elorrio mugako errekek; inguruetoako baserriak (ELG-022/005)

Elgeta-Elorrio mugako errekek: "Lehelengo erreka" eta "Bigarrena erreka". Erreka hauen eta Aixolako presaren inguruko baserriak.

185. Aixola inguruko baserri-izenak (ELG-022/006)

Aixolako presaren inguruko baserriak. Egoarbitza ingurua. Inguru honetako baserri-izenak.

186. Egoetxeaga inguruko toponimia eta baserri-izenak (ELG-022/007)

Egoetxeaga, Egoetxeaga erreka eta inguruko toponimia. Handik Aixolara bitarteko baserriak.

187. Egoetxeagatik gorako etxe eta baserri-izenak (ELG-022/008)

Egoetxeagatik gora dauden baserri edo etxeak.

188. Egoetxeaga inguruko toponimia eta baserri-izenak (ELG-022/009)

Egoetxeaga inguruko txabola. Karabieta ingurua. Larrabil inguruko baserriak.

189. Elgetako auzoak; auzoen banaketa (ELG-022/010)

Aixolaerreka eta Egoetxeaga, santu gabeko auzoak. Auzoen banaketa. Euren auzoa Izuziarra; mugak. Baserri bakoitza ze auzotan sartzen den.

190. Elgetako auzoak; toponimia (ELG-022/012)

Elgetako auzoak. Azula ingurua. Zesto baserriak.

191. Kale ondoko baserriak; ermitak (ELG-022/013)

Kale ondoko baserriak; hilerri ondoko etxeak. Ermitak.

192. Beistegi eta Torre baserrien inguruko baserriak. (ELG-022/014)

Beistegi eta Torre baserrien inguruko baserriak.

193. Zezierreka, Iturrierreka. (ELG-022/015)

Zezierreka, Iturrierreka.

194. Arantzeta auzoko baserriak. (ELG-022/016)

Arantzeta auzoko baserriak.

195. Arantzeta auzoko baserriak eta inguruko errekek (ELG-022/017)

Arantzeta auzoko baserriak. Uberara doazen errekek; Zezierreka.

196. Elgetako auzoak eta bakoitzeko baserrien izenak (ELG-023/001)

Elgetako auzoak eta auzo bakoitzeko baserrien izenak.

197. Elgetako baserrien izenak; mugak (ELG-023/002)

Elgetako baserrien izenak. "Jareikotxo" baserria Bergaran egon arren Asentzio partean sartzen dela komentatzen dute.

198. Elgetako toponimia (ELG-023/003)

Elgetako toponimia; tontorrak, basoak; errekek.

199. Elgetako toponimia; erreka (ELG-023/004)

Elgetako toponimia; erreka.

200. Elgetako toponimia; erreka (ELG-023/006)

Elgetako toponimia; erreken izenak eta kokapena.

201. Elgetako baserri eta eraikinen izenak (ELG-023/007)

Elgetako baserri eta eraikinen izenak: Urrajalegi, Ojanguren, Beketxe, galdutako baserriak... Inguruko erreka: Zeziaerreka.

202. Urrajalegi inguruko toponimia (ELG-023/008)

Elgetako toponimia; basoen izenak. Urrajalegi inguruko baso izenak: Ipurua tontorra, Jalotza basoak... Galdutako baserriak.

203. Elgetako toponimia (ELG-023/009)

"Sugastixa" basoa. Sailen jatorrizko izenak nola aldatzen diren aipatzen dute. Agarrezezia inguruko toponimia: Urkulu. Azula baserriaren inguruan: Beizukozabala, Azkonabieta⁹⁹ Ibur ingurua.

204. Elgetako toponimia (ELG-023/011)

Elgetako toponimia: Otaldapa, Larrabilburu, Mendiabaso, Buztingorri, Galdaramiño

205. Elgetako toponimia (ELG-023/012)

Elgetako toponimia: Galdaramiño, Azula gainean Bokete edo Azulamendi. "Bokete" izenaren jatorria. Karabieta eta Azkonabieta bitartean: Goikomendixa.

206. Izarre baserriaren kokapena (ELG-023/014)

Izarre baserria non dagoen. Baztarrika inguruko toponimia.

207. Munikola inguruko Txaritxi basoa (ELG-023/016)

Munikola inguruko toponimia: Txaritxi basoa.

208. Egotxia inguruko toponimoak (ELG-023/017)

Elgetako toponimia, Egotxia inguruan: Egogara, Egotxiazelai, Armendi...

209. Egotxia inguruko baserrien izenak (ELG-024/001)

Egotxia inguruko baserrien izenak.

210. Karabieta inguruko toponimoak (ELG-024/002)

Karabieta esaten dute beraiek, baina Aranzetazubi omen du berez izena. Inguruko toponimoak: Armendi.

211. Iburrerreka aldea; erreken izenak (ELG-024/003)

Iburrerreka aldea. Inguruko toponimoak. Erreken izenak.

212. Elgetako erreken izenak (ELG-024/004)

Elgetako toponimia; erreken izenak. Desgertutako baserriak.

213. Elgetako baso eta tontoren izenak; Buztingorri (ELG-024/006)

Elgetako toponimia; baso eta tontorren izenak. Buztingorri; jatorrizko izena.

214. Larrabil inguruko toponimia (ELG-024/008)

Larrabil inguruko toponimo eta baserrien izenak. Elorrio alderako erreka: "Lehelengo erreka".

215. Elgetako toponimia (ELG-024/009)

Elgetako toponimia. Intxorta inguruko toponimoak; Armendi ingurua.

216. Elgetako auzo eta auzuneen izenak (ELG-024/012)

Elgetako auzo eta auzuneen izenak. Auzo bakoitzaren eliza.

217. Elgetako toponimia Bizkaiko muga (ELG-025/002)

Elgetako toponimia Bizkaiko muga. Aixolerreka. Urbedeinkatu ingurua. Felisena (?) errota izandakoa non zegoen. Larrosa, Gozategi.

218. Elgetako toponimia Bizkaiko muga (ELG-025/003)

Elgetatik abiatuta Bizkaiko lehenengo etxea San Roman. Inguruko erreken izenak eta horien gaineko azalpenak. Gipuzkoa-Bizkaia muga. Lapurdi inguruko errekak. Goikomendia, Arikruz.

219. Elgetako hainbat tontorren izenak (ELG-025/004)

Ubei, ura dagoen tokia; baserri askok bertatik hartzen dute ura. Larrabiltzearra eta Karabieta inguruko tontorrak: Goikomendia eta Aizkorta. Bizkaiko muga dauden tontorrak: Intxorta, Intxorta txikia eta Gaztelumendi.

220. Lapurdi baserriaren inguruko toponimia (ELG-025/008)

Elorrio aldera zegoen Kantilla. Burdinkurutze ingurua. Lapurdi baserriaren inguruko toponimia.

221. Lapurdi baserriaren inguruko toponimia (ELG-025/009)

Lapurdi inguruko toponimia. Lasao kalera datorren erreka eta ingurua.

222. Larrabiltzearra eta hilerri inguruko eraikinak (ELG-025/010)

Hilerri inguruko eraikinen izenak. Kantoikua. Larrabiltzearra inguruko etxeak: San Juan, Larrabil... Anai-etxea non zegoen.

223. Lapurdi baserritik kalera bitarteko toponimia (ELG-025/012)

Lapurdi baserritik kalera bitarteko toponimia.

224. Lapurdi baserriaren inguruko toponimia (ELG-025/014)

Lapurdi baserriaren inguruko toponimia.

225. Umetatik josten eta brodatzen ikasten (ELG-026/004)

Aitaren sendikoak Eibarren bizi ziren eta askotan joaten ziren, bai jaietan eta baita erosketak egitera ere. Aitaren izeba bat jostuna zen eta umetatik harekin ikasi zuten josten eta brodatzen. Familiako bat Sevillan bizi zen eta denboraldi bat pasatzera hara joan zirenean josten ikasten ibili zen bertan Maria Luisa.

226. Domingo Iturbek lagatako diruarekin egindako eskolak (ELG-026/006)

Mojen eskolan ibili ziren. Neskak bakarrik joaten ziren. Domingo Iturbek Elgetan eskolak jartzeko dirua utzi zuen. Mojen eskola eta fraideena.

227. Egun berezietan eskolako kapilara mezara (ELG-026/008)

Eskolaren kokapena aipatzen dute. Hiru moja zeuden eskolan eta adin ezberdinetan banatzen ziren. Eskolan kapila bat zegoen eta egun berezietan hara joaten ziren mezara.

228. "Txirikilan" eta "tortolosean" (ELG-026/012)

Umetan "txirikilan" eta tortolosekin jolasten zuten. Jolasen nondik norakoa azaltzen dute.

229. Erromeria gramolarekin (ELG-026/013)

Arratsaldeko 5etan erromeria hasten zen gramolarekin. Diskoa jartzen zuten eta dantza egiten zuten 8ak arte. Udan beranduago amaitzen zen. Lagunartean Intxorta mendira joaten ziren udan erromeria hasi aurretik.

230. Bergara eta Eibarko azokara saltzera (ELG-026/014)

Kotxerik ez zuten eta autobusean joaten ziren Bergarara eta Eibarrera. Plazara astoarekin joan ohi ziren baserritarrak. 16-17 urte zituztela egin zuten Elgetan bidea, ordura arte mendiz ibiltzen ziren.

231. Marrazketa eta grabatuak Elgetan (ELG-026/017)

Elgetan marrazketa eta grabatuak egiten ikastera joaten zen jendea. Tailer txikiak bazeuden arren (hauen aipamena egiten du), jende asko Eibarrera joaten zen lanera.

232. Elgetako frontea (ELG-026/018)

Gerra garaian 9 hilabete iraun zuen fronteak Elgetan. Baserri batera joan beharra izan zuten. Herrian ez zieten uzten egoten eta Abadiñora egin zuten alde. Herrian bazeuden gordelekuak eta jendea bertan ezkutatzen zen. Anaiak gerratean egon zirenekoa kontatzen dute.

233. Gerra denborako pasadizoa (ELG-026/019)

Gerra denboran, eskola amaitu zitzairen. Angelesek pasadizo bat kontatzen du.

234. Errazionamendu garaiko ogi beltza (ELG-026/020)

Gerra ostean ez zuten goserik pasa baina ogi beltza jaten zuten, errazionamendukoa, eta jan ezinezkoa omen zen. Errazionamendua jarri zenean, Maria Luisa eta Angelesen etxean "gorriak" zirelako ez zieten ematen.

235. Ezkutuko estraperloa (ELG-026/021)

Estraperloa ezagutu zuten; Elgetan estraperloan ibiltzen zen baten aipamena egiten dute. Errepublika garaian Elgetara bandera eraman zutenekoa.

236. Apaizekin erdara hutsean (ELG-026/022)

Errepublika garaian apaizek herritik alde egin zuten. Gerra ostean Angiozarko apaiza joaten zen eta dena gaztelaniaz egiten zuen. Ez zuten tutik ere ulertzen erdaraz.

237. Ez zuten euskaraz irakurtzen ikasi (ELG-026/023)

Eskolan dena gaztelaniaz eman zuten eta ez zuten euskaraz irakurtzen ikasi. Mojak Irungoak ziren.

238. Gerra ostean andaluziarrak herrira (ELG-026/024)

Gerra ostean udaletxe berria egin zuten, herria erabat suntsituta geratu zen eta. Andaluziatik jendea sartu zen herrira lanera. Bidea bizkaitar batzuek egin zuten.

239. Dantza lotua bekatu (ELG-026/028)

Gaztetan mutilekin dantza egitea bekatu zen eta konfesatu egin behar izaten zuten astean behin. Dena zen bekatu. Konfesionarioa nolakoa zen azaltzen dute.

240. Apaizari eta medikuari berorika (ELG-026/029)

Apaizari berorika egiten zioten. Pasadizo bat kontatzen dute. Ahizpen artean hika eta gurasoekin zuka hitz egiten zuten. Berorika jende inportanteari egiten zitzaion.

241. Gaixotuz gero medikua etxera (ELG-026/030)

Elgetan bazen medikua eta norbait gaixotzen zenean bera joaten zen gaixoaren etxera. Elgetan beti egon izan da farmazia.

242. Baserriko lanengatik ezin eskolara joan (ELG-029/006)

Neskak eta mutilak bananduta ibili ohi ziren eskolan. Etxeko lanak egin behar zirela eta, askotan gelditu behar izaten zuen eskolara joan gabe eta Juanitak negar egiten zuen. Eskolara bidean etxe bat zuten oinetakoak aldatu eta etxetik eramandako txokolate edo sagarra jateko.

243. Errotak itxita; errazionamendua (ELG-029/012)

Gerraostean gosea pasa zuten. Errotak itxi egin ziren eta ogia egiteko irina egiten gauez aritzen ziren ezkutuan. Janaria, ogia, etab. errazionamenduan izaten ziren. 1941 urte inguruan jendeak ez zuen ondo jandako itxurarik.

244. Txerria hiltzean, banaketa auzora (ELG-029/015)

Txerria hiltzera auzoko baserrikoren bat joaten zen. Festa egiten zuten eta gibela jaten zuten. Odolkiak eta txorizoak egiten zituzten eta apaizari eta udaletxekoei eraman behar izaten zizkieten.

245. Lantegian eta neskametzan lanean (ELG-029/018)

19 urterekin Eibarrera joan zen lanera. Aste osoa pasatzen zuen bertan eta ahizpa batekin egon zen pisu batean hark bere etxea erosi arte. Bizikletak egiten zituzten lantegian eta Juanita makinan aritzen zen. Nagusien aipamena egiten du. Lantegira hasi aurretik bi tokitan egon zen neskame eta baserriko lanak egin behar izaten zituen. Goizean seietan jaikita joaten zen azokara.

246. Gerra garaiko bizipenak (ELG-029/020)

Gerra garaian, etxe ondoraino heltzen zitzaizkien kanoikadak; eta, mendian, karobi zuloan ezkutatzaren ziren. Auzoan 4-5 etxe ziren, eta euren bi bizitzakoa zen. Neskame egon zen lekuan beste bizitzakoekin banatzen zuten lana, elkarri lagunduz.

247. Piezako pezeta, dantza egiteagatik (ELG-029/023)

Erromeriara Eibar, Bergara, Elorrio eta Elgetara joaten ziren, besteak beste. Igandeetan gramola egoten zen Elgetan eta mutilekin dantza egiten zuten. Kobradorea joaten zen eta pieza bakoitza dantza egiteagatik pezeta bat ordaintzen zuten mutilek. Dantza lotua gaizki ikusia zegoen eta parrokoa alkatearengana askotan joaten zen debekatzeko eskatzera. Konfesatzera joandakoan dantzarena aipatu zueneko kontakizun du.

248. Andra Marietan banda eta txaranga (ELG-029/026)

Erromeria amaitzean, auzoko lagunak elkartu eta batera abiatzen ziren, mutilak neskengana joan artean. Filarmonika, txistua eta soinua izaten ziren festetan. Andra Marietan ospatzen ziren jaiak eta Bergarako eta Eibarko bandek jotzen zuten. Txaranga ere bazegoen Eibarren. Pasadizo bat aipatzen du.

249. Jatekoa eta garbitasuna (ELG-029/029)

Elgetako taberna eta jatetxeak izendatzen ditu. Igandeetan garbantzak jaten zituzten eta gauerako baba zuriak izaten ziren. Igandeetan lanak bukatu ondoren joaten ziren erromeriara dantzara. Alpargatak jantzi ohi zituzten. Baldean ura hartuta garbitzen ziren etxera ura sartu artean; xaboia pastiletan izaten zen.

250. Arropa garbiketa; garbitokiak (ELG-029/030)

Elgetan bi garbitoki zeuden, eta baserrian ere bazuten. Neskame egon zen tokian ohol gainean arropak jarri eta errekan garbitzen zituzten.

251. Norbait hildakoan, lutoa (ELG-029/031)

Etxekoren bat hildakoan lutoz janzteko arropa tindatzen zuten. Arropak Eibarko tintoreriara eramaten zituzten tindatzera. Hildakoa gurasoa zenean, bi urteko lutoa izaten zen. Juanitari aita hil zitzaionean hiru mezatara joan behar izan zen; egiten zen elizkizuna aipatzen du.

252. Hiru hileta mota (ELG-029/032)

Hiru hileta-elizkizun mota izaten ziren: maiorazgoena, bost apaizek ematen zutena, bigarrena eta "terzerakoa" zeritzona, azken hau pobreenentzakoa. Elizak ez ziren pobreei askorik laguntzen.

253. Medikua etxerik etxe (ELG-029/036)

Inor gaixotuz gero, medikua etxera joaten zen. Oso gaizki jarri arte ez zitzaion medikuari deitzen eta orduan askok apaizarekin joan behar izaten zuten.

254. Etxeko sendagaiak (ELG-029/037)

Katarroarentzat ur-esnea, osin-ura, etab. erabiltzen zituzten.

255. Bizikletak egin arren, ez zuen ibiltzen ikasi (ELG-029/039)

21 urterekin joan zen lanera ahizparekin batera. Nagusia eta arduraduna izendatzen ditu. Bulegariarekin gertatutako pasadizoa. Bizikletak egiten zituzten lantegian, baina Juanitak ez zuen ikasi ibiltzen ez eta bizikletarik izan ere. Postariak ere bizikletaz banatzen zituen gutunak.

256. Hiru urtez bizikleta lantegian (ELG-029/041)

Lantegian lanean zebiltzanek Andra Mari eguna soilik izaten zuten jai, ez zuten oporrik izaten. Juanitak hiru urte egin zituen bizikleta lantegian eta ezkondu zenean utzi zuen.

257. Lanean zegoela, astea Eibarren pasatzen zuen (ELG-029/045)

Lantegian erreleboetan ibili zenean, astea Eibarren pasatzen zuen eta asteburuan etortzen zen Elgetara. Eibartik Elgetara autobusa beteta joaten zen.

258. Eibartik Elgetara bidea gerra aurrean egina (ELG-029/046)

Eibartik Elgetara gerra aurretik egin zen bidea. Juanitaren anaia ibili zen lanean bide egiten eta bera joaten zen bokadiloa eramatera.

259. Mutikotako lanak baserrian (ELG-031/003)

Mutikotan aitonari laguntzen zion baserrian ardiak zaintzen edo ittulan. "Ittulan" egitea zer den azaltzen du. Lau behi eta 50 ardi inguru izaten zituzten. Ardiek izaten zituzten lanak. Esnea Eibarrera saltzen zuten.

260. Auzoko eskola; eraztuna euskaraz hitz egitearren (ELG-031/008)

Eskolan lehenbizi auzoko kantuan ibili zen osabarekin eta gero, osaba hil zenean, Valentzian neskame egondako lehengusina bat izan zuen irakasle. Bi komunio egiten ziren ziren orduan: handia eta txikia. 12 urterekin komunio handia egin zuen urtean gerra hasi zen eta hantxe bukatu zen bere eskola. Dominga lehengusinarekin gaztelaniaz ikasten zuten eta euskaraz hitz egiten zuenari eraztuna jartzen zioten seinaleztat.

261. Gaztelania ikastea beharrezko (ELG-031/009)

Lehen jendea kanpora joaten zen gaztelaniaz ikastearren. Auzoko Ibarrola baserrikoa Gasteizera eraman zuten gaztelaniaz ikastera. Beste baserri batekoak neskame erdalduna ekarri omen zuten etxera gaztelaniaz ikastearren.

262. Txondorra egin zuten Arraten; ikazgintzaren inguruko azalpenak (ELG-031/011)

Lehen karea egiten zen ia baserri guztietan, ongarri modura erabiltzeko. Ikatza ere egiten zen. Migel bera ere ibilia da ikatza egiten. Lau gizon ibili ziren ikatza egiten Arraten. Txondorra nola prestatzen den. Arraotz baserrira aulestiar batzuk etorri ziren eta haiek txondorraren "su-etxia" desberdin egiten zuten.

263. Ikatza egindakoan nola atera; ikatz-zakuak; erabilera (ELG-031/012)

Ikatza egindakoan apurka-apurka ateratzen zen hoztuz joan ahala. Hortz bakar bat erabiltzen zuten ikatza ateratzeko. Neurri desberdinetako txondorrak egiten ziren; batzuetan 200 zaku ikatz ateratzen zituzten. Egurra ez da erretzen, egosi egiten da eta zatiak osorik geratzen dira. Ikat-zakuak. Ikatza gero Eibarren tailerretara saltzen zuten. "Tenplia" ateratzeko erabiltzen zuten tailerretan ikatza.

264. Karobi motak (ELG-031/014)

Migel bera ere ibilia da karegintzan. Gaztandola baserri inguruan egin zuten karea. Lehenbizi karobia egin behar izaten zen, labe antzekoa. Bi motatako karobiak egoten ziren. Honen inguruko azalpenak.

265. Karobiak 6-7 metroko altuera izaten zuen (ELG-031/016)

Karobi batzuei goitik bota harria eta egindakoa behetik ateratzen zitzairen. Era hortako karobiek ez zituzten egun asko behar, etengabe egiten ari ziren eta. Karobiak 6-7 metroko altuera izaten zuen eta aldapa handia zegoen lekuan egin behar izaten zen goitik harria eta egurra sartu ahal izateko. Txondorrek ere 3-4 metroko altuera izaten zuten.

266. Gariarekin ordaintzen zen errenta (ELG-031/018)

Errenteroak ziren Azurtza baserrian eta errentaren zatirik handiena garitan ordaindu behar izaten zuten. Baserri gehienetan horrela egiten zen errentaren ordainketa. Gerora, piskanaka, dirutan ordaintzen hasi ziren, baina gariaren balioa kontuan izanda.

267. Gariaren inguruko lanak (ELG-031/019)

Garia eta artoa ziren labore garrantzitsuenak. Abereentzat pagatxa eta bestelako belarrak egiten ziren. Azaroan erein eta uztailan jasotzen zen garia. Otsail aldera "hesixa" pasatzen zitzaion, "erpillak" kentzeko eta lurra berdintzeko. Lurra ontzeko gatza edo ardi simaurra botatzen zen. Garia ebakitakoan azaoak egiten ziren. Auzolanean lan egiten zuten. Baserri batzuetan goizago heltzen zen garia, kokapenaren arabera.

268. Lurreta auzolanean (ELG-031/020)

Lurreta ere auzolanean egiten zen. Lurra lantzean piskanaka behera egiten zuen eta behera joandako lurra berriz gora ekarri behar izaten zen. Hasieran katean lan egiten zuten lurrez betetako banastak elkarri pasatuz eta gerora polearekin.

269. Gari-jotzea "txanketian"; garia garbitzea (ELG-031/021)

Gari-jotzea ere auzolanean egiten zen. Gazteak zirenean "txanketian" egiten zen gari-jotzea: harri-losa baten gainean jotzen zuten garia. Gero makinan garbitu egin behar izaten zen alea. Makinak etorri aurretik haizetan jarrita banatzen zituzten alea eta alkozta. Garia garbitzeko makina.

270. Garia kutxetan (ELG-031/022)

Garia kutxetan gordetzen zen. Kutxa bakoitzean zenbat anega sartzen zen jakiten zen, eta kutxak betetakoan gutxi gorabehera jakiten zuten zenbat gari zegoen.

271. Lexikoa: erpilla, hesixa, aria (ELG-031/023)

"Erpilla" zer den azaltzen du: soroan egiten diren lur-tontorrak. Haiek "hesixarekin" berdintzen ziren. "Hesixa" nolakoa izaten zen. Garia ebakitakoan area pasatu behar izaten zen, belarrak kentzeko. Area nolakoa izaten zen.

272. Opor garaian (uztaila-abuztua) lan gehien baserrian (ELG-031/024)

Uztaila eta abuztua izaten ziren lan gehien izaten zuten hilabeteak, gari-jotzea hasi eta arbiak erein artekoa.

273. Gaztandola baserrira boletara (ELG-031/026)

Mutikotan Gaztandolara joaten ziren boletara. Eitzako lehengusuak Munikolara joaten omen ziren bola-jokora.

274. Auzoko soinujolearentzat dantzako dirua batzen (ELG-031/027)

Goimendi auzoan nagusi eta gazte denak elkarrekin ibiltzen ziren. Auzoko batek soinua jotzen zuen eta harekin ibilita omen dago dantzako dirua batzen, Elgetako plazan, Kandelario egunez. Txakur handia ordaintzen zen piezako. Batutako dirua soinujolearentzat izaten zen.

275. Soinujoleak Elgetako plazan (ELG-031/028)

Kandelario eguna beti ospatzen zen Elgetan eta Goimendiko soinujolea egoten zen egun horretan. Soinujolearen anaia, Lucio, arotza zen eta eskailera antzeko bat egin zion haren gainean jotzeko. Urte batean, hiru soinujole egon omen ziren: Eugenio Ubera, Larrabiltxokoa eta Felix Angiozarko itsua. Igandero egoten zen soinujolea. Gerora, gramola jartzen hasi ziren. Feria Nagusikoa izaten da Elgetako jai handiena.

276. Andra Marietan Eibarko eta Bergarako musika bandak (ELG-031/029)

Jende asko etortzen zen dantzara inguruetatik. Andra Mari egunean Bergarako musika banda eta San Roke egunean Eibarko etortzen ziren. Geroago hirugarren egunean Elorrioko txaranga ere etortzen zen. Eibarko "rebeldiak", ere etortzen ziren, musika banda ofizialetatik banandutako musikariak.

277. Ojanguren baserrian jaioa; frontea etxetik bertan (ELG-033/001)

Elgetako Ojanguren baserrian jaio zen 1925ean. Zazpi anai-arreba ziren. Gerra denborako bizipenak. Anaiak astoarekin milizianoentzat janaria garraiatzen zuen. Frontea etxetik ber-bertan zuten, baina anaia ez zuten azertatu sekula tiroz. Mendiaren beste aldean, Egoetxeaga auzoan Barrenengoa baserria errentan hartu zuten, baina komeriak izan zituzten hara pasatzeko, frontea bertan zeukaten-eta.

278. Milizianoak etxean; Bergaratik kanoikadak (ELG-033/003)

Irundik sartu ziren tropak gerra hasi zenean. Milizianoak izan zituzten etxean eta Bergaratik botatako kanoikadek etxe ingurua txikituta utzi zieten. Etxea txikitu nahi zuten, baina ez zuten asmatu. Gordelekua zuten lurpean eta han gordetzen ziren, baina ama kanpoan geratzen zen, otorduak prestatu behar zituela-eta. Eurenengan egon zen miliziano bat hil egin omen zuten.

279. Gerra garaiko bizipenak (ELG-033/005)

Baserrian, 19 ganadu zituzten: eta, gerra etorri zenean, osabak denak saldu zituen. Aita eta ama biak elgetarrak ziren. Mendiz beste aldera pasa zireneko kontuak kontatzen ditu. Gerra garaia gogorra izan zen, baina batez ere moroak sartu zirenean. Baserrietan sartzen omen ziren nesken bila. Inguruko baserri batera bartako alabaren bila sartu eta gurasoak hil zituztenekoa kontatzen du.

280. Milizianoek ganadua lapurtzen zieten (ELG-033/006)

Milizianoek ganadua lapurtzen zieten. Milizianoek ia hil zituzteneko pasadizoa kontatzen du.

281. Txakur haundi bat ordaintzen zuten eskola (ELG-033/008)

28 urterekin Etxebarrira joan zen bizitzera. Eskolan Elgetan ibili zen mojekin eta katona eta gramatika ikasten zituzten. Dotrina derrigorra zen eta apaizak emandako txartel bat eraman behar izaten zuten garizuman. Eskola txakur haundi ba ordaindu behar izaten zuten.

282. Gerra hastean eskola utzi eta neskame (ELG-033/009)

Gerra hasi zenean eskola utzi beharra izan zuten eta neskame lanetara joan zen auzoko etxe batera. 4 urte egin zituen bertan; zenbat ordaintzen zioten. Arropak aska batean garbitzen zituzten auzoko etxeetakoek.

283. Berriatuan erositako behiaren inguruko komeriak (ELG-033/011)

Etxebarrian ganadua izaten zuten etxean. Aitari behiak gustatzen zitzaizkion; behin Berriatuatik erositako behiaren inguruko komeriak kontatzen ditu.

284. Errotako lana irinetan ordaintzen zen (ELG-033/013)

Errota Markinatik Etxebarrira bidean zuten, etxetik ordu erdira, eta astoa hartuta joaten ziren bertara. Eramaten zuten irinaren hainbesteko bat kentzen zieten errotan. Estraperloa ezagutu zuen, gauez egiten zen. Honen inguruko pasadizo bat kontatzen du.

285. Eibarko azokara barazkiak saltzera (ELG-033/014)

Bernardaren gizona Eibarko azokara joaten zen barazkiak saltzera, astoa hartuta, mendiz. Garia jotzen ari zireneko pasadizo bat kontatzen du.

286. Inguruko jaietan gramola eta soinua (ELG-033/015)

Mendiko erromerietara eta Barinaga eta Elgetako jaietara joaten ziren. Elgetan gramolarekin egiten zuten dantza, gainontzekoetan soinuarekin. Bernardak ez zuen dantza lotua debekatua ezagutu. Erromeria arratsaldean hasten zen.

287. Txirikilan jolasean (ELG-033/017)

Txirikilan jolasten zuten, besteak beste, eta jokoaren nondik norakoa azaltzen du.

288. Arrateko erromeria eta neska-laguntzea (ELG-033/018)

Elgetatik Arratera erromeriara joandakoa kontatzen du. Oinez joan eta Eibartik etxerakoan kotxean bueltatzen ziren ordainduta. Neska-laguntzera urrutira joan behar izaten zuten oinez mutilek.

289. Gari-jotzen gertatutako pasadizoa (ELG-033/020)

Neskame egon zen baserriko gari-jotze egun bateko pasadizoa kontatzen du.

290. Jauna hartzera baraurik (ELG-033/021)

Etxebarrira joaten ziren mezara. Pasadizo bat kontatzen du esnea banatzera Elgetara joan zenekoa. Konfesatzera joatea nahitaezkoa zen; 3 apaiz izaten zituzten. Elizara jauna hartzera baraurik joaten ziren. 6etan, 8etan eta 10etan izaten zen meza.

291. Neskame lanak; lixiba (ELG-033/022)

Neskame egon zen etxean lurra eskuz garbitzen zuten. Arropak lixiba eginda garbitzen zituzten.

292. Eguzkiaren arabera jakiten zuten ordua (ELG-033/023)

Erlojurik ez zuten izaten eskumuturrean eta eguzkiari begiratuta moldatzen ziren. Pasadizo bat kontatzen du.

293. Auzoko baserrietara odolkiak banatzeko ohitura (ELG-034/001)

Eguneroko otorduetan baba gorriak urdaiarekin jaten zituzten. Etxean lehengusu batek hiltzen zuen txerria eta odolkiak eta txorizoak egiten zituzten. Auzoko baserrietara banatzeko ohitura zuten. Haragia gatz kutxetan kontserbatzen zuten.

294. Ardi-ilezko koltxoiak (ELG-034/002)

Oheko koltxoiak ardi-ilez egindakoak izaten ziren eta noizean behin askatu eta astindu egin behar izaten zituzten. Izarak erosi egiten zituzten eta arropak jostunak josten zizkien.

295. Jatorduetan arrosarioa errezatzen zuten (ELG-034/005)

Egunero jatorduetan arrosarioa errezatzen zuten. Neskame egon zen lekuko pasadizo bat kontatzen du.

296. Gabonak neskame zegoen etxean (ELG-034/008)

Gabonetan ardoa edaten zuten eta gaztaina, konpota eta intxaur-saltsa izaten ziren jaki bereziak. Gabonetan ez zuen bere familiakoekin ospatzen, neskame zegoen etxean geratzen zen, alde egiteko penaz. Lehen ez zen errege eta olentzerorik izaten.

297. Inguruetako ermitak; apaizak; mezak latinez (ELG-035/018)

Madalena ermita non zegoen eta nolakoa zen azaltzen du. Inguruetako ermitak: San Antonio, Salbador eta San Roke. Orduko abadeak: don Manuel Orbegozo, Leocadio Guerra eta parrokoa. Goizeko 8etako meza eta iluntzeko arrosarioa txandaka ematen zituzten. Mezara joatea derrigorra izaten zen, bestela kargu hartzen zieten eta. Mezak latinez izaten ziren eta ez zuten ezer ulertzen.

298. Jaunartzeko kontuak (ELG-035/019)

3 hilabetez iluntzeetan elizara joan eta ikasten egoten ziren jaunartzea egiteko. Aste-egunean egiten zen jaunartzea eta 7 urterekin egin zuen berak. Ez zegoen gaur egungo lujorik.

299. Ezkontzako kontuak; ezkonbidaian Donostiara (ELG-035/020)

Ezkontzak desberdinak izaten ziren; bera soineko beltz batekin ezkondu zen. Soinekoa eta abrigoa nork egin zizkion. Ondoren "Panaderokuan" bazkaldu zuten. Ezkonbidaian Donostiara joan ziren. Ezkondu eta bazkaldu ondoren autobusean Eibarrera jaitsi, trena hartu eta Donostiara joan ziren ezkonbidaian. Igandean handik bueltatu eta astelehenean lanera. Donostia asko aldatu da.

300. Bola-lekuetako giroa (ELG-035/021)

Lehen jaietan ez zen gauza handirik egoten. Andra Marietan "Bergaretxe" soinujolea etortzen zen. Larunbat eta igandetan boletan egiten zen. Euren etxe ondoan zegoen bola-lekua eta jende asko biltzen zen bertan.

301. Canutorengana okelatara (ELG-035/027)

Lehenago noizean behin jaten zuten haragia. Platerarekin joaten ziren Canutorengana okelatara.

302. 1925ean Eibarren jaioa (ELG-036/001)

1925ean jaio zen Eibarren. Jaio zen lekuan zegoen taberna eta ingurua deskribatzen ditu. Garai hartan etxe askok eduki ohi zuten beheko solairuan ukuilua eta gainean etxebizitza.

303. Krisi garaian Beasainen eta Lazkaon bizitzen (ELG-036/002)

Beasainen eta Lazkaon egon zen bizitzen krisi garaian, aita CAF lantegira joan baitzen lanera. Ama bera umea zela hil zitzaion eta aitak gaixotasun kroniko bat zuenez, Jose Luis osabaren etxera joan zen bizitzera.

304. Elgetatik Uberara eskolara; gerra hasiera (ELG-036/003)

Elgetako baserrian bizi zela, Uberara joaten zen eskolara. Gerra Uberako eskolan zebilela deklaratu zen. Mutil gazteak batzuk boluntario joan omen ziren gerrara eta beste batzuk morroi.

305. Bergaratik Elgetara kanoikadak (ELG-036/004)

Frontea Nafarroatik iritsi zen Bergarara. Jendeak beldurrez, balkoietan bakearen keinua eginez, izara zuria jarri zuen. Bergaratik Elgetara kanoikadak botatzen zituzten eta etxe asko apurtu zituzten.

306. Uzta biltzen tiro artean (ELG-036/007)

Frankistak Elgeta ondoko mendi batean geratu ziren, eta Jose Luisek eta etxekoek uzta biltzen ari zirela tiroketa jasan behar izan zuten bi aldeetako bandoengandik.

307. Frankista bat etxera, bandoz aldatu nahi zuela esaten (ELG-036/008)

Behin frankista bat etorri zitzaien etxera. Aitak ez zion sartzen utzi nahi. Bandoz aldatzea nahi zuela esan zien eta aitak gudariak zeuden baseriraino lagundu zion. Bitartean, soldaduak etorri zitzaizkien ea norbait ikusi zuten galdezka. Aitak alde egin zuen, badaezpada. Bi bandoen erdian geratu zen euren baserria.

308. Gerra denboran ihesean (ELG-036/009)

Gau batean, lehengusuak eta beste talde bat etxera joan eta beste baserri batera eraman zituzteneko gertakaria kontatzen du. Ondoren, Elorrioko Berrio auzoan hustutako etxe bat aurkitu eta bertan geratzea erabaki zuten. Italiar eta alemaniarren hegazkinak etxe gainetik bonbak jaurtikiz pasatzen zitzaizkien. Honen inguruko gertakizun bat kontatzen du. Durangoko bonbardaketa.

309. 1937an Elgeta hartu zutenekoa (ELG-036/010)

1937ko apirilean, 6 hilabetea frontea geldirik egon ondoren, Kanpazarretik Elorriora pasa ziren milizianoak, eta Elgeta hartu zuten. Bortxaketa ugari egin

zituzten marokoarrek; bat harrapatu eta Elgetako plazan fusilatu zutenekoa kontatzen du. Jose Luis eta etxeokak kamioi batean sartu eta Zornotzara joan ziren ihesean, beste etxe bat bilatu arte.

310. Kamioi batean ihesi Lezamara (ELG-036/011)

Aitak, soldaduengandik ihesi, Balmasedara egin zuen alde. Kaleetan, kontrolak egoten ziren. Jose Luis eta etxeokak Elorriotik Elgetara joaten ziren arraina eroatera. Zornotzara kamioi batean ihes egin, eta handik Lezamako etxe batera joan zen bi asto hartuta, oinez.

311. Beste umezurtzekin Frantziako baserri batera (ELG-036/012)

Jose Luisen aitak, Balmasedan zegoela, egunkariko albiste batean irakurri zuen Filipinetako emakume batek 30 haur umezurtz nahi zituela. Jose Luis amarik gabekoa zen eta aitak bere izena eman zuenean, itsasontziz Frantziara eraman zuten beste ume batzuekin batera. Orduko kontuak kontatzen ditu.

312. Frantziako baserrian, inprentan lanean (ELG-036/013)

Burgostik 400 metrora egin zuten lehen geldialdia eta handik La Rosellara eraman zituzten. Frantzian baserri batean egon ziren, umezurtz, ministro eta politikoen seme-alabekin. Han zegoen denboran inprenta batean lanean aritu zen aprendiz modura.

313. Gerra amaitu zenean etxera buelta (ELG-036/014)

Espainian gerra bukatu zenean etxera bueltatzeko agindua iritsi zen, baina Jose Luisek aita preso zeukan eta ez zuen etxera itzuli nahi. Aita gaixorik itzuli zen kartzelatik baserrira eta bi hilabeteren buruan hil zen. Jose Luis morroi bidali zuten 13 urterekin baserri batera, etxean asko ziren eta.

314. Elgetako Modelo ebanisterian lanean (ELG-036/016)

15 urterekin Elgetako Modelo ebanisterian hasi zen lanean 57ra arte. Espainia osoan zituen ordezkariak. Krisia hasi zenean lantegia itxi zuten eta lanik gabe geratu zen.

315. Elgetan eta Oikian lanean (ELG-036/020)

Valentziako feria batean saltzen zituzten lantegian egindako lanak. Alacanteko lantegi bat zuten lan salmentetan aurkari. Nagusiak Oikian beste lantegi bat zabaldu zuen eta Jose Luis hara joaten zen hasi berriei erakustera.

316. Etxerako sagardoa nola egiten zuten (ELG-036/023)

Baserrian ganadu-zain, ittulan, sagarrak biltzen eta halako lanetan aritzen zen. Etxerako sagardoa egiten zuten; nola egiten zuten azaltzen du.

317. Baserri ugari eta familia handiak (ELG-036/024)

1945 ingurura arte ez zegoen pinurik inguruetan. Baserri ugari zegoen eta lursail garbiak izaten ziren. Etxe bakoitzean familia handiak izaten ziren eta horregatik joaten ziren asko fraide edo beste ofizioen batera etxetik kanpora.

318. Soldadutzako kontuak (ELG-036/026)

Soldadutzan urrutiko senide bat zuen ejertzitoko ofizial eta hari eskerrak arin pasa zitzaion; kabo egin zuten. Normalean ez zieten etxera bueltatzeko

baimenik ematen, baina berak lortu zuen baimena. Hala ere, baimena eman ziona zigortua izan zen ez zelako legez onartua.

319. Eskolan non ibili zen (ELG-038/003)

Sei-zazpi urtetatik 14 urtera arte ibili zen eskolan. Lehenengo mojekin ibili ziren eta gero eskola nazionalera joan ziren. Han maisu birekin ibili ziren, Gasteizko Fortunato eta Jose Fern´ndez eibartarra. 14 urterekin Zumarragara joan zen partikularrera; han batez ere matematika eta kontuak ikasi zituen Segundo maisuarekin, 18 urtera arte. Astea han pasatzen zuen osaba-izeba batzuen etxean eskolak goizez eta arratsaldez baitziren.

320. Baserriko lanak: esne behiak eta soroak (ELG-038/004)

Esnetarako ganadua zuten etxean. Idiak ere bazituzten. Idiekin etxeko lana eta basoko lana egiten zuten. Inguruko zelaia soroak ziren garai batean eta beraiek lantzen zituzten.

321. Esne-saltzaile (ELG-038/006)

Bere diru-iturri nagusia esnea izan da. Eibarrera eramaten zuten esnea, Leon esne-saltzailearen laguntzaz. Gero beranduago kotxearekin ama eta biak joaten ziren.

322. Eguneko 150 litro esne (ELG-038/010)

Okela-behiek ez dute horren besteko lanik ematen esne-behiekin alderatuz gero. Eguneko 100-120 litro esne izaten zituzten. Auzokoaren esnea ere jasotzen zuten eta azkeneko 150 litro lortzen zituzten. Egunean sobratzen zitzaiena gozo-denda batera eramaten zuen. Legea ezarri aurretik Eibarren esne-saltzaile asko egoten ziren. Bere ustez lege berriarekin, esnea zentralera eramanda, ez zuen merezi diru aldetik.

323. Eskolan erdara, dotrina euskaraz eta erdaraz. (ELG-038/013)

Euskaraz aritzeagatik ez zuten zigorrak jasotzen. Dotrina euskaraz eta erdaraz ikasi zuten. Zumarragara joan zenean 14 urterekin ikasi zuela zerbait dio.

324. Janaria militarrentzako (ELG-038/020)

Errazionamendua Aldundiari ordaintzen zitzaiola gogoratzen du. Militarrei garia eta patata ematen zitzaien. Lehen han mikeleteak egoten zirelako. Gurasoek kontatutakoa gogoratzen duela dio.

325. Idi-probak II (ELG-038/027)

Bera gaztea zenean Elgetan idi-probak egiten ziren. Gaur eguneko giroa ez da berdina. Lehen diru asko jokatzeko zen, jendea apustuak egitera joaten zen batik bat. Idirik onenak Berriatukoak zirela dio. Beste hainbat ere aipatzen ditu. Gaur egungo hainbat kontu. Bizkaiko lurraldea da idi-probetarako hobeto prestatu dagoena.

326. Idi-probak III (ELG-038/028)

Idi-probek zelan funtzionatzen duten kontatzen du, "kintopekua"... Idiek dozena bat urte baino ez dute irauten.

327. Idi probak IV (ELG-038/029)

Idi probetan dopina existitzen dela dio, dopin-frogak zelan egiten diren ere kontatzen du. Idi asko esfortzuaz eta drogaren efektuaz hil izan dira.

328. Osabarekin iturgin lanetan (ELG-038/035)

Zumarragan zegoela, osabarekin iturgin lanetan ibili zen. Bizikletan joaten ziren, erreminta-kutxa parrillan jarrita.

329. Maisu makilazaleak (ELG-041/003)

Angiozarrera etortzen ziren maisuak oso gazteak ziren. Makila erabiltzen zuten erraz umeekin. Kexak izaten ziren horregatik, eta laster alde egiten zuten. Euskaraz egiteagatik jotzen zutela gehienbat, dio. Gutxi joan zen eskolara, etxean lagundu behar baitzen.

330. Elorriora "txispaginan" ikastera (ELG-041/005)

Urte eta erdi bat egingo zuen eskolan denera ere. 13 urterekin Elorriora joan zen armari ofizioa ikastera, "txispaginan". Non bizi zen eta nola egiten zituen atzera-aurrerak.

331. Eibarren armagintzan 19 urtez (ELG-041/009)

Fundizio utzi eta Eibarren hasi zen lanean, armagintzan (txispaginan), bere ofizioan, Armas Bost lantegian. 19 urte egin zituen han, lantegia itxi zen arte. Gero bi urte egin zituen Oñatin Lana lantegian. 62 urterekin jubilatu zen.

332. Basoan lan asko egindakoa (ELG-041/013)

Basoan lan asko egindakoa da. Erretiroa hartuta gero ere bai. Beti jornalean egin du lan. Basoko lan guztiak egin ditu, pinuak bota, zuritu, basoa garbitu... Asteburuan bere burua zaintzen zuen, astelehenean lanerako sasoian egoteko.

333. Kontrabandoko txahalekin Elorriora (ELG-041/015)

Garia, patata eta abar entregatu behar izaten zen gerra ostean. Debekatuta zegoen arren txahalak Bizkaira saltzea, Juanek eta beste lagun batek ugari eramane zituzten gauez Angiozartik Elorriora, batzuk etxekoak eta beste batzuk inorenak. Prezio hobeak egiten zuten Bizkaian.

334. 300 kilo gari entregatu behar kupo gisa (ELG-041/016)

Arabatik ez zuten kontrabandorik egiten. 300 bat kilo gari entregatu behar izaten zuten kupo gisa hasieran, eta gehiago gero. Hala ere, nahikoa izaten zuten etxerako. Goiz-garia ereiten zuten batzuetan, bestela justu samar ibiliko zirela jakinda.

335. Ura eta argindarra (ELG-041/018)

Etxean ura bazuten lehenengotan baina ez edatekoa. Gerora pare bat km-ra zegoen iturri bat hartu zuten. Argindarra beti ezagutu du etxean, Angiozarren zentral txiki bat zegoen eta. Gero Iberduero jabetu zen zentralaz eta eraikinean etxebizitza bat egin zen.

336. Babak eta porru-patatak egunero (ELG-041/019)

Goserik ez zuten pasatu. Errazionamendua ere jasotzen zuten. Babak jaten ziren bazkaritan egunero. Afaltzeko porru-patatak. Urtean pare bat txerri hiltzen ziren eta moxalen bat ere bai. Gaztaina denboran gaztainak.

337. Elgetara eta Elorriora erromeriara (ELG-041/021)

Erromeriara Elgetara joan izan da gehienbat, Angiozar baino erosoagoa zegoelako, handiagoa izateaz gain. Elorriora ere bai. Bergarara gutxi, Pazkuetan-eta bakarrik. Gramola egoten zen Elgetan; soinujole gutxi zen gara hartan.

338. Trontzan aitarekin gustura (ELG-041/024)

Basoko lanetan motozerraz baliatu izan da ia beti, baina antzina trontzarekin jarduten zuten. Aita eta biak ondo konpontzen ziren trontzan baina anaiarekin gaizki.

339. GMC kamioia hobeia idiak eta gurdia baino (ELG-041/025)

Zura idiekin garraiatzen zuten hasieran. GMC kamioiak agertu zirenean aurrerakuntza handia izan zen. Eskuz kargatzen zuten arren, lan horrek ez zien beldurrik ematen.

340. Eskola kontuak (ELG-043/002)

Eskolara herrian bertan joan zen doña Manuelarekin. Sei urterekin-edo hasi zen eskolara joaten. Eskolan erdaraz egiten zuten baina dotrina euskaraz. Doña Manuela Angiozartik etorritako zen. Urte batzuetara beste herritar batek, Conchak, hilabeteetan ogerleko baten truke eskolak ematen zizkieten eskolatik aparte, egunean bi orduz.

341. Mikeleteak Elgetan (ELG-043/004)

Concha irakaslearen aita sarjentua zen, mikeletea. Sasoi hartan mikeleteak egon ziren Elgetan. Kuartela non zegoen azaltzen du Josepak.

342. Esnea autobusez Eibarrera (ELG-043/009)

Eibarrera tratua egitera joaten zen. Esnea eramaten zuena Leon Olabarria zen. Autobusez egiten zuen joan-etorria.

343. Azokara saltzera (ELG-043/010)

13 urterekin hasi zen azokara joaten baserriko produktuak saltzera. Barikuetan joaten zen Eibarrera barazkiak eta frutak saltzera. Eibarko plaza inguruko handiena zen. Bergarara ere joaten zen, astoz. Erdara orduan ikasi zuela dio.

344. Eibarko azokara (ELG-043/012)

Autobusak jarri zituztenean hasi zen joaten Eibarrera. Eibarko bezeroa ona zela dio, barikuetan jasotzen baitzuten jornala.

345. Sagarrak dozenaka saltzen ziren (ELG-043/014)

Sagarrak dozenaka saltzen ziren ez kiloka. Gereziak kiloka saltzen ziren.

346. Baserriko lanak (ELG-043/016)

Etxean ganadu gutxi zuten, lau behi eta lau txahal. Ezkondu eta gero idiak hartu zituzten, etxeko lanetarako. Uztarriko behiek lan asko egiten zuten. Baserriko tresna batzuk aipatzen ditu eta hauen zereginak.

347. Azokara sasoian sasoikoa. Aita inausketan trebea (ELG-043/020)

Senarra hil zenean utzi zion azokara joateari. Denetarik eramaten zuen azokara, sasoian sasoikoa. San Juan sagarren oroitzapena dauka, orduan ez zegoelako asko. Aita inausketan aritzen zen lagunei eta gertukoei laguntzen.

348. Azokan 4 pezeta eta erdiko irabazia (ELG-043/022)

Azokara jaisten hasi zenean 13 urterekin lau pezeta eta erdi irabazi zituen. Horrekin etxerako kontuak erosi zituen. Neskek ez zuten ardorik edaten oso noizean behin baino ez, bere aita sobratzen zen ardoa behientzat gordetzen zuen. Ardoa erosi nahi izanez gero aurreko botila eraman behar zen hura betetzeko.

349. Azunberdiko botilekin ardo bila sindikatura (ELG-043/023)

Azunberdiko (azunbre erdiko) botilak egoten ziren, litro batekoak. Beraiek, kooperatibistak zirenez, beti joaten ziren Elgetan sindikatura, dendara, han merkeago erosten zituzten gauzak eta. Han ardoa zahagietan izaten zuten eta, botila eramanda, azunberdi eskatzen zuten, litro bete.

350. Auzoko errota (ELG-043/026)

Gerra aurretik ez zuten goserik izan, errota zuten eta. Lehen 12 bazkide ziren; gaur egun, bost baino ez. Gerra denboran, herriak errotan egotera derrigortu zituen, hara inor jeneroa ehotzera joaten bazen ere. Bazkide bakoitzak bere egunak zituen, baina beraiek ez zuten nahi beste inor hara sartzea; orduan, Aranzetatar bat jarri zen errotari kanpoan zetozenetarako. Sekula ez zen errota geratu. Beste errota batzuk ere bazeuden.

351. Txerria erdi bana osaba-izebekin (ELG-043/029)

Osaba-izebekin erdizka banatzen zuten txerria, lehenengo hazten zuenarena hil lehendabizi eta horrela freskoago jaten zuten txerriak. Horrela behin baino gehiagotan jaten zuten.

352. Ermandadeetako ganaduen erditzeak (ELG-043/030)

Auzoan ermandadeak zeuden eta erditzeetan ganadua galtzen zenean galdutako aprobetxatu egiten zen, "zezeiñe" esaten zitzaion horri. Bakoitzak zuen ganaduaren arabera banatzen zuten okela. Okel hori zelan prestatzen zuten azaltzen du Josepak.

353. Sagardoa nola egin (ELG-043/033)

Aitak sagardoa nola egiten zuen; hasieran, mazoarekin jota. Pitarra. Sagardo-sagarra zuten, "hori txikixa". Inguruan sagardoa egiten zuenak besteei pitxarrean eramaten zien probatzeko.

354. Zaldibarrera gerra sasoian, Elgetako etxean guztia konfiskatuta (ELG-043/034)

Gerra hasierako bi hiletan, etxean egon ziren; gero, joan egin ziren. Bere aita tiroz zauritu zuten, eta hamaika hilabetez egon zen bala sartuta zuela. Beraiek Zaldibarrera joan ziren senide batzuengana. 29 pertsona egon ziren Zaldibarko etxe hartan. Ganadua ez zuten eraman; izan ere, joan aurretik, CNT-koek oilo eta ganadu guztia kendu zieten. Denak lapurrak ziren. Elgetan moroak zeuden eta baliodun gauza guztiak lapurtu zizkieten. Beraz, ezer barik geratu ziren.

355. Aita balaz zaurituta (ELG-043/035)

Aita zaurituta zegoen; eta, ospitalean egon ostean, Zaldibarrera joan zen beraiengana. Handik hamaika hilabetera, bala bizkarretik irteten hasi zitzaion. Orduan, Elgetako Bareño medikuak esan zion joateko berarengana, baina mediku horri bihotzekoak eman zion. Berrito etxera bueltatu ziren. Handik hamabost egunera joan ziren berrito medikuarenera eta azkenean bala atera zion, zauria zabaldua.

356. Elgetan hainbat hildako (ELG-043/036)

Zaldibarren ez zegoen erasorik, Elgetan bai. Bertan hil ziren batzuk aipatzen ditu. Bere lagun bati gertatutakoa kontatzen du, moroek abusatu nahi izan zuten. Hori gertatu eta gero, soldadu batzuek Elgetako plazan hil zuten moro bat. Bere izeko bat Talavera de la Reinan egon zen moja, eta Elgetan ibilitako soldadu bat joan zitzaion kasualitatez bertako ospitalera; soldadu hark kontatu zizkion Elgetan gertatutakoak.

357. Aita ganaduari jaten ematen zebilela zauritu zuten (ELG-043/038)

Zaldibarren bost hilabete egin zituzten. Ganaduekin zebilela bota zioten aitari bala, jana ematen zebilela.

358. Moroetatik iheska (ELG-043/039)

Asko izan ziren hildakoak, alde batekoak zein bestekoak. Baserri bateko bi ahizpa moroetatik eskapatzeko ortozik joan ziren erreka izkinatik, ote artetik... Auzoko jendea eta gertatutako hainbat istoriori buruz hitz egiten du.

359. Ezerezetik hasi beharra (ELG-043/040)

Frontea Bilbora joan zenean, bertako giroa lasaitu egin zen. Berrito hasi behar izan ziren ezerezetik. Orduan ez zegoen gaur egungo inbidia. Bere amak egindako soinekoa aipatzen du adibide moduan.

360. Erromeriak (ELG-043/042)

Domeketan meza bezperak izaten zituzten eta gero dantzara joaten ziren. Elgetako plazan aritzen ziren dantzan. Arrate egunera eta Elorriora ere joandakoa da. Bere lagun Bittoriri oinetakoak min egiten ziela eta behin ortozik bueltatu zen Elorriotik Elgetaraino. Bergarara pazkoetan joaten ziren.

361. Gerraosteko jaiak (ELG-043/043)

Gerraosteko jaiak antzekoak ziren. Elgetan gramola izaten zuten eta Bergaran banda. Bergaran San Pedroko eliza ondoan egoten ziren akordeoi-jotzailea, pandero-jotzailea... Mutilekin dantza egitearren ez zuten arazorik izan, baina Josepak dio sueltoan egiten zela gehienbat dantza.

362. Inguruko karobiak eta haien erabilera (ELG-053/003)

Elgeta inguruan egondako karobiez hitz egiten du: bere garaian 6 bat zeuden; eta hori baino lehenago, askoz gehiago. Karobiak lehendik eginda zeudenez, edonork erabil zitzakeen. Beraiek bi familiaren artean moldatzen ziren karobiak erabiltzeko.

363. Karobiak egiteko inguru egokiak (ELG-053/004)

Karobiak non zeuden azaltzen du. Karobiak egiteko, lekuak zer ezaugarri izan behar dituen aipatzen du.

364. Karea egiteko garai egokia (ELG-053/005)

Karea ekain-uztailean egiten zen, soroan zabaldu ahal izateko. Karea nola zabaltzen zuten azaltzen du. Euriak batzuetan mesede egiten zion kareari.

365. Karobiko labea pizten (ELG-053/006)

Beren karobiko labea pizteko zer egiten zuten azaltzen du.

366. Egurra eta harrikatza tartekatzen (ELG-053/007)

Egurra eta harria tartekatzen zuten karobi bati buruz hitz egiten du.

367. Basora joateko janzkera (ELG-053/009)

Basora joaten zirenean eramaten zuten janzkeraz hitz egiten du: zer arropa izaten zuten, zer materialetakoak ziren...

368. Basorako janaria zakuan (ELG-053/010)

Basora denbora luzerako joatean, jatekoak eta behar zituzten gainerako gauzak zaku batean eramaten zituzten. Zer janari eramaten zuten aipatzen du. Taldean joaten zirenean basora, sukaldari bat joaten zen beraiekin.

369. Taloak egiteko errezeta (ELG-053/011)

Taloa nola egiten den azaltzen du: zer osagai eta erreminta erabiltzen diren.

370. Basoan janaria prestatzeko tresnak (ELG-053/012)

Janaria basoan prestatu behar izaten zutenean, zer ontzi eta tresna klase eramaten zuten azaltzen du. Koilarak eta sardexkak egurrezkoak izaten ziren garai hartan. Guztiek plater batetik jaten zuten.

371. Txondor-zulorako egurra (ELG-053/015)

Txondor-zulora egurra bizkar gainean (lepaketan) edo bueltaka eramaten zuten. Egurrak nola txikitzen zituzten azaltzen du.

372. Lexikoa (ELG-053/016)

Egurrari eta txondorrari lotutako lexikoa aipatzen du.

373. Lexikoa (ELG-053/017)

Bihurriak zer diren eta zertarako balio duten azaltzen du. Bringei buruz hitz egiten du.

374. Ikatza txondorretik ateratzen (ELG-053/021)

Bertan lanean zebilen edozeinek ateratzen zuen ikatza, eta nola eta zer tresnaren bidez ateratzen zuten azaltzen du.

375. Galbahea (ELG-053/022)

Galbahea nolakoa zen eta zertarako erabiltzen zuten azaltzen du.

376. Ikatza egiteko prozesuari lotutako lexikoa (ELG-053/023)

Ilintxa ikatza egin gabeko egurrari esaten zitzaion. Abarkak erabiltzen zituzten txondor gainean ibiltzeko. Ikatza egiteko prozesuari lotutako hitzak aipatzen ditu.

377. Ikatza garraiatzeko eta neurtzeko moduak (ELG-053/024)

Otarrandiak eta zakuak erabiltzen zituzten ikatza egitean. Ikazkinak betetzen zituen zakuak. Ikatza nola neurtzen zuten azaltzen du.

378. Egindako ikatza saldu (ELG-053/025)

Txondorraren tamainaren arabera, bazekiten zenbat ikatz lortuko zuten. Egindako ikatza saldu egiten zuten etxerako gorde beharrean. Saldutako ikatzak zer funtzio izaten zuen azaltzen du.

379. Bezeroak (ELG-053/026)

Ikatza erosten zuten bezeroekin nola moldatzen ziren azaltzen du: nolako bezeroak ziren, nola eramaten zitzairen ikatza, zenbat balio zuen zaku bakoitzak...

380. Etxea erre gerratean (ELG-055/002)

Etxean obra handiak egin zituzten gurasoek gerra hasi zenerako, baina Bergaratik botatako bonbek erre egin zuten. Joana kumatik atera berri zela jausi zen etxea erre zuen bonba. Ordurako, aita bi aldiz itzalita zeukan su hartutako etxea. Ama umeeekin San Roke aldean zegoen kainupe batera joaten zen bonbardaketak zirenean.

381. Etxe berria eraiki herritarren laguntzaz (ELG-055/004)

Etxe berria egitea erabaki zuten 1942an. Asko lagundu zieten herritarrek. Batak habea eman, beste batek beste zerbait... Elorrioko harginak ibili ziren. Harginen eta peioen izenak esaten ditu.

382. Anaiari bonba lehertu (ELG-055/005)

Zortzi urteko anaiak bonba bat aurkitu zuen lurrian eta harekin jolasean zebilela, eskutik jausi, lehertu eta hanka bat galdu zuen.

383. 'Cara al Sol' kantuan eskolan (ELG-055/009)

Ez zekiten erdararik batere eskolara hasi zirenean. Monjek ez zieten horregatik zigorrik jartzen. Cara al Sol eta horrelakoak kantatzen zituzten.

384. Eskolan bordatutako izarak oraindik armairuan (ELG-055/011)

Eskuko lanak (josten) egiten zituzten eskolan. Orduan bordatutako izarak oraindik armairuan ditu estreinatu gabe. Amandreak arreoan ekarritako sobrekamak ere gordetzen ditu. Gantxilloa, tapetea, punto de Kruz eta horrelakoak egiten zituzten.

385. Erakusketak eta lehiaketak eskolan (ELG-055/012)

Esku-lanen erakusketa egiten zen herriko autoritateen aurrean. Apaiza, alkatea eta abar etortzen ziren eta "esamiñak" egiten zizkieten Geografiaz, Erlijioaz eta abar. Juanak orduan irabazitako bi diploma ditu.

386. Ume-jolasak (ELG-055/013)

Trenka, 'koziñaketa', txirikilan, kaniketan, sokasaltoan, tortoloska... ziren euren jolasak.

387. Ingalaterrako erreginarendako pistola egin aitak (ELG-055/015)

Aita 14 urterekin Eibarrera joan zen armagintza ofizioa ikastera. Maria Ederrenean hartzen zuen ostatu. Oso eskola zalea ei zen. Esaten zuen Ingalaterrako erreginarendako pistola bat egin zutela, txiki-txikia.

388. Kale-baserriak Elgetan (ELG-055/019)

Ez da baserririk galdu Kantoikuaren inguruan. Denek zutik jarraitzen dute. Kale-baserria izan da beti Kantoikua. Hala ere kaletik etxerakoan beldurra pasatzen zuten, ipurtargia bezalako argia egoten baitzen.

389. Aita gaztea zela sartu zuten ura etxean (ELG-055/020)

Joanak beti ezagutu du ura etxean. Aitak esaten ei zuen hasieran jendeak ez zuela gura izan etxean ura sartzerik, baina berak lehenengotik ipini zuela. Juanak komun modernoa ezagutu du. Dutxarik ez. Fregaderan egiten zituzten garbitasunak.

390. Goserik ez baina jana ondo neurtuta (ELG-055/023)

Taloa, artoa eta esnea, morokila... orduko jakiak. Goserik ez du pasatu. Baina ondo neurtzen eta zaintzen zen jana. Sagarra nahikoa izaten zuten.

391. Ama Kuban hiru urtez kriada (ELG-055/025)

Ama gaztetan kriada egon zen Erreterian. Kubara ere joan zen nagusiekin. Hiru urte egin zituen han. Harako bidaian ia urpera joan zen barkua; konfesatu eta dena egin omen ziren.

392. Gurdian basora ira ekartzera (ELG-055/028)

Ira ebaten ere eginda dago, igitaiaz gainera. Gurdi gaineen jarrita joaten zen aitarengana basora, Egoetxeaga aldera. Bazkaria aitari eramatera ere joaten zen eguerdian Eibar aldera jotzen zuen baso batera. Autoreen bat sumatzen zuenean ezkutatu egiten zen beldurtuta.

393. Elgetako taberna-dendak (ELG-055/030)

Elgetako taberna-dendak: Panaderokua, Martintxona eta Mantuna. Bareño medikuari errekaduak egiten zizkion eta gogoan du behin 500 pezetako diru-paperarekin bidali zutela dendara. Plazan zegoen estankoa.

394. Elgeta beraneantez beteta udan (ELG-055/032)

Eibarrera joaten ziren tratuarekin. Elgetan ez zen egiten plazarik baina Berrio aldetik etortzen ziren madariekin-eta. Elgeta beraneantez beteta egoten zen udan. Etxeetan egoten ziren, gelak alokatuta. Martintxo tabernan ere bai. Jende aberatsa egoten zen.

395. Txanbolin-txistua eta gramola Txanbolinen etxean (ELG-055/034)

Ostatu-an taberna eta harategia zeuden. Zeletaren taberna... Eta Txanbolin-guan almazena. Txanbolinek txistua jotzen zuen balkoitik eta jendeak dantzari egiten zuen errepidean. Gramola ere Txanbolinen etxeko leihoan ipintzen zen hasieran.

396. Elgetako plaza dantzari beteta (ELG-055/035)

Juanaren denboran plazan egni izan dute dantzari. Gramola egoten zen normalean baina inoiz musika taldeak ere etortzen ziren. Mutilak ordaindu egin behar izaten zuten. Inguru guztietako neska-mutilak etortzen ziren eta plaza bete-bete eginda egoten zen.

397. Zinea eta antzerkia Elgetan (ELG-055/037)

Zinea ere izaten zuten. Antzerkiak ere egiten zituzten. Neskek monjetan. Juanak kriadak papera egiten zuen beti. Kanpoko taldeak ere etortzen ziren, Zeanuritik eta.

398. Oso ondo pasatzen zuten antzerkia egiten (ELG-055/039)

Erdi euskaraz eta erdi erdaraz egiten zuten antzerkia. Lehenengo Madre Benignarekin monjetan. Gero Don Juanekin neska eta mutil batera. Oso ondo pasatzen zuten.

399. Erromeria Elgetan Karnabal martitzenez (ELG-055/043)

Karnabal Martitzenez jende asko biltzen zen Elgetan eta erromeria egiten zen bera gaztea zela. Bergarara jaisten zirenean Plazan egiten zuten dantzari bandaren musikarekin.

400. Ogi Nagusikoen hiletak (ELG-059/004)

Ogi Nagusikoek hileta berezia izaten zuten.

401. Mutilekin dantza egiteagatik zigortu (ELG-059/005)

Kaleko mojen eskolan hasi zen zazpi urterekin. Gerraostean ere jarraitu zuen eskolan. Eskola eta dotrina erdaraz ikasi zituen. Eskolan dotrina irakasten zien abadeak. Mutilekin dantza egiteagatik zigortu egiten zituzten.

402. Ostiral goizeko meza (ELG-059/006)

Borrokan egiteagatik zigorra. Hilean ostiral batean, goizeko zortzietako meza entzutera etortzen ziren, baraurik. Gero Panaderokua tabernan gosalduta eta eskolara joaten ziren.

403. Eskolako bazkaria (ELG-059/007)

Eskolara bidean, zapi baten bildutako bazkaria esekita uzten zuen Kipulakoa izeneko etxean, bazkal orduan jatera etortzeko. Eguraldi hotzarekin, amak kafesnea jartzen zien botila batean, Kipulakoan berotuta hartzeko.

404. Jolasak; 'Hijas de María' kongregazioa (ELG-059/011)

Txirikilan, bale-baleka, pagoka, tortoloska, sokasaltoka eta diaboloka, umetako jolasak gogoratzen ditu. Kromotan karamelu paperekin jolasten zuten. Hijas de María kongregazioan egon zeneko betebeharrak eta zigorrak azaltzen ditu. Goizean 06:30eko mezara, eta arratsaldean bezperetara etorri behar izaten zuten kalera. Mutilekin dantza egitea debekatuta zegoen.

405. Felisa artzain; Eibarrera esnearekin (ELG-059/013)

Eskolak bukatu eta baserrian geratu zen Felisa. Anaia zaharrena etxean geratu zen, baina beste anaiak lantegira eta ahizpak neskame joan ziren. Felisak ardiak jezten ere egiten zuen. Egunero Eibarrera joaten zen, bezeroei esnea banatzera. Astoa nola zaindu behar zen azaltzen du.

406. Ardiak mendian jetzi, eta gauez etxera (ELG-059/015)

Astoa, ezer esan gabe, bezeroen etxe aurrealdean geratzen zen. Hamar bat behi eta idiak edukitzen zituzten baserrian. Beste 60 bat ardi ere bai. Mendiko Basobaltz txabolan ardiak jezten zituenean, marmitarekin gauez bueltatzen zen etxera, mozoloen kantuekin beldurtuta. Bidean eskekoren batekin topo egiteak ere beldurtzen zuen. 16 bat urte zituen orduan.

407. Goizetik gauera lanean (ELG-059/017)

Udazkenean, Felisa Eibartik bueltatzen zenean, basoan garoa ebakitzen zeudenei bazkaria eramaten zien. Felisak ere bertan bazkaltzen zuen, gero garo-lanetan jarduteko. Lana bukatu eta etxera bidean, artasorotik arta-azaoak eramaten zituzten, gero etxean zuritzeko.

408. Etxeko garbiketa emakumeen lana zen (ELG-059/018)

Baserriko lanetatik aparte, Felisak etxeko garbiketarekin ere laguntzen zuen. Igandean, sei eta erdietako meza entzun, eta etxera joaten zen garbitzera. Nahiz eta lixibarekin sukaldeko mahaia garbitu, aita ez zuen gainean ezer jarriko, zamaia (mahai-zapia) jarri aurretik. Ogia ere era jakin batean jartzen zuen mahai gainean.

409. Gabonetan aitag ogia gordetzen zuen (ELG-059/019)

Aitag Gabon egunean ogia gordetzeko ohitura zuen. Ogiaren mutur bat sukaldeko komodan kutxa batean gordetzen zuen hurrengo Gabonak arte. Ogia ez zen hondatzen. Gabon egunean ateratzen zen, eta beste ogi mutur bat sartu hurrengo Gabonak arte gordetzeko.

410. Azaoarekin batera, sugea jaso zuen (ELG-059/020)

Garia ereiteko egin behar ziren lanak azaltzen ditu. Garia ebaki eta azaoak nola lotzen zituzten kontatzen du. Behin azaoarekin batera, suge bat jaso zuen besora. Haren hoztasuna oraindik gogoan du. Harrezkero ez zuen gehiago azaorik lotu.

411. Gaztagintza Aixola baserrian (ELG-059/022)

Amak gaztak gazura galtzeko karneran jartzen zituen. Lehortzen zirenean kolorea ematen zieten, armairu zahar baten barruan ketuta. Armairua atarira ateratzen zuten ketze lanerako. Gazta eskuz prentsatzen zen. Artesnea saldu ere egiten zuten Eibarren, gatzatuak egiteko.

412. Gerrako frontetik gertu zegoen Aixola baserria (ELG-059/024)

Gerra denboran, frontea ez zuten etxetik urruti izan. Bonba batzuk etxetik gertu lehertu ziren, eta leihoetan koltxoiak ipini zituzten, balak gelditzeko. Nazionalak Elgeta hartu zutenean, milizianoek atzera egin zuten eta Aixola baserri ondotik pasatu ziren. Hildako asko egon omen zen. Hildakoak (ezezagunak) lurperatu, hilobiari gurutzea jarri eta ahaztu egin zituzten.

413. Abadea baserrira babes bila (ELG-059/026)

Elgetako abade bat, bere bi arrebeekin, babes bila joan zitzairen Aixolara. Abadea eta bere arreben hainbat kontu azaltzen ditu Felisak.

414. Ogia egiteko labesua (ELG-059/027)

Ogia egiteko, oinekin oreka eginda laguntzen zion Felisak amari. Legamia etxeko ogia zahartzen utzita egiten zuten. Opilak eta ogiak egiten zituen amak aste osorako. Artoak ere egiten zituen labesuan.

415. Gerraostean alea ehotzeko komeriak (ELG-059/028)

Artoa eta garia zorroetan sartu eta astoarekin errotara eramaten zuten ehotzera. Gerraostean, errotak itxita zeudela, Angiozarko errota batera joaten ziren gauez, alea ehotzera.

416. Elizako kanpai-jotzaileak (ELG-059/029)

Txerria hiltzen zutenean, urdai zati bat Udalean entregatu behar izaten zuten. Artoa eta garia ere eman behar izaten zituzten. Baserrietan hiltzen ziren txerrien hankak, herriko elizako kanpai-jotzaileek jasotzen zituzten, euren lanagatik ordain gisa.

417. Su eta ur bedeinkatuak (ELG-059/031)

"Illua"ren (etxera eramaten zen bedeinkatutako sua) ohitura umetatik ezagutu du Felisak. Oraindik ere egiten dela dio. Ur bedeinkatua ere eramaten zuten etxera. Trumoiak jotzen zuenean, palakadatxo bat txingar ateratzen zen kanpora, eta bedeinkatutako ura botatzen zitzaion, ekaitza baretzeko.

418. Gerran eskola eten zen (ELG-060/002)

Bost urterekin hasi zen kaleko eskolan, mojekin. Gero marianistekin ikasi zuen. Gerra denboran, fronte bien erdian geratu zen Elgeta. Eskola itxi egin zuten.

419. Itaurrean gauez egiten zuten (ELG-060/003)

Gerra hasi zenean, umeak Txulokoa etxera joan ziren. Hil pare bat han egon eta gero, Lazaro itaurrean egitera itzuli zen etxera. Sorora gauez joaten ziren lanera.

420. Nazionalen bandoko soldadu nafarrak (ELG-060/004)

Egunez balaren bat sartzen zen etxean. Nazionalen bandoko soldadu nafarrek oso ondo abesten omen zuten. Nafar desertore talde bat etorri zen baserrira, gorrien bandora pasatzeko asmoarekin.

421. Egunez etxean sartuta egon behar (ELG-060/005)

Egunez etxe barruan egoten ziren; lanera gauez irteten ziren. Euren etxe ondoko txabola bat apurtu zuten bonbaz. Zesto baserrian mairuek sarraskia egin zuten. Zestoko morroia etorri zitzaien neskek etxetik alde egin zezatela esaten.

422. Mairuengandik ihesi (ELG-060/006)

Lazarok eta anaiak zelaian zehar eta sasi artetik oinutsik egin zuten ihes etxerantz zetozen mairuengandik. Etxean aitajauna eta anaia zaharrena bakarrik geratu ziren, eta mairuokin arazoak izan zituzten. Mairuen kapitaina etorri omen zen haien bila, eta azkenean fusilatu egin zituzten mairuok.

423. Mairuek etxeko arrautzak eraman (ELG-060/007)

Mairu batzuk fusilatu egin zituzten Elgetan. Mairuek etxeko arrautza guztiak eraman zituzten.

424. Gerraosteko eskolak erdaraz (ELG-060/009)

Gerra Elgetan egon zen bitartean, ez ziren irteten etxetik. Gerra herritik joan zenean, Lazaro eskolara joan zen berriro; eskola publikora oraingoan. Mojekin gerra aurrean eskola euskaraz jaso zuen. Gerraostean erdararekin arazoak izan zituen.

425. Eskolatik Bilbora txangoa (ELG-060/010)

Gerra hasi aurretxoan, eskola txango bat egin zuten Bilbora, autobusez. Autobus hori itsasora erori zela zabaldu omen zen herrian.

426. Ganadu askoko baserria, Sagastitxu (ELG-060/011)

Sagastitxu baserri handia zen. Ganadu asko eta laborantzarako soro handiak zituzten, baina zelai gutxi. Neguan ganaduak lastoa jaten zuen, eta oso argal egoten ziren. Arbia ematen zioten ganaduari, eta artoa ere bai.

427. "Industrias Danok" sortu zuten sei lagunen artean (ELG-060/012)

Eibarko Armeria Eskolan ikasi zuen aldi batez Lazarok. Gero Bergaran "Industrias Danok" eskopeta tailerra jarri zuen, beste bost lagunekin elkarlanean. Eskopetentzako baskulak eta kanoiak makinatzen zituzten bertan. Guztira 18 lagun inguruk egiten zuten lan tailerrean.

428. Landutako piezak Eibarrera eta Elgetara (ELG-060/014)

Lazaroren tailerretik Eibarko eta Elgetako limariengana joaten ziren piezak. Berrizko galdategietatik etortzen ziren tailerrean makinatzen zituzten piezak. Geroago, mikrofusioarekin, galdategietatik piezak bukatuta irteten ziren.

429. Makina ezberdinak erabiltzen zituzten tailerrean (ELG-060/015)

Galdategitik etortzen ziren eskopetentzako baskulak makina ezberdinekin lantzen zituzten. Kanoiak Berriztik edo Zaldibartik etortzen ziren.

430. Sagastitxun artalderik ez (ELG-060/018)

Lazaroren aurrekoek ardiak eduki omen zituzten baserrian, baina berak udazkeneroko hiru ardi zaharrak besterik ez ditu gogoratzen. Sagastitxu baserria bizitza bikoa izan omen zen garai batean. Kalean banatzen zuten esnea, eta Eibarrera bidali ere bai. Leon izeneko gidari batek eramaten zuen esnea, jendearekin batera, autobusean.

431. Esnea autobusean Eibarrera eta Bergarara (ELG-060/019)

Eibartik Elgetara Leon ibiltzen zen autobusarekin, eta Bergaratik, berriz, Eugenio Ibaibarriaga. Biek eramaten zituzten bidaiariak eta esnea euren autobusetan. Ama Eibarko plazara joaten zen etxeko gauzak saltzera.

432. Jatorduak denek ontzi bakarretik (ELG-060/020)

Babarrunak jaten zituzten egunero mahaiazen erdian jarritako ontzi batetik. Gerraostean Arrasateko Elma lantegitik ekarritako eskuzko errota batekin ehotzen zuten garia. Zahi eta guzti egiten zuten ogia. Gaztaina denboran gaztaina eta esnea izaten zen afaria.

433. Gaztaina elikagai garrantzitsua (ELG-060/021)

Gaztaina oskolean batu eta gurdian ekartzen zuten etxera. Bere sasoian, gaztaina oinarritzko elikagaia zen. Igandetan, amak Bergaratik ekartzen zuen ogia jatea zen festarik handiena.

434. Plazan erromeriak eta borrokak (ELG-060/022)

Txanbolinekoek jartzen zuten gramola plazako dantzarako. Soinu-jotzailea ere etortzen zen batzuetan. Borroka asko egoten omen ziren. Uberako auzotar batzuk oso borrokalaria ei ziren.

435. Borroka asko Elgetan (ELG-060/023)

Herrikoek edo kanpotarrek parte hartzen zuten borroka asko egoten omen ziren Lazaroren gaztaroan. Mutikotan, baserritarrek kaletarren kontra harrika egiten zuten. Gerraren ondorioa izango zela dio Lazarok.

436. Barkillo saltzailea; nobio kontuak (ELG-060/024)

Dantzan eta kantuan ere egiten zuten, ez bakarrik borrokan. Barkillo potea bizkarrean hartuta etortzen zen "Farindondin" barkillo saltzailea. Barkilloak nola erosten zituzten azaltzen du. Inguruko herrietako erromerietara autobusez joaten ziren. Neska-laguna aurkitzeko bidea neska-laguntzea izaten zen.

437. Mojak onak ziren (ELG-061/005)

Gerra ostean mojak joan egin ziren eta gero herriko eskolan ibili zen. Mojetan, goizean eskola eta arratsaldean eskulanak (josten). Eskolan ikasten zutena kontatzen du. Onak ei ziren mojak.

438. Izeba Eibarrera esne saltzera tribulian (ELG-061/007)

Sei behi, idiak eta txahalak izaten zituzten Larrabilen. Eibarrera joaten zen izeba esnea saltzera "tribulixakin", zaldi-karroarekin. Tribulia nolakoa zen. Gauza handia zen orduan. Herria zegoen bakarra, seguruenik.

439. Leonen autobusean esneak (ELG-061/009)

Bezeroak hartuta zituzten Eibarren. Gero Leon hasi zen autobusarekin eta orduan hari ateratzen zizkieten esneak. Bezeroak etortzen zitzaizkion esne bila Eibarren.

440. Eskapada galanta Intxortatik botatako tiroekin (ELG-061/011)

Gauetz ere jarduten zuten labrantzan, gerra denboran batez ere. Eskapada handia eginda dago, kalera zihoala Intxortatik tiratu baitzioten. Gerra denboran etxera bidali zuten, Olaikortara, Elgeta arriskutsua zelako. Etxea kanpoko jendez beteta aurkitu zuen.

441. Errazionamendua hartzera Pagatza ondoraino (ELG-061/013)

Irungo familia bat egon zen Olaikortan, ihesi etorrita. Errazionamendua hartzera (ogia bakarrik) Pagatza ondoraino joaten zen Pilar. Etxean babesak hartutakoekin harremana izaten jarraitu izan dute.

442. Ganaduak gobernatzen (ELG-061/015)

Esne gutxi zuten behiei lastoa ematen zitzaaien eta asko zutenei belarrondua. Arbi egosia arto-irinarekin ere ematen zitzaaien neguan. Idiei baba beltza, probarako indarra egiteko.

443. Ahari-topekak Elgetan (ELG-061/016)

Osabak apustu-ahariak ere izaten zituen. 'Matxin' izeneko bat gogoratzen dute ama-seekek. Ahari-topekak izaten ziren Elgetan gerra aurrean zein ostean. Eibarko tabernari bat, 'Agiñazpi' izaten zen bultzatzailea.

444. Albitxuko astoak mandoari irabazi Abadiñon (ELG-061/018)

Behin Abadiñora joan zen etxeko astoaren proba ikustera. Mandoari irabazi zion. Asto oso indartsua zeukaten, eta gainera zailduta zegoen basoan apeak ateratzen.

445. Iratan basoan (ELG-061/019)

Basoan apeatan asko ibilitakoa da Pilar. Iratan ere bai. Urrineko basoetara ere joaten ziren bila. Egunean bi burdikara ekartzen ziren askotan. Jan-kontuak.

446. Ezkondu arte etxe berria zapaldu barik (ELG-061/022)

1947an ezkondu zen. Larrabildik Albitxura. Pilar ez zen etxe berrian sartu ezkondu eta eztei-bidaiait itzuli arte. Amaginarrebak esaten zuen gero ere izango zuela astia bazterrak aztertzeko.

447. Arreoa kamioian Larrabildik Albitxura (ELG-061/024)

Arreoa Erostarberen kamioian ekarri zuen Larrabildik Albitxura. Arreo ona. Gauza asko ekarri zuen, tartean josteko makina.

448. Bulak, konjuruak eta gari batzeak (ELG-061/028)

Bula erosten zen "pekatuak egin ahal izateko", bijilia egunetan haragia jan ahal izateko, gehienbat. Konjurua nola egiten zen. Gero, monagilloak saskian arrautzak eta abar batzen zituen. Udaberrian egiten zen hori. Garia biltzen ere ibiltzen ziren abadeak.

449. Ur eta su bedeinkatua ekaitzaren kontra (ELG-061/029)

Berpizkunde egunean ur eta su bedeinkatua banatzen zuten umeek baserriz baserri. Elizpean egiten zen sua, eta "illua" pizten zen (pago-egur ahula). Ura gorde egiten zen botila batean eta kanpoan botatzen zen ekaitza zenean.

450. Olaikortako aitaitaren erromeriak (ELG-061/031)

Olaikortako aitaitak erromeria antolatzen zuen auzoan. Panderoa jo eta kantatu, martxa handia jartzen zuen gazteen artean.

451. Aitaitak Errioxatik neska ekarri etxera familiari erdaraz erakusteko (ELG-061/033)

Aitonak umeei erdaraz erakusteko Errioxatik neska erdalduna ekarri zuen etxera. Gero itzuli egin zen bere herrira, baina harremana ez dute eten.

452. Izeba oso estua eta gogorra (ELG-061/035)

Larrabilgo izeba oso katolikoa ei zen. Oso estu hartzen zuen Pilar etxera berandu ailegatuz gero. "Zugatik infernura joan behar", esaten zion. Baltsean ibiliz gero apaizak penitentzia handia jartzen zien.

453. Abadeei buruzko gogoetak (ELG-061/037)

Apaizei buruzko gogoetak. Burutik pasatu ere ez zitzaien egiten abadeekin eztabaidatzerik. Abadeak agintezaleak ziren. "Bestiei gorri ipini gauzia", hori bai.

454. Arantzazun gogo-jardunetan (ELG-061/039)

Arantzazura behin joan zen "ejerzizioetara". Sermoiak entzun eta gero isil-isilik egon, horixe zen egiten zuten guztia. Dena zen bekatua, pentsamenduak ere bai.

455. Basoan apeak egiten senarra eta biak (ELG-061/043)

Basoan apeaginan asko egindakoa da. Pilarren ahizpa ibilitakoa da trontzan ere pago botatzen. Berak trontzan gutxi egin du. Urte batean 17 kamioikada atera zituzten senarrak eta biak. Astoaz ateratzen zituzten apeak.

456. Aita hil zioten soldaduek frontetik jaurtitako tiroz (ELG-062/002)

Aita hil zioten gerratean, berak 9 hilabete zeuzkala. Soloan zebilela, Karabietatik tiroa jaurti zioten. Gero, ama berriz ezkondu eta beste lau ume izan zituen.

457. Astoan esnea errepidera ateratzen Eibarrera zihoan autobusera (ELG-062/006)

Astoan ateratzen zituzten esneak errepidera, Jalotzabasua esaten zaion lekura, Leonen autobusera. Eibarrera eramaten zen esnea eta osteranzeko jeneroa, eta han erosten ziren etxean behar ziren gauzak.

458. Eskolara joateko astirik ez (ELG-062/008)

Hamabi urte arte ibili zen eskolan. Eskola aurretik meza entzuten zuten sarri. Sagastitxo baserrira joaten ziren bazkaltzera. Eskola ondoren lana izaten zen baserrian. Anaiak gaueko eskolara joan ziren Uberara, baina bera ez.

459. Josten gusturago eskola ikasten baino (ELG-062/009)

Josten ere ikasten zuten eskolan. Goizetik eskola eta arratsaldean eskuko lanak. Bordatzen oso ondo ikasi zuten. Izarak, mantelak, elizako oihalak eta abar apaintzen zituzten.

460. Mendiak oso garbi zeuden (ELG-062/010)

Lau behi eta idiak zituzten, eta beste abere batzuk ere bai. Idiak lanerako. Ira eta pinu-orria ekartzen zuten azpietarako. Oso ira ona egiten ei zen, mendia oso garbi baitzegoen. Abereek garbitzen zutelako, batetik, eta baserritarrek zaintzen zutelako, bestetik.

461. Iratan basoan (ELG-062/012)

Basora ira ebatera joaten zirenean, aldean eramaten zuten bazkaria. Artoa, piperrak eta arrautzak, sarri. Ogia ere bai gerora, baina gaztetan urri zegoen eta artoz moldatzen ziren. Igitaiaz ebakitzen zuten hasieran, eta segaz gerora. Gurdia kargatzen ere ibilita dago bera. Ira-gurdiaren atzean lera lotzen zen arrastaka ekartzeko.

462. Lastoa Arabatik ekarri behar (ELG-062/014)

Etxeko lastoa eta belar ondua ez zen nahikoa izaten eta Arabatik ekartzen zen lastoa kamioian. Errepidetik etxera gurdian.

463. Satsari ilbeheran buelta eman behar (ELG-062/015)

Mineral pixka bat ere botatzen zitzairen zelaiei baina satsa zen ongarri nagusia. Satsari buelta eman behar izaten zitzaion, ilbeheran, ilberrian emanaz gero kea dariola hasten baitzen.

464. Garia ereiteko lurra prestatzen eta markatzen (ELG-062/017)

"Zopizarrian" egiten zen golda pasatu aurretik: aitzurrez lurrazaleko zaborra garbitu. Gero "azatzak" egiten ziren, markak jartzen ziren soroan ondo erein ahal izateko. Erein, area pasatu eta gertu geratzen zen.

465. Garia jorratzen (ELG-062/018)

Udaberrian, garia apur bat hazten zenean, "jorratu" egiten zen areaz, area astoak tiratuta gehienetan. Gero ongarria botatzen zitzaion, amoniakoa edo, piztu zedin.

466. Olo-landare txarrak gari artetik kentzen (ELG-062/019)

Maiatzean "burura etortzen" ei da garia. Orduan olo txarrak kendu behar izaten ziren; taldean egiten zen, eta "esku-etena" esaten zitzaion kentze lanari. Gero, garia jotzen zenean garbi-garbia irteten zen.

467. Igitaiaz garia ebakitzen elkarri lagunduz. Auzolana (ELG-062/020)

Igitaiaz ebakitzen zuten garia; azken aldera sega-makinak agertu ziren. Etxez etxe ibiltzen ziren gari ebakitzen, elkarri lagunduz. Baserrien izenak aipatzen ditu.

468. Txanketean eta matxakaz gari-jotzen (ELG-062/021)

Garia "txanketian" (harri baten kontra) jotzen zuten bera txikia zenean. Gero "matxakia" agertu zen, makina txiki bat.

469. Auzolanean garia jotzeak (ELG-062/023)

Atarian jotzen zuten. Etxekoek pixkanaka-pixkanaka, txanketean jotzen zutenean. Gero makinak sartu zirenean dena batera jotzen zen. Izara zuria ateratzen zen leihora eta lanera etortzeko seinalea izaten zen.

470. Matxakaz garia jotzen eta haize-errotaz garbitzen (ELG-062/024)

Gari-jotze lanak zerrendatzen ditu. Matxakako lanak eta haren ingurukoak zelakoak ziren. Haize-makina handi batez garbitzen zen garia.

471. Gari-jotzearen ondoren ospakizun afaria (ELG-062/025)

Gari-jotzen parte hartutako denek afaria egiten zuten, afari berezia. Lan gogorra zen gari-jotzea: bero, hautsa... Albergan garbitzen ziren zela-hala eta izara batez lehortzen. Jai-giro zoragarria sortzen zen. Kantuan, dantzan eta bertsotan egiten zuten.

472. Etxearen oinarriak huts egin eta brintzatu (ELG-062/027)

Etxearen oinarriak huts egin eta brintzatu egin zen. Zarata beldurgarriak ateratzen zituen zartiatzen zenean. Sabaian lo egiten egon ziren sei hilabetez.

473. Argindarra Brauliori deituta (ELG-062/031)

Errekalden zegoen argindar-etxea eta errota, biak auzokoak. Ur gutxi egoten zen. Argia gauerako bakarrik ipintzen zen. Braulio zen arduraduna eta hari deitzen zioten argiari emateko. Irratia ere entzuten zuten.

474. Hanka erre zuen beheko sutan (ELG-062/033)

Beheko sutan prestatzen zuten janaria. Benediktak hanka erre zuen behin, treberako lapikoa botata.

475. Aita txabilan haria egiten (ELG-062/034)

Azula baserritik artilea ekarri eta txabilan egiten zuen aita haria. Amak ere bai inoiz goruaz. Galtzerdiak-eta egiten zituzten eskuz, baina jertserik-eta ez. Abarka sokak (trailak) egiten zituen Azulako osabak artile beltzez. Emakumeen galtzerdiak hari finagoz egiten ziren.

476. Abarkekin erromeriara (ELG-062/035)

Orduan abarkekin joaten ziren askotan erromeriara. Mantuneko taberna-dendan aldatzen zituzten oinetakoak gehienetan. Bertan egiten zituzten erosketak gehienak ere.

477. Elgetan beraneante asko (ELG-062/036)

Elgetako tabernak eta dendak. Martintxonean boda asko egiten zen. Eibartik eta Bilbotik beraneante asko etortzen zen Elgetara, osasun arazoengatik, gehienbat.

478. Eguarbitzako Atxera txirikilan egitera (ELG-062/038)

Neska eta mutil elkartzen ziren jolaserako. Garizuman Eguarbitzako Atxera joaten ziren txirikilan egitera. Garizuma amaieran merienda egiten zuten txirikilan ibilitakoak.

479. Elgeta aldean erromeria asko (ELG-062/039)

Auzoko neska-mutil guztiak batera itzultzen ziren erromeriatik. Benedikta ezkondu zen urtean amaitu zen Elgetako plazako erromeria.

480. Guardia zibilek isuna astoa libre eramateagatik (ELG-062/040)

Behin etxetik Elgetara zihoala guardia zibilek isuna bota zioten astoa sokatik ez eramateagatik. "Morika" oso asto formala ei zen. Udaletxean ordaindu zuen isuna. Ez du gogoratzen zenbat. Gaur beste jakin izan balu ez zuen isuna sinatuko.

481. Erromerietatik edozein garraiobidetan (ELG-063/001)

Erromerietatik trenez, kamioiz edota oinez ere bueltatzen ziren etxera. Orga bati atzetik helduta ere ibilitakoak dira. Elgetara iritsi eta beste ordubeteko bidea zuen Felisak etxera ailegatzeko.

482. Eskolako bazkaria Kipulakoarenean (ELG-063/002)

Eskolara bidean, zapi baten bildutako bazkaria esekita uzten zuen Kipulakoa izeneko etxean, bazkal orduan jatera etortzeko. Baserriko umeak gogorrangoak omen ziren kalekoak baino. Oraingo gazteek ez dute sinesten lehengoek kontaktzen dizkieten eskola kontuak.

483. Arropa garbitzea, lixiba (ELG-063/003)

Arropak nola garbitzen zituzten azaltzen dute. Enkarnak etxean eskuz, "Bolas maravillosas" lixibarekin egiten zuen. Felisak, ordea, sutako hautsarekin arropa sukaldean garbitu eta gero kanpoan zegoen harraskan astintzen zuten. Lagun biren artean bihurtzen zituzten arropak, alanbrean eseki aurretik.

484. Harraskara edo erreka arropa garbitzera (ELG-063/004)

Arropak astean behin aldatzen ziren orduan. Arropak baldean hartu eta buruaren gainean jarrita joaten ziren harraskara, nork harririk onena harrapatuko. Harraska bi zeuden Elgetan. Enkarnak etxean astintzen zuen arropa, baina ura gutxitzen zenean, erreka joan behar izaten zuen.

485. Artilearen erabilerak (ELG-063/005)

Lastairak (koltxoiak) egiteko artilea errekan garbitzen zuen Felisak. Artilea galtzerdiak eta txalekoak egiteko ere erabiltzen zuten. Ardi beltzen artilea abarkentzako sokak egiteko izaten zen. Felisaren aitak abarkak egiten zituen larruarekin, baina oso labainkorak zirela dio.

486. Gazte denborako bizimodua (ELG-063/006)

Euren gaztetako bizimoduarekin ez dira kexu. Igandetan bapo bazkaltzen zuten. Beti izan zuten zer jan. Oraindik ere taloak, artoa eta morokila jaten dituzte.

487. Aita bonbardaketan galdu zuten (ELG-063/008)

Rufina eta Arantxaren aitajaunak ehunezko izarak egiten zituen. Frontea Elgetara etorri zenean, baserri batera joan ziren ahizpak. Aita bonbardaketan hil zen. Gerran jendea zein alderditan zegoen, edo alderdiz aldatzen bazen, kontuan hartzen zuten.

488. Gerrako kontu gordinak (ELG-063/009)

Elgetan fusilatu zituzten batzuen istorioak kontaktzen dituzte. Elgetan nazionalak soldadu mairuak "libre" uzten zituzten batzuetan. Emakumeek gorde egin behar izaten zuten orduan. Mairuetako bat fusilatu egin zuten.

489. Gorriak, abertzaleak eta CNTkoak elkarrekin (ELG-063/010)

Milizianoak Elgetan eta Elorrion. Zazpi hilabetez egon zen frontea Elgetan. Abertzaleek, gorriek eta CNTkoek elkarrekin borrokatu zuten. Felisaren amak talo asko egin zituen milizianoentzat. Errazionamendua nola jasotzen zuten azaltzen du Arantxak.

490. Rufina eta Arantxaren anaia okina (ELG-063/011)

Errazionamendu garaian, estraperloko olio Eibarren erosten zuten. Rufinak azaltzen du euren okindegian zelako ogi txarra egiten zuten. Okinak ihes egin zuenean, Rufinaren anaia jarraitu zuen okindegian.

491. Lagun bat balaz zauritua (ELG-063/013)

Iruñean, Bergaran eta Oñatin egon zen Monika gerra denboran, nazionalekin. Elgetan geratu zirenak, berriz, gorriekin. Euren lagun bat balaz nola zauritu zuten kontatzen dute.

492. Elorriotik sartu ziren nazionalak Elgetara (ELG-063/014)

Miliziano asko hilda erori ziren Elgetako zelaietan. Elorrio hartu ezean, nazionalak ez zirela Elgetan sartuko dio Arantxak. Monikak eta lagun batek zauritu asko artatu zituzten gerran.

493. Tupea orrazkeran (ELG-063/015)

Elgetan hildako batzuen gorpuak ez ziren identifikatu. Monika (88) eta Arantxa (89) elkarrekin ibili ziren eskolan. Felisaren baserrian, jende asko egon zen babestuta. Haietako neskazahar bik tupea zeramaten ilean. Garai hartako orrazkeran, tupea erabiltzea arrunta omen zen.

494. Abadeak meza baserrian ematen zuen (ELG-063/016)

Neskazahar bik arrautza bat erdibana jaten omen zuten. Abadea erreztatzen hasten zenean, eibartar bat irten egiten zen gelatik. Baserritik Elgetara meza ematera joaten nekatu zenean, meza baserrian bertan ematen hasi zen abade hori.

495. Nobiotako kontuak (ELG-063/018)

Rufinaren nobioa Antzuolatik bost urtez etorri zen berarengana, bizikletaz eta oinez. Felisaren nobioak hiru bat ordu behar izaten zituen neska-lagunari etxera laguntzen zion bakoitzean.

496. Oinetakoak apurtu arte dantzan (ELG-063/019)

Erromerietan oinetakoak apurtu arte egiten zuten dantza. Kosta egiten zitzaien erromeria bukatu aurretik etxera joatea. Gaztetan ondo bizi izan zirela diote, zutenarekin konforme.

497. Baserrian hartutakoa udaletxean utzi behar (ELG-063/020)

Gerraostean txerria hiltzen zutenean, urdai zati bat udaletxean doan utzi behar izaten zuten. Etxean hartzen zen gari, patata eta babarrunen zati bat ere udaletxera eraman behar zen orduan.

498. Udala baserritarrei ganaduak kentzen (ELG-063/021)

Monikaren baserritik behi bat kendu zieten Udalekoak. Behi hori bere kasa itzuli zen etxeko ukuilura, eta berriz eman behar izan zuten. Etxebizitza biko baserri batean, errenteroari ardiak kendu zioten, maiorazkoari emateko.

499. Bati konfiskatu eta besteari oparitu (ELG-063/022)

Gerraostean, bando galtzaileko baserritarrei kendutako ganaduak kanposantu ostean bildu zituzten, irabazleen artean banatzeko. Zaldi gainean ibili zen elgetar bat ganadua konfiskatzen.

500. Konfiskatutako ganaduak (ELG-063/024)

Denek ez zuten gauza bera egin, baina gerraostean elgetar batzuek, besteen ganaduak jaso zituztenean, ugazaberi itzuli zizkieten. Monikaren etxetik ere eraman zituzten ganadu batzuk.

501. Eskolako kontuak (ELG-063/026)

Gerraostean Monika eta Arantxa ez ziren ibili eskolan, baina besteak bai. Mojak etorri zirenean, banderarekin eman zieten ongietorria. Manuela irakaslea gogoratzen dute. Monika eta Arantxa ez ziren iritsi hiruko erregela ikastera; zatiketetan geratu ziren.

502. Euroak eta pezetak (ELG-063/027)

Gaur egun oraindik euroak kontatzen nahastu egiten omen dira asko.

503. Bi etxeren karobia (ELG-068/002)

Karobiaren kokapena. Bi etxeren artean egiten zuten karea erdi-bana. Aitzurrez egin zuten karobia.

504. Arkudun sarrera (ELG-068/003)

Karobiak behean arkudun sarrera du, egurra sartu eta karea ateratzeko. Iturri baserriko Modesto zaharra ekarri zuten arkua egitera.

505. Karobia gau eta egun sutan (ELG-068/004)

Karobia harriz bete, sua egin eta gau eta egun mantendu behar zen sua, egurra sartuz. 8-10 egun egoten zen erretzen. San Juanetan egiten zuten karobia, martxoan hasita harria ekartzen.

506. Harri asko, karobia betetzeko (ELG-068/005)

Laztabinarekin zuloa egin, dinamita sartu eta lortzen zuten harria. 20-30 kilorainoko harri pusketak sartzen ziren karobian. Zurezko kutxadun gurdietan ekartzen zuten harria.

507. Kareharritik dator karea (ELG-068/006)

Lehenagoko karobietan egurra aurretik eta harria gainera, goitik botatzen zen. Kareharria (karehaitza) erretzen da karobietan. Karea palarekin atera otzaretara, eta gero gurdian banatzen zuten bi etxetara.

508. Lurra ontzeko erabiltzen zuten karea (ELG-068/007)

Etxe inguruan pilatzen zuten karea, gero lurrari nahasteko. Lerarekin banatzen zuten karea soroetan, gero burdin arearekin lantzeko. Harria erretzen arindu egiten da.

509. Karobi ondoan bero galanta (ELG-068/008)

Bergarako Ondartzatik ekartzen zuten dinamita. Karobira egurra errelebotan sartzen zuten, bero handia egoten zelako sarreran. Egurra urrunetik bultza eginda sartzen zen. Erre ahala bultza eginez. Pagoarena zen onena; pinua ordea, berehala erretzen zen.

510. Karobia bukatzea ospatzen zuten (ELG-068/009)

Sua kanpoan prestatu eta barrura sartzen zuten. Etxe bakoitzetik bi lagun ibiltzen ziren karobia zaintzen. Karobiko harriaren gainean su garra agertzen zenean, harri guztia erreta zegoen seinale zen. Ospakizuntxo batek jarraitzen zion horri.

511. Lurrarentzako onuragarria (ELG-068/010)

Etxe bakoitzeko lagun bat egun osoan egoten zen. Jatera txandaka joaten ziren. Kareak lurra ondu eta samurtuaz gain, landareen gaixotasun batzuk saihesten laguntzen zuen.

512. Etxeak zuritzeko erabiltzen zen karea (ELG-068/011)

Etxeak zuritzeko kare-esnea egiten zuten igeltseroek. Karea, euri handirik ez denean, kanpoan estali gabe gorde daiteke. Kareak eztula eta doministikua eragiten dituen arren, ez omen da kaltegarria osasunarentzako.

513. Ojangurenkoa, azken karobia Elgetan (ELG-068/012)

1943. urtean egin zuten karobia Ojangurenen, harrezkero ez du beste inork egin karerik Elgetan. Gerra aurretik kare asko egiten zen herrian. Karobita izenez ezagutzen den parajea ere bada.

514. "Fuego" deiadar egin behar abisatzeko (ELG-068/013)

Kareharri bila nora joaten ziren azaltzen digu. Dinamita erabiltzeko ez zen aparteko arazorik izaten. Baina lehertzeren aurretik "fuego" deiadarka esatera behartuta zeuden.

515. Karearen erabilera soroetan (ELG-068/014)

Garia kendu eta karea zabaltzen zen; burdin arearekin nahastu; lurrari karea hartzen utzi eta gero arbia sartzen zen. Garia eta artoa urtero txandatzen ziren soroetan. Karobiaren lan handiagatik eta baserrietan jendea gutxitzeak, karobien desagertzea ekarri zuen.

516. Gaztaina-egurra (ELG-069/013)

Gaztaina-egurra. Urria-azaroa bitartean botatako gaztaina, hori da onena eta gogorrena. Orria jaustean botatakoa. Inguruan ez dago baina gaztainarik. Zumitza ateratzeko zer egin behar izaten den.

517. Gorostiaren ezaugarriak (ELG-069/014)

Gorostia. Erreminta kertenak egiteko egur gogorra.

518. Lizarraren erabilera (ELG-069/015)

Lizarra erreminta kirtanak egiteko oso egur ona. Ezpela.

519. Zuhaitzak botatzeko garairik onena (ELG-069/016)

Urritza botatzeko, iraila da sasoirik onena; pagoa botatzeko baita ere. Orri borobilak dituzte biak eta diotenez botatzeko sasoi egokiena iraila da; egurra argiagoa irteten omen da.

520. Zuhaitz mota desbedinak (ELG-069/017)

Azkarra. Urritza; hau ere irailean botatakoa da onena.

521. Zuhaitza bota eta gero hurrengo urratsak (ELG-069/018)

Zuhaitza behin botaz gero, hurrengo urratsak zeintzuk izan behar dira. Lehenengo, egur klasearen arabera bertan lagatzekoa den ala berehala moztekoa den ikusi behar. Normalean, hilabete baino gehiago lagaz gero, egurrak bere izatea galtzen du. Pinua esaterako, belztu egiten da.

522. Ilargiaren eragina zuhaitza mozteko orduan (ELG-069/019)

Erretxina. Zuhaitzek duten ura. Pagoa, urtarril inguruan egoten da astunen. Ilbetea denean, ura gora doala diote, eta ilbeherarekin, behera jaisten zaiela. Sutarako egurra, ilbeheran bota behar da (bestela ke ugari sortzen du).

523. Ilargiaren eragina egurraren kalitatean (ELG-069/021)

Ilargiaren eragina egurraren kalitatean. Zuhaitza sasoi egokian botatzearen garrantzia.

524. Zuhaitzaren atal desberdinak (ELG-069/022)

Zuhaitzaren atalak: azala; bihotza; gizona. Bihotz aldea, pitzakorrakoa izaten da, errazago zartatzen da. Pinua, 30-40 urte bitartean bota behar da; bestela gazteegia da eta azal asko izaten du. Etxegintzarako, gizona kentzea komeni izaten da; giharra erabiltzea hobe.

525. Zuhaitza sasoi egokian botatzearen garrantzia (ELG-069/025)

Zuhaitza sasoi egokian botatzearen garrantzia. Erretxina.

526. Zuhaitza botatzeko orduan kontutan izan beharrekoak (ELG-069/026)

"Trongua", enborra formala den ala ez nola jakiten da: okerra bada, okerrean ebakitzea hobe.

527. Zuhaitza mozteko orduan kontutan izan behar direnak (ELG-069/027)

Zuhaitza mozteko orduan kontutan izan behar direnak.

528. Zuhaitzak mozteko erabiltzen diren tresnak (ELG-069/028)

Zuhaitzak mozteko erabiltzen diren tresnak: "arpona", "trontza". Aizkorarekin ebakia ematen zaio, nora jaustea nahi den kontutan izanda.

529. Pinua botatzerakoan zaindu beharrekoak (ELG-069/029)

Zuhaitzak botatakoan, adarrak moztu egiten dira. Pinu klase bati, azaroko ilbeheran bota eta adarrak 8 hilabetean utzi behar zaizkio.

530. Egurra bringatzea (ELG-069/030)

Egurra bringatzea (brintzatzea).

531. Egurren neurriak (ELG-069/031)

Egurren neurriak.

532. Egurren neurriak (ELG-069/032)

Egurren neurriak. Eskuko arra; oina.

533. Egurren inguruko azalpenak (ELG-069/034)

Neurriak. Alperrik galtzen den egurrari, "azaleko kostaneria" esaten diote. Dena dela, zerratokietan guztia aprobetxatzen dute.

534. Pagoaren atal desberdinak (ELG-069/035)

Pago-burua; pago-gerria; pago-zuztarrak eta pago-ipurdia.

535. Pago-burua (ELG-069/036)

Pago-buruari enborra esaten zioten: sutarako; ikazkintzan.

536. Zerratokian zaindu behar dena (ELG-069/038)

Zerratokian zer zaindu behar den.

537. Zurgintza; tresnak (ELG-069/039)

Zorroztu gabeko segari, "zerra motza".

538. Zurgintza; tresnak (ELG-069/040)

Arpona zelakoa den; nola erabiltzen zen.

539. Zurgintzan erabiltzen ez den egurra (ELG-069/041)

Alferrik galtzen den egurra: "kostaneria"; zerrautsa.

540. Etxearen atalak (ELG-070/009)

Etxegintza. Etxearen atalak goitik behera: Tontorrean, "gailur-hagia" edo "goi-hagia". "Sopandak" beherago. "Zutikua" eta "postia". "Zapatia" horma gainean jartzen da. Goi-hagatik behera "kapirixua". Gaineakoa, "latia". "Besuak". "Zutikua", "zapata"ren gainean doa. Besoak, zutikora doaz. "Koxkia".

541. Etxearen atalak (ELG-070/014)

Etxearen atalak: zutikoak.

542. Etxearen atalak (ELG-070/015)

Etxearen atalak. Bigarren pisuan aurkitu daitekeena: frontala; frontalaren gainean, kuartoia. Zutinik ipintzea.

543. Etxegintza (ELG-070/017)

Etxegintza: "kapirixua"; "kuartoiak".

544. Egurra nola josi (ELG-070/018)

Egurra nola josten zuten. "Latrua"; "birbikixa". Egurrezko ziriarekin josten zen. Giltzak; Otxandioko giltzak. "Puntapaixa". "Urkillak".

545. Egurra nola josi (ELG-070/019)

Egurra nola josi. "Txarrantxia".

546. Etxearen atalak (ELG-070/021)

Etxearen atalak. Lurra, "kuartoiak" gainean doa.

547. Etxearen atalak (ELG-070/022)

Etxearen atalak.

548. Etxearen atalak (ELG-070/024)

Zutikoaren gainean txapela; eta txapelaren gainean frontala doa.

549. Etxegintza: teilatua (ELG-070/025)

Teilatua amaitzen denean, elautza ipintzen zaio eta teilatu-afaria egiten da ("montxorra" ere esaten zaio afari honi).

550. Etxearen atalak: atea (ELG-070/026)

Atea bi zatitan banatuta egoten da. Atea ixteko tranga (horma-zuloan egoten da). Tranga, haritzarekin egina dago. Txingeta.

551. Etxearen atalak: atea (ELG-070/027)

"Bandixua"k, bi tranga izaten ditu. Kanpoko ateak markoan harri txiki bat izaten du, "poiala". Iparraldean, tratantea baserrira doanean bere kontzientzia poialean uzten duela esaten da.

552. Etxearen atalak (ELG-070/028)

Ganaduen askak. Ganadu-tapak ("lehixuak"). Maratila (leihoak ixteko egurrezko piezatxoak). Txingeta ("krisketia" izena ere ezagutzen du).

553. Eskaileren atal desberdinak (ELG-070/029)

Eskaileren atal desberdinak. Mailak, gradak.

554. Eskaileren atal desberdinak (ELG-070/030)

Eskaileren atal desberdinak. "Eskillara-burua". "Eskillara-barrena" (beheko aldea, goitik begiratuta). "Karrajua".

555. Etxegintzaren inguruko lexikoa (ELG-071/001)

Etxegintza. Lurra berdinduta egon behar da. Josten hasi orduko berdinduta dagoela ikusi behar da. "Kuartoiak", "rastrela". "Espantia" ("upateixa" ere esaten diote), sukaldea baino beherago lurraren kontra. "Espantia"n, simaurra, egurra, sagardoa, e.a. egoten zen antzina.

556. Lurra nola josi (ELG-071/002)

Etxegintza: lurra nola josi.

557. Abereen alberga (ELG-071/003)

Alberga, aska.

558. Baserriaren egitura (ELG-071/004)

Baserriaren ateak egurrezko edo harritzko ateburua izaten du.

559. Baserriaren teilatua (ELG-071/005)

Baserriaren teilatua. "Kapirixuaren" gainean, "latia". Ondoren teilak jartzen dira.

560. Baserriaren teilatua (ELG-071/006)

Baserriaren teilatua. Gailurrean, teila handi bat ipintzen da, gailurreko teila. Etxeak kapel handia izatea.

561. Etxearen atal desberdinak (ELG-071/008)

Etxegintza. Etxearen atal desberdinak: "Hodixia" (kanaloia esateko). Bentana-tapak.

562. Hizlariaren jatorria (ELG-071/012)

1916-I-22an jaiotakoa Elgetan, Arraotz baserrian.

563. Ofizioa ikasten (ELG-071/015)

Ofizioa ikasten nola egon zen.

564. Umetatik ardizain (ELG-072/001)

7 urte zituela ipini zituen aita ardiak. 13 urterekin eskola laga eta orduz geroztik ardizain.

565. Ardiek neguan ematen duten zeregina (ELG-072/002)

Ardiak urte-sasoi batzuetan lan gehiago ematen dute, neguan esaterako. Bildotsak jaio, gobernatu, e.a.

566. Bildotsak haztearen inguruko kontuak (ELG-072/003)

Bildotsak. 12 kg inguru dutenean, harategira saltzen dituzte.

567. Artzainaren bizimodua (ELG-072/004)

Bizimodua zelakoa. Goizean goiz bildotsei esnea eman; bildotsak gobernatu. Ondoren ardiei pentsua, alpapa, belar-ondoa ematen die. Eguraldiaren arabera, zelaira eramaten ditu. Iluntzean, azpiak egin, berriz ere belar-ondoa

edo alpapa askan ipini eta hurrengo goizerarte. Esnea jetzi eta gazta ere egiten du.

568. Gaztagintza (ELG-072/005)

Gaztagintza. Urte batetik bestera alde handia; urte batzuk esnerako eskasagoak izaten dira.

569. Gazta nola egin (ELG-072/007)

Prentsan egiten ditu gaztak. 10-12 ordutan prentsan eduki eta ateratakoan gazuretan ipini behar izaten dira. Astean behin gazura aldatu. Prest daudenean, beraien tamaina dutenean, sikatzen ipintzen dira. "Garnaria" esaten zaio gaztak sikatzeko erabiltzen den lekuari. Astebetera gazta ur epelarekin garbitu behar da; orduan hartzen du kolorea.

570. Gazta asko Eibarren saltzen ditu (ELG-072/008)

Gazta gehienak Eibarren saltzen ditu, baina baita inguruko herrietan eta kanpoan ere.

571. Gaztagintza (ELG-072/009)

Gazta eskuz egin ala prentsan egin, aldea dago. Prozesuaren inguruko kontuak.

572. Artzainaren bizimodua (ELG-072/010)

Artzainaren bizimodua.

573. Artzain-txakurrak (ELG-072/011)

Artzain-txakurrak.

574. Udan ardiak larrera (ELG-072/013)

Udan ardiak larrera eramaten ditu, Azkonabietara. Neguan, zazpi hilabete inguruan, zelaia eramaten ditu (azarotik maiatzera arte). Azurtza; Bergaretxe. Belar-ondoa.

575. Ardien jatekoa (ELG-072/014)

Ardien jatekoa: belar-ondoa, baba beltza, oloa, pentsua, artoa. Gastuak.

576. Ardien gaixotasunak (ELG-072/016)

Gaixotasunik txarrenetakoa, "erroibia", errapeetako infekzioa. Hanketako gaitza.

577. Ardiak; ahariak (ELG-072/019)

Ahariak. Aharitzeko denbora. Urtebeteko bildotsak aharitzeko denboran, aparte izaten ditu. Ardi antzuak.

578. Ardi klaseak (ELG-072/022)

Ardi klaseak. Pinu gutxi jaten dituzten ardiak, formalak.

579. Ardien izenak (ELG-072/023)

Ardien izenak.

580. Ardien markak (ELG-072/024)

Ardiei egiten zaizkien markak.

581. Diru-laguntzak (ELG-072/025)

Ardiak edukitzeagatik ematen dituzten laguntzak.

582. Bildotsei buztana noiz moztu (ELG-072/026)

Buztana, jaio eta hilabetera mozten zaie bildotsei.

583. Julian Galarra baserrian jaio (ELG-078/002)

Julian Azkarraga ama eta aitonaren abizenen bila dabil. Galarraga baserrian jaio zen. Julian jaio aurretik, baserria dagoen auzoa Elgeta izatetik Angiozar izatera pasa zen. Elkarrizketa garaian, ordea, Bergarako auzo bat da.

584. Angiozarren banaketa (ELG-078/003)

Angiozar Bergarako auzo izan aurretik Elgetako zati handi bat izan zen. Julianek mugarriak non zeuden azaltzen du. Banaketa Eibarrekin lotzeko bidea egiteko sorturiko eztabaidagatik izan omen zela azaltzen du.

585. Galarraga baserria Angiozar auzoan (ELG-078/004)

Bere jaiotetxea (Galarraga baserria) eta emaztearena (Arrota) non dauden azaltzen du. Hamaika-hamabi baserri ziren inguruan Julian gaztea zenean. Gaur egun batzuk erorita daudela dio.

586. Andresa Iriondoren istorioa (ELG-078/006)

Andresa Iriondo auzokidea Gerra Zibilean nola hil zen kontatzen du Julianek. Umea zela, gutxitan ikusi izan zituen Andresaren seme-alabak, kanpora joan baitziren lanera.

587. Frontea etxe albora (ELG-078/007)

Julianek zortzi-bederatzi urte zituela, frontea nola ezarri zen gogoratzen du. Etxean sartu eta Bilbora zihoazela esaten zuten soldaduek. Etxean ezkutuan zeudela, kanpoan entzuten zituzten laguntza eske. Elorrion ihes joan behar izan zuten eta zazpi hilabete pasa zituzten bertan.

588. Elorrion frontea pasa arte (ELG-078/008)

Frontetik etxera itzuli zirenean, etxea nahiko kaskartuta zegoela oroitzen du Julianek. Elorrion zeudela, baserrira joan eta artoa biltzen jarraitu zuten, negu ona egin zuen-eta. Bildutako artoari esker, taloak egin eta ez zuten goserik pasatzen. Elorrion zeudela, bizimodua ateratzeko aitak lan batzuk egiten zituen batzuetan eta amak galtzak egiten zizkien soldaduei.

589. Bonbetatik ihes (ELG-078/009)

Elorrion bonbardaketak hasi zirenean, Mendraka auzora joan ziren baserri batera. 33 pertsona egon ziren baserri hartan azken hilabetean etxera itzuli aurretik. Bonbak erortzen ere ikusi zituen Julianek.

590. Eibarrera lanera (ELG-078/010)

Hamasei-hamazazpi urte zituela, Eibarrera joan zen lanera Julian. Ofizioa ikasten pasa zituen lehengo urteak Bidebarrieta kalean zegoen lantegi batean, eta Txontan praktikak egiten ibili zen. Ondoren, Alfara joan zen lanera.

591. Milizianoak bizkaitarrak eta asturiarrak (ELG-078/012)

Milizianoak Bizkaia inguruko herrietakoak ziren asko, eta Asturiaseko jendea ere bazegoela esaten zuten. Auzoko gazteak fronteant egon zirela gogoratzen du, Teruelen ere ibili omen ziren.

592. Intxortan balak biltzen (ELG-078/013)

Elorriotik baserrira joaten zenean, bonba zuloak eta hildakoak ikusten zituen bide alboetan. Anaiarekin balak biltzen ibiltzen zen eta ondoren amak traperari saltzen zizkion.

593. Hildakoa lurpean (ELG-078/014)

Julian anaiarekin abereak zaintzen zegoela, korrea bat lurpean ikusi eta, aitzurrarekin atera nahian, hildako bat zela konturatu eta berriro estalita bertan utzi zuten, beldurtuta.

594. Baserrira itzulera (ELG-078/016)

Elorriotik fronteak urrundu eta gero, etxera itzuli ziren, baserrira. Hau, osorik egon arren, oso egoera txarrean zegoen. Zazpi hilabete pasa zituzten kanpoan eta itzultakoan teilatuaren konponketa lanak hasi zituzten.

595. Bonbardaketetan trenen tuneletan (ELG-078/018)

Elorrion bizi izan zen denboran, trenen tunelean ezkutatzen ziren bonbardaketak hasten zirenean. Egun osoa pasatzen zuten bertan. Bonbak botatzeaz gain, Bergaratik kanoikadak ere botatzen zituzten Intxortara, eta asmatzen ez zutenean, kanoikadak Elorrion erortzen zirela gogoratzen du Julianek.

596. Gerraostean bonbek eztanda (ELG-078/019)

Julianen lagun bi gerra ondoren hil ziren, bonba batek eskuetan eztanda egin zien eta. Ume asko ibiltzen ziren saltzeko materialak biltzen, nahiz eta oso arriskutsua izan. Galarraga baserri alboan geratutako bonbak aprobeztatu nahian zebilen traperari bonba batek eztanda egin eta laguntza bila baserrira joan zitzaizela gogoratzen du.

597. Aita Afrikan soldadutzan (ELG-078/020)

Julianen aita Afrikan ibili zen gerran. Melillan egin zuen soldadutza hiru urtez. Gerratik itzuli eta baserrira bueltatu zenean, ez zituen etxeak bertan aurkitu. Idazten eta irakurtzen ez zekienez, ez zuen familia Angiozarrera joana zela jakin. Aitak beltzen eta marokoarren inguruan nola hitz egiten zuen gogoratzen du Julianek.

598. Lau osaba Amerikan (ELG-078/021)

Julianen ama Galarraga baserrikoa zen. Aita bertara ezkondu eta haren lau anai Amerikara joan ziren, Buenos Aires ingurura. Bisitan etorri ziren hiru, baina beraiek ere bisitan egon izan zirela kontatzen du.

599. Alfán egindako lana (ELG-078/022)

Alfán mikrofusioan egiten zuen lan. Zorte handia izan zuela dio. Piezak egiteko argizariarekin moldeak nola egiten ziren azaltzen du. Piezak mekanizatu, limatu eta bertan bukatzen zituzten. Tornua eta fresatzailea erabiltzen zituzten gehienbat.

600. Lanean giro ona (ELG-078/024)

Goizean zortzietan sartzen zen lanera Alfán. Lehenago joan eta bertan hitz egiten egoten ziren ordua iristeko zain. Hamabiak arte lan egin eta arratsaldean ordu bata eta erdietatik seiak edo sei eta erdiak arte egoten ziren. Lankideen artean harreman ona izaten zutela kontatzen du Julianek.

601. Lanean 62 urte bete arte (ELG-078/027)

Lanean giro ona izaten zuten. Arazorik ez zuela izan dio; afariak ere egiten zituzten langileen artean. Lana jaisten hasi eta 62 urterekin jubilatu zuten Julian. Lantegiko lana gogorra dela dio eta ikusmena ere galtzen hasitakoan lana ez zela erraza.

602. Mikrofusioan pieza txikiekin lanean (ELG-078/028)

Pieza txikiak lantzen zituen Julianek, dezimotan neurtzen zituzten hauek. Lan garbia eta ona izan arren, ikusmenerako txarra zela dio. Egunean "kokila"ren arabera pieza gehiago edo gutxiago egiten zituzten. Lana nola egiten zuen azaltzen du.

603. Pieza handietatik txikietara (ELG-078/029)

Alfán sartu aurretik trokelak eta pieza handiagoeekin ibiltzen zen. Alfán sartu zenean pieza txikiekin hastea kostatu zitzaion.

604. Piezak edozertarako (ELG-078/031)

Eskopetentzat, josteko makinentzat eta beste gauza askorentzat egiten zituzten piezak Alfako Mikrofusioan. Santanderren beste Mikrofusio bat sortu eta merkeagoak zirelako-edo Alfari lan asko kendu ziola dio Julianek.

605. Alfán berrikuntza gutxi (ELG-078/032)

Alfán sartu zenetik makinak modernizatzeko dirurik ez zuten erabiltzen. Julianek entzun izan du Alfa horregatik galdu zela. Armeria eskolako ikasleek lan egiteko makina berri bat jarri zuten, elektrodoekin funtzionatzen zuena.

606. Txontako tailerrak (ELG-078/034)

Txontan zeuden tailerretan zer egiten zen azaltzen du Julianek. Enpresa garrantzitsuak pasa ziren bertatik, Solac adibidez.

607. Tailerreko gorabeherak (ELG-078/035)

Otxandiano-Etxeberria tailerrean mekanikan trokelak egiten lan egiten zuen. Tailerrean gertaturiko gorabeherak kontatzen ditu Julianek.

608. Tailerrak edonon (ELG-078/036)

Eibarren tailer txiki ugari egoten ziren. Edonon egiten zuten lan. Julian askotan joan izan zen Alfatik irten ondoren pezeta batzuk irabaztera. Lantegiko kide batzuk beraien kabuz ere saiatsu ziren tailer txiki bat sortzen, baina lan gehiegi zela kontatzen du Julianek.

609. Alfara izen handia zuelako (ELG-078/037)

Alfako langileek fama handia zutelako joan zen Otxandianotik Alfara lanera. Nagusiak egindako errieta gogoratzen du Julianek.

610. Soldaten gora-beherak (ELG-078/038)

Tailer berrira lanera joan eta lehenengo egunak nolakoak izan ziren azaltzen du. Soldata Alfakoa baino askoz handiagoa zen eta diru horrekin apopilo nola bizi zen kontatzen du.

611. Emagina etxean apopilo (ELG-078/039)

1956an ezkondu eta etxea amaitu arte zain egon ziren bertan bizi ahal izateko. Amaetxea ("maternidadia") bertan zuten, etxe azpian. Emagina etxean izan zuten apopilo; Leondik etorria zen eta etxe azpiko amaetxean lan egiten zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com